


EUSKAL HERRIKO ERDI AROAREN HISTORIARAKO DOKUMENTU IDATZI ETA GRAFIKOEN IRUZKIN~EREDUAK

AMANDA RUIZ FERNÁNDEZ

JAIONE AGIRRE GARCÍA

Udako Euskal Unibertsitatea

Euskal Herriko Erdi Aroaren Historiarako dokumentu idatzi eta grafikoen iruzkin-ereduak

Amanda Ruiz Fernández
Jaione Agirre García

Udako **Euskal Unibertsitatea**
Bilbo, 2006



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

«Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailaren laguntzaz argitaratu da»

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Amanda Ruiz Fernández eta Jaione Agirre García

ISBN: 84-8438-080-7
Lege-gordailua: BI-1515-06

Inprimategia: RGM, Bilbo
Azalaren diseinua: Iñigo Ordozgoiti
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org
www.ueu.org

Zabaltzen: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

«Testu historiko baten iruzkina egitea, azkenean, iragandako garai bat ulertzea da testuak berak eskaintzen dizkigun edo ulertarazten dizkigun elementuetatik abiatuta.
Horregatik, garrantzitsuena da proposatutako dokumentu edo testuaren testuinguruaren barruan sartzea».[1]

Lara Peinado, F. eta Abilio Rabanal, M. (1981): *Comentario de textos históricos. Método, selección y ejemplos prácticos*, Dilagro, Zaragoza, 13. or.

«IRAKASLEAK "zalantzarik?" galdetzen duenean, ikasleak badaki beretzat gorde behar dituela benetako zalantzak».
Igerabide, J. K. (2004): *Egia Hezur*, Alberdania, Irun, 19. or.

1. Lan honen egileek itzulita. Jatorrizko hizkuntzan: "Comentar un texto histórico es, en definitiva, comprender una época pasada a partir de los elementos que el propio texto nos pueda ofrecer o hacernos intuir. De ahí que lo más importante es saber situarse dentro del propio contexto del documento o texto propuesto".

Aurkibidea

HITZAURREA 9

1. IRUZKINAK EGITEKO ERABILITAKO ESKEMA-EREDUAK. 11

2. DOKUMENTUAK ETA HAIEN IRUZKINAK 17
   2.1. Orreaga historia eta istorioaren arteko zubia. *Egia*ren interpretazioaren bila. 17
   2.2. Tobillasko San Erroman elizak Erdi Aroan izandako aldaketak. . . . 30
   2.3. Argiñetako sarkofagoaren inskripzioa 52
   2.4. Monasteriobarria: egiazkoa ala gezurrezko emanaldi prefeudala ala feudala? 67
   2.5. Donemiliaga Kukullako monasterioaren “boto faltsuak” 81
   2.6. Hiribilduen sorrera Euskal Herrian: foruen familiak mapa batean . . 93
   2.7. Segurako hiri-gutunaren berrespena edo bigarren ematea 132
   2.8. Arriagako Kofradiaren autodisoluzioa: Nobleziaren jarrera krisiaren aurrean 149
   2.9. Krisialdi demografikoa Lizarrako merindadean XIV. mendean. . . . 178
   2.10. Bidasoa: bi jurisdikzio aurrez aurre, XV. mendean. 186
   2.11. Bandoen indarraren galerarako bidea Bizkaian: Chinchillaren kapitulu-bilduma (1483) 198

Hitzaurrea

Lan honen asmoa iruzkinak euskaraz egiteko eredu xume batzuk eskaintzea da, guztiz exhaustiboak izan gabe eta ahalik eta ikuspegi zabalena erabiliz.

Baina, lanari ekiteko prest ginenean bertan, konturatu ginen gure helburua betetzeko, hau da, iruzkin historikoak egiteko, nahiko lan izango genuela aurretik[2]. Are gehiago, beste ikasle, irakasle eta historialarientzat eredugarri edota erabilgarri izan nahi baldin bazuten.

Hori gertatzen da, Euskal Herriaren historian, orokorki, eta zer esanik ez euskaraz, ia landu gabe dauden gaien aniztasunak sarri norabidea bilatzeko lana (zer esanik ez noranzkoa aurkitzekoa) zaildu egin digulako. Horrek biziki kezkatu gintuen, eta, beraz, gai hauen inguruan iruzkinak egiteko ikasketa-lan handia egin behar izan dugu (ikerketa dokumentala ez bada inoiz ere, dudarik gabe lanketa historiko bibliografikoa bai), askotan geure arlotik urruntzen baitzen lana.

Ez da historiografian ez den ideia berririk bilatu behar lan honetan, baina gai bakoitzari buruz egindakoa biltzeko saiakera egon da egon iruzkinak egiteko. Jakina, beti egongo da beste begi batzuek ikusi ahal izango duten zehaztasunik eta, Erdi Aroko egileek ohi zuten moduan, gure lanaren apaltasuna azpimarratu behar dugu, etorkizunean dudarik gabe hobetu beharko dena.

Alta, hasierako iruzkin-ereduek, beren hasierako helburua betetzeaz gain, gai horien informazio bibliografiko gutxieneko bat ematea ere espero dugu. Gure lana betetzeko, hau da, iruzkin-ereduak egiteko, gaien inguruko informazioa bildu behar izan dugu. Informazio hori guztia ez da beharrezkoa iruzkin ereduetarako baizik eta gaia bera ulertzeko. Hala ere, kasu askotan bertan utzi dugu gaiaren sintesi txiki bat bezala.

Horrela, dokumentu grafiko edo idatzi bakoitzak eman dezakeen ahalik eta informazio gehiena ateratzen saiatu gara adibide batzuetan. Eta gehitu dizkiogu testuinguru zabal bat, kritikatu litezkeen parteak eta konparaziorako elementuak, ahal zen neurrian betiere. Azkenik, iruzkina egiteko erabili den bibliografia gehitu zaie kasu guztietan.

---

2. Azkue bera hiztegigintzan aritzeaz ez bazen pozik, zer esango ote dugu guk askoz apalagoak izanik gure jakintzan!

Beste lan batzuetan iruzkina egin dugu zehazki soilik, testuingurua eta sarrera zein lan osagarriak egin gabe, baina nola eta noiz egin behar diren adieraziz.

Horrek, dokumentuen izaera eta luzera oso desberdinak izateaz batera[3], iruzkinen orrialde kopurua eta sakonera oso aldagarria eta desorekatua izatea ekarri du batetik bestera. Halere, espero dugu irakurleak ulertuko duela arrazoia.

Eredua bera ere aldagarria da, baina hautatutako eskemak agertzen dira lanaren hasieran. Halere, hemen erabilitako oinarrizko eskema testuaren eredura eta lortu nahi den xedera molda daiteke, haren betekizuna, gaia menderatuz, ahalik eta azalpen argiena ematea den heinean.

Ez dugu hitzaurre hau bukatu nahi eskerrak eman gabe lan hau egiten lagundu digutenei. Lehenbizi eta behin UEUri lan hau egiteko eman ziguten *2003ko Unibertsitateko Ikasmaterialaren Sorkuntza Sustatzeko Poltsa*rengatik. Hori dela eta, eskerrak eman nahi dizkiegu bereziki Gidor Bilbaori Poltsaren arduradun gisa izan duen bere pazientzia handiarengatik, atzerapenak atzerapen gugan eta gure lanean sinetsi duelako beti; Nekane Intxaurtza eta Karmele Artetxeri lan honen ardura ere bazutelako, eta UEUko beste langile guztiei. Horrez gain, materialak aurkitzen eskaini digun laguntza eskergagatik eta gure lanaren gorabeherak jasan behar izan dituelako Jon Andoni Fernandez de Larrea jaunari; bere gomendioengatik eta laguntzagatik Ernesto Pastor-i (berak ere jasan baitu gure lanaren eragina) eta Juan José Larreari bere ohar zehatz eta zorrotzengatik, hirurak Erdi Aroaren Historian espezialistak; eta, azkenik, David Martínez Izquierdo arkeologoari informazioa aurkitzen emandako laguntzagatik eta bere adiskidetasunagatik. Eta orotara gure inguruko guztiei gure tristura eta zama arintzen lagundu digutelako eta gurekin galdu duten denborarengatik: Hala Bedi irratiko "Zaharrak Berri" programako Hugo Cano, Iñaki Ciarsolo eta Unai Gartzia lagunei, Etor Telleriari, Oier Imazi eta Jose Mª Aguirre-ri eta izendatu gabe doazen gure hainbat laguni. Guztiei dedikatu nahi diegu gure lan hau. Jakina, azpimarratu nahi dugu, lan honetan aurki ditzakezuen gauza onetan aurrekoen laguntza izan badugu ere, dauden AKATS GUZTIAK GEUREAK direla inolako dudarik gabe.

Bukatzeko, esan, gure lan hau beste hobe batzuk zirikatzeko hasiera izatea espero dugula eta, hutsuneak hutsune, lanerako tresna edonola ere.

3. Oso desberdinak dira ere dokumentuen transkripzioak. Normalean jasotako iturrian zetozen moduan jarri ditugu, geure irizpide paleografikoak eta bateratzaileak aplikatu gabe, ez ditugulako dokumentu originalak ikusi horretarako.

1. Iruzkinak egiteko erabilitako eskema-ereduak

Iruzkin bat egiteko modu asko daude, eta egile bakoitzak berea eskaintzen du. Lan honetan jaso ditugun eskema orokorrak eta jarraitzen saiatu garenak, kasu gehienetan, hemen agertzea egoki dela iruditu zaigu, irakurleari baliagarri izan dakizkion. Jakina, beti ez dago ordena estuki errespetatu beharrik eta elementu guztien agerpena ere ez da beharrezkoa, dokumentura egokitu behar diren egitura malguak izan daitezen ereduak.

Bukaeran, informazio-iturrien bibliografiaren berri eskaintzen dugu.

Lara Peinado eta Rabanal Alonso (1997: 16-20) irakasleek diotenari jarraituz, saihestu behar da testuarekin zuzenean harremanik ez duten gauzez hitz egitea, baita testuak dioenari hitzez hitz lotzea (testuan datorrena beste hitz batzuekin agertzea bakarrik) eta adierazpen pertsonalak eta objektibotasunetik kanpo geratzen direnak egitea ere. Azkenik, beste gomendio batean diotenez, instrumentu egokiz inguratuta egin behar dira dokumentuen iruzkinak; horregatik, iruzkina egiteko komenigarria da eskura izatea: hiztegiak, eskuliburuak eta kronologiak, historiako hiztegia, atlasa eta gaiari lotutako bibliografia egokia (lan eta artikulu monografikoak).

Hona hemen iruzkinetan erabilitako eskemen hezurdura:

TESTU-IRUZKINAREN ESKEMA

0. Testua arretaz irakurri eta ulertu

Hau beharrezkoa ez den azalpena da, baina askotan ahaztu egiten zaigu testua ulertzeko behar-beharrezkoa dela pare bat aldiz irakurtzea, eta ulertzen ez diren hitz arruntak hiztegian bilatzea. Termino ezezagunak ere bilatu beharko dira, eta, gainera, azaldu, iruzkinaren aurreragoko atal batean. Orobat komeni da testuan lerroak zenbakitzea, gero, bertara errazago jotzeko eta gaiak aurkitzeko.

1. Sarrera

Atal honetan testuaren izaerara hurbilduko gara eta sailkatu egingo dugu:

+ Testu mota finkatuko dugu dokumentuaren informazioaren eta egilearen arabera (juridikoa, literarioa, historikoa, biografikoa, geografikoa…).
+ Testuaren jatorria pribatua ala publikoa den zehaztuko da, ez baita gauza bera egilea pertsona pribatua izatea ala zeukan kargu publikoaren arabera egina izatea.
+ Testua lehen eskukoa edo bigarren eskukoa den adieraziko da (originala, kopia edo norbaitek jasoa…)
+ Testuinguru historikoa: atal honetan azaldu behar da testuan islatzen den garaia zein izan zen eta bere ezaugarri nagusiak (beti ez dira berdinak testuaren edukiaren garaia eta idatzi zen garaia, eta kontuz ibili behar da anakronismoekin).
+ Egilearen biografia laburra (bere bizitza eta lana, eta haren esanahi historikoa eta garrantzia). Testu publikoetan atal hau ez da aztertzen.
+ Testuaren data kronikoa eta topikoa: non eta noiz egin zen testua, alegia. Beharrezkoa bada testuaren sinesgarritasuna eta balioa ulertzeko azaldu behar da sozialki ere non sortu zen testua.

2. Testuaren azterketa

+ Edukien azalpena: geografia historikoa (aldatu diren hirien izenak jarri), hitz historikoak (denboran zehar galdu edo aldatu diren hitzak) eta termino edo kategoria historikoak (gizarte, ekonomia, erlijio… antolamenduaren hitzak, hitz historikoak direnak, baina bereizi egiten direnak).
+ Testuaren azterketa: ideia nagusiak arloka sailkatzen dira eta gero komentatu egiten dira, testuari informazioa atera eta ulertzeko. Testuari egiten dizkiogun galderek eragin handia izango dute lortzen ditugun erantzunetan. Hau egin daiteke testuan dakarten ordenari jarraituz edo ordena propio eta logiko bat asmatuz (edo biak batera).

3. Ondorioak

+ Ideia nagusien sintesia laburki.
+ Testuaren fidagarritasuna eta sinesgarritasuna finkatzeko, konparatu beste dokumentu idatzi edo arkeologikoekin, adibidez.
+ Testuaren balioztapen historikoa: aztertu eta adierazi behar da ea testuak informazio garrantzitsurik ematen duen garaia ezagutzeko eta ezinbestekoa den horretarako.
+ Iritzi kritikoa testuari buruz.

MAPA BATEN IRUZKINAREN ESKEMA

1. Maparen sailkapena

+ Mapa mota (politikoa, soziala, ekonomikoa…).
+ Zein gai eta garairi buruzkoa den.
+ Maparen testuingurua aztertu: lehen edo bigarren eskukoa den (dokumentu historikoa ala historiografikoa den, nork egin duen eta egilearen testuingurua).
+ Garaiaren testuinguru historikoa.

2. Maparen iruzkina eta analisia

+ Edukien azalpena: tipologia grafikoa, legendaren erabilera, geografia historikoa (aldatu diren hirien izenak jarri), hitz historikoak (mapan agertzen direnak azaldu, termino edo kategoria historikoak barne) eta agertzen diren gertaerak, datak, hedapen eta txikitzeak, aurkakotasun geohistorikoak, aliantzak… azaldu.
+ Maparen azterketa: ideia nagusiak arloka sailkatzen dira eta gero komentatu egiten dira, mapari informazioa atera eta ulertzeko, azaltzen duen garaia eta lekua aztertuz. Egiten dizkiogun galderek eragin handia izango dute lortzen ditugun erantzunetan.

3. Ondorioak

+ Ideia nagusien sintesia laburki eta zeintzuk izan ziren aurrekariak eta ondorenak (kasuren batean beste leku bateko garai bereko maparekin konparatu).
+ Maparen balioztapen historikoa: aztertu eta adierazi behar da ea mapak informazio garrantzitsurik ematen duen garaia ezagutzeko eta ezinbestekoa den horretarako.
+ Iritzi kritikoa mapari buruz.

GRAFIKO ETA DATU ESTATISTIKOEN AZTERKETA EGITEKO ESKEMA

1. Sarrera: sailkapena

+ Azaldu datu edo grafikoaren garaia, alde geografikoa, azaltzen den gaia.
+ Azaldu testuinguru historikoa.

2. Analisia

+ Ideia nagusiak agertu eta azaldu: joera orokorra, faseak, igoerak eta jaitsierak…, hots, eskaintzen dituen datu objektibo guztiak.
+ Jarri ideia horiek gertaera historikoekin harremanetan.

3. Ondorioak

+ Ideia nagusien sintesia laburki.
+ Grafiko edo datuen balioztapen historikoa: aztertu eta adierazi behar da ea mapak informazio garrantzitsurik ematen duen garaia ezagutzeko eta ezinbestekoa den horretarako.
+ Iritzi kritikoa grafiko edo datuei buruz.

TESTU HISTORIOGRAFIKO BATEN IRUZKINA EGITEKO ESKEMA

1. Sarrera

+ Lanaren fitxa bibliografikoa egin (lanaren egilea eta izenburua, eta argitalpenaren datuak azaldu: zenbatgarren argitalpena, noizkoa den lehenengoa, zuzenketarik duen, etab.)
+ Egilearen biografia laburra (bere bizitza eta lana, bere esanahi historiografikoa eta bere ekarpenen garrantzia).

2. Iruzkina

+ Lanaren egitura, erabilitako iturriak eta bibliografia.
+ Ideia nagusien azalpena eta haien komentarioa.
+ Lanaren ondorioak.

3. Ondorioak

+ Ideia nagusien sintesia laburki.
+ Lanaren balioztapen historikoa: aztertu eta adierazi behar da ea lanak informazio garrantzitsurik edo interpretazio berritzailerik ematen duen garaia ezagutzeko eta ezinbestekoa den horretarako.
+ Iritzi kritikoa lanari buruz.

BIBLIOGRAFIA

Bilbao, G. e*t al.* (1998): *Historia testu bidez*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

Eco, U. (1983): *Cómo se hace una tesis. Técnicas y procedimientos de investigación, estudio y escritura*, GEDISA, Bartzelona, [5. argt.].

Huguet Santos, M. (2004): *La lectura de mapas geohistóricos*, <http://iris.cnice.mecd.es/kairos/metodologia/mapas/mapas_02.html>, [CNICE (Centro Nacional de información y Comunicación Educativa) Ministerio de Educación, Cultura y Deporte-ren web guneko "Metodología" atala].

Lara Peinado, F. eta Lara Peinado, M. (1997): *Comentario de textos históricos*, Historia serie menor, Cátedra, Madril, [Zaragoza, Dilagro, 1977ko argitalpenaren edizio berritua].

———— eta ————, (1981): *Comentario de textos históricos. Método, selección y ejemplos prácticos*, Dilagro, Zaragoza.

Moradiellos, E. (1994): *El oficio del historiador*, Siglo XXI, Madril.

Riu, M., *et al.* (1975): *Textos comentados de época medieval (siglos V-XII)*, Teide, Bartzelona.

Rivero, P. (2004): *Apuntes sobre el comentario de textos históricos*, <http://clio.rediris.es/materiales_universidad/comentario%20texto.htm>, [CLIO Proiektua-ren web gunea].

2. Dokumentuak eta haien iruzkinak

2.1. ORREAGA, HISTORIA ETA ISTORIOAREN ARTEKO ZUBIA. EGIAREN INTERPRETAZIOEN BILA

TESTUA

Cum enim assiduo ac paene continuo cum Saxonibus bello certaretur, dispositis per congrua confiniorum loca praesidiis, Hispaniam quam maximo poterat belli apparatu adgreditur, saltuque Pyrinei superato, omnibus quae adierat oppidis atquecastellis in deditionem acceptis, salvo et incolomi exercitu revertitur; praeter quod in ipso Pyrinei iugo Wasconi[c]am perfidiam parumper in redeundo contigit experiri. Nam cum agmine longo, ut loci et angustiarum situs permittebat, porrectus iret exercitus, Wascones, in summi montis vertice positis insidiis —est enim locus ex opacitate silvarum, quarum ibi maxima est copia, insidiis ponendis oportunus— extremam impedimentorum partem, et eos, qui novissimi agminis incedentes, subsidio praecedentes tuebantur, desuper imcursantes, in subiectam vallem deiciunt, consertoque cum eis proelio, usque ad unum omnes interficiunt, ac direptis impedimentis, noctis beneficio, quae iam instabat, protecti, summa cum celeritate in diversa disperguntur. Adiuvabat in hoc facto Wascones et levitas armorum, et loci in quo res gerebatur situs; e contra Francos et armorum gravitaset loci iniquitas per omnia Wasconibus reddidit impares. In quo proelio Eggihardus regiae mensae praepositus, Anselmus comes palatii, et Hruodlandus Brittannici limitis praefectus, cum aliis compluribus interficiuntur. Neque hoc factum ad praesens vindicari poterat, quia hostis te perpetrata ita dispersus est, ut ne fama quidem remaneret, ubinam gentium quaeri portuisset.

"Sajoien aurka etengabe, eta ia atsedenik gabe borrokatzen zen bitartean, mugako lekurik estrategikoenetan goarnizioak kokatu ondoren, Espainia-ra abiatu zen eskura zeuzkan indar guztiekin; eta, Pirinioak iragan eta gero, eta aurkitu zituen gotorleku eta gaztelu guztiak menperatu zituenean, gudalosteak oso-osorik eta ukitugabe zeuzkala itzuli zen, salbuespen batekin: Auñamendien gailurrean bertan, itzulerako bidean jadanik, Baskoinen zitalkeria bere larrutik ezagutu behar izan bait zuen. Zeren eta, armada lasai-lasai zihoanean, ilara luzean, pasabidearen estuasunak eskatzen zuen bezala, Baskoinak, mendiaren gailurrean zelatan zeudelarik —pasabideko beste inon baino itxiagoa bait da han basoa, eta aproposa, beraz, lekua tranpak jartzeko— eta goitik beherantz etorriz, sakanarantz bultzatu zuten azken-azkenean zihoan

> bagajea eta baita aurrekoen babes modura erretagoardian zihoazen tropak ere. Eta behin batailan gurekin sartu zirenean, azkeneko gizona ere hil egin zuten, eta harrapakina lortu ondoren, gauaren iluna lagun, sakabanatu egin ziren bizkor-bizkor. Eginkizun honetan beren alde eduki zuten Baskoinek ez bakarrik armamentuaren arintasuna, baita guztia gertatu zeneko lekuaren taiuera berezia ere: Frankoei, aitzitik, kontra gertatu zitzaien —Baskoinak baino askoz ere gutxiago eta ahulago izateraino— bai zeramaten armamentuaren astuntasunak, baita etsaiak baino beherago kokatuak egotea ere. Bataila honetan hil ziren Egiardo seneskala, Anselmo konte palatinoa eta Roldan, Bretainiako markako prefektua ere, beste askoren artean. Eta porrot honek ezin izan zuen berehala mendekatua izan, zeren eta etsaiak, erasoa burutu ondoren, halako moldez sakabanatu bait ziren, ezen non bilatu eta aurkitu zitezkeen jakiteko aztarnarik ere ez zutela utzi"[4].

Prosaz idatziriko jatorrizko testu hau, latinez eta —Koldo Larrañagak berak— euskarara itzulitakoa, IX. mendekoa dugu, Karlomagnoren[5] biografoa izandako Eginardok eginiko *Vita Karoli*n bildurikoa, hain zuzen ere; eta Pirinioetan baskoien eta frankoen artean 778. urtean gertatu zen —Orreagako— lehenengo gudua du hizpide.

Testu honetan, Karlomagnoren —zehazki aipatua agertzen ez dena— politika islatzen da. Bertan, saxoiek —erresuma karolingiotik iparraldera kokatutako herri germanikoa— burututako altxamenduaz, eta, Hispaniarako bideaz dihardu egileak. Hispaniako bidaia horretan, testuaren arabera, Karlomagnok ez du inongo *oztopo*rik (erresistentziarik, alegia) aurkituko, baskoiak izan ezik[6].

Izaera biografikoa du testu honek. Karlomagnoren inguruko beste iturriak kontuan hartzen baditugu (*Chanson de Roland,* adibidez), ezberdintasun honetaz ohartuko gara: testu honen helburua ez zen Karlomagnoren irudiaren laudorioa egitea. Bertan baskoiak dira Karlomagnoren erasotzaileak[7], eta besteetan, ordea, musulmanak, garaiko etsairik boteretsuenak.

4. Einhardus (Eginardo), *Vita Karoli*, 9 (G. Pertz-en ed., 447. or. eta ond.). Itzulpena Koldo Larrañagarena hartu dugu (Larrañaga, 1992: 112).

5. Karlomagnoren inguruan ikusi A. Barbero-k eginiko biografia (2001).

6. Halere, aurrerago aipatuko dugun bezala, Zaragoza bera oztopo handia izan zen Karlosentzat.

7. Arerioen irudia aipatzekoa da: ohorerik gabekoa, eraso eta ihesean doana, beraz, Karlomagnok ezin du bere gizonen heriotza mendekatu. Kontuan hartu behar dugu, baskoien deskribapen hori Erdi Aroko balioen sistemaren baitan txertatua dagoela, non nobletasunaren gakoa gerra den (dirusarreren, ohorearen eta boterearen iturria), beraz, gerran ohorea beharrezkoa dugu: bi etsaien arteko gerra irekia, aurrez aurrekoa. Modu horretan, baskoiak testu honetan, barbaroak bezala irudikatuta azaltzen dira: ez dituzte gerraren arauak onartzen, ihes egiten dute.

Testuan hainbat hitz tekniko zein geografiko ageri zaizkigu[8]; batzuk halere, desegokiak lirateke, gure aburuz, Euskaltzaindiaren arabera, edota itzulpenen arabera[9].

Saxoiak: Talde etnikoa dugu, germaniarra; Bigarren Migrazio *barbaro*etan (V. mendearen bigarren erdialdetik aurrera) modu jarraituan Mendebaldeko Europan sartu zena, hain zuzen ere. Germania iparraldean kokaturik, VI. menderako *Saxonia historikoa*n ezartzeko prozesuari ekin zioten.

Talde hau altxamendu ugariren protagonista izan zen eta euren konkista benetako arazo bilakatu zen frankoen botererako. Modu horretan, Karlomagnok (hogeita bost urteren buruan) 785ean saxoien buruzagia zen Widukindo menderatu eta batailatu zuen arren, 800. urteaz geroztik ere, erresistentzia-guneak mantendu egin ziren Saxonian (1994: 246).

Espainia: Koldo Larrañagak eginiko latinezko testuko *Hispania* terminoaren itzulpena da. Izan ere, Iberiar Penintsulako diozesi zaharraren esanahia du termino honek.

Auñamendi: Egileak *Pyrineus* hitzaren itzulpentzat ematen digu. Pirinioak hitza hobetsiko genuke kasu honetan. Hitz geografikoa dugu, hots, Iberiar Penintsularen eta Europa kontinentalaren arteko mugako esparru menditsua adierazten diguna. Pirinioak izendatzeko euskal hitza da[10].

Baskoiak: Larrañagak *Wasconia* barik, baskoiak erabiltzen du[11]. Egilearen tesia da unitate etniko-kultural bera dagoela sustraituta Auñamendiko bi isurialdeetan erromatarren aurreko garaian. Goi Erdi Aroan, *vasco*(nes) etnonimoa —klasikoetatik ezaguna Ebro haraneko erromatarren kolonizaziotik eta eduki etniko zehazduna— eta *Vasconia* toponimoa —gaur egungo Nafarroa

8. Termino horiek guztiak geografikoki modu argian kokatzeko, ikusi Martín Duque (1986: 44).

9. Kritika horiek gauzatu ditzakegu jatorrizko testua plazaratzen baitugu Koldo Larrañagak eginiko itzulpenarekin bat. Testuen argitalpen kritikoa, hau da, (jatorrizko) testua bera argitaratzea, beharrezkoa da egileak terminoen inguruan duen interpretazio zehatza zein den jakin ahal izateko.

"Bait zuen", "bait da", "Baskoinak", "gudalosteak", "ukitugabeak" Larrañagak berak itzuli —eta idatzi— dituen legez mantentzea erabaki dugu; halere, aipatu beharra dago egungo ortografiaren arabera *baitzen* edo *baita* idatzi beharko litzatekeela. Horrekin batera, *baskoiak*, *gudarostea* eta *ukitu gabeak* hobesten ditu Euskaltzaindiak.

10. Auñamendi Euskal Herriko Entziklopedia (1995): III. bol., Donostia, 241. or.

11. Besteak beste, horren inguruko bibliografian ikusi. Historialari batzuek biak (Waskonia eta Baskonia) erkidetzen dituzte: Erlantz Urtasun (2002: 112-115), Tomas Urzainqui (1998: 43-45 eta 69), bertan bi isurialdeetako baskoien arteko antolakuntza politikoaz hitz egiten da Orreagako gatazkaren harira.

Bestelako irizpide batez, Waskoniaren (Pirinioen iparraldeko euskaldunen) eta Vaskonia/Baskoniaren (Hegoaldeko euskaldunen) arteko lotura (behintzat) kulturalak defendatzen dituzten egileen artean ikusi Agustin Azkarate (2003) eta, nola ez, badago bestelako interpretazioa, non Pirinioetako bi aldeak bi gizarte eta errealitate ezberdintzat ulertzen dituena: ikusi Sánchez Albornoz (1985).

izendatzeko— agertuko zaizkigu iturrietan. Antzinate Berantiarrean eta Goi Erdi Aroan aldaketa gertatuko da termino horien esanahian[12].

Larrañagaren aburuz, garai horretan bertako iturrietan bi fenomeno gertatu ziren: bata, iturri klasikoetan zehaztuta agertzen ziren hainbat triburen izenak desagertzea, hots, barduliarrak, karistiarrak, autrigoiak...; eta bestea, *vasco* etnonimoaren orokortzea, mendebaldeko lurretako tribuetara, aipaturikoen asentamenduetara, hain zuzen ere. Bi prozesuok, progresiboak eta garaikideak izan ziren eta, Larrañagak berak «izen berri eta zaharren ordezkatze dialektikoa(z)» hitz egiten digu (1992: 15-25)[13].

IX. mendean, *Vasconia* toponimo bilakatu eta Novempopulania identifikatzeko erabiliko da; modu horretan, Baskoniako konderria izendatua izango da administrazio frankoaren barruan.

Frankoak: Frankoen herriak Rhinetik hegoaldera hedatzen joan ziren (Behe Inperioan zehar) eta frankoen herrien batasun politikoa Klodobeoren pean lortu zen.

Klodobeo buruzagiak (482-511) indarra eta zuhurtasuna eman zion *erreinua*ri. Horrela, erreinua, merobingiar dinastiaren pean gelditu zen (Merobeoren ondorengoen pean, alegia) harik eta 640ko hamarkadan lurraldearen galera eta barne-gatazken erruz, dinastia horren dekadentzia hasi zen arte, hain zuzen ere. Dinastia berri bat eraiki zen frankoen artean Pepin *Laburra*ren eskutik, 752an frankoen errege izendatua izan zelarik.

Karlomagno: Karlos I.a, frankoen erregea eta, 800etik aurrera, Mendebaldeko enperadorea. Erdi Aroko inspirazio-iturria dugu. Pepin *Laburra*ren lehen semea eta oinordekoa izan arren, erreinua oinordekoen artean banatzeko frankoen ohitura zaharrari jarraituz, bere anaia Karlomanekin gobernatu zuen berau hil arte (771n) aitak 768tik aitzina utziriko erreinua. 771n, lurralde osoa batu egin zen bere gidaritzapean[14].

Eginardo seneskala (*senescalus*): Karolingioen pean, administrazioko goi-kargua zen seneskalarena. Errege-etxearen aurrean txanbelanaren figura zen lehenengoa eta, hierarkikoki, hurrengoa seneskala. Janari-zerbitzuen arduraduna zen jatorrian.

---

12. Adibide esanguratsuak ditugu 629an Fredegariok jasotako *Wasconia* terminoa, *saltus* piriniarra eta *Novempopulania*ko (bederatzi herriak) hiriak definitzeko; edota Ravenako anonimoan (VII. mendearen azken laurdenean) *Spanoguasconia* (Novempopulania) eta *Guasconia* (Akitania) ezberdintzen dira.

13. Lerradura onomastiko horren zioak ez ditugu ezagutzen baina hainbat teoria daude. Batzuek diote baskoiek Mendebaldea inbaditu zutela V.-VII. mendeen buruan, hau da, teoria espantsionista; beste batzuek, ordea, zilegiago ikusten dute 'vasco' termino kultural eta etnikoaren zabaltzea, baina 'baskoi' terminoaren sustrai etniko-kultural berekoak (euskaroak) batu egin ziren, agian eurak zirelako kanpokoekiko jarrera baten ikurra edota eragileak, bai Iparraldekoentzat, bai Mendebaldekoentzat ere.

14. Erreinu frankoaren inguruan askotariko bibliografia dago; euskaraz, Jaione Agirreren lana kontsultatu (2001).

Antselmo konde palatinoa (*comes palatii*): Gorteko edo jauregiko gobernaria zen (*palatium*, administrazioaren gunea). Bere esku konderriaren (lurralde zehatza) botere zibila, militarra eta eklesiastikoa dago (Kinder, 1999: 131-134). Epailea dugu, eta jauregiko tribunalaren burua erregea falta zenean.

Errolan Bretainiako markako prefektua: Errolan Karlomagnoren iloba dugu, Breizh-eko —Bretainia— gobernadorea.

Marken sistemak, Inperio Karolingioaren barne-politikan, mugetako aldeetan babesa ziurtatzea zuen helburu. Marka horiek "Marken Kondeak" (*marchii*) deiturikoen edo *markes*en esku zeuden, gerlariaren figura betetzen zutenak.

Bavieran, Turingian edota Alamanian talde etniko baten printzeak hartzen zuen kargu hori, eta erregearekin basailutza-harremana zuen. Lurralde horietan dukea zen *kondea*ren botere guztiak hartzen zituena, garrantzitsuena justizia izaki.

Lurralde konkistatu berrietan, *markesak* ziren lurralde horien buruzagiak, buruzagi militarrak, inguruko kondeen gainetik zirenak. Dukearen eta markesaren betekizuna kondea kontrolatzea litzateke (Broussard, 1968: 29).

Bretainiako markarekin batera, Danimarkakoa, Hispaniakoa (Pirinioetan), Ekialdekoa (Ostmark izenekoa, gaur egungo Austrian kokatua), Gotiakoa... zeuden Inperioaren mugetan (Kinder, 1999). Adituek zalantzak dituzte Hispaniako markaren inguruan[15].

Karlomagno hil ostean bere biografoa zen Eginardok idatziriko testu hau, dibulgazio publikoaren helburuarekin, hau da, gertakizunaren konstantzia uzteko idatzia izan zen.

Eginardo (770-840), Karlomagnok sustaturiko *elite* kulturalaren kide aipagarria izan zen, Alkuinoren dizipulua. Karlomagnoren ondorengoa izan zen Luis *Errukitsua*rekin ere bere ospea eta kargua mantendu zuen, haren semearen tutore izaki.

Eginardok enperadorearen bizitza kontatu zuen *Vita Karoli*n[16]. Balio historiko handiko lana da bere bakartasunagatik, hots, arestian aipatu bezala, bere originaltasunagatik. *Vita Karoli*z gain, Eginardok *Epistolae* egin zituen, eta, aldiz, *Annales Francorum*en 741.-829. urteen bitartekoak berak idatzi ote zituen zalantzazkoa da (Broussard, 1968: 151).

15. Benetan ez baitzen markesik egon, horrela deitu izan zaio historiografian.

16. Broussard-en ustez, Suetonioren Zesarren bizitzei buruzko liburua eredutzat hartu zuen testu hau ateratzerakoan (1968: 151).

Vita Karoli Europa osoan zehar ezagutu eta itzuli egin zen, XII. mendetik aurrera, eta Donejakue Bideari esker emaniko literatura kristauaren hedapenarekin batera[17], bertako pertsonaiak epikan sartu ziren. Orreagan, tradizioak dioenez, (geroago) deituriko *Frantziako hamabi pariak* hil egin ziren bertan, hau da, Karlomagnoren *gizonik hoberenak*. Horien artean ospetsuena Errolan (Roldan) litzateke. Errolan, Breizh-eko gobernadorea zen, Bretainiakoa, alegia, eta Karlomagnoren iloba tradizioan.

Horrela, Errolanen heriotza Europako Erdi Aroko literaturan zabaldu zen, Norvegia arte XIII. mendean, hala ere, istorioak gehien eragindako herrialdea Frantzia dugu (frankoen laudorio gisa erabiliz), lan epikoen artean *Chanson de Roland* (*Errolaren Kanta*) ospetsuena izaki. Bertan mairuen kontra egin zuten borroka frankoek, ez baskoien kontra, etsai beldurgarriagoak zirelako. Beraz, Errolan *santu*tzat irudikatzen digute Gurutzadetako *martiria* balitz legez, "Durandal" izeneko bere ezpata *magikoa*rekin, (*berarekin kolpe bortitzak ematen ditu* esan nahi du) eta bere olifantearekin (adarra). Ezpata, nahiago lehenago apurtzea, fedegabe horien eskuetan geratzea baino.

*Errolaren Kanta*n Karlomagno bere buruzagi batek traizionatuta agertzen da, Ganelon izenekoak, gainera. Karlomagno eta bere ostearen porrota *zaldun-ohorea* galtzea litzateke. Gerlari batentzat gerra zen bizitzaren funtsa (eta ardatza), gerraren bidez bere bizitza definitzen zuten balioak lortzen baitzituen: boterea, prestigioa, ohorea, azken finean. Ohorearen bidez leinuaren ohorea ere eskuratzen zuten, ospea —kondairen edo epikaren bidez bada ere—, boterea, eta, zilegitasunaren ikurra gerra bera izaki.

Gerran ohorea arerio gogorrarekin borrokan lortzen zen. Enperadorearen *noble hoberenak* hiltzea soilik garaiko etsai gogorrenari egotzi zekiokeen, islamaren borrokalariei, hain zuzen ere. Beraz, *baskoiek* armadaren erretagoardia guztiz suntsitu eta ihes egin zutela Karlomagno itzuli baino lehen, ezin zen esan.

AZALPENA

Frankoak Pirinioetan egon izanaren aipuak iturrietan —frankoak denak—, hiru dira; motzak eta informazio gutxi eta iluna ematen dutenak (Larrañaga, 1992). Hori litzateke, akaso, hainbeste interpretazioren gakoa.

Hiru data ditugu, beraz, 778koa, hots, Orregako gerra ospetsuaren data; 812an Luis *Errukitsua*k burututako erasoa; eta, azkenik, 824ko Orreagako bigarren gudaldia. Horiek guztiak Eginardok eginiko *Vita Karoli*n agertzen zaizkigu.

17. Honen inguruko bibliografia: Jimeno Jurio (2004a), Martín de Riquer (2002), Jean Saroïhandy (1927) edota Zabaleta (1998).

Hiru botereren eragina aurkitu dugu baskoien *politika*n, eta, geroago, Iruñeko erresumaren sorreran: frankoak eta euren *inperioaren* hedapen-nahia iparraldetik; hegoaldetik, aldiz, Islamaren mundua. Banukasitarrek, Omeiatarren mendekoak izanda ere, askotan era independentean jokatu zuten.

Iparraldetik, Pepin *Laburra*k Akitania konkistatu zuen 760. eta 768. urteen artean; eta bere ondorengoek —pepindar edo karolingioek, alegia— hedapenarekin jarraitu zuten. Karlomagnoren erregealdia 768an hasi zen.

Kontuan hartu beharra dugu, 711. urtetik aurrera musulmanak Penintsulara etorri zirela Al Andalus izendatuz haien mendeko lurra, eta 756an Abd ar Rahmanek emirerri independentea sortu zuela bertan. Modu horretan Bagdadeko kaliferriaren *probintzia* (mendeko emirerria) bat izatetik, emirerri *independente* bilakatu zen.

Banukasitarrak *Kasiotarrak* izan ziren 711. arte. Bisigodoen botereарekin erlazionatuak, Ebro haraneko gobernadoreak izan ziren. Musulmanen etorrerarekin islamizatu eta badirudi, Damaskora joan zirela mendekotasuna agertzera Kalifari. Oso familia garrantzitsua bilakatu zen eta IX. mendeko erdialdean, botere handia ere lortu zuten. Enekotar familiarekin odol-harremanak zituzten.

Zaragozako gobernadoreak, Suleimanek, 777. urtean —Orreagako gudua baino urtebete lehenago— enbaxada bat bidali zuen Paderborn-era Karlomagnorekin tratua bilatzeko. Suleimanek, emirerriaren kontra egiteko, Karlomagnoren laguntza militarraren truke, Zaragozako hiriaren *giltzak* eskaini zizkion enperadore frankoari.

Zaragozak autonomia bat lortu nahi zuela ematen du; izan ere, emirerriaren periferian kokatua zegoen, lurralde aberatsa zen —Ebro arroa—, mugaldetakoa, Iruñearekin mugan.

Karlomagnok *tratua* onartu zuen, bere agintea Penintsulan zabaldu ahal izateko. Karlomagnorentzat estrategikoki oso lurralde garrantzitsua izan zitekeen, Al Andalusen kontra egiteko; beraz, horretarako aukera paregabea eta arrisku gutxikoa ikusi zuen bertan Karlomagnok.

Baina hara ailegatzean, Suleimanek ez omen zizkion ateak ireki. Horretaz gain, saxoiekin —Inperioaren iparraldean, 772an gerran zapaldu zituzten frankoek, baina oraingoan berriz altxatzen ari ziren frankoen kontra— arazoak zituztelako berria izan zuen Karlomagnok. Alta, itzultzea erabaki zuen, helburua lortu gabe.

Bidean, Iruñeko harresiak suntsitu ei zituen, kroniken arabera, *mesfidantzagatik*. Ondorioz, Pirinioetan, Ibañetatik gertu[18], baskoiek ostearen erretagoardia suntsitu egin zuten[19].

Musulmanek**,** Karlomagnoren porrota, eta, Iruñea suntsituta egotea aprobetxatuz, goarnizioak bidali zituzten hirira eta musulmanen kontrolpean geratu zen.

Frankoak porrotaren aurrean lurraldea kontrolatzen saiatu ziren, tokiko aristokraziaren bidez, Belaskotarren bidez, hain zuzen ere, eta, 799an musulmanek izendatutako hiriko gobernadorea —Mutarrif izenekoa— hil egin zuten. Baina Belaskotarrak ez ziren tokiko aristokraziako familia bakarra, eta Enekotarrek, frankoen eraginaren aurrean, oreka bilatu nahi izan zuten musulmanei laguntza eskatuz. Gogoratu beharra dugu, Banukasitarrak eta Enekotarrak senideak zirela, beraz, bien arteko aliantza —behin-behinekoa behintzat— izan zitekeen, erraz.

Halere, 795ean, Katalunian konderri frankoa ezarri ondoren, Iruñeko lurraldea kontrolatzeko ezagutzen den bigarren saiakera burutu zen 812an, frankoen *marka hispanikoa*[20] zabaltzeko asmoarekin.

Ludoviko Piok (Luis *Errukitsua*k), Karlomagnoren semeak, Pirinioak gainditu zituen, Iruñera heldu eta bertako gobernari izendatu zuen bere burua. Ez dakigu ordea, Katalunian bezala, konderri frankoa ezarri zenetz. Baina Luis *Errukitsua*k Iruñea utzi zuen Belasko al Galaskiren eskuetan —frankoen aldekoa—, eta Luis joatearekin batera, frankoen boterea eta eragina ere *joan* ziren Iruñetik. Enekotarrak gailendu ziren orduan Iruñean, hau da, tokiko aristokrazia, frankoen kontrakoa.

824an, Karlomagno enperadorea 814an hil ostean, jada *bere* inperioa ahultzen hasia zen Luis *Errukitsua*k semeekin izan zituen arazoengatik.

18. Gudaldiaren leku zehatzaren inguruan, iritziak askotarikoak dira. Batzuek diote Luzaiden gertatu zela toponimian utzitako arrastoengatik —Valcarlos, hots, Karlosen bailara—. Teoria horren inguruan begiratu Jimeno Jurio (2004b).

19. Egile askok dioenez, baskoien mesedetan bazeuden hainbat ezaugarri, eta horiek izan ziren frankoen porrotaren funtsa. Lurraldea oso ondo kontrolatzen zuten baskoiek, eta, pentsatzen da, nolabaiteko gerrilla-estrategia erabiliko zutela, ezustekoa aprobetxatuz, haranean inguratu, eta arma arinez horniturik, ziztu biziko gerra gauzatzeko. Frankoek, berriz, arma eta armadura oso astunez ekipaturik, ezin izango zioten aurre egin horrelako eraso mota bati.

20. Gogoratu zertan datzan marken sistema. Ikusi lan honen termino historikoen azalpena.

Eblo eta Aznar kondeak —karolingioen zuzendaritzapean— Iruñean armadarekin sartzeko asmoz, Pirinioak gurutzatzen ari ziren bitartean, baskoiek gaindituak izan ziren. Orreagako bigarren gudaldia deitua izan da gertaera militar hori. Beraz, mitiko bilakatu denaren berrogeita sei urte ondoren, berriz irudi bera gauzatu zen Pirinioetako basoen artean. Bigarren gudaldi hau, ordea, ez da lehenengoa bezain ospetsua izan, baina, baskoientzat, askoz garrantzitsuagoa izan zen. Bigarren Orreagako gudu horretan, ematen du baskoiek bat egin zutela musulmanekin. Banukasitarrekin aliantza aurrera eraman zuten, beharbada, memento horretan frankoen kontra.

Antza denez, baskoiek musulmanekin bat egin zuten Orreagako bigarren gudaldian (behintzat); izan ere, Eblo eta Aznar kondeak, biak bahituak izan ziren. Eblo Kordobara bidalia; Aznar, ordea, aske utzi zuten baskoiek euren kide izateagatik (Aragoiko familiakoa zelakoan gaude).

Seguru asko, baskoiek Banukasitarrekin aliantza izan zuten; izan ere, Kordoba urruti samar geratzen da Pirinioetatik; Banukasitarrak, ordea, Ebron finkatuta zeuden. Agian, horregatik, bidali zuten Eblo kondea Kordobara baskoiek.

Agian, baliteke, Eblo Kordobara eraman izanaren atzean Banukasitarrak egotea. Haiek, teorian Kordobaren pean egon arren, praktikan nahiko autonomoak zirela esan dugu. Geroago, batzuetan ikusiko ditugu Iruñearekin batera borrokatzen, Kordobarekiko autonomia gehiagoren bila; eta beste batzuetan, aldiz, Kordobarekin bat egiten Iruñearen kontra. Banukasitarrek 872-885ean euren boterearen gorenaldia izan zuten Musa ibn Musarekin (Iturrietan *Hirugarren erregea* deituko dute).

Emirerri eta iruindarren artean, tirabirak egon ziren aurrerantzean: batzuetan zigor-espedizioak, besteetan, itunak. Garai horietan —beste askotan legez— ohikoa izaten zen aliantza politikoen aldaketa. Azken finean helburua bakoitzaren eragina eta boterea finkatzea izan zitekeen, eta horretarako, indarren oreka lortzeko, batzuen laguntza (militarra) batzuetan, eta beste batzuena, besteetan, behar zen.

Bigarren porrot militarraren ondorioz, frankoak ez ziren berriro lurraldea kontrolatzen saiatu. Tokiko aristokrazia finkatzen joan zen eta Enekotarrek nagusigoa lortu zuten nobleziaren artean IX. mendean. Eneko *Aritza* “dux” edota “princeps” deitua izango da iturrietan.

Hala ere, historialariek, orain arte, Antso Gartzez hartu dute lehenengo erregetzat, zeinaren erregealdia 905ean hasi baitzen. Azken urte hauetan, ordea, Eneko *Aritza* pertsonaia mitikoa ez zela izan pentsatzen ari da geroz eta ziurtasun gehiagorekin, eta agian bai kontsideratu beharko genukeela Iruñeako lehenengo erregea. Dena den, iruindarren (nobleen) nagusigoa eskuratu zuen, eta lehenengo erregea izan ez bazen ere, oinarriak garai horretan finkatu zirela esan dezakegu.

Horretarako eredua Iparraldetik etorri zen. Jada aipatu dugu Karlomagnoren heriotzarekin batera karolingioen inperioa ahultzen joan zela, semeen artean banatua izan baitzen. 843an —Verdun-go hitzarmena— inperioaren banaketa erabaki zen. Beraz, Europako Iparraldean, estatu *autonomoak* sortzen hasi ziren garai horretan. Horretaz gain, Penintsulan bertan, Oviedoko erresuma sortu zen VIII. mendean (Lema, 2001).

ONDORIOAK

«Historialariak egia du lanbide; idazleak egiantza», dio Anjel Lertxundik (2001: 147). Lertxundiren arabera, historia egian oinarritzea litzateke[21]. Baina askotan literaturaren eta historiaren arteko mugak ez dira ondo bereizten gertakarien hedapena egiten denean, eta, ezbairik gabe, Orreaga da horren adibidea.

Orreagako gudua mitoa dugu. Euskaldunon mitoa —bestelako gertaera politikoekin batera—, baita kristautzearen mitoa ere.

21. Historiaren definizioaren eta izaeraren inguruan, hainbat teoria eman dira denboran zehar. Annales eskolako historialarien artean, 1960-70eko hamarkadetan, historia-zientziaz bi ikuspegi gauzatu ziren: bata, objektibotasun eta zientifismoaren aldeko apustua; besteak, aldiz, ohiturak, artea, antropologia, literatura jorratzen zituen. Britainia Handian, 70eko hamarkadan, L. Stone-k zioen antzinako eraldaketa-prozesuak ezin zirela era zientifikoan aztertu. Sistema horren ordez, historia egiteko giza taldearen kultura edo norbanakoaren nahia azpimarratzen zituen. Beraz, Stone-k subjektibotasunaren garrantziaz oharturik, historia narratiboaren itzulera gauzatu zuen, hots, XIX. mendeko historiarakoa.

Garai horretan, garapen teknologikoaren kontzepzioa aldatu egin zen. Mementoko errealitatearen aurrean, teknologia eta garapena era ezkorrean ikusiak izan ziren; Industrializazioa, gizartea bere hondamendirantz abiatzeko garraiotzat hartu zen. Historia kultural berrian, hizpidea aldatu egin zen, egitura eta prozesuetatik kultura eta bizimoduetara, hain zuzen ere, baina, zientifikotasuna guztiz galdu gabe.

Zientzia sozial historikoa kolokan jarri zen: horren oinarrian garapena positiboki ulertzea, eta, mundu-mailan prozesu historiko bateratuak ematea zeuden. Paradigma horiek ezbaian jartzean, zientzia bera, hots, bere kontzepzioa, kolokan jarri zen. Beraz, historia egiteko metodoa ere ezberdina izan zen, narratiba eta hermeneutikaren bidezko metodoa, alegia. N. Davis-en iritziz, historian, hutsuneak betetzeko, irudimena zilegi zen, hots, teoria gabeko historiaren aldeko apustua egin zuen Davis-ek, determinismo historikoan —teorian ikusitakoak errealitate historikoan gehiegizko garrantzia izatea, aldez aurretik aurkitu nahi dena lortzea—.

Ondorioz, teoria gabeko historiografiaren bidez, iraganaren azalpen zientifikoa ukatu egin zen. Historia ezin izango zen zientzia izan; postmodernismoarentzat historiak, zientziarekin baino, literaturarekin harreman estuagoak zituen. Modu horretan, korronte horrek —Foucault...— errealitatearen ukapena aldarrikatu zuen. Iggers, G. G. (1998): *La ciencia histórica en el siglo XX, las tendencias actuales,* Idea Universitaria, Bartzelona.

Gizarte orok mitoak sortu izan ditu. Gizarte horren kohesio-elementua litzateke, beharbada. Komunitatearen partaide bakoitza, gertaera —historiko— batekin, bere burua taldeko kide hartzeko bidea dugu, gaur egun ere bai; eta istorioen bizia eta helburua —historia bera bezala— denbora da, denboran bizirik mantentzea, komunitate horren identitate-seinale bilakatu arte.

Mitoak eredua ezarri nahi du. Gizarte horren eredua, ideala litzateke. Iraganaren egoera berreskuratzeko nahia, kolektiboan behintzat.

Gaur egun ere, gizarte eta kultura guztiek erabiltzen dituzte euren mitoak, iragan desiratua miresteko modu bat bezala, baina baita egoera hori eredutzat hartu eta berreskuratzeko asmoekin ere. Modu batean zein bestean, identitate *kolektiboa* lortzeko[22] erabiltzen dira, harrotasuna pizteko talde horretako kideak legez.[23]

Errolanen espainiar kulturaren kondaira baliokidea *El Cid Campeador* litzateke; izan ere, zaldunaren ikurra da espainiar literatura epikoan, balioa, justizia, zuhurtasuna eta balentriaren isla.

Orreaga ez da soilik Erdi Aroko literaturan aipatutako kondaira garrantzitsu bat izan. Ez da bakarrik *musulmanen* kontrako kristautzearen ikur epikoa izan; Karolingioen gorenaldiaren sinboloa izan da.

Orreaga, XIX. mendean jada, *kondaira* bilakatu zen euskaldunentzat (Sabino Arana Goiri, Kanpion eta beste batzuen eskutik). Orreaga euskaldunon garaiezintasunarekin erlazionatua izan zen: Euskaldunok aurre egin genien erromatarrei —baskokantabrismoa[24]— eta baita Karlomagnori ere.

22. Ez dut nazionala esango, mitoak izaera ezberdinak zituzten/dituzten edozein taldetan sortu zitezkeelako/daitezkeelako.

23. José Luis Orellak dioenez, mitoak, besterik gabe, ezin dira baztertuak eta oroimen kolektibotik ezabatuak izan, subjektuak denotatu nahi zuen esanahia beti baitago mitoetan agerian (2003: 23).

24. XVI. mendeko hainbat idazlek —Andrés Pozak, Juan Martínez Zaldibik, Baltasar Etxabek, Esteban Garibaik— defendaturiko teoria bat da eta euskaldunen eta kantabroen baliokidetzea defendatzea du hizpide. Modu horretan euskaldunon garaiezintasuna argudiatzeko, iturri klasikoetan Erromaren eta kantabroen arteko guduen aipuak agertzen dira eta. Horrela, euskaldunek ere erromatarrei aurre egin zieten eta ez ziren garaituak izan, horren froga garrantzitsuena hizkuntza bera litzateke, euskara ez baita galdu.

BIBLIOGRAFIA

Albizu, X. *et al.* (2004): *Euskal Herriko historia I: Historiaurretik Nafarroako konkista arte*, Gaiak, Donostia.

Agirre Garcia, J. (2001): "Gizartea eta ideologia Karlomagnoren garaian (VIII.-IX. mendeak)", in K. Artetxe Sanchez (arg.), *Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan*, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 7-26.

Azkarate, A. (2003): "La arqueología y los intereses historiográficos. (De los postulados vascocantabristas a las necrópolis tardoantiguas de influencia nordpirenaica)", *Bidebarrieta*, **XXII**, 27-61.

Barbero, A. (2001): *Carlomagno, Emperador, 742-814*, Ariel, Bartzelona.

Broussar, J. (1968): *La Civilización Carolingia*, Guadarra Argitaletxea, Madril.

Gartzia Isasti, P. (2004): *La España metafísica. Lectura crítica del pensamiento de Ramón Menéndez Pidal (1891-1936)*, Euskaltzaindia, Bilbo.

Goihenetxe, M. (1999-2000): *Historia General del País Vasco. Prehistoria - Época Romana - Edad Media*, I. liburukia, Ttarttalo, Donostia.

Jimeno Jurio, J. Mª (2004a): *Caminos de Santiago a través de Navarra*, Pamiela, Iruñea.

————————, (2004b): *¿Dónde fue la Batalla de "Roncesvalles"?*, Pamiela, Iruñea.

Juaristi, J. (1998): *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, Taurus, Madril [1. edizioa 1987an].

Kinder, H. eta Hilgemann, W. (1999): *Atlas histórico mundial (I). De los orígenes a la Revolución Francesa*, Istmo, Madril.

Kintana Goiriena, J.: *Euskarazko historiografia (I): aurrekariak eta lehen pausuak (XVI-XIX. mendea)*, <www.kondaira.com>.

Lacarra, J. Mª (1972): *Historia política del reino de Navarra. Desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla*, I. liburukia, Nafarroako Aurrezki Kutxa, Iruñea.

Larrañaga, K. (1992): *Euskal Herria Antzinate Berantiarrean eta lehen Ertaroan: materiale eta agiriak*, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Leioa.

Larronde, J-C. (1977): *El nacionalismo vasco. Su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*, Txertoa, Donostia.

Lema Pueyo, J. A. (2001): "Iruñeko erresumaren sorrera (VIII. mendetik X. mendera arte): interpretazioaren bila", in K. Artetxe Sanchez (arg.), *Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan*, UEU, Bilbo, 27-49.

Lertxundi, A. (2001): "Historia eta literatura: zurubi luzean gora eta behera", in K. Artetxe Sanchez (arg.), *Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan*, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 135-154.

Martín Duque, A. J. (zuz.) (1986): *Gran Atlas de Navarra geográfico-histórico, Prehistoria - Antigüedad - Edad Media - Edad Moderna - Edad Contemporánea*, Nafarroako Aurrezki Kutxa-Caja de Ahorros de Navarra, Iruñea.

Martinez de Isasti, L. (1850): *Compendio historial de Guipúzcoa*, [erabilitako edizioa 1850ekoa].

Orella Unzue, J. L. (1993): "Bibliografia medieval del pueblo vasco (1982-1992)", *RIEV*, 41. urtea, XXXVIII, **1**, 225-300.

————————, (1996): *Los vascos de ayer. Historia de Euskal Herria*, I. liburukia, Txalaparta, Tafalla.

––––––––––, (2003): *Soberanía vasca. El derecho de autodeterminación del Pueblo Vasco*, Mintzoa, Iruñea.

Riquer, M. de (2002): *La poesía de los trovadores*, Biblioteca de literatura universal, Espasa Calpe.

Sanchez Albornoz, C. (1985): *Los orígenes del reino de Pamplona. Su vinculación con el valle del Ebro*, Príncipe de Viana, Iruñea.

Saroïhandy, J. (1927): *La Pastorale de Roland. Texte basque établi à l´aide de plusieurs manuscrits. Avant-propos, traduction française, commentaire*, Baiona.

Sorauren, M.(1998): *Historia de Navarra, el Estado Vasco*, Pamiela, Iruñea.

Urtasun, E. (2002): *Hablemos de Navarra. Viaje a través de las realidades ocultas de un territorio vascón*, Basandere, Donostia.


Urzainqui Mina, T. eta Olaizola, J. Mª (1998): *La Navarra marítima*, Iruñea, Pamiela.

Zabaleta, P. (1998): *Errolanen harria*, Txalaparta, Tafalla.

ZZ.EE. (1994): *Manual de Historia Universal, Alta Edad Media*, III. liburukia, Historia 16, Madril.

2.2. TOBILLASKO SAN ERROMAN ELIZAK ERDI AROAN IZANDAKO ALDAKETAK

IRUDIA



Eraikuntzaren eboluzioa/garapena.

(A. Azkarate, 1995b. 203. or.)

Iturria: Tobillasko San Erroman elizaren bilakaeraren irudia (Azkarate, 1995b: 203).

Eraikuntzaren bilakaeraren irudia dokumentu pribatu historiografikoa da, ez iturri zuzena, baizik eta iturrietan oinarrituta, historialari batek elizaren eraikinak historian zehar izandako aldaketez egindako irakurketa edo interpretazioa irudikatua, alegia, Agustín Azkarate arkeologoak egindako irudi bidezko berreraiketa.

Tobillasko San Erroman Gobiaranen[25] dago (Araba), Omecillo ibaiaren haranean. Eliza honen estalkiaren zati bat erori zenean, zaharberritze-lanak egiteko proiektua hastean, ikerketa egiteko eskatu zien Arabako Foru Aldundiak arkeologoei. Horrela, barrualdea indusiz eta kanpoaldean altxaera-irakurketa eginez, eraikinaren "historia" edo eraikuntzaren sekuentzia egin zuten aztergai dugun irudian (Azkarate, 1995b). Haiseran pentsatu zen, bigarren mailako nekazari-munduko eliza zela, erromanikotzat jotako elizatxoa, hain zuzen ere. Baina ikerketa hasi orduko, konturatu ziren bi aldi prerromaniko zeudela aurretik (ondoren berreraikia izatean ahaztuak), eta dokumentu idatzi interesgarriak zeudenez, ikerketa historikoari denbora gehiago ematea erabaki zen.

Irudiak lau fase erakusten dizkigu: lehenengoa IX. mendekoa, zeinetatik abside laukizuzena ageri den irudikatua (gezi-leiho batekin, ekialdera begira); bi isurialdeko estalkia zuen. Absidearekin batera, nabearen alde bateko (hegoaldeko) zimenduak ageri dira irudian (garai hartako eraikinetik geratzen dena hori baita, beherago ikusiko dugun moduan), bi hutsunerekin ateetarako. Nabeak absidearen azalera bikoitza-edo izango zuela kalkulatzen da irudian islatu denez.

Bigarren fasea X. mendean egin zen. Aurreko absideari nabea gehitu zitzaion (absidea baino altuago eraikita). Nabeak bi ate zituen: bata absidearen ondoan eta bestea nabearen erdialdean, portada handiagoaz (erdi-puntuko arkuduna), bi leiho atearen alde banatan (hormaren goialdean) eta bi isurialdeko estalkia.

Hurrengo fasea, irudikatutako hirugarrena, XII. mendean egin zen, aurreko faseetako formak mantenduz abside eta nabearen aldetik, baina nabea altuagoa zen aurreko aldian baino (irudian argi datorrenez), eta estalkiaren azpian dekorazioa ageri zen (kanezilloak, agian). Gainera, ate nagusiari arkibolta eta tinpanoz osatutako portada jarri zaio horman, kanpoaldera aurreraturik dagoena; bestela, irudian leihoak berdin mantentzen dira eta gainerako elementuak ere bai.

Denboran salto eginez, irudikatzen den azken fasea XIX. mendekoa da. Garai hartan, atari edo portikoa gehitu zitzaion hegoaldeko hormari, portada babesteko (leiho batekin absidearen aldetik). Aldi berean, leiho berri bat ageri zaio absideari hegoaldetik, eta estalkia bi isurialdekoa da, salbu eta absidean, non hirukoa duen. Gainera, estalkia maila edo altuera berean egina du eliza osoak irudiaren arabera. Azkenik, elizaren oinetan kanpandorrea dauka, bere atearekin, bi gorputzetan zatituta (luzeena behekoa eta laburrena kanpaiak dituena, friso edo moldura batez banatua) eta estalkia lau isuritan egina, ezkila eta gurutzeaz burutua. Gorputzaren zati luzeenean dorreak bi leiho ditu, bata hegoaldera eta bestea elizaren aldera (erlojuaren alboan). Kanpaien gorputzean, erlojuaren gainean dago leiho handiena, kanpaiarekin, hegoaldera leiho txikiago bat dauka (irudia bi dimentsiokoa izaki, ez da ikusten simetriarik dagoen dorrearen beste aldeetan).

25. Gaubea ere deitu izan zaio erdarazko Valdegoviari.

Irudi hau egin ahal izateko, zegoen dokumentazio idatzia eta bibliografia bildu eta aztertu zen lehenengo, ondoren barrutik indusi zen eta fotogrametria analitiko informatizatuaren bidez hormen fabrika edo eraiketa ikertu zen, horretarako eraikinaren ikerketa estratigrafikoa edo altxaera-irakurketa deitua egin zitzaion. Azkenik errestaurazioa edo zaharberritzea egin zen, datu guztiak kontuan izanda eta eraikinaren historia errespetatuz eta agerian utziz (Azkarate, 1995a: 189-190).

Erabili zen metodologia arkeologikoa azaldu behar bada, esan behar da lehenik eta behin E. C. Harris-en[26] metodologia erabili zela, eta hartan oinarrituta egin zela ikerketa.

Indusketaren ondorioei dagokienez, hauek izan ziren nabean —Behe Erdi Aroaz geroztik barruan ohiko ziren lurperatzeek egindako hondaketa alde batera utzita—: bi zilo aurkitu ziren, seguru asko Goi Erdi Arokoak, nahiz ez zen haietan ezer argigarririk agertu, hilobiek estali zituztelako. Ziloak kokapenagatik bata eraikinaren ipar-ekialdean zegoen eta bestea hego-mendebaldean. Egurrezko zutabe batentzako zuloa edo zutoin-zuloa ere agertu zen, euskarri egiteko harritxoekin eta zutabea gainean jartzeko buztinezko plakarekin (absidean antzeko beste bat aurkitu zen).

Absidean, beraz, Behe Erdi Aroan egindako lurperatzerik ez zegoenez, datu interesgarriagoak aurkitu ziren. Hasieran, nabearen mailatik gorago altxatzen zen, eta harlauzaz egindako zorua zeukan eta bertara igotzeko harmailak (guztiak XIX. mendeko zorua zirenak). Harlauza horien azpian, beste harlauza batzuk agertu ziren: Vigilak 939an egindako erreformakoak (haien artean handixeago bat, IX. mendeko aldare-harria). Azken zoru horren oinarrian zegoen lur eta kareore edo eustorearen[27] azpian, buztinezko lurzoru konpaktua zegoen, fundaziokoa izango zena, Abitoren garaian egina, absidearen zimenduak bere gainean baitoaz.

Absidean ere, lehen zorua ebakiz eta Vigilaren zoruaren artean, harlauzaz osatutako fosa sinpleko hilobi bat zegoen absidearen hegoaldean (822 eta 939 artekoa). IX. mendeko zoru haren azpian, beste zurezko zutabe batetzat egindako buztinezko plaka aurkitu zen, aurretik aurkitutakoaren noranzkoan, seguru asko, lehena bezala, lehen eraikuntza prerromanikoaren eraiketa egiteko aldamioentzat jarria. Gainera, Abitoren fundazioko elizarako egindako zuloa ere ageri zen, betelanarekin: errautsak eta hondakinak (garai hartako zeramika zatiak, "birpopulazioko zeramikak" deituak, etab.). Guztiaren azpian, erromatar garaiko kronologia zehazten zuten zeramikak aurkitu ziren —K. o. I. mendetik Behe Inperioaren amaierara datatuak—, absidearen erdialdea osatzen zuen zulo zirkular batean (Azkarate, 1995a: 192-199).

26. Matrix Harris-i buruz, ikus: Harris, E. C. (1991): *Principios de estratigrafía arqueológica,* Crítica; Bartzelona, edo Trocoly, I. G. eta Sospedra, R. (arg.) (1992): *Matrix Harris. Sistemes de registre en Arqueología. Recording systemes in Archaeology*, Lleida.

27. Argamasa.

Eraikinaren estratigrafia ere egin zen, hau da, eraikin baten eraikuntza-unitate edo -fase guztiak "identifikatu, indibidualizatu eta aztertu ziren", eta haien arteko harremana zehaztu, eraikinak eraiki bitartean historian zehar izan dituen faseak eta aldaketak ikusi ahal izateko, Parenti-k[28] zioen moduan, erregistro bateko datuak bezala bilduz banan-banan. Fase horietan lortutako informazioa, ondoren, eraikinaren "mapa" antzeko batzuetan kokatzen da, eta eraikinaren zati bakoitza zein den eta zein garaitakoa den argitutakoan, zati bakoitza besteekin harremanetan jarriz berreraikitzen da eraikina, irudi informatikoaren bidez, era laburrean esanda. Horrela, identifikatu ziren arkeologoek "eraikuntza-unitateak" deitzen dituztenak, hots, identifika daitezkeen eraikitako unitate txikienak (leiho bat, horma zati bat, etab.). Berrerabilketa asko zeudenez eta, eraikina txikia izanik erraza zelako, unitate estratigrafiko indibidual gisa kontsideratu ahal izan ziren lehen une batean (bakoitzari unitate-zenbaki bat esleituz). Gero, bere garaiko edo harremanetan izandako besteekin elkartu zituzten, zentzua emateko bakoitzari bere testuinguruan. Aldi berean, barrualdean nabea eta presbiterioa indusi ziren, nabean estratigrafia zaharrena hondaturik zegoen Behe Erdi Arotik (XIV. mende ingurutik) elizen barruan hildakoak lurperatzeko zegoen ohituragatik —XIX. mendera arte iraun zuena, oraingoz zehaztasun gehiagorik eman ezin den arren—, eta, alde horretatik, presbiterioa adierazgarriena izan zen horrexegatik (Azkarate, 1995a: 190-192 eta Azkarate, 196: 125-131)[29].

Ondorengo urteetan ikerketaren testuingurua zabaldu egin zen. Esperientzia honetan oinarrituta, A. Azkaratek eta Leandro Sanchez Zufiaurrek[30] erabaki zuten ikertzea nola eraiki ziren zenbait eliza arabar eta zein materialen bidez. Horretarako, metodologia arkeologikoa erabili zuten, eta testuinguru historikoarekin harremanetan jarrita, garai hura hobeto ulertzen saiatu ziren (Azkarate eta Sánchez Zufiaurre, 2003: 27). Horretarako, azterketa bibliografikoaren bidez Arabako zazpiehun eliza inguru zeuden, artearen historialariek erromanikotzat jotakoak edo parteren bat erromanikotzat izendatuta zutenak. Horietatik hautatutakoekin, lortu zuten 326 eliza eta ermitetara mugatzea zerrenda, hots, 1025ean Donemiliagako Nabarrean eta 1257ko Artzedianatoaren zerrendan zetozen elizen multzoa, gutxi gorabehera.

28. Metodologia honen datu gehiago eta metodologia garatu dutenak aztertzeko ikus: ZZ.EE. (1995): "Leer el documento construido", in *Informes de la Construcción*, **46-435**, Instituto Eduardo Torroja, Madril. [ale monografikoa]; edota Caballero Zoreda, L. (1995): "Método para el análisis estratigráfico de construcciones históricas o "lectura de paramentos", *Informes de la construcción*, **46-435**, 37.-46. or.

29. Ikerketa honen datu zehatzak jakin nahi dituenak ikus beza indusketaren memoria, Arabako Foru Aldundiaren Arkitektura eta Urbanismo Sailaren Patrimonio Historiko Zerbitzuan dagoena (Azkarate, 1995: 1991-192).

30. Euskal Herriko Unibertsitateko arkeologoak biak, lehena Arkeologiako katedraduna eta bigarrena doktore-tesia egiten gai honi buruz.

Tobillasko San Erroman lehendik aztertua zuen A. Azkaratek (1995a), Gasteizko Otobarrengo San Bizenterekin —J. L. Solaunek[31]—, Burgelu herriko Argomaizko San Petri Kiltxaokoarekin, Bastidako Santo Kristoarekin[32] eta Kanpezuko Uribarri Haraneko Andre Mariarekin batera. Lan horiekin ikusi zen eraikin zaharrak berrien barruan eta zatietan gordetzen zirela, eta hala gertatzen da eraikin gehiagotan ere, egileek ikusi dutenez, orotara hogeiren batean.

Egindako azterketa horien guztien ondorioz, Tobillasko San Erromanen identifikatu zituzten bi fase prerromaniko: *1. Taldea* deituak ezaugarri hauek ditu: harlandu berrerabiliak hormetan, ertzetan eta leihoetan; hargin-teknika, zeioaz landua, eta ferra-arkudun gezi-leihoa. Hori izango zen bere lehen fasea, IX. mendekoa, 822a baino lehenagokoa, testuari esker dakigunez (Abitoren testamentua). *3. Taldea* izendatu dutena: harlandu berriak ditu horma, ertz eta leihoetan; zeio eta zizelaz landu zena eta gezi-leiho eta leihoak abozinatuak eta erdi-puntuko arkudunak zeuzkana. Hori bigarren fasea izango zen, Vigila presbiteroaren inskripzioak 939an datatzen zuena (Azkarate eta Sánchez Zufiaurre, 2003: 31).

Irudiaren azterketa zehatzago egiten bada, A. Azkaratek eta bere lan-taldeak egindako ikerketa-lanarekin eta haien testuinguru historiko dokumentalarekin zehazkiago osatuta, faseak era aberatsago batean deskriba eta uler daitezke, guztira zazpi garai bereiziz eraikinean (Azkarate, 1995a eta 1995b):

0. Erromatar garai berantiarra, abside inguruan harkaitzean indusitako egitura zirkular batzuetan.

1. Lehen aldi prerromanikoa 822 *ante quem* datakoa, eta Abitoren fundazioan eraikia, beraz, arkeologikoki nahiz idatziz datatu eta aztertu ahal izan den aldia. Garai hartatik geratzen diren aztarnak dira:

   1.a. Abside laukizuzena, eta berau eraikitzeko egindako zimenduetarako zuloa. Zimenduak harri-bloke handiz, harlauzaz (hormei eusteko) eta zenbait tamainatako harlangaitzez eginda daude, gutxi landuak. Ertz batean (hego-mendeabaldekoan) garai hartako ohiko zen zeioz landutako harlandu bat dago. Absidearen hormak, berriz, zeioz landutako hareharrizko harlanduz eraiki ziren[33] (tobazko batzuekin) lehen zatian, eta bigarrenean, aurrekoaren gainean, tobazko harlandu txikiagoekin egin ziren. Horren guztiaren estalki gisa, petxina gainean eraikitako ganga zihoan. Ganga hori XIII. edo XIV. mendean egindako

31. Solaun Bustinza, J. L. (2003): "Iglesia de San Vicente de Hueto de Abajo", *Arkeoikuska 02,* 316.-322. or. eta beste metodologia orokorrago batekin Echevarría, P.; Gallego, A.; Cortázar, M. eta Sanz Gómez de Segura, Mª D. (2004): *El retablo de San Blas de Hueto Abajo: manifiesto del Renacimiento en Álava: estudio histórico-artístico y restauración*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

32. Azkarate, Fernández de Jauregi eta Nuñez (1996).

33. Esan bezala, garai hartako elizetan ohikoa den aparejo mota da (Azkarate, 1996: 125-131).

erreformetan desegin zuten, baina tinpanoan aztarnak daude oraindik eta ekialdeko horman petxinetarako zegoen lekua geratzen da[34]. Hormak barrutik estalita zeuden, baina zaharberritzeko lanen hasieran, lan arkeologikoaren aurretik, kendu zuten zegoena eta ez dakite espezialistek zer zegoen (horma-irudirik zegoen…). Jatorrizko hutsune edo leihoa dauka absideak: ekialdera begira dagoen gezi-leihoa —barrurantz derramean edo zabaltzen doana— eta ferra-arkuan bukatua.

1.b. Lehen faseko bigarren elementua jatorrizko oin-planta da. Absidea bakarrik mantentzen da ia osorik, baina nabearen zenbait zimendu zati ere kontserbatu dira, antza. Altueran, aldiz, hego-ekialdeko nabearen hasieran gorde da zati bat. Ez denez besterik gorde, arkeologoek uste dute aula laukizuzena izango zela, gaur egungoaren antzekoa tamainaz, nabe bakarrekoa eta erdirupestrea ipar-mendebaldeko ertzean (nabearen oinetan), hau da, harkaitz-labarrean erdi indusia (monjeen bizilekuak eta), haitzean dauden horma-zulo edo metxinalak ikusita[35]. Hormarik ez da ia geratu, arkeologoen ustez manposteria edo harlangaitzez eta zuraz eraikita hurrengo aldian desegingo ziren.

1.c. Ateak bi izan ziren hegoaldeko horman, bata erdian eta bestea hego-ekialdeko zatian (gaur egunean sakristiako sarrera dagoen lekuaren inguruan). Zimentazioen hausturek adierazten dute non zihoazen; seguru asko tenpluaren iparraldean ere sarrera bat egongo zen monjeentzat (geroko tenplu erromanikoak bai baitzeukan ere).

Hau eraikitzen den testuingurua da Goi Erdi Aroaren hazkundearen hasieragaraia, IX. mendearen hasierako urteak dira, antza, Araban eta mendebaldeko haran hauetan kolonizazioa hasi zen garaia, eta hurrengo mendean argi jarraitu zuena. Tobillasen lehen fasean egindako eraikinaren kalitateak adierazten du errenta eta jabego handiak zituela elizak horrela eraiki ahal izateko (Azkarate eta Sánchez Zufiaurre, 2003: 33-36). Abitoren testua[36] aztertzen badugu, ikusten da nola lehen *presura*k (edo *aprisio*ak, hutsik, abandonatuta edo landu gabe zeuden lurrak, normalean norbaitek lantzen bazituen, edozein motatako produkzioan, 30 urte eta egun bat igarotzen zirenean produkzioan baziren, landu zituenaren jabego bihur-

34. Ganga mota hori Burgos, Errioxa, Palentzia eta Arabako eliza batzuetan baino ez da aurkitu, baina eztabaida handia zegoen haien kronologiaz, Tobillasekin zuzendu daitekeena.

35. Tobillasen haitzulo artifizialak daude, baita ere, Santiago Gaina deitzen den mendian, herritik gertu (Azkarate, 1988 eta Portilla, 1983: 43), San Erroman inguruan ere ageri dira mota horretako egonlekuen aztarnak (Azkarate, 1996: 130); orotara Gobiaranen 18 daudela dio Paquita Sáenz de Urturi-k (1987) Barrio, Corro, Pinedo, Quejo, Tobillas, Valpuesta eta Uribarri Gobiaran artean; eta hilobi antropomorfoak zeuden (Ruiz de Loizaga, 1989: 40) (egileak ez du zehaztasun gehiagorik ematen).

36. Ikus atal honen bukaeran testua transkribiturik gehigarri gisa.

tzen ziren[37]) sernatarako erabiltzen ziren besteak beste —lan kolektiboz ustiatutako lurra, normalean, hedaduraz nahiko zabala eta bazterreko zonetan egoten dena eta laborantzarako erabilia dena, lugorri luzeez eta era ezjarraian erabiliz, jatorria erroturazio eta luberrietan duena, eta beraz, lurralde baten kolonizazioan[38]— (García de Cortázar, 1982: 93).

Gainera, ikusten denez oso ondo dotatutako monasterioa zen (Peña, 1991: 252-254; Ruiz de Loizaga, 1982: 104-107, 1989: 25-26 eta Azkarate, 1995a: 209), inguruko populazio-guneetan jabegoak baitzituen, besteak beste: Urduña ondoko Losatik, Gobiaran iparraldetik, Valluercan, Quintanillan, Acebedon, Añanan 23 gatz-larrain eta putzua, eta haranetik kanpo Obarense mendietan, Bureban (Cerezo eta Lararaino) —zerrenda horretan herri asko lehen aldiz agertzen dira aipatuak—; horrez gain, etxeak, lursailak eta soroak, baratzeak, ortuak fruitu-arbolekin, basoak eta urak (iturriak), larreak, sernak, *ferragines*ak —M. Alonso-ren (1986) arabera, zelaia, eta R. Lapesa-ren (2004) arabera, herren edo zerealez landutako saila, zereal horiek abereentzat zuhaina izanik—, busto edo bustalak —Lapesa-ren (2004) arabera bustoak mendiko larreak dira animalientzat, erretura bidez lortuak, alegia, mendia errez, korten antzekoak; eta bustalak abelgorrientzat ziren mendiko larreak—, putzuak, errotak, elizak, abereak (idi-uztarriak[39], 100 behi, 80 behor, 20 zaldi eta mando, 500 artabere), eta, gainera, 24 liburu eta tresna liturgikoak.

37. Okupatu ostean jabetu egiten da lur erabili gabe horretaz okupatu duena, IX. mendean egin ziren gehienak aurretik populazioa zegoen lekuetan egin ziren, eta askotan lehen faseko kolonizazio kolektiboa gaindituta, lur horiek pribatuak egiten ere erabiltzen da presura hitza okupazioa eta jabetzea adierazteko (Botella, 1988: 12-14).

38. Ikus hauei buruzko datu gehiagorako J. A. García de Cortázar (1980) eta Botella (1988); lehen egileak dioenez aldatu egiten da bere esanahia, eta Naiara aldeko adibide bati jarraituz, XI. mendearen bukaerarako lur marjinal bat dena kolonizaziotik sortua, lursail arrunt izatera igarotzen da (eta esanahi hori hartuko du ere), populazio-hazkundearekin lanketak hazi egiten direlako eta bazterreko lurrak gunearen parte ere bihurtuz eta dena bat eginez; horrez gain, J. A. García de Cortázar-ek, definitzen du jaun baten mendean eta haren eragin eta aginduz bere mendekoek kolektiboki landutako lurra dela, jabego eskubideengatik (García de Cortázar, 1980: 121-122), horregatik gero prestazio feudalak nahiz lur motak hartuko du landua izan zen moduaren izena. IX. mendekoetan ere jaun baten mendekoek egindako erroturazio edo lan-modua ezin da izan feudal eran, jakina, feudalismoa iritsi gabe dagoelako. Horrela, García de Cortazar-en arabera, lurren jabeari emandako errenta da, lurra lantzeagatik, asko jota, prestazio publikoa autoritateari (Pastor, 1996: 169), edo kolektiboki (edo indibidualki landu arren partzela batzuetan) erroturatutako edo luberritutako lurrari deitzeko modua, besterik gabe. Edonola ere, feudalismoa zabaltzean jaunek berenganatua beste lur edo eskubide batzuekin gertatu zen moduan, eta ez zen jaunaren erreserba masan egindakoa (era klasikoan esaten zen moduan lan prestazioz landutako jaunaren lur zatia), eta nekazariek ustiatzen zuten beren aldetik nahiz eta gero prestazio eta zamak zor izan jaunari (Botella, 1988: 37tik).

39. Idi-pareak ziren ala lotzeko tresna zen ez dakigu, idiak izango ziren ziur asko.

Aipatzen diren lurralde horiek denak E. Peña Bocos-ek (1993: 252-254) identifikatu ditu: Tobillasko lurrez gain, Ebro hegoaldean dira, 45 km-ra edo, San Miguel de Tirónen eta Osmillan, Santa Cruz de Purasen eta Santa María de Laran; Ebro garaian 70 km-tara Santa Cruz de Paredes Rubiasen (Valderredible); Ebro ibaian behera joanda, Miranda inguruan, Comunión herrian; Tobillastik gertu: Valluercako Kosme eta Damian Santuen eliza, eta Quintanilla ibaian, Petri eta Paulo Santuen eliza Villamancan; Gaztelan *Donnica* haranean eta Losan, Fonte Azebedan, Villalambrúsen, Valcavadon eta Bustantigon (ezezaguna azken hau, Porciles eta Petra Longa edo Piedralonga bezala). Denaren jabea monasterioa eta abadea ziren eta bertan bizi zirenek gozatzekoa (Ruiz de Loizaga, 1982: 105 eta 151).

Azaroaren 18an egin zuen dokumentua San Erromanen egunean. Hurrengo urteetan ere inguruko monasterio txiki batzuk anexionatu edo irentsi zituen: 897an Uncecako (Zadornil) San Saturdi —Tobillaskoa handia zenez, bere borondatez lotu zitzaion Uncecakoa—, gero, 915 bitartean, beste batzuk Mingranoko San Mami, Quintanillako San Martin, denak Gobiaran eta Losan zirenak, beraz.

Dokumentu honetan argi ikusten da Abitoren helburua jabegoen kontserbazioa ziurtatzea zela, zatitu eta sakabana ez zitezen, inguruko beste batzuentzat eredua izateaz gain, emanaldiak egiten jarraitzeko, monasterioaren boterea eta autoritatea indartzeko asmoz (García Camino, 2004: 259).

Dokumentu honen faltsutasuna ez du inork agertu garbi, hala ere, bada uste duenik San Miguel de Tirón, Santa María de Lara[40] eta Osmillako aipuak askoz geroagoko intrusioak direla, 852ko beste testu batekin konparatzean[41], non Abitok zenbait emanaldi egiten zizkion Tobillasko San Erromani (Perez de Urbel, 1945: III, 1056). Baina E. Pastor Díaz de Garayo-k (1996: 127-128) jasotzen duen moduan, ez dago zertan zalantzarik izan 822koaz, eta sinesgarria da asturleondar erresuman integratu gabeko lurraldean birpopulazio espontaneoko aktibitatea izatea (Lararako dio), beste leku batzuetan gertatu zen moduan[42]. Esan bezala, hau Goi Erdi Aroko nekazari-kolonizazio eta hazkundearen adibide garbia da.

Araba musulmanen kanpainetan aipatua da (VIII. mendetik) eta Alfontso III.aren kroniketan Alfontso I.aren garaian berezko antolaketarekin esaten denez, garai horretan, beraz, badirudi barruti txiki bat dela, VIII. mendearen erdialdetik arabiarren eta asturiar erresumaren artean dagoena, alde batetik bestera aldatzen.

40. Santa Maria eliza Laran, tradizio historiografikoan Santa Maria de Lara monasterioarekin identifikatu da (Perez de Urbel, 1945: III, 1056), non Quintanilla de las Viñas dagoen (Pastor, 1996: 127).

41. 852ko dokumentu horrek data-errorea duena kopian, bestela berdintsua izanik.

42. Adibidez, San Miguel de Pedroso, Tiron haranean aurretik dokumentatua 759an jada. Pérez de Urbel-ek 822 eta 852ko testuen arteko desberdintasuna azpimarratzean, begiratzen du 852koan hiru leku hauen falta ageri dela, eta ez, ostera, abereak eta liburuak ere ez direla agertzen aipatuta. Aldiz, 852koan datazioan badaude benetako zalantzak berak ere jasotzen duen moduan eta E. Pastor-ek argi uzten duen moduan (1996: 127).

Baina IX. mendearen bigarren erdiaren bukaeratik Arabak kondea izango du antolaketaren figura bezala (Velatarren familia), Asturiasko erresumaren mendean edo behintzat eraginpean zirenak. X. mendean Gaztelaren esku geratu zen familia loturengatik (Fernán González-en esku) eta mendearen bukaeratik Iruñeko erresumara loturik geratu zen[43].

2. Bigarren fasea bigarren fase prerromanikoa da: Vigilak egin zuen erreforma, eta epigrafe batean ere dokumentatu dena, 939an. Bigarren aldi horretan IX. mendeko absidea mantendu zen, baina

   2.a. nabea berrian berriz eraiki zen aurrekoaren norabideari jarraituz (hegomendebaldeko zatian izan ezik), aurreko garaiko hormen oinarriak mantenduz bakarrik, espezialisten ustez. Horma berrien paramentuak kalitate handiko harlanduz eginak izan ziren (batzuk eskuairan sartuak bata bestearekin), eta berriak, aurreko zati prerromanikoan ez bezala, aurreko garaietako harlandu berriro landuak berrerabili zirela.

   2.b. Ateak, kantitatez aurreko garaian izan zituenak mantendu zituen, eta leihoak hegoaldeko horman bi zituen. Leihoetatik bat, erdi-puntuko arkuduna, bi harlandu ez dobelatuen bidez egina zen[44]. Bigarren hutsunea nabearen oinetan zegoen gezi-leihoa zen, barrutik abozinatua edo derramean, eta erromanikoan eraldatua izan zena[45].

   2.c. Oin-plantaren iparraldeko aldea, iritsi zaigunaren oso desberdina zen. Jatorri prerromanikoan erdirupestrea izango zen, monasterioko gelak gordez. Bertara elizatik zuzenean sartuko zen, baina arkeologoek ez dakite zehazki nolakoa izango zen bigarren fase honetan, aurrekoaren antzekoa izango zela soilik, seguru asko.

Bigarren fase prerromanikoa datatzen duen oroitzapenezko epigrafea edo oroitarria ere badaukagu aztertzeko moduan, Vigilak 939an egindako erreformarena. Honela izan da transkribatua (García Camino eta Azkarate, 1996: 127-130):

> RENOVAL[TUM EST] HOC TEMPLUM / A(B) VIGILÂNI PRESVITERI IN / HONORE S(AN)C(T)I ROMANI ET S(AN)C(T)I CIPRIANI PRO RE / MEDIO ANIME SUE / ERA DCCCCLXXVII A.

Tenplu hau berritua izan da, Vigila(no) presbiteroak, San Erroman eta San Ziprianoren omenez, bere arimaren alde. Aroa 977 urtea.

---

43. Garai honetako historiarako ikus adibidez: K. Larrañaga (1992) eta E. García Fernández (2003).

44. Asturiasko Valdedios elizako portadaren antza dauka eta Burgosko San Pedro el Viejo de Arlanza eta San Vicente del Val-ena.

45. Burgosko bi eliza horietan antzekoak daude, baita beste batzuetan ere.

1979-1980 tartean egindako erreforma txiki batzuetan aurkitu zuten portikoan eta gaur egun Arabako Museo Arkeologikoan dago gordeta 1980tik[46]. Harearrizko harlandu bat da, tenpluaren horman jartzeko, leundua eta trapezoidal formakoa, ertz zorrotzetan bukatua (eskuin-goialdean izan ezik). Tamaina da: 47-51 (altuera) x 60-64 (zabalera) x 10-11 (lodiera) cm. Harlanduaren aurpegia ia osorik estaltzen du epigrafeak, eta dekorazio gisa bi intzisio bertikal ditu (bata soka-irudiekin dekoratua). Egoera ona du, lehen lerroa izan ezik, nahiko hondatua dagoena (beste irakurketa batzuk ere sortu dituena hasierako zatian), seguru asko berrerabilitakoan gertatutako hondaketarekin (eta behealde hutsean *graffiti* ugari jaso ditu). Sei lerrotan idatzita dago eta azken biak dira laburrenak (eskuinerago hasiz). Gidamarrak dituzte guztiek, azkenak izan ezik, eta kalitate eta uniformitate handiko testua da. Hizkia tarteko zerbait da kapital untzial eta garaiko bisigodo-mozarabe jatorriko alfabetoarekin (hizki bera modu desberdinean ere eginez). Puntuazioa, gehiena gerora gehitua da eta kontrakziozko laburdurak ditu (*sancti* hitzean). Oroitzapenezkoa edo konmemoratiboa da epigrafea, azalduz zer egin zen (elizaren zaharberritzea), nork egin zuen (Vigilanok), bere kargua (presbiteroa), noren omenez (adbokazioa San Erroman eta San Ziprianoren izenean eginez), eta zergatik egin zuen (bere arimaren salbamenaren alde) eta datazioa (urtea bakarrik Era edo Aro bidez jarria eta egunik gabe: Aroa 977, K. o. 939. urtea).

Aurreko fase prerromanikoan eraikitakoa justifikatzeko hazkundeaz hitz egin badugu, bigarren faseko eraikuntza ere testuinguru berean garatu zen. Gainera, harriz osorik eta berrerabili gabeko harlanduz (baizik eta berriez) eginda egoteko, garai berdineko beste eraikin batzuekin konparatzen bada[47], horrek zeuzkan zailtasun tekniko eta ekonomikoekin. Horregatik, argudiatu da pertsonaia garrantzitsua izan behar zela eraikinaren erreformaren egilea, Vigila (Azkarate eta Sánchez Zufiaurre, 2003: 33-36). Vigila monje egin zen San Petri eta San Paulo monasterioan eta hari eman zion Tobillasko San Erroman 932an (Pérez de Urbel, 1945: I, 397-398 eta III, 1.101-1.103[48]). S. Ruiz de Loizaga-ren ustez (1982: 106-107 eta 151-152), monasterioa gainbeheran izanda abade zela eman zuen Tobillas. Baina ezin dugu onartu gainbeheran egote hori ezin baita ulertu eliza berrian berriz egitea krisian baldin bazegoen monasterioa. Beste eztabaida bat argia da, horri lotuta, jakitea zein den Petri eta Paulo santuen izena zeraman monasterioa eta zein den inskripzioko Vigila.

Esan dugun moduan A. Azkaratek eta L. Sánchez Zufiaurrek (2003: 35) diotenez, Vigila pertsonaia garrantzitsua izango zen, seguru asko Arabako kondeen familiakoa[49]. A. Azkaratek (1995: 210) berak jasotzen du, nola Vigila hau

46. Ikus bukaerako gehigarrian.

47. Adibidez, San Pedro Urbina Basabekoa, Igokundeko Andre Maria Samiano-n.

48. 122. dokumentua.

49. Hitzez hitz: «Tampoco es casual que, en este caso, sea de nuevo un personaje relevante —el presbítero Vigila, emparentado probablemente con la familia condal alavesa— quien lleve adelante una iniciativa de esa naturaleza».

Tejadako San Petri eta San Paulo monasterioan (Valdivielso, Burgos) egin zen monje San Erroman emanez hari. Hain izan zen aipagarria emanaldia, ezen Erramiro erregea, Gonzalo eta Fernán González kondeak, zazpi apezpiku, bederatzi abade, eta presbitero, monje eta zaldun ugari izan baitziren lekukoak. Hori dela eta, Pérez de Urbel-ek uste zuen Vigila, Vela konde-familiako kide izango zela seguru asko[50], hamar urte lehenago Arabako kondea izan zen Munio Vigilaniren semea, hain zuzen ere. Horrek azalduko luke egin zuen erreforma garrantzitsua egiteko gai izatea egile beraren ustez[51]. Pérez de Urbel-ek (1970: III, 1.101-1.103) testua jasotzen du eta testuaren jatorriaz dakiena dio[52], baina aurrerago A. Azkaratek agertutako ideia bera jasotzen du (Pérez de Urbel, 1970: II, 397-398).

Hau da, Perez de Urbel-ek dio San Petri izeneko monasterio batean egon zela Erramiro II.a: «*que puede ser San Pedro de Arlanza o más probablemente San Pedro de Tejada*» (hots, Arlanzako San Petri monasterioa izan zitekeela edo seguruago Tejadako San Petri, beraz, egileak berak ere ez daki ziur). Erregea zeremonia bati babesa ematen ari zitzaion: Vigila izeneko baten profesioan, alegia, eta aipatuz Arabako kondearen semetza[53].

Baina hau dena nahasia da, bertan ikusten baita, batetik hasieran Vigila izeneko norbait, gero azalpenean Vela bihurtzen dela eta, gero, Vela Muñoz, Munio Vigilaniren semea, jakina, azkenean konde izatetik baztertuta geratuta monje sartzea erabaki ei zuena. Bestetik, San Petri eta San Paulo monasterio hori

50. Konde-familia zena Araban IX. mendeko azken bi hamarkadetatik, 932tik edo, titulua Fernán González-en esku geratu zen arte, familia loturengatik. Baina ez zuen bere familian jarraitu tituluak eta gero 984rako Iruñeko erregeen tituluen artean zegoen, Antso II.a Gartzezen eskuetan.

51. Honela dakar hitzez hitz: «Este presbítero [Vigila] había profesado como monje en el monasterio de San Pedro y San Pablo de Tejada (valle de Valdivielso) haciendo donación de San Román al cenobio que lo acogía. Por la solemnidad del acto, en el que figuran como testigos el rey Ramiro, los condes Gonzalo y Fernán González, siete obispos, nueve abades y un gran número de presbíteros, monjes y caballeros, se ha supuesto que el tal Vigila debía de pertenecer a la familia condal de los Vela, y que fuera hijo probablemente de Munio Vigilani, conde de Álava diez años atrás (Pérez de Urbel, J., 1970, II: 87-88). Es probable que así fuera, a juzgar por la importante reforma que fue capaz de acometer […]»

52. Beheko erreferentzian ere zein beste lekuetan agertzen den azaltzen du egile berak.

53. Testua osorik jartzea merezi du, bere izaera narratiboa argi uzten baitu: «Era la profesión religiosa de un Vigila, un Vela, uno de los principales magnates de Castilla, hijo al parecer, de MunioVigilani, el que había sido conde de Álava hacia el año 920. Muerto el padre o reemplazado en el condado por Álvaro Herrameliz, Vela Muñoz había encontrado generosa hospitalidad al lado de los condes de Lara, y con ellos estaba, como hemos visto, cuando el primero de enero de 931, señalaron los límites del Alfoz. Ahora, impresionado acaso por los últimos sucesos y desilusionado porque los consideraba poco favorables para su familia, se decide, más o menos espontáneamente a banadonarlo todo […]» eta profesioko gutunaren hitzek jarraitzen dute, haren formula ohikoa erabiliz "desilusio" horren aipua justifikatzeko. Jarraitzen du aipatuz Tobillasko emanaldia San Pedro monasterioari, «en la tierra alavesa de Valdegovia, donde los Velas tenían el núcleo más importante de su patrimonio». Ez da lan honen helburua gai hau zehazki aztertzea eta iturriak aurkitzea, baina interesgarria izan liteke.

Tejadakoa izatea onartzen duen beste egilea Luciano Serrano da, horrela aipatzen baitu bere lan batean[54]. Badirudi L. Serrano-k eta J. Pérez de Urbel-ek berak, Argáiz-ek 1675ean argitaratu zuen lan batetik atera dutela informazioa[55], baina haiek ere argi izan gabe. Honek guztionek monasterioari eta egileari buruzko hainbesteko ziurtasunik ez dugula adierazten digu azkenean, kontuan izanik, gainera, Abitoren testuan bertan agertzen dela San Petri eta San Paulo izeneko eliza Villamancan, E. Peña Bocos-ek identifikatua (1993: 252-254); baina lan honen helburua gainditzen du hori guztia ikertzeak.

Bigarren epigrafe funerario bat ere badaukagu Tobillasen (bertako dokumentazioaren aberastasuna azpimarratzen duena[56]), eta zaharberritzeko egindako indusketa eta lanetan aurkitu zena (Azkarate, Fernández de Jauregi eta Núñez, 1996: 71-74). Oso baldintza txarretan dagoela esan behar da lehenik eta behin (García Camino eta Azkarate, 1996: 130-131). Transkripzio hau egin diote: […] DEI +++ AB / […]TAS SITUS IN ER / […]S III A XXXVI. Egileek ondo dioten moduan, oso zaila da zer dioen benetan jakitea, apurtuta (zati bat falta zaio, geratzen denak 19 x 23,5 cm dauzka) eta hondaturik baitago. Berau IX. mendeko zimentazio prerromanikoetan aurkitu zen sartuta indusketan, baina geroago sartu zen bertan, ez delako ondo egokitzen hormaren paramentura. Hareharrizko harlauza laukizuzen batean idatzirik dago, aurpegi leundukoa. Hiru lerro irregular dira, inongo lerrokatzerik gabe. Egin dioten interpretazioaren arabera, "*Obit famulus dei*" formula funerarioarekin hasiko zen; gero, hondatuta dagoen lekuan, defuntuaren izena joango zen, eta, agian, bere kargua ("*abas*"). Hurrengo lerroan argi "*situs in e*" ikusten da, agian "r" batekin ("era" egingo zuena), eta hilobiaren kokalekua adieraziko zuena. Azken lerroan numeralak daude, baina García Camino eta Azkarate ez dira ausartu interpretaziorik egiten egoera dela eta (uste dute, beharbada, "*a XXXVI*" adina izango zela, baina oso zaila da jakiten). Argi dagoena da alfabeto bisigodomozarabea erabiltzen dela ("t" oso argiekin aurreko epigrafekoaren oso antzekoa), hizki guztiak maiuskulak direla ("u" oso klasiko batekin), azken hiru "XXX" lotu eta kurtsiboak izan ezik (besteak baino txikiagoak direnak gainera). Orotara, hau ere X. mendekoa dela uste dute ikertzaileek eta aztertzen ari garen garaikoa, bada.

54.«Corroboró, en 932, la unión del monasterio de Tobillas al de San Pedro de Tejada, efectuado en presencia de Ramiro II, del conde Fernán Gonzáñlez y obispos de su comitiva» Serrano, L. (1935): *El obispado de Burgos y Castilla Primitiva. Desde el siglo V al XIII*, Instituto de Valencia de Don Juan, Madril, I. liburukia, 159. or.

55. Honela, ikusi: Argáiz, G. (1675*): Soledad laureada por San Benito y sus hijos en las iglesias de España*, Madril, II. liburukia, 290. or. eta VI. liburukia, 634.-635. or. Baina ez dirudi liburu hau denik iturria.

56. Ikusi bukaerako gehigarrian.

3. Erromanikoa, XII. mendeko aldaketak: 1011. urtean Antso Gaztelako kondeak eta bere emazte Urrakak Oñako San Salbatore fundatu zuten eta monasterio fundatu berriari emana izan zen Tobillasko San Erroman[57] —Tobillas errenta oso aberatsa izan zen harentzat—. 1082an Fanio Tobillasko abadeak berretsi zuen Oñari eman izana, sarrera garrantzitsuak zituen monasterio gisa, eta bere mendeko monasterio txikiagoekin[58]. Hala ere, nahiko independentzia mantendu zuen. Horrela, 1129an Alfontso I.a *Borrokalaria*k edo *Gudularia*k bere serna baten ekarpen ona egin zion Tobillasi *Flosiela* izenekoa —gaur egun Losilla—[59] (Ruiz de Loizaga, 1982: 106-107 eta 151-152).

Emanaldi hori gertatu eta handik gutxira, erreforma handia egin zitzaion elizari. IX. mendeko absidea mantendu zen, petxina gaineko ganga eta guzti; eta X. mendeko hegoaldeko eta mendebaldeko hormak mantendu ziren. Baina, oin-planta trapezoide formakoa geratu zen azkenean, iparraldeko hormak garai hartan hartu zuen formagatik. XII. mendean itxi egin zen zonalde hori, berrian berriz eraikiz[60], nabeak zeukan norabidea aldatuz, alde horretan dagoen harkaitza zela eta. Ondorioz, monasterioa tenpluaren oinetara aldatu zen (gaur egungo ortu aldera, non oraindik Behe Erdi Aroko aztarnak dauden eta ahozko tradizioak gordetzen duen monasterioaren oroimena), haitzulo artifizialak utzita. Altxaera ere luzatu egin zitzaien gorantz hormei. Horma horiek denak punteroaz egindako kalitateko harlanduz eginak izan ziren. Portada nagusia ere aldatu zen eta erromanikoan ohikoak ziren dekorazio-elementuak jarri zitzaizkion eraikinari (takeatuak, kanezilloak, moldurak, kornisak…), prerromaniko garaian tenpluak zuen itxura asko aldatuz orotara.

Norabide desberdinez eraikitzea eta oin-planta arraroa sortzea izan ziren zati horren hondaketa azkarraren arrazoiak, eta monasterioaren uztea ekarri zutenak, XIII. mendearen azken laurdenean edo —Oñako monasterioak Tobillasko sernak partikular bati errendatu baitzizkion S. Ruiz de Loizaga-k jasotzen duenez (1982: 107)—. Ez da garai horretako ia ezer geratzen bere lekuan, eliza beti erromaniko

57. Antso kondeak eta Urrakak beren alaba Tigrida jarri zuten abadesa Oñan, eta eman zizkioten jabegoen artean Tobillasko San Erroman zegoen: "*In Ualdegouia, Touilla, cum inte_/gritate en ecclesiam sancti Romani et Sancti Iuliani*". (Alamo, 1950: 11-21), —ez dakigu San Julian hori zein izan daitekeen—.

58. Alamo (1950: 115) edota Oceja (1983: 18-19).

59. Alamo (1950: 194-195): «*[...]* dono et offero Sancto Saluatori de Onia et monasterio suo Sancti Romani de Tobiellas, quod est in alfoz de Ualle de Guouia, una / mea serna que est in supradicta uilla Tobiellas, que dicitur serna de illa Flosiella, cum omnibus suis arboribus fructuosis / et infructuosis, et cum omnibus suis pertinenciis, sic quomodo taliat illa karrera et alia parte quomodo taliat illo rigo usque ad / illa uilla totum als integro quomodo mihi regali persone pertinet. *[...]*».

60. Horma horretan ez da prerromaniko garaiko aztarnarik geratzen, ez horman ez eta zimenduetan ere.

moduan katalogatu izan den arren (bakarrik geratu dira, esan dugun moduan, iparraldeko hormaren zati bat eta bi kontrahorma dituenak zona horretan). Takeatu eta kanezilloak eraiki eta gutxira lekualdatu ziren, zeren sakristian eta atarian aurkitu baitira XIX. mendeko gangetan berrerabilita.

4. XIII. mendearen bukaera eta XIV. mendearen hasiera: esan dugun moduan, XIII. mendearen bukaeran hondatu egin zen eliza erromanikoa eta utzia izan zen. Parrokia bihurtu zen, eta horrek erreforma garrantzitsua bultzatu zuen, liturgia-beharrek eskatuta. Aurreko garaietako harlandu prerromaniko eta erromanikoak aprobetxatuz, nabea eta absidea handitu ziren (absideak Abitoren garaiko petxina gaineko ganga galdu zuen eta gorantz luzatu zen harlandu eta dekorazio erromanikoa erabiliz). Portada erromaniko eroria berregin zen, baina nahiko era traketsean, eroritakoaren materialak nolabait aprobetxatuz. Iparraldeko atea kanpotik itxi zen, barruan geratu zen espazioa baptisterio txiki bihurtuz, betiere, aurreko garaietako materiala erabiliz. Absidearen alboetan eraiki ziren bi kaperatan erabili ziren gradinaz landutako harlandu berriak eta presbiteriora sarrera egiteko garaipen-arku berria egin zen, arku zorrotzek eta hormetako pinturek adierazten dutenez, XIV. mendean. Aldaketa horiek guztiek XIX. mendera arte iraun zuten.

5. XVI. eta XVII. mendeetan aldaketa txikiak egin ziren, esate baterako, hegoaldeko horman leihoa ireki zen aldarea argitzeko, baina gero itxia izan zen XVIII.ean. Kanpandorrea eraiki zen (bigarren garai prerromanikoko hormak apurtuz horretarako, etab.). XVII bukaeran eta XVIIIan, sarrera nagusia eraldatu zen, ataria eraiki zen (gaur egungo errestaurazioa arte iraun zuen portikoa), ipar-mendebaldeko horma konpondu zen, eta koru berria eraiki zen (1994an desmontatu zena), leiho bat ireki zen koruarentzat mendebaldeko horman, eta hegoaldekoan XVI. mendean zabaldutako leihoa itxi eta gorago beste bat ireki zen. Espezialistek diote horren guztiaren ondorioz prerromanikoak ziren zatiak ezkutuan geratu zirela. Aro Berrian egindako aldaketa hauek ez dira hasierako irudian agertzen, eta XIX. mendekoak balira bezala uler litezke, irudiaren arabera eta datu hauek izan gabe.

6. XIX. mendearen erdialdean guregana iritsi den ganga eraiki zen, nabea apur bat altxatuz eta erromanikoak ziren kanezillo batzuk birjarriz; mendearen bukaeran Andre Mariaren kaperako arkua konpondu zen; azkenik, XIV. mendeko garaipen-arkua apurtu zen eta presbiterioaren zorua altxatu egin zen, bertara iristeko harmaila batzuk jarriz.

Eliza honen berezitasuna, hala ere, beste bat da, Goi Erdi Arokoa izanagatik, dokumentu desberdinetan iritsi zaigula informazioa berari buruz. Batetik, aipatu ditugun indusketek dokumentu eta informazio arkeologikoa eman zuten, baina,

bestetik, dokumentazio idatzia ere badaukagu, gainetik aipatu izan den moduan. Iritsi zaizkigun dokumentu idatzietan lehena testu bat da, Abito abadearen testamentua. Bigarrenik harlauza batean landutako epigrafea dugu, 939an Vigilak tenplua berregin zuenekoa, eta beste batean dagoen epigrafe funerarioa.

Horretan datza Tobillasko San Erromanen garrantzia: bi garai prerromaniko izatean, eta biak datagarriak eta teknikoki guztiz bereizgarriak izanik ere, prerromanikoari buruz dauden kronologia-arazoak ulertzen laguntzeko balio du (Azkarate, 1995a: 189 eta 212). Eliza honen sailkapena, orain arteko paradigmekin, arte bisigodokoa izan da, baina azken urteotan aldatu egin dira teoriak[61]. Horrela, 822 inguruko fase hori ez da bisigodoa, geroagokoa baizik, hau da, "birpopulazioaren" garaikoa, nekazari-hazkundearen garaikoa, alegia, eta teknikek eta arkeologiak esandakoa Oñako kartularioan dagoen Abito abadearen testamentuak baieztatzen du (Alamo, 1950 eta Larrañaga, 1992: 158-159), 822koa, eliza berak fundatua izan zela esanez, eta, ondorioz, data *ante quem* eskainiz. Ondorioz, Tobillas sar daiteke Caballero-k "talde errioxar eta gaztelarra" deitu duenaren barruan[62], honako ezaugarri nagusi hauekin: erromatar harlandu berrerabiliak, isodomoak edo erregularrak diren elizak, estukoz egindako horma-zulo eta gainestaldurekin, tobazko petxina gaineko gangekin absidean asko, oin-plano sinpleak, bi ate hegoaldera, dobela ez diren harlanduez eginak, dekoraziorik gabeak, gezi-leihoez, etab.; oro har kronologia bisigodoa eta geroagokoa ere eman izan zaie ezaugarri hauek dituzten elizei, zalantza handiak sortuz, Tobillaskoarekin bat eginez ia ezaugarri guztietan (Azkarate, 1995a: 207-212).

Horrez gain, Tobillas garrantzitsua da, orobat, ikusteko nola bilakatu zen Goi Erdi Aroko nekazari-hazkundea Euskal Herrian, Araban, hain zuzen ere, eta, bide batez, Elizaren egituratzeaz argi gehiago izateko, besteak beste[63]. Honen guztiaren testuingurua Goi Erdi Aroko hazkundearen hasiera-garaia baita[64].

Inguruaren azterketa egindako egileek ere ikusi dute IX. mendearen hasierakoa izan zela inguru horretako populazio-aktibitatearen hasiera, eta, beraz, lurren kolonizazioarena orotara dauden dokumentuen arabera (Peña, 1991: 256). A. Azkaratek eta L. Sánchez Zufiaurrek horretaz egiten duten interpretazioa da IX. eta X. mendeetako elizak Arabako Lautadaren mugetan zeudela, babestutako haranetan

61. Horien ideia laburki jasotzeko, ikus Caballero, L. (1994/1995: 322-330): «Un canal de transmisión de lo clásico en la Alta Edad Media. Arquitectura y escultura de influjo omeya en la Península Ibérica entre mediados del siglo VIII e inicios del X», *Al-qantara. Revista de Estudios Árabes*, **XV-2**, 321-348 eta **XVI-1**, 107-124.

62. Jatorrizkoan: "grupo riojano y castellano" (Caballero Zoreda, 1994/1995 eta ondorengo lanetan).

63. Erlijio kristauaren hedapenari buruz ez dugu berriro hitz egingo, ikus horretarako Argiñetako iruzkina.

64. Ikus horretarako García de Cortázar (1982).

(mendi-ertzetan) eta erromatar galtzada zihoan lekutik kanpo[65], Lautada musulmanek erasotako aldea zelako. Musulmanen arazoa urruntzen zen heinean, hazi zen kolonizazio hau Gobiaran eta Mena aldean. Bestalde, abeltzaintzaren garrantziaren lekuko da, garaiko aristokraziak zuen ekintza ekonomiko garrantzitsuena moduan, haranetan kokatzen zena, inguruko mendietan bere abereak larretan izan ahal izateko lekuan (Azkarate eta Sánchez Zufiaurre, 2003: 33-36). Horrela, hiru modutara egindako kolonizazioa izan zen, oro har: hutsik zeuden lurretan egindako *presurak*, aurrez kolonizatu edo erabilitako lurrak abandonaturik zeuden lekuetan egindakoak eta populatutako guneetan alde marjinaletara egindako lur-*presura* eta erroturazioak edo luberritzeak. Abitok egin zuena izan zen, *presura* egitea (lur bat hartu, okupatu eta lantzea), eta, aldi berean, inguruko beste batzuen jabegoko lur eta eskubideak hartu eta berarentzat xurgatzea —horri ere *presura* izena emanez— (Botella, 1988: 14), baina ez hutsik zegoen lurralde batean, baizik eta beste gizaki batzuk ere ziren lekuan (Azkarate eta García Camino, 1996: 252-253). Pixkanaka, hierarkia eta antolaketa ezarriz joan zen eta integratuz beste lurraldeetan, askotariko paisaiarekin, bazterreko kolonizazio-lurraldea izateari utziz.

Horrela, bada, IX. mendean gaur egungo Araban populazio-guneak dokumentatzen hasi ziren. Horietako bat da Tobillas (Abito abadearekin 822an dokumentatua, esan bezala, bigarrena izango zen kronologikoi 804an Valpuestaren ondoren). Dokumentu hauek, batez ere, Arabako mendebaldean agertzen dira: Aiara, Gobiaran (Valdegobia), Kuartango eta Gorbeiako magaletara iritsiz. X. mendean asko ugaltzen dira aipuak, eta XI. mendean Donemiliagako *Nabarra*k[66] uzten duen agiria argia da (Azkarate eta Sánchez Zufiaurre, 2003: 25). Horietako batzuk *presura* bidez egin ziren, hau da, lur huts eta erabili gabeak landuz, baina zenbaitetan beste batzuk aurretik erabili eta gero abandonatu ostean berreraiki ziren (Portilla, 1983: 41). Baina, kasu askotan, adbokazioak edo elizaren izenak mantendu arren, espezialistek uste dute eliza horiek leku berean izango zirela Goi Erdi Aroan eta gaur egunean, baina dioskute eraikinek, jada, ez dutela orduko inongo ezaugarririk gordetzen, geroago eraikitakoenak baino ez (adibidez, Akostako San Bizente edo Estavilloko San Martin). Pentsatzen dutenez, horretarako arrazoia da egurrez eraikiko zirela —edota adobez— (Azkarate eta Sánchez Zufiaurre, 2003: 25 eta Portilla, 1983: 42), eta indusita bakarrik aurki daitezke horien aztarnak[67], edo haitzean indusi edo erdi indusitakoak (zeintzuen aztarnak errazago iritsi

65. Dena den, aldaketak egon daitezke interpretazioetan, aztarnategi berriak aurkitu baitira, mota bateko edo besteko giza aktibitatea Goi Erdi Aroan galtzada inguruan mantendu zela adierazten dutenak, horra hor Mariturriko indusketak Julio Núñez eta Francisca Sáez de Urturi egiten ari direnak eta datu ugari emango dituztenak, ikus Arkeikuska 03 edota 04 (beste kontu bat da, Aldaieta, Elorz eta abarrekin gertatzen dena, gehienak galtzada inguruan dauden aztarnategiak izaki, oraingoz Finaga izan ezik beste denak).

66. *Reja de San Millán* moduan ezagutzen dena.

67. Valpuestako dokumentazioan ere bada aipamenik, ikus testuko erreferentzia bibliografikoa datu gehiagotarako.

zaizkigun)[68] (Azkarate eta Sánchez Zufiaurre, 2003: 26). Tobillasen lehen fasean egindako eraikinaren kalitateak adierazten du errenta eta jabego handiak zituela elizak horrela eraiki ahal izateko; are gehiago, bigarren faseko eraikuntza oso goiztiarra izan zen harrizko eraikina egiten berrian berri (Azkarate eta Sánchez Zufiaurre, 2003: 33-36).

Ondorioz, Goi Erdi Aroko hazkunde-garaian sortutako lehenengoetako gune bat, gero denboran zehar erabilera jarraitua izan duena, dugu Tobillas. Gunearen bilakaeraren lekuko da, gainera, oso era berezi batean, zeren elizak berak, eraikinak, gunearen historiaren fase guztiak ere erakusten baititu nolabait, ikusi dugun moduan. Horre-la, arkeologia eta dokumentu idatziak erabilita berreraiki ahal izan dena (kontuan izanda, leku honetako idatziak aberats samarrak direla, salbuespena da, baina beste antzeko eraikinekin egin beharreko ikerketak eta lortuko diren ondorioen irakurketa egiten lagunduko du, horrexegatik preseski). Ondoren, hazten jarraitu zuen fase erromanikoan, Europan ohikoa den garapena ikusten den moduan nekazari-munduko elizetan (altueran batez ere, zabaleran baino), eta ondoren krisia jasan zuen besteekin batera (sarri nekazari-munduko populazio-guneek Behe Erdi Aro aurretik izan zuten populazio-gailurra historian).

GEHIGARRIAK

822. urtea (azaroaren 17an)

Abito abadearen testamentua Tobillasko San Erroman monasterioari egindako emanaldiekin.

> Domnis inuDomnis inuictissimis ac triumfatoribus sanctorum patronorum nostrorum Romani et Teoduli. Ego Abitus abba, comorante in loco quod uocitant Touiellas, dono atque concedo ad ipsum atrio quod nuper manibus meis edificaui Sanctorum Romani et Sancti Aciscli, et Sancti Cipriani episcopi, et Sancti Clementis, concedo omnia mea hereditate, quem habeo uel habere consto uel deinceps stare potuero id est: terris quod ego scalidaui uel a mi aplicaui en Touiellas, de ualle Placini usque ad fonte Sabanaira, cum omnibus fontibus et silbas, et post inde, presuras que prisi sancti Michael in riuo de Tiron in Ossemella; terras, molinos, et suas ferragines; et terras [et sanctos] alias multas in alios locos; et casas et ecclesia super puras Sancte Crucis et terras; et prisi Sancte Marie in Lara cum suos aditos et suo prato; et prisi ecclesia Sancte Crucis in Paretes Rubias cum suo adito uel terras; prisi seneras in Comunione, ante uilla de termino ad termino a XXIII modios seminatura et alia sinera ad Fonte Rege, et tercia sinera subtus Sancte Marie et alia circa prato et sinera i[n?]ter Porciles et Petra Longa. Et feci casas in ualle de Horca; et prisi terras ibi et media ecclesia Sanctorum Cosmas et Damiani, id est: sinera super uilla et alias terras ante uilla, et sinera in ualle et suo orto et suo molino et cum uicinos hereditate in

68. Ikus Argiñetako testu-iruzkina hauei buruzko datu gehiago eta erreferentzia bibliografikoak izateko.

fontes et in montes et sinera ad pruno ad dorso, III sineras et sinera in ualle Horca et alia sinera in riuo de Quintaniella et alia presura que prisi; in Uillamanca, ecclesia Sanctorum Petri et Pauli, et III ferragines in uila et alia ferranne super illa fonte et alia subtus uia et agro subtus uilla et cum uicinos hereditate in fontes et in montes, et sinera in Castella in ualle Donnica, delimite ad limite, et sinera in Lausa ad illas fontes iusta uia; et prisi bustos de fonte Azebeta usque ad fonte Martini et ad foze de uilla Lumenusi bustos in ipsa presura ad illa bustella, et alio in ualle cauato et busto in Bustantigo et media ecclesia Sancti Mames et media de Comunione et in fontes et in montes; et XX et III airas in salinas et suo puteo et ratione in illas fontes et libros XXIIII, iugum bouum, C bakas, equas LXXX, caballos et mulos XX, peccora D, mobile uel inmouile. Sic illa concedo ad ipsos sanctos pro remedio anime mee uel de meos gasalianes, pro luminaribus patrorum nostro [sic.] uel pro uicto fratrum quia ad ipso altario uel ad ipsa regula deseruiencium. Et nullos inquit et presumat inferri nisi qui in regula colla sua humiliauerit; et quicquid subtraxere uoluerit excomunicatus permanent [sic.]a corporis Domini Nostri Ihesu Christi, nec in fine comunicatio accipiat; et pariet a parte regule C solidos et a parte comitis alios C. Et istum meum factum stabilitatem habeat uel permaneat. Ego Abitus abba qui hanc scripta testamentu feci, manu mea roboraui et † confirmaui. Paulus presbiter roborat. Sanctius abba roborat. Uerulfus abba rouoraui. Sinduitus abbas roboraui. Felices abba roboraui. Laucellus abba roboraui. Sancius testis. † Lacanus testis. †Arborius testis. † Seuero testis. †-. Facta scripta donationis XIIII kalendas decembris, era D.CCC.LX. Regnante principe Adefonso in Obetao. Iohannes scripsit.

Itzulpena:

Jaun inoiz garaitu eta txit garaile eta gure zaindari santu diren Romano eta Teodulori. Nik, Abito abadeak, Tobillas izeneko lekuan bizi naizenak, Romano eta Azisklo, Zipriano gotzaina eta Klemente Santuen monasterioari, zeina duela gutxi nire eskuekin altxa bainuen, nire ondasun guztiak eman eta eskaintzen dizkiot, orain ditudanak eta horrela datzanak, eta geroago ere ekar ditzakedanak, alegia: Tobillas-en urratu eta landu nituen lurrak, Placini deitu haranetik hasi eta Sabanaira-ko iturriraino, urbegi eta baso guztiekin, eta gero, handik, Tirón ibaiko San Migelen, Osmilla-n egin nituen *presura*k, lurrak, errotak eta *ferragines* direlakoak barne; eta beste lur-sail asko bestelako lekuetan; eta etxeak eta Santa Cruz de Puras eliza eta lurrak; eta Lara-n Santa Maria-ren *presura* egin nuen, bere sarrerekin eta bere zelaiarekin; Peredes Rubias-en Gurutze Santuaren elizaren *presura* egin nuen, bere sarrera eta lursailekin; sernen presura egin nuen Comunión-en, *villa*ren aurrean, hogeita hiru lakari ereiteko zabalerakoak, alde batetik besteraino, eta beste serna bat Fonte Rege-n, eta hirugarren *serna* bat Santa Maria azpian, eta beste bat herritik gertu, eta Porciles eta Petra Longa-ko bideko *serna*. Eta etxeak eraiki nituen Valluerca-n, eta lurrak hartu han, eta Kosme eta Damian santuen eliza erdia, alegia; *serna* bat *villa*ren gainean eta beste lur batzuk *villa*ren aurrean, *serna* bat haranean beste ortu eta errotarekin, eta auzokoekin partea iturri eta mendietan, eta serna bat aranondo batekin atzealdean, hiru *serna [beraz]*; eta *serna* bat Villamanca-n, Petri eta Paulo santuen eliza eta hiru *ferragines* direlako *villa*n, eta beste bat gehiago iturriaren gainean, eta bat bidearen azpian, eta soro bat *villa*ren azpian, eta auzokoekin batera heredadea iturrietan eta

mendietan; eta *serna* bat Gaztela-n, Donnica edo Dondisle ibarrean, aldenik alde, eta *serna* bat Losa-n, bide ondoko iturri haietan; eta bustoak okupatu nituen Fonte Azebeda-ko iturritik Martinen iturrira bitartean, eta Villalambrús-ko mehargunean bustoak presura berean bustal txikiraino [*ad illa bustella*], eta beste bat Valcavado-n eta busto bat Bustantigo-n eta eliza erdia San Mamestik eta erdia Comunion-etik eta *[aprobetxamendu eskubidea?]* iturrietan eta mendietan; eta hogeita hiru larrain *[Añana-ko]* gatzagan eta bertan putzua eta partzuergoa iturrietan, eta hogeita lau liburu, idi-uztarriak, ehun behi, laurogei behor, zaldiak eta mandoak hogei, artabereak bostehun, higikorra nahiz higiezina.

Horrela, bada, aipatu santuei ematen diet hori guztia, nire arimaren alde eta nire *gasalian*en salbamenerako, gure zaindarien argitzapenerako eta aldare horietan eta aipatu erregelan zerbitzatzen dutenen sostengurako. Eta inor ez dadila ausartu horretatik guztitik ezer hartzera, bere lepoa erregelara meneratzen duena baizik; eta inor osten saiatuko balitz, Jesukristo gure Jaunaren gorputzetik eskomikatua gera bedi, eta ez beza *[berarekin]* parterik eduki azken egunean; eta erregelari ehun soldata ordainduko dizkio, eta beste ehun kondeari. Eta nire ekintza honek jarrai dezala eta iraupena eduki.

Nik, Abito abadeak, testamentu-eskritura hau eginarazi nuen, izenpetu eta nire eskuz baieztatu nuen †. Paulo presbiterioak baieztatzen du. Antso abadeak baieztatzen du. Laucellus abadeak baieztatzen du. Antso lekuko. † Lacano lekuko. † Arborio lekuko. † Sebero lekuko. †-. Dohaintza-eskritura abenduko kalenden aurreko hamalaugarren egunean egina, DCCCLX. Aroan, Alfontso printzea izanik errege Oviedon. Johannes-ek idatzi zuen[69].

69. Transkripzioa eta itzulpena K. Larrañagarena da (1992: 158-159) [euskara eta ortografia gaur egungo estilo eta Hiztegi Batura apur bat egokituta].

Epigrafeak:



10. Tobillas.

Vigilanoren epigrafea (Iturria: García Camino eta Azkarate, 1996: 127-130).



Epigrafe funerarioa (García Camino eta Azkarate, 1996: 130-131).

BIBLIOGRAFIA

Álamo, J. del (biltz.) (1950): *Colección diplomática de San Salvador de Oña (822-1284)*, Textos 12, Escuela de Estudios Medievales. Madril.

Alonso, M. (1986): *Diccionario medieval español*, Universidad Pontificia de Salamanca, Salamanca.

Azkarate Garai-Olaun, A. (1988): *Arqueología cristiana de la Antigüedad Tardía en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

————, (1995a): "Aportaciones al debate sobre la arquitectura prerrománica peninsular: la iglesia de San Román de Tobillas", *Archivo Español de Arqueología*, **68**, 189-214.

————, (1995b): "Iglesia de San Román (Tobillas)", *Arkeoikuska 95*, Eusko Jaurlaritza [aurreko artikuluaren laburpena egilearen esanetan], Gasteiz, 355-377.

————, (1996): "Algunos ejemplos de análisis estratigráfico en la arquitectura del País Vasco", in *Arqueología de la Arquitectura*, Junta de Castilla y León, Burgos, 123-139.

Azkarate Garai-Olaun, A. eta García Camino, I. (1996): *Euskal Herriko Erdi Aroko Hilarri eta Inskripzioak (VI-XI. mendeak). I. Euskal Herriko Mendebaldea*, Eusko Jaularitza - Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz - Bilbo.

Azkarate Garai-Olaun, A. eta Sánchez Zufiaurre, L. (2003): "Las iglesias prefeudales en Álava. Cronotipología y análisis espacial", *Arqueología de la Arquitectura*, **2**, 37-46.

Azkarate Garai-Olaun, A.; Fernández de Jauregi, A. eta Núñez, M. (1995): "Documentación y análisis arquitectónico en el País Vasco. Algunas experiencias llevadas a cabo en Álava-España", *Informes de la construcción*, 46. bolumena, **435**, 65-77, Instiuto Eduardo Torroja.

Botella Pombo, E. (1988): *La serna: Ocupación, organización y explotación del espacio en la Edad Media (800.1250)*, Tantin, Santander.

García Camino, I. (2004): "Origen y consolidación de la sociedad en el País Vasco (siglos IX-XII)", in P. Barruso eta J. A. Lema (koord.), *Historia del País Vasco. Edad Media (siglos V-XV)*, Hiria, Donostia.

García Fernández, E. (2003): "Clérigos, caballeros, "burgueses" y campesinos en la Alta Edad Media", in A. Rivera (zuz.), *Historia de Álava*, Nerea - Arabako Foru Aldundia, Donostia - Gasteiz.

García de Cortázar, J. A. (1980): "La serna, una etapa del proceso de ocupación y explotación del espacio" in *En la España Medieval. Estudios dedicados al profesor D. Julioa González González*, Universidad Complutense, Madril, 115-128.

————, (1982): "La sociedad alavesa medieval antes de la concesión del fuero de Vitoria", in *Vitoria en la Edad Media. I Congreso de Estudios Históricos,* Gasteizko Udala, Gasteiz [*1981eko irailaren 21-26*].

Iciar Madinabeitia, I. eta Artetxe Sánchez, K. (2001): "Goi Erdi Aroko Arkeologiaren ikuspegi orokorra: Hego Euskal Herriaren kasua", in K. Artetxe Sánchez (arg.), *Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

Lapesa, R. (2004): *Léxico hispano primitivo*, Fundación Menéndez Pidal - Real Academia de la Lengua Española - Espasa, Madril.

Larrañaga Elorza, K. (1992): *Euskal Herria aintzinate berantiarrean eta lehen Erdi Aroan. Materiale eta agiriak*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.

Martínez Díez, G. (1974): *Álava medieval*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1. liburukia.

Oceja Gonzalo, I. (1983): *Documentación del Monasterio de San Salvador de Oña (1032-1284)*, Fuentes Medievales Castellano-Leonesas 3, J. M. Garrido Garrido, Burgos.

Pastor Díaz de Garayo, E. (1996): *Castilla en el tránsito de la Antigüedad al Feudalismo. Poblamiento, poder político y estructura social. Del Arlanza al Duero (siglos VII-XI)*, Junta de Castilla y León - Consejería de Educación y Cultura, Valladolid [bereziki "La zona de Lara. El abad Avito y Quitanilla de las Viñas" atala, 127-132].

Peña Bocos, E. (1993): "Las presuras y la repoblación del Valle del Duero: algunas cuestiones en torno a la atribución y organización social del espacio castellano en el siglo IX", in *Repoblación y reconquista. Actas del III Congreso de Cultura medieval. Centro de Estudios del Románico. Aguilar de Campoo, septiembre de 1991*, Centro de Estudios del Románico, Aguilar de Campo, 249-259.

Pérez de Urbel, J. (1945): *Historia del Condado de Castilla*, CSIC - Escuela de Estudios medievales, Madril, 3 liburuki.

————, (1970): *El Condado de Castilla. Los 300 años en que se hizo Castilla*, Siglo Ilustrado, Madril, 3 liburuki.

Portilla, M. J. (1983): "Arte románico.Raíces y evolución", in *Álava en sus manos*, Arabako Kutxa, Gasteiz, IV. liburukia, 41-72.

Real Academia de la Lengua Española (1992*): Diccionario de la Real Academia de la Lengua Española*, Espasa, Madril.

Ruiz de Loizaga, S. (1982): *Monasterios altomedievales del occidente de Álava. Valdegovía. Cómo nacen los pueblos*, Vitoria.

————, (1989): *Repoblación y religiosidad popular en el Occidente de Álava (siglos IX-XII)*, Vitoria.


Sáenz de Urturi, F. (1987): *Valdegobía*, Arabako Foru Aldundiko Kultura Saila, Gasteiz.

2.3. ARGIÑETAKO SARKOFAGOAREN INSKRIPZIOA

IRUDIA ETA TRANSKRIPZIOA



Iturria: Argiñetako sarkofagoa (Azkarate eta García Camino, 1996).



Iturria: Argiñetako sarkofagoan dagoen inskripzioa (Azkarate eta García Camino, 1996).

IN DE(I) NIOMINE MOMUS IN CORPORE BIBENTEM / IN ERA DCCCCXXI {corpore} MI FECIT / IC DORMIT.
Jainkoaren izenean, Momo-k bizirik zela, Aroko 921ean (883. urtea) egin ninduen, hemen datza lo.

Iturria: Argiñetako sarkofagoaren inskripzioaren transkripzioa (Azkarate eta García Camino, 1996).

Dokumentu idatzi hau, inskripzio bat da, eta testu mota pribatua eta funerarioa, hots, pertsona baten hilobirako egina dago, haren oroimenez.

Inskripzio hau hilobi batean dago jarrita, beraz, sarkofago motako hilobi baten estalkian. Gaur egun, Argiñetako hilerrian dago sarkofagoa, hilerriaren hegoaldeko hirugarren hilobian. I. García Camino eta A. Azkaratek aztertu duten moduan, hareharrizko harri monolitikoan eginda dago hilobiaren estalkia, eta haren bi isurialdeetako batean (ezkerrekoan)[70] dago idatzirik; estalkiak sekzio triangeluarra eta oina trapezoidala dauzka (neurriak ditu: 207 cm luze, 67 cm zabal burualdean eta 58 cm zabal oinaldean eta 28 cm altueran). Transkripzioak erakusten duen legez, hiru lerrotan dago idatzia, puntuaziorik gabe: lehen lerroak estalkiaren luzera hartzen du, bigarrenak erdian hutsune handi bat uzten du (non geroago, data ezezagunean, goiko "*corpore*" hitza kopiatu duen norbaitek) eta hirugarrena ezker aldean bukatzen da. Oso inskripzio ezaguna da, eta bibliografia ugari dago berari buruzkoa[71].

Hizki motari eta idazkerari buruzko azterketa egitea ere komeni da, iruzkin osoa egiteko asmoz, eta garrantzi handiagoa eman beharko litzaioke (bere datazioa ezagutzeko, benetakoa den jakiteko, etab.). Horrela, era orokor batean letraren analisia eginik esan dezakegu, espezialistei jarraituz, hizki eta idazkera ez-erregularra dela eta, Goi Erdi Aroko inskripzioen ezaugarria duela, beraz, agertzen den dataren garaikoa dela inskripzioa benetan[72]. Hala ere, espezialistek bisigodo-mozarabiartzat hartzen dute, eta kapital erromatarrari letra untziala[73] nahasten zaio (Azkarate eta García Camino, 1996: 296). Hasierako formula osoa "*In Dei nomine* (*Ego*)" oso formula arrunta da horrelako epigrafe funerarioak hasteko; baina gorpua bertan dagoela adierazten duena "*ic dormit*", aldiz, ez da oso erabilia Mendebaldeko Europa osoan 1000. urtea baino lehen; izan ere, nahiago izaten ziren antzeko beste formula batzuk gauza bera adierazteko (Azkarate eta García Camino, 1996: 304-5). Are gehiago, hasierako formula hori ez dago ondo idatzita, "*In dei nomine*" ordez "*In de niomine*" idatzirik ageri baita; beharbada, inskripzioa zizelatu zuenak ez zekielako zer ari zen idazten, kopiatu egin zuen, baina ulertu gabe (latindar hizkuntza, etab.). Legendaren sinpletasuna ere arrunta da inguru honetan idatzitakoekin konparatzen bada, hots, esaldi laburrak eta dekorazio gutxikoak agertzen dituzte (García Camino, 1992: 20).

Datazioa, kronikoa, epigrafean bertan ageri zaigu idatzirik eta ez da oso ohikoa izaten mota honetako inskripzioetan, Azkarate eta García Camino-ren hitzetan, horrela K. o. 883koa izango zen[74]; baina ez zaigu ezer esaten lekuaz, datazio topikoaz, alegia, ez heriotzarenaz ez hilobiarenaz.

---

70. Ikus datu gehiago mota honetako hilobiei buruz I. García Camino-ren lanetan (2002: 231-232).

71. Ikus horretarako A. Azkarate eta I. García Camino (1996).

72. Hizkiak banaka aztertuta ikusteko: A. Azkarate eta I. García Camino (1996: 288tik aurrera).

73. Goi Erdi Aroko eskuizkribuetako hizki ohikoa, maiuskuloa dena ere.

74. Aroko datari 38 urte kenduta ematen duenez, gure kalkuluaren araberako data.

Zoritxarrez, ez daukagu datu gehiagorik inskripzioaren egileari buruz, ezta Momori buruz ere, hots, inskripzioak gogoan hartzen duen lurperatutako pertsonari buruz, berez inskripzioa eginarazi zuena (ohikoa zena Goi Erdi Aroan, ez erromatar garaian, orduan normalean hirugarren batek opa izaten baitzion hildakoari hilarria), eta bere pertsonaren garrantzia agertzen diguna (Azkarate eta García Camino, 1996: 307). Inskripzioak ulertarazten du Momok egin zuela idatzia bizirik zela, baina, pentsa daiteke benetan egin zuena testua idatzaraztea izan zela, hau da, artisau bati egiteko agintzea hiltzen zenerako.

Idatzia benetakoa dela esan dugu, originala beraz, eta, esan dugun gisara, hildakoaren hilobian jartzeko egina, baina aipatutako egileek diote, esan dugunez, "*corpore*" hitza geroko esku batek kopiatu zuela, jatorrizko epigrafeak berak berez zeukan hutsunean (eta ez dakigu zergatik zeukan hutsune hori). Ez dakigu noiz kopiatu zen, ez eta zein eskuk. Baina pentsa genezake ez dela sarkofagoaren garaikidea, nahiko geroagokoa baizik, agian sarkofagoa Argiñetara eraman zenekoa? Hilobia eta bere epitafioa ezagunak egin zirenekoa?

Asko lagunduko luke hilobiaren jatorrizko lekua ezagutuko bagenu, zeren Argiñetako hilerria gaur egunera iritsi den eran ez baita benetako hilerria izan zena, baizik eta hilobi eta hilarri zaharren bilketalekua. San Adrian Argiñetakoa (Elorrio) Santamañazar mendiaren hegoaldeko magalean dagoen zabalgune batean dago (Mendrakatik oso gertu eta Zenita auzoaren gainaldean). XVI. mendeko ermita birmoldatuaren ondoan hilerria dago. Nekropoliaren jatorriaz teoria desberdinak izan dira (Azkarate, 1984: 33-36), —batzuek oraindik uste dute ez dela benetako nekropoli bat inoiz izan, 1947 arte agertuz joan baitziren hilobiak (Aguirre, 1992)—, garbi dago gaur egunean dagoena XIX. mendeko "berreraiketa" erromantiko bat dela Retolaza parrokoak egina, baina Goi Erdi Aroko hilerria izan zen benetan, hilobi exento edo bananduez (22 dira orotara, bata oso hautsia eta beste bat Berriotik ekarria) eta harlauzazko hilobi lurperatuez (hilarridunak, 13 hain zuzen ere) I. García Camino-k dioenez (2002: 422-427) eta J. A. Barrio Lozaren iritziz ere (1985: 137), Henao-k XVII. mendean hilobi bereziez mintzo baitzen Argiñetaz ari zela. Barrio Loza-k ere uste du dauden piezak Argiñeta bertakoak, Miotakoak eta Gazetakoak[75] zirela jatorrian (berak jasotzen du, J. M. Barandiaranen ustez, ermiten inguruan izango zirela kokatuta Argiñetara eraman aurretik); azken urteotan harlauzaz egindako hesi bat jarri zaio babesteko. I. García Camino-k aztertu zuenez, Argiñetako hilobi banandu edo sarkofago hauetan estalkiak ez doaz bat hilobien gorputzekin, ez dute bat egiten eta nahastuta daude (begiratu beharko litzateke ondo doazen baten batekin, eta zenbat hilobitako piezak dauden orotara). Oro har, nekropolia K. o. VII. eta VIII. mendeetakoa da, K. o. IX. mendeko pieza batzuekin (inskripzioak dituztenak gutxienez, alegia). Barrio-k (1985: 138) jasotzen du XVIII. eta XIX. mendeetan hiru inskripziodun hilobi zirela (gaur egun bi baino

75. Eta Apatamonasteriokoak ere (Balparda, 1924: I. liburukia, 242. or. edizio zaharrean).

geratzen ez den arren), Iturriza, Alonsotegui, Coscojales eta Capelástegui-ren idatziak ikusita, hala ere beste egile batzuek uste dute bigarrenaren (hemen aztertu ez dugunaren) irakurketa desberdina baino ez dela aipatzen den hirugarrena.

Bada, azter dezagun sarkofagoa ere; izan ere, sarkofagoak inskripzioak baino datu gehiago eman ditzake. Normalean mota honetako sarkofagoak "aberatsak" kontsideratzen dira: komunitateko kide nagusiek erabiliko zituzten, eta jatorria erromatar eta bisigodoen garaiko sarkofagoetan bilatu behar zaie, akulturazioaren eragina nabarmentzen duena. Forma ugari izaten dituzte sarkofago hauek: bainuontzi-formakoak izaten ziren, trapezoide-formakoak (horrelakoa da guri dagokigun inskripzioa daukana, nahiz eta badakigun ez datozela bat estalkia eta azpian dagoen sarkofago-hilobia)[76]. Eraikitzeko materiala, hareharria da. Durangaldekoak Oiz mendiko hareharriz egin ziren, inskripzio hau duena bezalatsu; eta esku-lan espezializatua eskatzen dute, baina antza ez dira *in situ* bat ere aurkitu Bizkaian, baizik eta beti lekualdatuta edo mugituta (García Camino, 1992: 19). Normalean, Durangaldean eta Bizkaian, García Camino-k berak egindako induskетetan eta beste leku batzuetan ikusitakoaren arabera, hilobi hauek, hilerrietan elizaren alde hurbilenean ezartzen ziren, Jainkoagandik eta, beraz, salbaziotik gertuen izateko (zenbat eta elizaren abside ingurutik urrunago, gero eta hilobi pobreagoak eta sinpleagoak aurkitzen dira induskетetan), hala ere, hauek ez lurperaturik, baina bai ekialdeko hormetan eta, beti alderik aberatsenean (García Camino, 2002: 228)[77]. Hala ere, badira elizen barruan aurkitu diren sarkofagoak ere, San Petri Tabirakoan daudenen modura, baina hasieratik bertan egongo ote ziren ez dakigu, beraz, bistan bai, baina seguru asko ekialdeko fatxadari lotuta[78]. Horrek guztiak azalduko luke zergatik daukan idatzia albo batean (horma baten kontrara-edo egon zitekeen), eta lurperatuta egoteko oso logikoa ez zena izango (idazteak zeukan konnotazioarekin eta ez zelako merkea izango artisau bat horretarako kontratatzea, gero bere lana ikusiko ez bazen). Esan behar da, I. García Camino-k dioskunez, oso goiztiarrak direla mota honetako hilobiak Bizkaian, dirudienez, eta beste egile

76. Sarkofagoez eta hilobiez informazio gehiago nahi bada, ikus García Camino (2002), eta euskaraz: Artetxe eta Iciar (2001: 82-86) —laburpen bat—, eta Bengoetxea (2001).

77. Egileak dio berak ez dituela aurkitu induskетan, eta ez zirela egiten inola ere lurperatuak izateko, ikusiak izateko baizik, baina, hala ere, badira hala aurkitu direnak, adibidez, San Mikelen, San Pelaion (Araba) (L. Gil eta Saez de Urturi, 2001), hala ere, horrek ez du esan nahi lurperatzeko eginak zirenik, gerta daiteke denborarekin lurperaturik geratu izana, elizaren beste aztarna guztiak bezala.

78. Bi sepulkro eta bi estalki dira, koruaren azpian daudenak, alde banatan. 1270erako existitzen zen elizan bazeuden jada seguru asko, ur bedeinkatuko ontziarekin batera (gaur egungo eliza XVI. mendearen hasierakoa bada ere), baina horiek XII.-XIV. mendeen artekoak dira, ez baitute zerikusirik Argiñetakoekin, eta berrerabiliak eta aldatuak izan direnez, zaila da haien interpretazioa. Gainera, hilobiek eta estalkiek ez dute bat egiten, esan bezala, eta, beraz, hilobi desberdinei dagozkie (García Camino, 2002: 450-452).

batzuek Penintsularen iparraldean egindako datatzeetarako[79] (García Camino, 2002: 225-229).

Konpara dezagun Argiñetako epigrafe funerario hau Alvaro apezpikuaren inskripzio ia garaikidearekin:

OBIIT ALBARO / EP(I)SC(O)PUS XIII K(A)LE(NDA)S / N(OBEM)BR(I)S E(RA) DCCCC / LXVI
Hil zen Alvaro apezpikua Aroko 966ko azaroaren kalenden 13an [*K. o. 928ko urriaren 20an*].

Inskripzio hau hilarri laukizuzen batean dago —30 x 61 cm dituena (Azkarate eta García Camino, 1996: 135-137)—, ez sarkofago batean, aurrekoa bezala, eta Bolibarren aurkitu zen. Bolibar herria, gaur egunean Gasteizko udalaren eta koadrilaren parte da, Gasteizko hego-ekialdean, 1332an Arriagako Kofradiak galdu edo "borondatez eman" zituen lurraldeen artean Alfontso XI.a Gaztela-Leongo erregeak onetsitako sententziaren ondorioz (eta beste 41 herrirekin batera). Llorente-k kontatzen digu fray Segismundo Romero-k, Donemiliaga Kukullako monje artxibozainak, aurkitu zuela 1796an Bolibarko apaiz-etxearen sotoan, eta 1801ean elizaren atarira aldatu zen. Gaineratzen du epigrafea daraman harria, elizaren antzinako egitura eta eraikinari zegokiola formaz eta materialez. Azkenik, 1803an Bolibartik gutun bat idatzita, 1804an argitaratu zen *Gaceta de Madrid* aldizkarian epigrafearen berria, eta harrezkero hainbat aldiz argitaratu dute. Hilarri hau San Andres parrokia-elizako hegoaldeko hormaren atarian egon zen eta eliza desegin ondoren Gasteizko Seminario zaharreko patiora aldatu zen ataria osoa (Santa Maria plazatik oso hurbil), eta harekin batera hilarria. Urte batzuetan desagertua egon ostean, gaur egun Elizbarrutiko Museoan dago hilarria ikusgai.

Hilarriaren hainbat irakurketa izan dira, batez ere, datari dagokionez: 888. edo 928. urtea den zalantza izan da denbora luzez. Esate baterako, Llorente, Gregorio de Balparda eta Andrés Mañaricúa-k uste zuten Aroko 926 dioela DCCCCXXVI (888. urtea). A. Hübner-ek Zobel-en bidez ikertu zuen eta bere ustez data Aroko DCCCCLXVI da (928. urtea), baina zalantzekin. J. C. Elorzak ere gauza bera uste du eta jasotzen duen transkripzioa da: "OBIIT ALBARO EPCPVS XIII KLS NBRIS ERA DCCCCLXVI". A Azkarate eta I. García Camino-k (1996), berriz, uste dute harri paralelipipedo honek duen inskripzioa egoera kaxkarrean dagoela higaduragatik eta, denborarekin, gainean idatzi berriak daudela eginda hizki desberdinekin, jatorrizkoa irakurtzea zailtzen dutenak, nahiz eta sakon markatuak egon jatorrizko hizkiak; hala ere, hauek ere Hübner eta Elorzarekin ados daude datari dagokionez eta 928a proposatzen dute datatzat.

79. A. del Castillo-ren arabera XII. mendetik erabiltzen ziren Iparraldeko Mesetan, Iñaki García Camino-k jasotzen duenez (García Camino, 2002).

Epigrafearen ezaugarriak aztertzerakoan, Azkarate eta García Camino-k ere uste dute idazkera-gidarik gabe, kontu handiz egindako inskripzioa dela (kalitatekoa eta opatzen zaion pertsonaiaren mailari lotua), eta lerroak ondo mugatuta daudela eta erregularrak direla; hizkia erromatar hizki kapitala da (salbuespenekin, zenbakiak, esate baterako, baina denak oso antzekoak dira), arraroa dena jada garai hartarako inguruko lurraldeetan (Azkarate eta García Camino, 1996: 296). Marratxoak dituzte apaindura gisa, eta lehen bi lerroen hasieraren ezker aldean gurutze latindar bat daukate eta lehen "O" hizkian gurutze grekoa dago barruan eta handiagoa da hizkia ere. Egile berek diote laburdura guztiak kontrakzioak direla (hitzeko zenbait letra kenduz), bat izan ezik, suspentsiozkoa dena (*E(ra)*, hitzaren hasiera baino ez jarriz). "*Obiit*" hitza edo formula heriotza adierazteko da, eta normalean hasieran jartzen zen, hildakoaren izenak eta gero datazioak jarraituta, formula hau oso gutxitan erabili zen gure inguruotan[80], baina K. o. V. mendetik Penintsulako beste inskripzio ugaritan ageri da, egileak haiek ezagutzen zituela adierazten duena (Azkarate eta García Camino, 1996: 305).

Testuinguru politiko eta erlijiosoa azaldu behar da inskripzioa hobeto ulertzeko.

Dirudienez, Arabako diozesi edo elizbarrutiko lehenengo apezpikuetako bat izan zen Alvaro. Historiografia klasikoan aipatzen da Bivere izeneko apezpiku bat, baina ez dakigu benetan Arabako apezpikua izan zenetz. Ziur dakiguna da 871n aipaturik agertzen dela Arrontzio jaunak Akostako San Bizente monasterioari egindako emanaldi batean[81]; hori dela eta, Arabako elizbarrutiko apezpikuen zerrendan ageri den lehena izaten da Alvaro hau, 881[82] eta 888? artean aipatua dena zalantza batzuekin, hain zuzen ere, Albeldako kroniketan dagoen *Notitia episcoporum* edo gotzainei buruzko informazioan datorren berdina dela uste baitu A. Mañaricúa-k (1964: 45-48), Veleiako apezpiku gisa[83]. Ikusten denez, azken egileek egindako epigrafearen datekin ez du bat egiten datazio horrek, baizik eta irakurketa zaharrarekin. Beraz, oso luzea izan zen bere bizitza eta 928an hil zen, edo bi apezpiku desberdin ziren izen berekoak. Edonola ere, 928an ez dago beste apezpiku baten aipurik Araban, ikusiko dugunez.

80. Kurioski Argiñetako beste sarkofago batek ere badu, ez guk aztertu dugunak.

81. Datu gehiagorako ikus J. C. Elorza (1970: 287) eta A. Ubieto Arteta (1976: 20-21).

82. Espezialistek 881ean bukatutako zerrendatzat jotzen dute Albeldako kronikako apezpikuena, eta horrela dator interesatzen zaiguna: "Albarus Uelegie" (Gil, Moralejo, Ruiz de la Peña, 1985: 158). Diotenez, gainera, apezpiku "guztiak" daude dokumentaturik kronikatik kanpo, baina ez diote non edo nondik atera duten informazioa; diotena da, hamabi direla, zenbaki sinbolikoa oso, beraiek ere baieztatzen dutenez (Gil, Moralejo, Ruiz de la Peña, 1985: 93), berez esanguratsua dena.

83. Hala ere, honetan ez daude denak ados, ikus xehetasun gehiagorako J. C. Elorza (1970: 287-288).

Ez dakigu Arabako apezpikutza edo gotzaitegia noiztik existitzen den, datuak urriak baitira. Badirudi, IX. mendearen bukaerarako eraturik izango zela, baina baliteke aurretik ere existitzea: egile batzuek uste dute asturiar monarkiak sortutakoa izan zela, baina beste batzuek uste dute musulmanen iristearekin Kalagorriko apezpikuaren egoitza aldatzeagatik sortuko zela (nahiz eta musulmanek beste leku batzuetan utzi zieten kristauei haien komunitateak mantentzen, eta egileek ez dakite zergatik Kalagorrin ere ez zen hala gertatu); azken iritzien arabera, Veleiako hirian egondako egoitzaren jarraipena izango zen gero Armentiakoa.

Ondorioz, historiografiak gutxi gorabehera ziurtzat jotzen duen apezpikuen zerrenda honako hau da: *Bivere* (871)?; *Alvaro* (881-888?), *Velegia* diozesia zuena (zalantza da Kantabriakoa edo arabarra den hiria[84]), 928ra arte luzatu behar dugu bere bizitza edo beharbada beste Alvaro bat gehitu behar da 928an hil zena?; *Munio* (937-956)?; *Munio* (984?-989); *Gatzia* (996-1021)?; *Munio* (1024-1030); *Gartzia* (1037-1053/1055?); *Fortunio* edo *Fortuño* (1054?-1055?): *Vigila* edo *Vela* (1056-1062); *Munio* (1062-1065?); *Fortunio* (1066?-1087)[85]. Baina, dokumentuetan "arabar" deitutako gotzainek ez dute beren kokalekuaz edo egoitzaz hitzik egiten, On Velak 1062an Armentia aipatzen duen arte: *"Ep(iscop)o d(om)no Ueilla regente Alauenssi ecclesia, sedis Armendehi"*[86]. Ondoren, On Fortunio aipatzen da (Leireko abade izana), apezpiku "*in Armentia*" (1085) izendatzen duena bere burua, eta azkena izan zen (1087an hil zen). Fortunio hiltzean ez zen ondorengorik izendatu, eta, badirudi, Kalagorriko elizbarrutiak irentsi zuela Armentiakoa. Moret-ek uste du Fortuniok Arabako lurretan jabegoak zituzten gaztelarren eraginetik kanpoko monasterioak lagundu zituela (Araba 1076tik Gaztelan zegoen, Alfontso VI.ak harturik Antso IV.a *Peñalengoa* Iruñeko erregea hil ostean), eta hori izango zela apezpikua hil ostean diozesia desegin eta Kalagorrin sartzearen arrazoia, eta Armentia kolegiata eta artzedianoaren gune bihurtuta geratu zen. Hala ere, 1109an bukatu zen benetan elizbarrutia, Paskoal II.a Aita Santuak emandako bulda batekin. Ondoren, Kalagorriko elizbarrutian barneratu zen lurraldea (Alfontso I.a *Borrokalaria*k lurraldea iruñear koroarako berreskuratzean ezkontza bidez), kanonigoen kabildoa Armentian[87] geratu zen eta Arabako artzedianoa ere bertan bizi zen, probintziako kontzilioen kokaleku gisa. Kexa ugariren ostean, Kalagorriko apezpiku egin zen On Errodrigo Cascantekoa (1146-1190) —Araba berriro Iruñeko/Nafarroako erresuman zegoen bitartean—. Apezpiku horrek egin

84. Ez dakigu nongoa den, Asturiar Kroniketan Veleia aipatzea esanguratsua izan daiteke, baina zein den esanahia aztertzea, edo zein den lekua benetan jakitea lan honen helburuetatik eta egilearen esparrutik kanpo dago.

85. Ikus Mañaricúa datu zehatzagoetarako (1964: 32-150 eta 158-183) eta Jon Andoni Fernandez de Larrearen zerrenda (Rivera, 2003: 599-600).

86. J. Mª Lacarra-k (1965: 32) jasotzen du: 23. dokumentua, Iratxeko Bezerroa, 8 atzea-9 aurrea folioetan datorren dokumentu batean (beste bertsio batzuk ere baditu Nafarroako Agiritegi Orokorrean (Landázuri, Ubieto, Moret, Ibarra eta abarrek argitaratua izan da aurretik).

87. Berez, apezpikuaren inguruan bizi den apaiz taldea den arren, 12 kanonigo izan ziren XIII. mendean Armentian.

zituen "bakeak" eta Armentiako basilika erromanikoa eraikiarazi zuen, Antso VI.a *Jakintsua* Nafarroakoak Gasteizen 1181ean *Nueva Victoria* fundatu zuenean, "*Armentiensis episcopus*" izena ere hartu zuen hiri-gutunean. Azkenik, 1387an egindako saiakeraren ostean, 1496an Alexandro VI.a Aita Santuak bulda eman zuen kolegiata bera Gasteizeko Santa Mariara eramateko (1498an egin zena), Pedro Nazar Kalagorriko apezpikuaren bultzadaz; Armentia parrokia huts gisa geratu zen eta Kalagorriko apezpikutza zegoen moduan hurrengo mendeetan.

Goi Erdi Aroko elizbarruti haren lurraldea Araba nuklearra izango zen (gaur egunekoaren erdialdea, Lautada batez ere), Deba harana Gipuzkoan eta Bizkaiko zati handi bat —Enkarterri eta Urduña aldea izan ezik—, beraz, Durango aldea eta aurreko inskripzioaren lurraldea ere bai. Egile batzuentzat, batez ere, Iruñeko erresumari lotuta egon ziren Arabako apezpikuak. Testuinguru historikoa argia da, beraz, Asturiasko eta Iruñeko erresumen eta geroko Gaztelako konderriaren (eta gero erresumaren) artean zegoen, eta hegoaldean zeuden musulmanen eragina jaso zuen Arabak garai hartan (behintzat Antso I.a Gartzezek Errioxa Iruñeko erresumarako konkistatu zuen arte).

Inskripzio biak ala biak garai bertsukoak dira, eta elizbarruti berean egindakoak. Kristautasunaren sarreraren garaiaz, eztabaida zaharra baztertuta[88], argi dago, IV. mendean komunitateak eratuta zeudela inguruko lurraldeetan (Kalagorrin Emeterio eta Zeledonio bertako martiriak daude eta Prudentzio poetaren bertsoak hori ziurtatzeko, eta Eauzen, adibidez). Pentsa genezake Goi Erdi Aroan erromatar garaitik zetozen hiriak mantendu ziren lekuetan apezpikutza izango zutela, Europa osoan gertatzen zen moduan; beraz, Iruñeaz eta Baionaz hori uste genezake, beharbada V. mendetik eta, gutxienez, VI. mendearen bukaeratik ziurra da (Jimeno Aranguren, 2003)[89]. Beste lurraldeetan zer gertatzen zen jakitea zaila da, datu eskasiarengatik. VI. mendetik badira Trebiñu aldean eta Nafarroan Ebro haranean ere eremutarrek eraikitako haitzulo artifizialak (Lañu, etab.)[90]; Akizen ere aztarnak daude eta Gipuzkoan lehen aztarnak izan daitezkeenak agertu dira San Andres Astigarribian. Hala eta guztiz ere, VII. eta VIII. mendeetan merobingioen eta bisigodoen iturrietan (Taioren gutuna edo San Amandoren ustezko predikazioak), baskoien irudia jentila da, baina gero eta zalantza handiagoak daude interpretazio tradizional horri buruz, eta ikusi dugu Bizkaian eta Araban egindako azterketetan aztarnak ageri zaizkigula[91].

88. Kristautasunaren sarrera berantiarrari edo goiztiarrari buruzko eztabaidaz ari gara.

89. Horrela ageri da kontzilioen aktetan egile denek jasotzen dutenaren arabera.

90. Ikus A. Azkarate eta I. García Camino (1996) eta Riaño, E. (1995): "Eremitorios rupestres y colonización altomedieval", *Studia histórica. Historia medieval*, **13**, 47-58; edo Azkarate, A. (1988) eta Monreal Jimeno, L. A. (1989): *Eremitorios rupestres altomedievales (El alto valle del Ebro),* Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

91. Ikus sintesi labur baterako Manex Goihenetxeren (1999) liburua eta zehaztasun gehiagorako Roldan Jimenorena (2003).

Ondorioz, lehen kristautasunaren arrastoez autoreak ados jartzen ari dira azken aldian: Mañaricúa-k dioenez, eta Azkaratek bere egiten duenez (Azkarate, 1988: 46), euskaldunen ebanjelizazioa Europako eta Penintsulako auzokide izan ziren herrialdeen parekoa izan zen kronologikoki: goiz hasi zen baskoien kristautzea K. o. III. eta IV. mendeetan (Behe Inperioan, alegia); horrek ez du esan nahi oraindik VII. eta VIII. mendeetan talde jentilik egongo ez zenik (eta ohiturek geroago ere iraun zuten), beste leku batzuetan bezala (Mañaricúa, 1978: 71-72 eta 1985: 336). R. Jimenok uste du (1999: 446-448) elitea kristaua zela lehenagotik, baina herria astiroago kristautu zela; horretarako arrazoia da kristautasuna hirierlijioa zenez, batez ere, Euskal Herriko hegoaldetik eta kostaldetik hedatuko zela hasieran, egile horren nahiz beste batzuen ustez; edonola ere, IX. menderako kristaua izango zen, nahiz eta sinkretismo-arrastoak gorde, hau da, sinismen multzo zaharraren ohitura zaharrak mantendu eta kristautasunarekin nahasi, beste lekuetan gertatu zen moduan.

IX. mendean Leire aldeko monasterioak Penintsulako puntakoenak ziren antolaketa aldetik eta zituzten *scriptorium* eta liburutegi aberatsengatik, Eulogio Kordobakoaren gutunek adierazten diguten moduan (848an egin baitzuen bisita iparraldera), gainera, pentsatzen da Iruñeko erresumaren orbitan ziren monasterio batzuek erreforma karolingiarra jaso zutela (Lacarra, 1957: 57), nahiz eta ez izan haren inperioko lurra (kontaktuan egonda edo, eta saiakerak direla eta[92]) (Jimeno Aranguren, 2003: 39). Beste arazo bat da jakitea zein neurritan bereganatu zuen gizarteak erlijioa, eta zein sakontasunekin, zein taldek zuten eraginik handiena (eliteak seguru asko), oraindik gordetzen ziren ohitura eta erritu zaharrak (ez bakarrik Aldaieta, Finaga edo Elortz moduko hilerriak, baita ingurune kristauan agertzen diren ohitura ez-kristauak, Momoitioko elizaren inguruan agertutako estalki monolitiko zulatuak, esate baterako) (García Camino, 1992 eta 2002 eta Jimeno Aranguren, 2003).

Horrela, antzeko bi inskripzio ageri dira helburu berarekin: pertsona baten heriotza adieraztea eta han datzala agertzea, bata hilarri-forman eta bestea hilobian bertan. Biak harrian eginak, hizkuntza berean daude (latinez, kultura eta erlijio kristauaren hizkuntza, prestigioa zuena). Datazio erromatarra erabiltzen dute —egunari dagokionez; urtea, aldiz, Aroan emanda dago *Era Hispanica* ere deituan, K. a. 38. urtean kontatzen hasten zen eta XIV. mendera arte erabili izan zen urtea emateko modu hau, juliotar egutegia penintsulan sartu zenekoa, hots, erromatarren iristearekin nolabait; eta modu klasikoari jarraituz, *kalendas*-i jarraituz, erromatarrek hilaren lehen egunari deitzen zioten eta horrela zabaldu zen Goi Erdi Arora ere, eta atzeraka kontatzen dira kalendatatik ematen den zifra (aurreko hileko azken egunak adieraziz)—. Idatzita egoteak (kasu honetan harrian zizelatuta daude hitzak, baina idatzita azken batean) ere bere esanahia dauka, kultura orokorturik ez

92. Ikus Orreagari buruzko testu-iruzkina liburu honetan bertan.

zegoen garai batean oso esanguratsua baita nork bere epitafioa izatea (kultura, goimaila soziala edo behintzat "zibilizatua", erromatar kulturaren eragina aro "barbaroan"). Hala ere, esan dugu Momorenak akatsa duela eta, agian, artisauak (harginak) ez zuela ulertuko idazten ari zena; Alvarorenak, aldiz, kalitate handiagoko hizkiak dituela dirudi (Azkarate eta García Camino, 1996), nahiz eta bere kontserbazio-egoera ez izan oso ona, adierazten duena eskulangilearen kualifikazioa altuagoa zela. Duten desberdintasun nabariena, harrizko euskarriaren izaeraz gain (esan dugunez, bata hilarrian dago idatzita eta bestea hilobi-sarkofagoaren estalkian bertan), Alvarorenak bere kondizioa agertzea da, hots, apezpikua edo gotzaina dela esaten digu, eta Momo nor zen ez dakigu (ez dugu inongo daturik).

Izenak ere desberdinak dira. "Alvaro" ez da oso ezaguna Euskal Herrian[93], nahiz eta bai bere patronimikoa (hots, izenetik eratorritako deitura mota, aitaren izenetik eratorria, hots, "Alvarez" eta antzekoak) (Azkarate eta García Camino, 1996: 310); eta *Momus* edo Momo, berriz, Bizkaian oso izen arrunta zen[94] (Irigoyen, 1986: 12 eta 33). Horrek ez digu adierazten beti izena daramanaren jatorria, modek ere eragiten dutelako onomastikan, baina pentsatzekoa da izen euskalduna duena bertako jatorria duen familia batekoa izatea, bestearen kasuan ez dakigu, zeren, gainera, elizgizonek sarri izena aldatzen zuten erlijioan.

Lehen inskripzioa, beraz, Bizkaian dago eta Durangaldean, hots, orotara hilarri eta inskripzio gehien eta ugarienak aurkitu diren lekuan (besteak beste, X. mendeaz aurretik "pertsonalitate historikoa" zuen lurraldea bazelako). Araba, aldiz, ahulagoa da inskripzioen kontzentrazioan, baina izan daiteke bilaketa-lan gutxiago egin direla; dena den, espezialistek uste dute, nolabait, benetako egoera erakusten duela (Azkarate eta García Camino, 1996: 250). Alvaro abadearen inskripzioa, ostera, salbuespena da bere eremuan, Arabako Lautada baita honelako dokumentuez ia hutsik ageri den lurraldea (biztanle ugari izango zituen arren, *Donemiliagako Nabarra*ren testuaren arabera[95]).

Epigrafe hauek beste ezaugarri berdin bat dute: biak ala biak eliza batean edo hari lotutako hilerri batean kokatuta egoteak tipologian hurbiltzen ditu, hain zuzen ere, haien funtzioa ere berdina delako (eta ez soilik testuingurua[96]): funerarioa, eta lurperatzea non dagoen adierazten duena, I. García Camino-k berak egindako

93. Kristau hispaniarren artean oso hedatua zen izena, Eulogio Kordobakoaren idatziak eta eginak jasotzen dituen bere ikaslea ere Alvaro zen, adibidez.

94. Asko dira Bizkaiko genealogietan ageri direnak eta izen hori zeukan Bizkaiko lehen kondeak ere, Roda-ko kodizean datorrenez José Mª Lacarra-ren arabera —Azkarate eta García Camino-k jasotzen dutenarena arabera (1996: 316)— eta Azkaratek (1984: 96) kontatzen du inskripzio bizkaitarretan hamabi aldiz agertzen dela onomastiko hau, gehien agertzen diren horietakoa baita. Ikus ere Mañaricúa, A. E. (1984): *Vizcaya, siglos VIII al XI. Los orígenes del Señorío,* Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 170-179.

95. Ikus honetarako liburu honetan bertan dagoen iruzkina.

96. Ikusten denez, baita egiteko materiala ere, biak baitaude hareharrian eginak, eraikitzeko prestigiodun materiala delako?

indusketetan beste zenbait kasutan ziurtatuta ikusi ahal izan duenez (Azkarate eta García Camino, 1996: 256-257). Hala ere, Bolibarkoak badu eskaintza-epigrafe edo botibo eta fundazionalen tamaina eta forma-antzekotasuna (Azkarate eta García Camino, 1996: 258); horrek guztiak berezia egiten du, horman sartzeko egina izan baitzen hareharrizko harlauza landu batean, hilobia edo sarkofagoa joango zen lekuaren gainean (sarkoafagoan bertan izan ordez, Argiñetako kasuan bezala), oso lurperaketa-modu berezia dena, Elizako kide garrantzitsuei gordea bakarrik (561eko Bragako I. Kontzilioan jada adierazten den moduan)[97]. Hala ere, egile berdinek uste dute Argiñetakoa ere testuinguru berdintsukoa dela eta, betiere, kalitateko hilobi batekoa (laikoa edo elizgizona ez dakigu). Erdi Aroari, oro har, dagozkion ezaugarri gehiago ditu Alvarorenak, pertsonaiaren ezaugarriak ematen dizkigulako (behintzat kargua), orduan ohitura zenez (Azkarate eta García Camino, 1996: 307).

Bi inskripzioen balioa oso handia da, lehen eskuko dokumentuak izanik, nahiz eta testuingurua galdu diogun Momorenari. Garai horretan ez dago dokumentazio asko Euskal Herrian, oro har, eta, are gutxiago, mendebaldean, ez lehen eskukorik ez eta bigarren eskuko testu literariorik (ezta kanpoko iturriek lurralde honi buruz egindakorik). Hortik haren garrantzia. Horrela, Azkarate eta García Camino-k (1996: 323-342) Goi Erdi Aroko inskripzioez egindako interpretazio berriaren arabera (1996-325-326), Bizkaiko hilarriak, oro har, datatzeko erabilia izan zen inskripzio durangarra. Egile hauen arabera, hilarrien datazio *post quem* gisa erabili zuten. Beraz, hilarriak K. o. IX. eta XI. mendeen artekoak zirela pentsatu zuten, eta, horrela, lehen dokumentu idatzi testualekin bat egiten dute. Horrek, J. A. García de Cortázar-ren[98] ideiak sorrarazi zituen: hegoaldetik etorritako akulturazio berantiar bati lotutako kristautasuna, jabego pribatua, nekazaritza, etab. Baina, indusketa berrien ondorioz (Aldaieta, Elortz, Finaga-Arrigorriaga…), zalantzan jarri dira data eta teoria berantiar horiek eta, bereziki ikertu ondoren, beste hilarri haiek lehenagokoak direla uste dute, K. o. VII.-VIII. mendekoak, alegia, bigarren eta hirugarren paradigma deituetan sarturik[99], nahiz eta garaikideak diren hilarri epigrafedunak ere badiren —X. eta XI. mendekoak, irudirik gabeak eta zazpigarren paradigman sartzen dituztenak (Azkarate eta García Camino, 1996: 341-342)—. Era horretan, hilarri hauek denak, pixkanaka sarkofago honek duen tipoko epigrafe laburrek ordezkatu zituzten[100]. Egile beren arabera (Azkarate eta García Camino, 1996: 336 eta 339), arabar inskripzioa bosgarren paradigmakoa da, "filiazio

97. Antza badira antzeko adibideak, beti agintaritza duten elizgizon edo laikoei lotuta (ikus aipatutako erreferentziak datu gehiago lortzeko).

98. J. A. García de Cortázar *et al.* (1985): *Bizkaya en la Edad Media*, Haranburu, Donostia, besteak beste.


99. Honi buruz gehiago jakiteko ikus paragrafoan bertan aipatutako erreferentzia.

100. Hala ere, harrigarria egiten zaigu paradigmetan ez dela sartzen, nahiz eta aipatu, gainera, zazpigarren paradigma azaltzean, bere garaikide diren hilarri edo estela inskripziodunetan datozen hizkietatik oso desberdinak dituela.

kultural latino-mediterraneozalekoa" egileek deitzen duten moduan, hots, nabari zaizkio kanpotik, hegoaldetik iritsitako eraginak, pixkanaka nagusituko direnak, hilarri edo estela beharrean bestelako euskarrian egina dago, epigrafikoa da eta ikonografiarik gabea[101].

Inskripzio hauekin ondoriozta dezakegu kultura kristaua iritsia zela Euskal Herriko eremu hauetara mende haietarako, sarkofago honek erlijio horri dagokion hizkuntza eta erromatar jatorriko datatze-sistema erabiltzen baititu, (kultua eta prestigioduna zena), eta, jakina, kanpotik etorria zena, askotan erlijioari lotuta (agian baita kanpoko ohiturei eta botereari beste kasu batzuetan); arabarraren kasuan argi daude ezaugarri hauek, latinez eginda baitago, gurutze kristauaren irudiak ditu, eta, gainera, Elizaren hierarkiako kide bat aipatzen da bertan. Horrez gain, antzekotasunak handiak dira epigrafeen helburuan eta euskarrien materialetan, pertsonaia garrantzitsu baten hilobia adierazten dutela, etab.; desberdintasunak ere badauden arren: Bizkaikoaren inskripzioaren kalitate eskasagoa (hizkian, hizkuntzan…), harlandu batean egin beharrean hilobiaren estalkian eginda egotea, etab. Horrek guztiak adierazten digu antzeko testuingurua eta helburuak dituztela biek, nahiz eta sakontasun desberdinean (erlijioari eta latindar kulturari dagokienez), eta arabar inskripzioak datu zuzenagoak ematen dizkigula, Momori buruz ez baitakigu nor zen.

GEHIGARRIAK



17. Bolíbar. (B. Estornes de Lasa, 1987: 359).

17. Bolíbar. (J.C. Elorza, 1970: 287).

Iturria: Alvaro apezpikuaren epigrafe funerioa eta haren inskripzioa (Azkarate eta García Camino, 1996: 135-137).

101. Guk uste dugu badaukala, nahiz eta askoz sinpleagoa izan, gurutzeak baitauzka Bolibarko hileta-harriak, baina ez, egileek dioten moduan, hilarrietan ohikoak zirenak, noski (izarrak…, jentil kutsukoak edo kultura zaharraren erakusle zirenak, nahiz gurutzeekin nahasian agertu, Arrigorriagako hilarri edo estela tabularrak dituen moduan, adibidez).

BIBLIOGRAFIA

Agirre García, J. (2004): "Bolibar" eta "Armentia", *Arabako herrietako historia eta Heraldika: Vitoria/Gasteizeko koadrila*, Arabako Foru Aldundia [argitaratu gabeko fitxak].

Aguirre, I. (1973): "Los sepulcros de Arguiñeta", *Segunda semana internacional de antropología vasca (Bilbo, 1971)*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, II. liburukia, 499-505.

————, (1992): *Elorrio. Monografías de pueblos de Bizkaia*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 39-40 eta 121.

Aguirre Andrés, A. (1957): *Tumbas antiguas, ajuares, inscripciones sepulcrales*, Bilbo, 191-193 eta 197-199.

Artetxe Sánchez, K. eta Iciar Madinabeitia, I. (2001): "Goi Erdi Aroko arkeologiaren ikuspegi orokorra: Hego Euskal Herriaren kasua", *in* K. Aartetxe Sánchez (arg.), *Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian*, UEU, Bilbo, 51-92.

Azkarate Garai-Olaun, A. (1984): "Elementos de arqueología cristiana en Vizcaya altomedieval", *Cuadernos de Sección Prehistoria-Arqueología*, **2**, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 7-136, 33-37 eta 55-56.

————, (1988): *Arqueología cristiana de la Antigüedad Tardía en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

Azkarate Garai-Olaun, A. eta García Camino, I. (1996): *Euskal Herriko Erdi Aroko Hilarri eta Inskripzioak (VI-XI. mendeak). I. Euskal Herriko Mendebaldea*, Eusko Jaularitza - Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz - Bilbo.

Azkarate Garai-Olaun, A. eta Larrañaga, K. (1988): "La cristianización", in *Congreso de Historia de Euskal Herria*, I. liburukia, 325-366.

Balparda, G. (1924): *Historia crítica de Vizcaya y sus fueros*, I. liburukia, 242-245 [originalean], 220-224 [argitalpen berrian; argitalpen berriaren editorea: Rodríguez Herrero, A. (1974), Bilboko Aurrezki Kutxa Munizipala, Bilbo].

Barrio Loza, J. A. (zuz.) (1985): *Monumentos nacionales de Euskadi. Tomo III: Vizcaya*, Eusko Jaurlaritza- Elexpuru, Gasteiz - Zamudio, 135-145.

Bengoetxea Rementeria, B. (2001): "Antzinaro Berantiarreko nekropoliak Euskal Herrian. Frankoen eragina Pirinioen ipar eta hegoaldean" in K. Artetxe Sánchez, (arg.), *Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian*, UEU, Bilbo, 93-120.

Díaz de Aracaya, M. (1901): *Armentia, su obispado y su basílica de San Andrés*, Vitoria.

Elorza, J. C. (1970): "De epigrafia cristiana alavesa", *Estudios de Arqueología Alavesa*, **IV**, 283-291.

Estornes Lasa, B. (zuz.) (1968-): *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Auñamendi, San Sebastián, V. liburukia, 422-424. [paperean eta *on-line* Idoia Estornes Zubizarretak zuzenduta dago <http://www.euskomedia.org:8080/euskomedia_es/index.jsp>]

Floranes, R. (1919-20): *La supresión del obispado de Álava y sus derivaciones en la historia del País Vasco*. Madril.

García Camino, I. (1992): "El poblamiento en Bizkaia durante la Edad Media a través de los datos arqueológicos (siglos X-XIII)", *Illunzar*, **92**, [*Erdi Aroko Arkeologi Ihardunaldiak (1991), Gernikako Euskal Herriaren Museoa*] 18-27.

–––––––––, (2002): *Arqueología y poblamiento en Bizkaia, siglos VI-XII: la configuración de la sociedad feudal*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

Gil Fernández, J.; Moralejo, J. L. eta Ruiz de la Peña, J. I. (1985): *Crónicas asturianas*, Universidad de Oviedo - Departamento de Historia Medieval y Departamento de Filología Clásica, Oviedo.

Gil Zubillaga, L. eta Sánez De Urturi, F. (2001): *San Miguele : la necrópolis tardorromana, tardoantigua y altomedieval de San Miguele (Molinilla, Alava): memoria de las excavaciones arqueológicas de 1998* (L. Gil Zubillaga) *y de la intervención de urgencia de 1981* (P. Sáenz de Urturi), Memorias de Yacimientos Alaveses 7, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

Goihenetxe, M. (1999): *Historia general del País Vasco: Prehistoria - Época romana - Edad Media,* I. liburukia, Ttartalo, Donostia.

Gómez Moreno, M. (1944): "De epigrafía medieval. Los sepulcros de Arguiñeta", *Boletín de la Real Academia de la Historia*, **115**, 189-192.

Gorrotxategi Nieto, M. (2001): *Euskal Izendegia. Ponte Izendegia*, Eusko Jaurlaritza – Euskaltzaindia, Gasteiz – Bilbo.

Igartua Ugarte, N.(2003): *Prudencio de Armentia, obispo de Tarazona. Fuentes y contexto histórico de u vida y culto*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

Irigoyen, A. (1986): *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

Jimeno Aranguren, R. (1999): "Sustrato cultural de la Vasconia altomedieval", *Nazioarteko eusko ikaskuntzen aldizkaria (RIEV)*, **44-2**, 441-454.

————————, (2003): *Orígenes del Cristianismo en la tierra de los vascones*, Pamiela, Iruñea.

Labairu Goikoetxea, E. J. (1968): *Historia General del Señorío de Vizcaya*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

Lacarra J. Mª (1957): *Vasconia medieval. Historia y Filología. Conferencias pronunciadas los días 10 y 11 de enero de 1956*, Seminario Julio Urquijo - Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

————————, (1965): *Colección diplomática de Irache, volumen I (958-1222)*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas-Instituto de Estudios Pirenaicos, Zaragoza.

Larrea, J. J. (1996): "El obispado de Pamplona en época visigoda", *Hispania sacra*, **48**, 123-147.

López López de Ullibarri, F. eta Dabouza Salcedo, A. (koord.) (1999): *Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa- Museo Diocesano de Arte Sacro*. Gasteiz.

López Mendizabal, I. (1954): "Los sepulcros y lápidas funerarias de Elorrio y sus alrededores", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del Páis*, **10**, 214-219.

Mañaricúa Nuere, A. E. (1963): *Obispados en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta fines del siglo XI*, Vitoria, 48.

————, (1964): *Obispados en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta la elección de la diócesis de Vitoria (1862)*, ESET, Vitoria.

————, (1977): *Álava, Guipúzcoa y Vizcaya, a la luz de su historia*, Leopoldo Zugaza, Durango.

————, (1978): "La cristianización del País Vasco", in *Historia del Pueblo Vasco I*, Erein, Donostia, 51-72.

————, (1985): "Introducción del cristianismo en el País Vasco", in *Euskal Herriaren, Historia y Sociedad*, Lankide Aurrezki Kutxa, San Sebastián, 332-336 [berrargitalpena: (1981): "Introducción del cristianismo en el País Vasco" in *I Semana de Estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco*, Vitoria eta (1986): "Cristianización del País Vasco, orígenes y vías de penetración" in *Ikaskuntza Historikotako Batzarrea, Bizkaia Erdi-Aroan, 1984,* Eusko Ikaskuntza, Donostia, 39-48].

Mansilla, D. (1982): "El obispado de Álava en la Edad Media", in *Vitoria en la Edad Media. Actas del I Congreso de Estudios históricos*, Gasteizko Udala, Gasteiz, 265-280.

Martínez Montoya, J. eta Jimeno Aranguren, R. (1999): "Bibliografía sobre antropología de la religión", *Zainak*, **18**, 435-452.

Rivera, A. (zuz.) (2003): *Historia de Álava*, Nerea - Arabako Foru Aldundia, Donostia – Gasteiz.

Romero Tallafigo, M.; Rodríguez Liáñez, L. eta Sánchez González, A. (1995): *Arte de leer escrituras antiguas. Paleografía de lectura*, Universidad de Huelva, Huelva.

Ubieto Arteta, A. (1976): *Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076)*, Instituto de Estudios Riojanos - Monasterio de San Millán de la Cogolla - Anúbar, Valentzia, 10. dokumentua, 20-21.

2.4. MONASTERIOBARRIA: EGIAZKOA ALA GEZURREZKO EMANALDI PREFEUDALA ALA FEUDALA?

TESTUA

In nomine domini nostri Jhesu Christi sub Sancte Ttrinittattis ett in di_/uidue Pattris ett Filii ett Spiritus Sancti, amen. Ego Muni_/o Sanciç, comitte, ett uxor mea comittissa domina Legun_/ttia posuimus eclesia quod dicittur monastterio Uarri_/a que hauittentt in ea monacos ett frattres uel /sorores, ett *[lerro artean tartekaturik:* non*]* habeantt ibi parttem nostros filios ett / filias neque nostra generattio s*[apurtuta*] monacos ett fratres uel soro_/res ett quod orentt pro animabus nostris ett pro om_/nium fidelium christianorum ett dedimus heredittattes / tterras ett mancanares, agros ett campos siue mon_/ttes ett fonttes ett pastturas ett tterminos, idsa / de Olabeeçahar usque ad illum ponttem quod dicittur / Markoçubi, ett quomodo curritt riguum quod dici_/ttur Çumelhegi usque ad monastterium quod dicittur Me_/maia ett ad illum riguum quod decenditt iuxta Har_/hegi ett de alia partte de Legeriano usque ad riguum fol. 1 aurrea// quod dicittur Itturlax omnia ipsa ualle ettiam postt morttem con_/iux *[zirriborroa]* meum cui sitt requies in perenne uitte, amen. Ego co_/mittissa domina Legunttia uenitt mici uolunttattem pro amorem / Sancte Ttrinittattis donaui ad illum monastterium in uilla quod dicittur / Garaio duas sernas, unam de dexttera partte de eclesia noua, ett alia / ad sinisttra partte, ett quattuor busttos de uakas, vnum ex ipsis / busttis misitt senior Lupe Ahoçttarreç pro animam suam, ett Alba_/ro Albaroç d'Arroitta omnia sua heredittatte, ett similitter Munio / Osandoç de Arroitta omnia sua heredittatte, ett Nunutto Miottaco / ad una cum uxor sua Urrana Uittacoç omnia heredittatte, ett San_/cio Ttelluç de Olhabeeçahar quintta partte ett media de sua he_/redittatte, ett suum filium Munio Sançiç posuitt suam raccionem. Et / ego comitte Munio Sanciç ad una cum uxor mea comittissa domina / Legunttia, ett ad una quanttos suntt rouoratta in istta scedula do_/nauimus ad illos sanctos qui ibidem suntt reconditte, idsa Sancti Ihoannis aposttoli / ett Sancti Ttome aposttoli uel Sancti Agusttini episcopi, ett in alia eclesia de / orsum suntt reconditte id estt Sancte Marie uirginis ett Sancti Mikael ar_/cangeli, siue Santta Marina uirginis ett que ibi fuerintt omni hora conloca_/ttum in illos sanctos monacos autt fratres uel sorores pro amore Christi itta / donauimus ttotta istta dona ett posuitt de vnum molinum de media fol. 1atzea// parte senior Munio Sançiç quod vocattur in comenttio pro / sua anima. Gundesalbu Albaroç ett suo filio fidia_/ttores, Lope Garciç fidiator, Eneco Lupiç *[lerro artean tartekaturik:* de*]* Laçkanu fidiator, Gomiç / Forttuniç de Formaiçttegi fidiator, Nunuso Narriatteç de Lohi_/naç fidiator, Açenari Momeç de Açubarro fidiator ett suo ger_/mano Gideri Monieç de Ankelu fidiator, Sancio Nunusoç / de Abernaka fidiator, Gellu Nunnusoiç de Arrattia fidiator, Açe_/nari Sansoiç de Iuarra fidiator, Acenari Sansoiç de Berrio / fidiator. /

Ett si aliquid hoc mandattum in iusttittia uolueritt / defendere autt disrumpere habeatt cauttum a par_/tte regis quinque libras auri, ett a parte monastte_/rii *[ezabatua:* duplit*]* duplattum uel meliorattum, ett si fueritt / aliquid homo forttitter faciatt supra hoc ttestta_/mentum autt rege att *[sic.]* episcopus autt abbas seu presbitter / siue seniores uel quislivett homo istta sitt comu_/nicattio illius bacuatta ett diabolo sitt

suum mini_/stter ett partticipattio illius sitt cum Judas ttaditto_/re in inferno, *[ezabatua:* ett orattio*]*, ett orattio eius eius sitt semper / in peccattum ett non habeatt aliquid nulla rattio de fol. 2 aurrea// illa orattio fiant dies eius pauci ett episcopattum eius acci_/piatt altter sicutt psalmistta narrauitt fiantt filii / eius *[ezabatua:* pauci ett episcopattum eius accipiatt altter*]* orfani / ett uxor eius uidua fiantt anni eius pauci in intte_/rittu in una generattione deleattur nomen eius ett / non habeatt parttem cum Christo sed cum anttichristo / ett sitt condemnattus de collegium angelorum siue sanctorum, / marttirum, uirginum, confesorum, ett in presentti seculi ex_/comunicattus permaneatt ab omni congregattione / christianorum qui hoc iusttitt *[lerro artean tartekaturik:* ia*]* uolueritt defendere semper / ualeat illum cum anttichristo cum socio suo amen, amen / amen. / Regnantte domino nostro Ihesu Christo ett sub eius imperio / Leionenesem Fredinandus rex, garsia rex in Nagera / ett *[lerro artean tartekaturik:* in*]* Casttella Uettula, Ramirus rex in Aragona / ett Superaui ett in Ripacurça, Comessanus episcopus / uurgensis, Comessanues episcopus nagerensis, Sancius episcopus / rettor eclesie nauarrensium, Garsia episcopus alauensis siue / in Uiçkahia, comitte Munio Sanciç in Turanko. / I fatta cartta in era ML et unum, e con fol. 2 atzea// firmatta in kalendas febreris, regnante ego Garcia rex in Pmapilona ett in Alaua, Frenandus rex in Legione, Garcia / episopus in Alaua, Sancius episcopus in Pampilona, Gomessanus in / Nagera. *[zeinua]* Signum rex. fol. 3 aurrea//

Itzulpen laburtua:

Munio Santxez (Sanciç) eta Leguntia bere emazteak Monasteriobarria izeneko eliza egin zuten bertan bertan monjeak edota mojak bizi zitezen (beren seme-alaben ez beste inoren parterik gabe). Eta otoitz egin zezaten beren alde eta kristau guztien alde lurrak, sagastiak, soroak eta mendiak, urak eta larreak eman zizkieten haiek hil ondoren bereak bezala izan zitzaten: Olabehezahar-etik, Markozubi izeneko zubira, zeinen azpitik doan Zumelegi errekatik, Memaia monasterioraino eta Arregi gainetik zetorren errekaraino, Legeriano alderako eta Iturlats izeneko errekaraino, haran guztia. Leguntia kondesak ere eman zituen Garai (*Garaio*) izeneko herrian bi serna, bata eliza berriaren eskuin aldean eta bestea ezkerraldean, eta lau behi busto: bata Lope Ahotarrez jaunak bere arimaren onerako eman zuen bustotik, eta Albaro Albaroz Arroitakoak bere jabego osoa, eta berdin "Nunutto Miottaco" jaunak bere emazte Urrana Vitacoz-ekin batera jabego osoa, eta Antso Telluez Olabehezaharre-koak bostena eta erdi bere jabegotik, eta bere seme Munio Santxezek ere berari zegokion partea jarri zuen. Kondeak, kondesak eta aipatutakoek emanaldia egin zieten San Joan Apostoluaren, Santo Tomas apostoluaren, San Agustin apezpikuaren, eta Andre Mariaren, San Migel arkaingeruaren, eta Santa Marina birjinaren erlikiei, aipatutako monje eta mojen bitartez eta Munio Santxez jaunak zuen errota baten parte erdia ere bai. Fidatzaileak edo fede eman zutenak izan ziren, Gundesalbo Albaroz, Lope Gartzez, Eneko Lopez Lazkaokoa, Gomez Fortunez Ormaiztegikoa, Nunuso Narriatez Loinazkoa, Azenari Momez Azubarrokoa eta bere anaia Gideri Moniez Ankelukoa, Antso Nunusoez Aberankakoa, Gellu Nuñusoez Arratiakoa, Azenari Sansoez Ibarrakoa, Azenari Sansoez Berriokoa. Eta justiziari agintzen zitzaion emanaldia babestea, apurtzen zuenak ordaindu behar zuen erregearen partea ziren

> bost libera urre, eta monasterioari kaltea bikoiztuta eta hobetuta itzuli behar zion; eta gizon boteretsua izanez gero, goian esandakoaren kontra zihoana Infernuan erreko zen Judasekin bera eta bere generazioa (emazte eta umeak). Hau egin zen errege zela Leonen Fernando, Gartzia errege Naiara edo Naxeran eta Gaztela Zaharrean, Erramiro Aragoin, Sobrarben eta Ribagortzan, Komesanus Burgosen apezpiku zela, Komesanus apezpiku Naiaran, Antso nafarren apezpiku, Gartzia arabarra Bizkaian; eta *Turanko*n konde Munio Santxez bera zela, egin zen Aroko 1051. urtean, otsaileko kalendatan [otsailaren 1ean].

Testu notariala eta pribatua da, nahiz eta Durangoko kondeak eta bere emazteak egindako testua izan, monasterio bati egindako jabegoen emanaldi pribatua delako. Lehen eskukoa izan arren, artxibora iritsi zaigun testua XVI. mendean egindako kopia da, 1572an Joan Santxez Esteibarkoak egindakoa[102], beraz oso urruti dago jatorrizko testuaren garaitik benetan baldin bada esaten den datakoa. Dena den, bada 1499ko kopia bat ere, Elorrioko parrokiako artxiboan Pedro Yanguaskoak onetsia, eta 1542ko faksimil bat Jauregi batxilerrak onetsia (Mañaricúa, 1957: 304-325 eta 1984: 302).

Horregatik guztiarengatik, Balpardak (1974, II: 27-29) ez zuen faltsutzat jotzen, baina zalantzak agertu zituen dokumentua oso zaharra zelako eta gordetzen zen kopia oso "berria" eta, gainera, datazioan arazoak agertzen zituelako. G. Martínez Díez-en (1975: 54-55) ustez, formula diplomatikoak ez zegozkion garai hari, emanaldia oso zabala zen eta emanaldiaren egileak ezin ziren beste inongo dokumentutan aurkitu (Mañaricúa-k ukatzen duena, ikus aurrerago). J. A. García de Cortázar eta kideek (1985, I: 54) uste zuten jatorrizko testua izango zela, eta interpolazioak izango zituela seguru asko, monasterioaren mugei dagokienez, batik bat.

I. García Camino-k (2002: 153-154) iritzi horiek guztiak jasotzen ditu eta hala ere, uste du dokumentua erabilgarria dela, zeren Durangaldeko konderria beste dokumentu batzuek ziurtatzen dute XI. mendearen bigarren erdialde horretan, nahiz eta, dirudienez, Bizkaiko konderriak eta Durangokoak pertsona bera izan kondetzat. Hala ere, karguaren izaera publikoa bazen, familia desberdinek har zezaketen, baina aurrerago sakonduko dugu arazo horretan.

A. Mañaricúa-ren (1957: 317tik) ustez, Leguntia eta dokumentuko beste emanaldi-egile eta fede-emaile batzuk agertzen dira beste dokumentu batzuetan, beraz, ez dira pertsonaia asmatuak. Mañaricúa-k proposatzen du, pertsona berdina dela testu honetako Antso Nunusoez Aberankakoa ("*Sancio Nunusoç de Aberanka*") eta 1051n Eneko Lopez Bizkaiko kondeak eta bere emazte Todak egindako Busturi-Axpeko emanaldian datorren "*Sancio Annussoiz Aberancanensis*"[103]. Are

102. Hidalgo de Cisneros *et al.* (1988: 1-3).

103. Ez dakiguna da nola interpretatu hori: J. A. García de Cortazar *et al.*-ek (1979: 68) proposatzen dute Berango dela Aberanca, eta Mañaricúa-k (1957: 317 eta 1984: 302) Angelu (Araba) edo Ibarrangelua (Bizkaia).

gehiago, Balpardak zioen (1974, II: 27) Leguntia zela ere 1051ko azken testu horretako "*domna Leguntia Esceverrianensis*", hots, Leguntia Etxebarriakoa[104]. Mañaricúa-k argudiatzen zuen monasterioaren barrutia mugatzea ere egiten zela beste testu batzuetan. Aldi berean, uste zuen, bertan ageri diren lekuak eta toponimoak gaur egun existitzen direla eta, beraz, kokatu egin daitezkeela eta barrutia kalkulatu. Bide horretatik, I. Aguirre-k identifikatzen ditu: Olabezar, Arregi edo Legerianoko baserriekin, Memaiako ermita, Zumelegi edo Iturlats errekak eta Marzubi zubia; eta gehitzen du testuan datozen mugak XVIII. mendera arte iraun zuten eliz mugak zirela (Aguirre, 1992: 39-40 eta 45).

Datari buruz esan behar da ezin dela zuzena izan, zeren erregeen intitulazioak ez ziren betetzen eta, gutxienez, 1047-1052 artean beharko luke idatzia, eta ez Aroko 1051n (hots, 1013an), XI. mendearen erdialdean baizik. Horrek ere bere egiazkotasuna zalantzan jar lezake. Datazioan esaten da Comesanus edo Gomesanus Burgosen eta Naiaran apezpiku zela[105], eta hori ez zen izan 1047 arte eta Antso 1040an hasi zen Iruñeko apezpiku izaten eta 1052an aldatu zuten antza[106] (Goñi, 1979-1999: 188 eta Lacarra, 1965: 15[107]). Gartzia arabar apezpikua[108] Bizkaian, izan daiteke Gartzia 996-1021 artean apezpikua izan zena, edo hurrengo Gartzia (1037-1055), askoz logikoagoa dena.

Horrexegatik ere esan izan da testu hau faltsua dela, horregatik, eta gordetzen den XVI. mendearen oso bukaerako kopia letra zaharragoaren hizkiak imitatzen saiatzen delako, kurioski. Bada, zaila da jakitea, batetik, noiz faltsutu zen; bestetik, faltsutua izan bazen, kopiatu aurretik egin zen faltsutzea ala orduan bertan, eta, azkenik, gainera, faltsutzea testu osoa zen ala benetako testu bati gehitutako interpolazio edo zati faltsuak zituen.

Mañaricúa-k (1957: 304-306) jarraipen osoa egin zion dokumentuari: dioenez, lehen aldiz Garibaik aipatu zuen bere *Compendio historial* lanean 1628an[109], eta ondoren Moret, Henao eta abarrek. Fita izan zen, Mañaricúa-ren esanetan, transkripzioa egin zuen lehena 1883an[110]. Ondoren, Mañaricúa-k (1957: 306-308) berak jasotzen du nola originala galduta, 1499ko kopia bat gordetzen den Elorrioko parrokiako dokumentazioan (auzi batengatik Kalagorrira eraman ostean, itzultzeko eskatu zen eta eskaera horretan kopiatu zen), hurrengoa 1542ko faksimila (beste

104. Ubieto (1976: 271-272) eta García de Cortázar *et al.* (1979: 66-68). Berezia da Monasteriobarriakoa baino bi urte lehenago Leguntia agertzea sinatzen lekuko moduan eta Munio, bere senarra, ez agertzea.

105. Gomesanus Kalagorri eta Naiaran ageri da apezpiku moduan Iratxeko Bezerroan.

106. Zalantzak daude bere ondorengoak noiz hartu zuen apezpiku-aulkia, 1050 eta 1052 artean ala 1054an.

107. Ikus 9., 10. eta 11. dokumentuen oharra.

108. Araban elizbarruti-gunea zuena, alegia.

109. 22. liburua, 30. kapitulua.

110. *Boletín de la Real Academia de la Historia* aldizkarian.

egileek 1572koa dela uste duten arren, berak dio oharrak direla 1572koak eta testua 1542koa) eta azkenik geroagoko kopiak egongo ziren ondoren. Bere ustez 1499ko kopiak eta faksimilak bat egiten dute, eta, beraz, jasotzen du Fitaren interpretazioa datazioari buruz, hots, data dela: "[…] *era I*[marra du gainean] *L X*[marra du gainean] *et unno*"; hau da: "I" gainetik azpimarratua mila da, "L" berrogeita hamar, "X" gainean azpimarratua berrogei, eta, azkenik, bat. Bada, Aroko 1091 (ken 38[111]), K. o. 1053. urtea ateratzen da —hori da Labairuk proposatzen duena ere (1968, II: 92-94)—. Arazoa izan zen "X" letraren gaineko marra galdu egin zela kopia eta faksimila egitean eta, beraz, data okertu zen Aroko 1051rekin bat egiteko. Posible dena, baina nola da posible 1052an jada Antso Iruñeko apezpiku ez bazen? Agian urtebete luzatu behar da bere karguaren garaia; izan ere, zalantzak daude bere ondorengoa 1050 eta 1054 artean noiz bihurtu zen apezpiku.

Bestalde, Mañaricúa-k (1984: 304-305) jasotzen du dokumentuak bi eskatokolo izatea faltsua izateko frogatzat erabili izan dela; hala ere, berak argudiatzen du horren arrazoia izan zitekeela, ditugun testuak jatorrizkoa baino askoz geroagoko kopiak direnez, lehen une batean fundazioaren originalean Gartzia erregea aipatu baino ez zela egingo, eta gero testuaren berrespena egin zuela erregeak berak, bigarren eskatokoloan bere sinadura agertuz. Hala eta guztiz ere, egile berak uste du, lehen eskatokoloa gaztelar erara egina dagoela eta bigarrena nafar erara, ondorioz, lehena geroago egindako interpolazioa izan zela eta bigarrena testuak benetan zekarrena (Arabako apezpikua agertuz lehenengo, nafarraren aurretik, bere elizbarrutikoa denez monasterioa, eta Burgoskoa aipatu gabe). Ondorioz, interpolazioak izango ziren, egile beraren ustez (Mañaricúa, 1984: 306), erlikiei egiten zaiela emanaldia (jatorrizkoaren erdian sarturik legokeena) eta lehen eskatokoloa —gaztelar formakoa—, eta zalantzan lekukoen zatia. Azkenik dio, dokumentuaren aurka doazenen kontrako inprekazioak originalekoak nahiz interpolazioak izan litezkeela.

Antzekoa dio G. Martínez Díez-ek (1975: 53-55), interpolazioak dituela ematen duelako, lehen emanaldiaren bukaeran Leguntiarena gehitzen dela, eta gero berriro jarraitzen duela Muniok, formula ez ondo bukatuekin, bi eskatokoloekin, etab.

Monasteriobarria beti identifikatu da San Agustin Etxebarriakoarekin, eta Memaia aipatzen denez eta Durango aldean izan behar denez, hala dirudi logikaz, G. Monreal-ek (1974: 38) ere onartzen du Monasteriobarria hau San Agustin Etxebarriakoa dela, interpretazio egoki gisa. San Agustin Etxebarriakoaren azterketa sakona egin duena Iñaki García Camino da (2002[112]: 151-166). Haranean kokaturik dago, Ibaizabal ibaiaren haranean, muino baten gainean. Elizaren hegoaldeko

111. Aroan emana delako data eta gure urte-dataziora aldatzeko.

112. Gai honi buruzko datu gehiago eta kronologia zabalagoa ezagutu nahi izanez gero, ikus erreferentzia hau, egilearen tesiaren partea baita.

portikoan indusi zuen, gaur egungo alboko ataria eta San Martin eta Santa Marina kaperaren artean (kapera horretan zeuden lurperatuta Munio Santxez eta Leguntia tradizioak dioenez). Beraz, testuan datorrena I. García Camino-ren (2002: 154) ustez da: dirudienez populazio aldetik haranaren behe aldean monasterio berria fundatzen den unean, aurretik topografikoki gorago zeuden Goi Erdi Aroko monasterioak bere mendean geratu ziren. Egile beraren esanetan, prozesu horrek nekropolien uztea eta lurraldearen berrantolaketa ekarri zituen (mende batzuk geroago beste berrantolaketa bat gertatu zen hiribilduak fundatzean, lurralde horretan Elorrio, hain zuzen ere).

Testuaren partaideez oso datu gutxi daude, hauxe da Durangoko kondeez eta konderriaz dagoen aipamen zehatz bakarra, Gregorio Monreal-ek (1974: 38-39) jasotzen duenez. Bere ustez, lurraldea XI. mendera arte Arabako konderri handiaren parte izango zen. 1053ko hau izango zen lehen dokumentua bere ustez, zalantzazkoa dena, gainera[113]. Horrek adierazten digu, batetik, lehenbizi berak ere uste duela dokumentua ez dela guztiz egiazkoa edo behintzat zalantzan jarri behar dela bere egiazkotasun osoa, eta, bigarrenik, Mañaricúa-rekin bat egiten duela datazioari dagokionez. Bestalde, adierazten digu, Durangok izaera propioa zuen arren, nolakoa zen jakitea zaila dela, zeren zalantzazko dokumentu batean oinarritzen baita konde propioa zuela esateko. G. Monreal-ek dio izaera geografiko bereziak eman ziola antolaketa-unitatearen izaera Durangori, azken batean haran hauek lotzen baitzuten Bizkaia nuklearra, Arabarekin (Urkiolatik aurrera) zein Deba arroarekin (Elgeta eta Kanpanzartik).

Monreal-ek uste du aldearen bilakaera Bizkaikoarekin paraleloan joan zela Nafarroako eta Gaztelako erresumen artean, nahiz eta Gaztelan azken aldiz apur bat geroago sartu zen, 1200ean, Gipuzkoa eta Arabarekin batera[114]. Hori horrela gertatu zen, urte batzuk lehenago bi erresumen arteko muga Henrike II.a Ingalaterrako erregearen arbitrazioan edo erabakiaren menpe jarri zutelako Alfontso VIII.a Gaztelakoak eta Antso VI.a *Jakituna* Nafarroakoak. Henrikek ez zuenez erabaki, azkenean Itziar eta Durango nafarren esku geratu ziren bi urte geroago, 1179an, Bizkaia gaztelarraren esku geratutakoan[115]. Ondoren, Gaztelaren eskuetara igaro zen Durango ere 1200etik, esandako moduan, eta 1212an Navas de Tolosako

113. G. Monreal-ek (1974: 38) dio: «En una escritura de 1053, de valor dudoso, aparece como distrito condal. Se trata de la fundación de San Agustín de Echevarría, llevada a cabo por el conde Munio Sánchez ("comite Munio Sánchez in Duranko") [sic.]. Es la única mención existente acerca de un conde propio de la comarca; de cualquier manera, en lo que resta de centuria y en la siguiente la comarca sufrió las oscilaciones políticas que hemos señalado para la Vizcaya nuclear respecto de la soberanía del rey de Navarra y de Castilla».

114. Honi buruz datu gehiago eta zehatzagoak jakiteko ikus J. A. Fernandez de Larrea Rojas (2000): "La conquista castellana de Álava, Guipúzcoa y Durango (1199-1200)", *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria (RIEV)* **45-2**, 425-438, Donostia, Eusko Ikaskuntza.

115. J. González (1960): *El reino de Castilla en la época de Alfonso VIII,* 2. liburukia, Madril, 321. dokumentua.

garaipenaren zerbitzuengatik, Durangaldea Alfontso VIII.ak Diego Lopez Harokoari eman zion, eta bertako egiturak mantenduta, Bizkaiko jaurerrian sartu zuen.

I. García Camino-k (2002: 345-346) uste du Durangoko konderria unitate gisa XI. mendean sortu zela, erdialdetik aurrera gertatu ziren bi fenomenoren artean: ikusi dugun konderriaren zatiketa politikoaren eta "kontzentrazio eklesiastikoa" deitu duenaren artean. Monarkia nafarrak ikusiko zuen Durangoko arroa eta Eneko Lopez Bizkaiko kondearen lurra desberdinak zirela, IX. eta X. mendeetan gertatutako hazkundearen ondorioz, jabegoak atomizatu egin zirelako baina noiz gertatu zen zehazki ezin da jakin I. García Camino-ren ustez. Argi ikusten da pertsona bera izan arren konde bietan, lurralde bakoitzak bere bilakaera jaso zuela, Gaztelaren eta Nafarroaren arteko muga-aldaketek argi uzten dutenez. 1051n lehen konde durangarra aipatzen da Eneko edo Iñigo Lopez, Bizkaiko kondea ere bazena (1043-1076), bi lurraldeetako monasterioei ingenuitatea edo zergak ez ordaintzeko askatasuna ematen (Rodríguez de Lama, 1976, II: 37-38 edota García de Cortazar *et al.*, 1979: 68-69[116]). Eneko Lopez hau, Iruñeko erregearen gortean ageri zen, eta, beraz, erresuman integraturik egongo zen Bizkaia dudarik gabe Mañaricúa-ren ustez (1984: 299-300)[117]. Ondorioz, Mañaricúa-k uste du (1957: 317 eta 1984: 302-303 eta 307), beharbada, Bizkaiko kondearen mendekoa izango zela Munio Santxez hau, konde izanagatik 1053an[118], —García Camino-k ere onartzen duen hipotesia— edo Balparda-k (1974, II: 27[119]) proposatzen zuen moduan, Durangoko jaun izandako baina geroago bidalitako familia baten ondorengoa izango zela. Baina ideia hori ezin da ulertu, baldin eta Iruñeko erresumaren menpe bazeuden Bizkaia nahiz Durango —hori baita errege iruindarraren agerpena testuan azalduko lukeena—, eta, beraz, ideia hori exageratua dela pentsatzen du A. Pescador-ek eta ez dagoela garbi, eta asko jota dokumentu horrekin ikusten dena dela Durangok bere izaera zuela, eta hortik, gero, merindadea sortu zela (1999: 118)[120].

Hala ere, García Camino-k uste du Goi Erdi Aroko hazkundearen lehen fasea osaturik zegoenean gertatu zela Durangoren eraketa, herrixka eta elizen sarea osaturik zenean Oiz mendiaren magaletan; hots, XI. mendean eta, agian, egilearen hitzetan, Antso III.aren eskutik. Bere ustea datza Antso III.ak administrazio-barruti eta tenentzia berri ugari egin zituen gertaeran, bere erresuman berrantolaketa egin baitzuen, Antso I.aren garaitik zetozen tenentzietan. Eneko

116. 10. dokumentua, Gartzia erregeak eta bere emazteak Eneko Lopezekin emana 1051ko urtarrilaren 30ean.

117. Gutxienez XI. mendetik (Martínez Díez, 1974; Pescador, 1999 eta Lema, 2004).

118. Berriro ez denez aipatzen gainera testuetan, eta Eneko edo Iñigo Lopez, ostera, bai.

119. 136. oharra.

120. G. Martínez Díez-ek uste du (1975: 55) bi konde ezagutzen direla beste dokumentuetan Gartzia errege iruindarraren garaian: Eneko Lopez Bizkaian eta Munio Muñoz Araban; beraz, arraroa dela Munio Santxez horren existentzia egiazkoa izatea, kondea bazen aztarna gehiago utzi beharko zituelako.

Lopez jatorriz nafarra zela uste dute egileek eta 1043. eta 1076. urteen artean datatzen da Bizkaiko tenente edo konde moduan; Naxeran tenente zen erregearen izenean (non jabegoak zituen gainera) eta jauna zen Bizkaian, jabego patrimonial handiekin, (Pescador, 1999: 116-118).

Izan ere, testuinguru kronologikoa Iruñeko erresumaren loraldian kokatzen da, data edozein dela ere (edo Antso III.aren erreinaldian edo bere seme Gartzia Naxerakoaren garaian, hau erori aurretik). Garai hori nolakoa izan zen deskribatzea komeni da labur bada ere: hazkunde ekonomikoa hasita, Donejakue Bidearen loraldiaren garaia hasten ari zen, hiriak pizten hasi ziren, Errioxako monasterio aberatsen garaia izan zen, politikoki Iruñekoa zen gune politikorik osasuntsuena Penintsulan (behintzat mendebaldean, inguru guztia kontrolatzen baitzuen, baina erorialdia ere berehala iritsi zitzaion Atapuercako hondamendiaz 1054an, Enkarterri galduz lehen aldiz iruindarrek, nahiz eta ez izan behin betiko)[121].

Kondeaz gain diren beste pertsonaiei dagokienez, inguruko jaunak ageri dira sinatzen eta emanaldiak egiten (dagoeneko gorago aipatu ditugunez gain), baina badira hiru gipuzkoarrak diruditenak Loinaz, Ormaiztegi eta Lazkao/Lazkano dutelako deitura lokatiboa edo lekuzkoa. G. Martínez Díez-ek (1975: 51-55) dio hirurak inguru geografiko berekoak direla, beraz, posible litzatekeela pertsonaia edo jaun gipuzkoarrak izatea. Gaineratzen du, "*Nunuso Narriteç de Loinaç*" izan zitekeela agian 1025ean Olazabalgo San Salbatore emanaldia sinatu zuena, alegia, "*Nunuso Narriteiz*" bera. Hala ere, jasotzen du Mañaricúa-ren iritzia esanez Durango aldekoak zirela jaunak, badelako Ormaiztegi izeneko baserri bat Berrizen eta Lazkano nahiko toponimo arrunta zelako Araban nahiz Gipuzkoan. Baina azpimarratzen du Loinazen beste berririk ez dagoela Gipuzkoakoa ez bada; beraz, agian parte horrek testuaren zalantzagarritasuna azpimarratuko zuela.

Gainera, horrek guztiak gizarte mailakatua lagatzen du agerian: alde batetik, kondeak daude, jabe handiak zirenak emanaldiak adierazten duenez, eta bere inguruko jaun txikiagoak (Miota, Berriokoak), jabeak zirenak ere, eta emanaldian parte hartu zutenak. Kondeari eta berari lotuta ziren pertsona hauei nahiz besteei ezartzen zaien *senior* edo "jaun" izaerak adierazten digu tokiko nekazarien gainetik zegoen gizarte-maila bateko kideak zirela, nekazariak baino ondasun handiagoen jabe seguru asko. Kondearen kasuan dudarik gabe ulertzen da hori bere karguagatik eta, besteen kasuan, kargudunak izan ez arren, bertako nekazari-munduko aristokrazia txikiaren partaideak zirela adierazten du.

121. Gai honetan sakontzeko ikus Lacarra, J. Mª (1972-1973): *Historia política del Reino de Navarra desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla,* Iruñea, 3 liburuki eta Larrera, J. J. (1998): *La Navarre du IVe au XIIe siècle: peuplement et société,* Bibliothèque du Moyen Age 14, De Boeck Université, Paris.

Konde hitza definitzen badugu, jatorria erromatar garaian du, enperadorearen funtzionario gisa. Kargu publikoa izan zen Goi Erdi Aroan zehar ere, erregeordezkari bezala, haren izenean epaituz, aginduz eta armada bilduz barrutietan (hala ere, izaera zibila gorde zuen leku batzuetan, kargu militarra zen dukearen ondoan ardura administratiboak eta judizialak izanez). Fase hori da gure testuari dagokion garaia (azken zatian bazen ere), esan dugunez, Iruñeko erregearen izenean zeukan konde-kargua Bizkaiko eta Durangoko kondeak[122]. Geroago, feudalismoarekin, boterea pribatu bihurtzean, karguaren ordez (noblezia) titulu bihurtzen da kondea izatea.

I. García Camino-k (2002: 346-349) aipatzen duen eta gorago agertu dugun bigarren fenomenoaren barruan ere sartzen da testu hau eta Monasteriobarriaren fundazioa, alegia, elizen kontzentrazioaren barruan. "Monasterio" edo eliza partikular bati lotutako ustiagune-unitate txikiek osatzen zuten sarea berregin zen. Hierarkia berria ezarri zen elizen artean, mendeko dekaniaren[123] eta haien gaineko monasterioen artean. Batzuk kanpoko abadetxe handietara emanak izan ziren (Donemiliaga Kukulla, San Juan de la Peña), nahiz eta horien zerga batzuk bertako monasterioen esku geratu ziren (Busturi-Axpeko Andre Maria); eta, azkenik, besteek jabego pribatuen esku jarraitu zuten (nekazari-komunitateen zein jaunen esku nahiz erregearen esku). Hori egiteko edo bideratzeko modua izan zen eliz betebeharrak gune batzuetan pilatzea (sakramentuak banatzeko eskubidea, apaizak izendatzekoa, zergak eta emanaldiak jasotzekoa…), hots, nobleen esku zeuden elizetan pilatzea. Ondorioz, bertako zenbait monasterio (Busturia edo Mundaka) hasi ziren Kukulla edo Peñari zegozkien eliz zergak jasotzen; edo Monasteriobarria moduko fundazioak hasi ziren —Durangoko jaunek egina inguruko jaun txikiekin batera—, bertara bideratuz emanaldiak eta ondorioz zergak (aurretik aipatutako beste monasterio txikietara bideratuko zirenak: Miota, Berrio…). Abadeek lurraldeak banatu zituzten (Ziortza, Abadiño eta Mungiakoak); eta azkenik aurreko nekropoli txikien uztea gertatu zen (Memaia, Mendraka…). Eliz berregituraketa hau Mendebaldeko Europa osoan gertatu zen garai horretan, egileak dioskunez (García Caminoren, 2004)[124].

Horren guztiorren ondorioak XI. mendearen bigarren erdialdean ikusi ziren, aztarna materialak agertzen hasi zirenean, eraikin berriak eraiki zirenean eliza horietan, aurreko hazkundeak bultzatuta edo agintariek bultzatutako hazkundeagatik (bigarren kasu hauetakoa San Agustin Etxebarriakoa); eta besteak abandonatu egin ziren (gure kasuan: San Tomas Mendrakakoa, Gurutze Santua, Santa Marina eta San Azisklo Memaiakoa, San Joan Berriokoa, Andre Maria Gazetakoa eta San Adrian Argiñetakoa[125]), beti I. García Camino-ren ustez. San Agustinen

122. Ez dugu berriro hitz egingo Munioren benetako izaeraz Eneko Lopez bazen Bizkaiko kondea.

123. Izena galdu zutenak testuetan salbuespenekin, adibidez, Paresiko dekania Busturiko monasterioaren menpe, etab.

124. Ikus datu gehiagotarako G. Duby, G. Fourier, etab. (García Camino, 2002: 348).

125. Ikus bere iruzkina honen inguruko datu gehiago izateko.

indusketak egitean berak eta aurretik Barañano, Gonzalez de Durana, A. Santana eta A. Gómez-ek lortutako informazioa gehituta, hilobi eta tenplu erromanikoaren oinarriak aurkitu zituen, XV. mendeko kapera gotikoak moztuak. Eraikin erromaniko hark gure testuak fundatu zuen monasterio prerromanikoa suntsituko zuen, eta horren aztarnarik ez da aurkitu oraino (ezta nekropoli edo hilobirik ere). Beraz, García Camino-k baieztatzen du 1051-1053ko fundazioko aztarna arkeologikorik ez dugula (2002: 164), XII. mendearen bigarren erdian elizan egindako eraldaketa sakonek hondatuta[126]. Horrela, San Agustinen XII. mendean, gure testuaren ostean, eraiki zen eliza berria eta hilerria handitu zen, inguruko eliza txikiei zegozkien hildakoak jaso ahal izateko. Horregatik, orduan egindako eraikuntza erromanikoaren aztarnak daude, geroko gotikoak eraldatuta, beste leku batzuetan bezala.

Aurkitu diren hilobiak ere XII. mendeaz geroztikakoak dira, garai berri horretako ezaugarriekin, eta Mendrakan edo Memaian XI. mendera arte erabilitakoen desberdinak dira, Elizak heriotzaren inguruko erritualen gaineko kontrol handiagoa zuela erakusten baitute gune eklesiastiko berrietako nekropolietan —erritual ez-kristauak desagertuz arkeologikoki ikusi denagatik—.

Eraikuntza erromanikoa eraikitzean arkitektonikoki izan zen aldaketak islatzen du lurraldean gertatzen ari zen eraldaketa, populazio-guneen berrantolaketarekin ikusi dugunez, eta testuko fundazioak aurrerago bultzatuko zuen prozesua izango zena, gainera. Gune berri hauek, monasterioak, denborarekin elizateen buru bihurtu ziren, beren lurraldeko gune nagusiak izanik, hiribilduek nagusigoa hartu zuten arte, hurrengo populazio-eraldaketaren ondorioz guztia (García Camino, 2002).

Aipatutako emanaldi hau bezalakoak ohiko gauza izaten ziren Erdi Aroan, pietatea agertzeko eta erlijio-ondasunak irabazteko aberatsen (aristokraten) kasuan. Testua 1013koa bada, oraindik goiz da feudalismoaren iraultza gertatzeko eta enkomendazio-emanaldia izateko, gainera, monasterioa txikia da, beraz, ez du botere material edo errenta handirik izango. Hala ere, horrelako emanaldietan, eta benetako garaia 1053koa bada, feudalismoa hurbil izan daitekee[127], Etxebarriakoa izan daiteke familia-monasterio bat eta baliteke lur horiek haren menpe utzi izana, gero hamarrenak kontrolatzeko modua izateko familiak, eta, beraz, errentak ziurtatzeko. Baina emanaldia egitean argi uzten dute Munio eta Leguntiak, ez haiek ez beren senideek, ez dutela zerikusirik izango monasterioarekin eta emandako jabegoekin, baizik eta soilik monasterioan biziko ziren erlijiosoek; hori 1051n Eneko Lopezek emandako monasterioen askatasunaren bidetik doa (elizei askatasunak

126. Antzekoa gertatzen dela dirudi San Prudentzio Armentiako elizan ere, ikus, adibidez, Portilla Vitoria, M. J. (1991): *Por Álava, a Compostela: Una ruta europea: del paso de San Adrián, al Ebro,* Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

127. Ikus prozesua hobeto ulertzeko E. Pastor (2004).

ematen hasi zitzaizkien garai batean[128]), eliza propioa edo patronato laikokoa izan ez zedin (Mañaricúa, 1984: 303 eta 312), baizik eta monasterioa bera bere buruaren jauna[129]. Beraz, dirudienez, San Agustineko emanaldi hau monasterioari egiten zaio, aipatzen diren santuen erlikiei emanez jabegoak; Mañaricúa-k (1957: 317) dio ohikoa dela eta Iturrizak aipatzen duela santu horien erlikiak oraindik gordetzen zirela XVIII. mendean San Agustin Etxebarria parrokian.

Izan ere, konde-kondesek eta beraiei lotutako ("*vinculados*") jaun txikiagoek (Miota, Berriokoak) —jabeak zirenek ere— emanaldian sartu zituzten beren jabego zatiak "*sustrayendolas al control de sus comunidades*", eta monasterioaren menpe geratzean beren komunitateen botere eta jurisdikziotik aldendu ziren ondasun haiek (García Camino, 2002: 154). Horrek adierazten du fundatutako monasterio berria izan zela inguruko zergak kobratuko zituena (emanaldiari esker, besteak beste), sakramentuak banatuko zituena eta eman zitzaizkion ondasunen gaineko kontrola, onura eta jabegoa izango zituena, jaun erara beharbada. Esan bezala, inguruko elizei lekua kendu zien, ermita bihurtuz eta ahulduz, alegia, berak hartu zituen haienak ziren funtzioak; prozesu hau XII. mendean burutu zen, hazkundearekin berez, espontaneoki, sortutako elizek beren lekua galduta berrantolaketa horretan. (García Camino, 2002 eta 2004: 239-240).

Emanaldi-testuan, batez ere lurrak eta jabegoak izan ziren: lursailak eta soroak, larreak, mendiak, sagastiak, eta urak, batik bat (bustoen eta sernen kasuan bai[130]), eta errota baten parte bat. Ekonomia aldetik adierazten du abeltzaintzara dedikatutako lurrak zituela monasterioak, baina baita nekazaritzarakoak ere: soroak, errotak, sagastiak eta sernak. Sagastiak garrantzitsutzat jotzen dira alde atlantiarrean, non laboreak ez ziren nahikoa hazten eta mahastiak ere antzera. Mota horretako lurrak ematea ohikoa zen, antzera gertatu baitzen Eneko Lopez eta bere emazte Todak Busturi-Axpeko Andre Mariaren emanaldia 1051n Arabako Gartzia apezpikuari egitean, bizi zen artean, zeren ondoren Donemiliaga Kukullako monasterioari eman behar baitzion (lurrekin, arrantza egiteko lekuak eta fruitarbolak eman zizkion[131]); edo San Salbatore Olazabalgoa, Lezon, 1025ean Gartzia Azenaritz eta bere emazte Gailak San Juan de la Peñako monasteriroari emanaldia egitean ageri den moduan[132] eta abar.

128. Europa osoa gertatzen den fenomenoa, Mañaricúa-k jasotzen duenez, E. Amann en Fliche-Martin egilearengandik (erreferentzia goikoa).

129. Desberdintasunekin, baina Cluny-rekin eta egin zen moduan X. mendetik.

130. Hitz hauen azalpena ikus Tobillasen iruzkinean.

131. "[…] cum suas terras et piscarias et arbores pomiferas […]" (sagastiak?), hamarren eta monasterio txikiekin batera (Ubieto Arteta, 1976: 271-272 eta García de Cortázar *et al.,* 1979: 66-68).

132. Bertan sagastiak ematen dira jabegoen artean (Martínez Díez, 1975: 175-176 eta García de Cortázar *et al.,* 1979: 65-66).

Onomastikari dagokionez, aipa dezagun, azkenik, Behe Erdi Aroko ohiko abizenak agertzen direla: izena, deitura patronimikoa[133] eta, azkenik, lekuzko deitura zituztenak[134]. Azpimarratu behar da "Nunutto Miottaco" euskaraz lekuzkoa duen deitura gaztelaniara "Nuñito de Miota" bezala itzul genezakeela, beharbada. Nafarroako dokumentazioan arrunta den arren, horrelako adibideak mendebaldean aurkitzea[135] ez da arrunta, eta agertzen direnean, normalean, abestietan eta kopla zaharretan izan da[136], hortik bere garrantzia. Gainera ez daukagu testu goiztiarragorik inguruko bilakaera ikusteko, hau da, lekuzko abizenaren agerpena ulertzeko, normalean lurraldetasunak eta oinetxe edo jatorrizko etxeak garrantzia hartzen dutenean. Nafarroan (dokumentazio gehiago dagoen lekuan), deitura patronimikoak agertu ziren oso goiz izenarekin batera, eta geroxeago gehitu zitzaien lekuzkoa. Azkenean XV. mendean fosildu ziren Durangoko merindadean patronimikoa eta lekuzko abizena eta elkarrekin igaro ziren hurrengo belaunaldira, aitaren izenaren arabera aldatu gabe; baina mende horren bukaeran Bizkaian, Araban ez bezala, patronimikoa galtzen joan zen, eta lekuzko deitura geratzen.

Laburbilduz, badirudi, aldaketekin, testuak baduela jatorrizko eta egiazko oinarri eta zatia. Oso garrantzitsua da, batetik, inguruko beste emanaldi batzuekin konpara daitekeelako populazioan eta gizartean XI.-XII. mendeetan gertaturiko aldaketak (feudalismorantz) ulertzeko. Bestetik ere, garrantzia dauka, Durangoko merindadea izango zen lurraldearen izaera agertzen duelako lehen aldiz Bizkaia nuklearretik aparte dagoen lurralde dokumentatu gisa.

BIBLIOGRAFIA

Aguirre, I. (1992): *Elorrio. Monografías de pueblos de Bizkaia*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 39-40 eta 121.

Balparda, G. (1974): *Historia crítica de Vizcaya y de sus fueros*, Bilboko Aurrezki Kutxa Munizipala, Bilbo [bi liburuki].

Fortún, L. J.; Jusue, C. (1993): *Historia de Navarra. I. Antigüedad y Alta Edad Media*, Iruñea.

García Camino, I. (2002): *Arqueología y poblamiento en Bizkaia, siglos VI-XII: la configuración de la sociedad feudal*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

133. Aitaren izena gehi "-ez" / "-iz" amaiera dutenak.

134. Pertsona zen lekuzko mikrotoponimoa, gaztelaniaz "de" bidez ageri zena eta euskaraz "-ko" atzizkiaz.

135. Adibidez: "Ochoa Larreco" edo "Lope Echasco" (Salaberri Zaratiegi, 2003: 116)

136. Nork ez ditu gogoan "Milia Lasturko" bezalakoak? L. Michelena (1964), edota Euskal Testuen Gordailua (http://www.vc.ehu.es/gordailua/).

————, (2004): "Crecimiento agrario y poblamiento rural en el País Vasco (siglos IX-XII)", in P., Barruso, J. A. Lema (koord.), *Historia del País Vasco: Edad Media*, Hiria, Donostia.

García de Cortázar, J. A. *et al.* (1979): *Introducción a la Historia Medieval de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en sus textos*, Txertoa, Donostia.

————, (1985): *Bizcaya en la Edad Media*, Haranburu, Donostia [4 liburuki].

Hidalgo de Cisneros, C.; Largacha, E.; Lorenet, A. eta Martínez Lahidalga, A. (1988): *Colección documental del Archivo Municipal de Elorrio (1013-1519)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 16, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1. dokumentua.

Labairu Goikoetxea, E. J. (1968): *Historia General del Señorío de Vizcaya*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

Lacarra. J. Mª (1965): *Colección diplomática de Irache, volumen I (958-1222)*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas-Instituto de Estudios Pirenaicos, Zaragoza.

————, (1972-1973): *Historia política del Reino de Navarra desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla*, Iruñea [3 liburuki].

Larrea, J. J. (1998): *La Navarre du IVe au XIIe siècle: peuplement et société,* Bibliothèque du Moyen Age 14, De Boeck Université, Paris.

Lema, J. A. (2004): "Evolución política en los territorios históricos: Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en la Edad Media", in P. Barruso eta J. A. Lema (koord.), *Historia del País Vasco: Edad Media*, Hiria, Donostia.

Mañaricúa Nuere, A. E. (1957): "San Agustín de Echavarria (Elorrio)", *Scriptorium Vitoriense*, **4**, 304-325.

————, (1964): *Obispados en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta la erección de la diócesis de Vitoria (1862)*, ESET, Vitoria.

————, (1984): *Vizcaya, siglos VIII al XI. Los orígenes del Señorío*, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo.

Martínez Díez, G. (1975): *Guipúzcoa en los albores de su historia (siglos X-XIII)*, Donostia.

Michelena, L. (1964): *Textos arcaicos vascos*, Madril [berrargitalpena: Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", XI, Ibon Sarasolaren *Contribuión al estudio y edición de textos antiguos vascos* lanarekin, Gipuzkoako Foru Aldundi eta Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia, 1990], 30-33.

Monreal Cía, G. (1974): *Las instituciones públicas del Señorío de Vizcaya*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao.

Pastor Díaz de Garayo, E. (2004): "Las transformaciones de los siglos XI y XII: La instauración del feudalismo", in J. Agirreazkuenaga (zuz.), *Historia de Euskal Herria. Historia general de los vascos II: De la romanización a la conquista de Navarra*, Lur, Bilbo-Donostia [2. liburukia, 4. kapitulua].

Pescador, A. (1999): "Tenentes y tenencias del Reino de Pamplona en Álava, Vizcaya, Guipúzcoa, La Rioja y Castilla (1004-1076)", *Vasconia*, **29**, 107-144.

Rodríguez de Lama, I. (1976): *Colección Diplomática Medieval de la Rioja. Documentos (923-1168)*, Biblioteca de Estudios Riojanos – Instituto de Estudios Riojanos, Logroño.

Salaberri Zaratiegi, P. (2003): *Euskal Deiturategia: Patronimia*, UEU, Bilbo.

Ubieto Arteta, A. (1976): *Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076)*, Colección Textos Medievales, Anúbar, Valentzia, 279. dokumentua.

2.5. DONEMILIAGA KUKULLAKO MONASTERIOAREN "BOTO FALTSUAK"

TESTUA

934. urtea[137] **Donemiliaga Kukulla**

Gaztelako Fernan Gonzalez kondeak Donemiliaga Kukullako monasterioari bere konderriko populazio-gune eta eskualde guztietan zentsua jasotzeko eskubidea ematen dio.

[...] Salcedo, Sopuerta, Carrantia, Bardules, Tabison, Aiala, cum suius villis ad suas alfoces pertinentibus: per omnes domus, singulas libras de cera.

Ordunia, omnes villas Mena, cum suas villas ad suas alfoces pertinentibus: per omnes domus, singulos arienzos aut singulos cubitos de lienzos.

Et quoniam non equaliter cunctis manet facultas pecunie, iuvemus habentes iugum bovum, unum argenteum. Et quos eoamplius, per unumquodque iugum, argenteum. Habentes verounum bovem, medium argenteum. Habentes autem nullum, quartum. In hac devotione reddere, ne ditiores parum videantur agere in offertione, ne pauperes causentur oprimi in spontanea donatione, sed cuncti mediocriter exigantur in sui possessionum qualitate.

Losa, omnes villas per omnes domus, singulas eminas de tritico et singulas de ordeo; sin autem singulas agnas.

Rivo de Flumenciellos, de vertice aque usque Iberum, omnes ville ex utraque parte que, Sancti Saturnini cum suis villis, et illis villis qui sunt apud Iberum ad suam alfoce pertinentibus; carneros: domus octo faciunt se ad unum.

Lantaron, omnes villas: per omnes doms, singulas metitas de vino in oblatione et singulos panes in offerta.

Termino, Cellorico, Billivio, Burbon iste predicte cum suis villis ad suas alfoces npertinentibus, carneros; domus octo faciunt se ad unum...

[...] Enciso, Arnetiello, Ocone cum suis villis, Penna Alva, Erze, Pressano, Kelle, Abtolle, Bea, Calahorra, Andosilla, Carcaras, Lerin, Zaharra, El Monesterio, EtFunes cum suis villis ad suam alfocem pertinentibus, eta alie que sunt site per litora Arge fluminis: iste predicte, per omnes domus, singulas metitas de vino in oblatione et singulos panes in offerta.

137. Dokumentu hau faltsifikazioa dugu, 1143.-1144. urtean datatzen dena, hain zuzen ere, aurrerago azalduko dugun moduan. Gerora, dokumentu beraren bi bertsio egin izan ziren: 1387ko erromantzean eginiko dokumenturako ikus Ubieto (1961: 3-14). Bigarren bertsiorako, ordea, 1575eko latindar eta erromantzezko testurako, alegia, ikus Rodriguez de Lama (1961: 99-107). Azken bertsio honen harira, Ubieto-k emaniko aipu bibliografikoa okerra da.

Et Resa, per omnes domus, singulas arenzadas de anguilas.

[...] Alava, cum suis villis, ad suas alfoces pertinentibus, id est Losa et de Buradon usque Eznate ferrum: per omnes villas, inter domus decem una reia.

De rivo Galharruaga usque in flumen de deba,id est tota Bizcahia, et de ipsa Deba usque ad Sanctum Sebastianum, de Ernanni, id est tota Ipuzcua a fines Alava usquead ora maris, quicquid infra est de unaquaque alfoce, singulos boves.

Sed quia magna numerositas regionum, locorum et villarum unumquodque singillatim non sint nos nominare, que non sunt scripte, tanquam scriptas, huic digne devotioni precipimus interese, et secundum potentiam et qualitatem suam, venerabili cenobio almi Emiliani censum cum aliis iubemus reddere *[...]*[138].

Itzulpena:

[...] Salcedok, Sopuertak, Karrantzak, Bardulesek, Tabisonek, Aiarak, euren alfozetako hiribilduekin: etxe bakoitzeko, argizari libra bana.

Urduñak, Mena haraneko hiribildu orok, euren alfozetako hiribilduekin: etxe bakoitzeko ahari bana edo mihise beso bana.

Eta aberastasun aukera denontzat berdina ez denez, idi uztarria duenak, *argentzo* bana ordain dezala. Eta hori baino gehiago (dutenek), uztarri bakoitzeko, *argentzo* bana. Ez dutenek, ordea, laurden bat ordaintzea. Boto horiek betetzeko, eta aberatsek gutxi eskeintzen dutela ez iruditzeko, eta txiroek berriz, borondateko eskaintza horretan, jazarriak direla ez esateko, bakoitzari bere jabegoaren arabera eskatuko zaio.

Losak, hiribildu guztietatik, etxe bakoitzeko, gari *emina* bana eta garagarra; bestela, bildots bana.

Omecillo ibaian, sorburutik Ebrora arte, bi aldeetako hiribildu guztiek, San Zadornilek bere hiribilduekin eta bere alfozetako hiribilduek, Ebro ondoan daudenek; ahariak: zortzi etxeko, bana. Lantaron, hiribildu guztiek: etxe bakoitzeko, opalkuntzarako ardo neurri bana, eta, eskaintzarako ogi bana.

Trebiñuk, Cellorigok, Billiviok, Burbonek, hauek guztiek, jada aipatuak, euren alfozetako hiribilduekin, ahariak: zortzi etxeko, bana eman dezaten *[...]*.

Encisok, Arnedillok, Oconek bere hiribilduekin, Peñalbak, Erzek, Préjanok, Quelek, Autolek, Beak, Kalagorrik, Andosillak, Carcarrek, Lerinek, Zaharrak, El Monesterio-k eta Funesek euren alfozetako hiribilduekin eta Arga ibaiaren ondoan kokaturik dauden beste hiribilduak: horiek, jada aipatuak, etxe bakoitzeko, opalkuntzarako ardo neurri bana, eta, eskaintzarako ogi bana.

Eta Resak, etxe bakoitzeko, aingira *arentzada* bana.

138. Ubieto (1976: 37-38).

[...] Araba, bere alfozetako hiribilduekin, hau da, Losa eta Buradonetik Eznate arte, burdina: hiribildu bakoitzeko, hamar etxeko, nabar bana.

Galarraga ibaitik Deba ibaia arte, hau da, Bizkaia osoak eta Debatik Hernaniko San Sebastian bitartean, Gipuzkoa osoak, alegia, Arabako mugaldetik itsasoko kostaldera, alfoz bakoitzeko orok, idi bana.

Baina, eskualde, leku eta hiribilduen kopurua handia denez, eta denak ez direnez banan-banan izendatuak izan, erabakitzen dugu: idatzi gabekoak zein aipatutakoak, boto duin honetan parte har dezaten, eta, bakoitzaren botere eta ezaugarrien arabera, Donemiliagako zenobioari zentsua eman diezaioten[139].

SARRERA

Diploma honek izaera publikoa du; izan ere, Gaztelako Fernan Gonzalez kondeak emanikoa omen da, Errioxa —monasterioa kokaturik dagoen lurraldea— Gaztelaren boterean menpe egon baitzen, harik eta X. mendean Nafarroak konkistatu zuen arte.

Sinatzaileen artean, Leongo Erramiro II.a, Gaztelako Fernan Gonzalez kondea eta Iruñeko Gartzia Santxez I.a daude, denak X. mendeko buruzagiak. Bertan aipatuta agertzen diren populazio-guneek, ordea, XII. mendeko egoera geopolitikoa islatzen digute.

Aitzitik, agiri hau 934. urtean "datatuta" dagoen arren, hots, Fernan Gonzalez Gaztelaren buru zen garaian, faltsifikazioa da, eta adituen arabera, XII. mendean kokatu behar dugu. Testua, beraz, historikoa eta lehen eskukoa bada ere, faltsifikazioa izaki, bertan ez da X. mendearen lehen hereneko errealitatea islatzen, XII. mendekoa baizik. Dokumentu honen egilea, beraz, ez zen izan Gaztelako Fernan Gonzalez, baizik eta XII. mendeko egile anonimo bat, konde haren izenean dokumentu hau faltsifikatu zuena.

Erdi Aroan, euskal hiru probintzietan eliz gune handien gabezia nabaria izanda ere, horrek ez zuen oztopatu eliz txikiagoen atxikimendua abadia handiekiko, gaur egungo hiru probintzietatik at zeudenak.

Abadia handi horien artean, Errioxan kokaturiko Naiarakoa edota Donemiliaga Kukullakoa nagusiak ziren arren, Burgosko mendietako Oña monasterioa, Nafarroa Garaiko Leire, eta, Aragoi Garaiko San Juan de la Peñakoa ezin ditugu ahantzi. Izan ere, horiek guztiek X., XI. eta XII. mendeetan zehar indarra hartu zuten euskal lurraldeetan, eta nolabait, esparru geografiko horren banaketa gauzatu

139. J. A. García de Cortazar-ek latinetik gaztelaniara hautaturiko testu zatia dugu hau (1979: 76-77). Euskarazko itzulpena gurea da, ordea.

zuten, gaur egungo hiru probintziak orduko eragin-esparruetan mugatuz: Enkarterri Oñako monasterioaren pean, Araba eta Bizkaia *nuklearra* —gaur egungo Bizkaia, Enkarterri eta Durangaldea salbu— Donemiliaga Kukullakoaren menpe, eta, azkenik, Gipuzkoa, Leire eta San Juan de la Peñakoaren artean banatua.

Ikerlari batzuen aburuz, elizaren erakunde handirik ezaren isla nabariak hiru lurraldeetan apezpikutza propioaren gabezia[140] ekarri zuen (Martínez Díez, 1975: 11). Horrela, Enkarterri Valpuestako gotzaindegiaren menpe egon zen XI. mendearen bukaera arte, horren ostean Burgosen jurisdikziora pasa baitziren haren lurraldeak. Araba eta Bizkaia *nuklearra*, ordea, Armentiako (Araba) apezpikutzaren barruan kokaturik bazeuden ere, XI. mendearen bukaeran, gutxi gorabehera, Kalagorrikoaren parte bihurtu ziren. Gipuzkoaren kasuan, lurraldeko ipar-ekialdea izan ezik —Bidasoa-Urumea aldea—, non Baionako apezpikutza indarrean zegoen, Gipuzkoaren gainerako lurraldeko elizak Iruñeko gotzaindegian mantendu ziren mendeetan zehar (García de Cortazar *et al.*, 1979: 39 eta hurrengoak). Eta, era berean, elizaren erakunde handirik ezak, euskal hiru probintzietako Goi Erdi Aroaz ia ezer ez jakitea dakar. Ia ez dago ez diploma ez dokumentu hiru probintzien ingurukorik; izan ere, gune monastikoak 1200 aurreko dokumentazioaren gordailu izateaz arduratzen ziren garai hartan (Martínez Díez, 1975: 11 eta hurrengoak).

Aldi berean Donemiliaga Kukullakoaren berezko garrantzia, monasterioaren beraren kokapen geografikoan datza. Bi erreinuen artean ezarririk, bai Iruñeko bai Gaztelako monarkien hedapen-esparruan lekuturik zegoen eta, bi erreinuen eskumenak izan zituen, bi erreinuen kolonizazio-lurretan baitzegoen.

AZALPENA

Faltsifikazioak ugariak ziren Erdi Aroan Penintsulako monasterioetan; auzi batean jabetza-titulua eskuratzea edota galdutako dokumentu baten kopia egitea ziren haien zio garrantzitsuenak. Gaztelako Fernan Gonzalez kondeari, Nafarroako Antso III.a *Nagusia*ri, Nafarroako Antso Erramirezi edo Leongo Alfontso III.ari, hau da, konkista garaiko erregeei, egotziak izanen ziren dokumentu faltsuok.

Faltsifikazioen ugaritasuna zela eta, esan daiteke monasterioen arteko ikamikak hain zirela orokorrak, ezen espezialisten eskutik *Diplomen gerra* terminoa garaiko ezaugarri garrantzitsutzat izendatua izan baita (Ubieto, 1973: 181).

Hala eta guztiz ere, Donemiliagako kasua berezia dugu. Errioxako monasterioak, "botoen" dokumentuaren harira, auziak izan zituen, alde batetik, Kalagorriko apezpikutza eta Naiarako Santa María la Realekin; eta, beste alde batetik, bai Nafarroako bai Gaztelako ia kontzeju eta eliz ororekin eta Aragoiko bi herrirekin.

140. Ezin dugu ahaztu Armentiako apezpikutza.

Istiluak urtez urte gertatu ziren. Monasterioa horien guztien gaineko zerga eskuratzen saiatu zen bitartean, udalerriek irmoki egin zioten aurre Donemiliagari, jatorrizko dokumentuan euren izena agertzen ez zela frogatu nahian. Oposizio horren isla XIV. mendeko dokumentuen kopia *traslado*ak ditugu, non Donemiliagako "botoen" dokumentu hura latinez eta erromantzez kopiatu zen (Ubieto, 1973: 181 eta hurrengoak).

Agiria kronologikoki kokatzeko gakoa Borja eta Tarazonako guneen aipuan dago, bi populaziook XII. mendean iruindar monarkiaren esku izan baitziren. Bi herri horietako erregetzat Gartzia Santxez iruindarra aipatzen du Antonio Ubieto-k, horrela, "botoen" testu faltsuaren egileak bere garaiko egoera X. mendera aurreratua agertzen zigun, bi mendeko anakronismoa gauzatuz. Borja, ordea, soilik 1134tik aurrera egonen zen Iruñeko monarkiaren menpe[141]. Modu berean, Tarazona, ukantza aragoarra izan zen harik eta 1143an Gartzia Erramirezek konkistatu arte. Halere, urte baten buruan Aragoiko boterea ezarri zen bertan berriz ere. Beraz, botoen datazioa 1143-1144an zehazten du Ubieto-k (1965: 310-311).

Garai ezberdinetako hiru bertsio ditugu, ustez *934*ko dokumentu honenak. Lehenengoa, hemen landutako testua, 1143.-1144. urterako datatzen dena; bigarren bat, 1387an datatua, erromantzez eginikoa; eta, azkenik, hirugarrena, 1575eko latinez eta erromantzez egindako testua[142]. "Bertsio" hitza erabiltzen dugu "kopia" beharrean; izan ere, edukia ez da berbera. Modu horretan, garai ezberdinetako hiru dokumentuetan agertzen diren toponimoak[143] ez dira berdinak.

*Boto*en dokumentuan, herri bakoitzak —aipatu toponimo horiek guztiak[144]— Donemiliaga Kukullakoari ordaindu beharreko kantitatea agertzen zaigu. Normalean, kantitate horiek etxe bakoitzak ordaindu behar zituen; hala ere, salbuespen batzuk ikus daitezke; izan ere, Haza (Burgosko probintzian), Colindres eta Laredo (Kantabria) herriek olio zahagi bat ordaindu behar zuten populazio bakoitzeko, etxe bakoitzeko beharrean. Berdin-berdin gertatzen da Bizkaiko eta Gipuzkoako *alfoz*ekin, idi bana ordaindu behar baitzuten *alfoz*eko.

---

141. 1143. urtean Pedro de Taresa —Pedro de Atares izenpean— Borjako jauna bezala agertzen da, Gartzia Erramirezen erregetzan. Ikus García Larrageta , S. (1957): *El gran priorato de Navarra de la Orden de San Juán de Jerusalen. Siglos XII-XIII*, Iruñea, II. alea, 27. or.

142. 1387ko erromantzean eginiko dokumenturako ikus Antonio Ubieto (1961: 3-14). 934ko dokumenturako hirugarren bertsiorako, 1575eko latin eta erromantzezko testurako ikus Rodríguez de Lama (1962: 201-227).

143. Hiru dokumentuetan botoak ordaindu beharreko populazio-guneen toponimoen zerrenda, konparaziorako eta egungo herri horien baliokideak ikusteko, kontsultatu Ubieto (1965: 312-320).

144. Euskal toponimoen inguruan ikus Caro Baroja, J. (1980a): "El elemento vasco en la toponimia alavesa de la `Reja de San Millán´", *Historia General del País Vasco*, Donostia, III. alea, 155.-188. or. Eta Caro Baroja, J. (1980b): "Toponimia más enigmática", *Historia General del País Vasco*, Donostia, III. alea, 239.-287. or.

Logroñoren kasua ere nolabait modu berezian agertzen zaigu dokumentatuta, dirutan ordaintzen zuen eta. Hala eta guztiz ere, gehiengo batek dirutan ordainduko zukeela pentsatzen da, *per omnes domus singulos ariencos*[145] esaldiaren errepikapena agertzen baitzaigu dokumentazioan (Ubieto, 1965: 31 eta hurrengoak).

Dokumentu honetan agertu toponimoak Gaztela Zaharrekoak, gaur egungo euskal hiru probintzietakoak, eta Palentzia eta Nafarroako hainbat aldetakoak dira. Horiekin batera, Valladolid, Madril, Guadalajara eta Zaragozako hainbat leku isolaturen izenak agertzen dira. Tokiaren arabera, ezberdin ordainduko zuten. Horien inguruko estatistikak egon arren, ezin da datu zehatzik eman, XII. mendeko populazio-unitate bakoitzaren ezaugarriak ez dakizkitelako espezialistek. Baina, testua aztertu duten egileek ez dituzte banaketa ezberdin horren zioak azaltzen.

Beraz, testu honen bitartez, Donemiliaga Kukullako monasterioak, aipatu leku guztietatik zergak jaso nahi zituen, hau da, *botoa*k. Botoak, izan ere, Jaungoikoari edo Santu bati, eskainitako dohaintza lirateke, *ongile*ei laguntza eskertu nahian egindakoa. Eskaintza horien bitartez (jada aipatu dugun lekuan lekuko *dohaintza* hori), monasterioak bere garrantzi ekonomikoa mantendu nahi zuen, eta faltsifikazio hau erabiliz, hainbat eta hainbat hiribildutatik[146] diru-sarreraren bat lortu nahi zuen. «Baina, eskualde, leku eta hiribilduen kopurua handia denez, eta denak ez direnez banan-banan izendatuak izan, erabakitzen dugu: idatzi gabekoak zein aipatutakoak, boto duin honetan parte har dezaten, eta, bakoitzaren botere eta ezaugarrien arabera, Donemiliagako zenobioari zentsua eman diezaioten» esaldiarekin, aipatu gabeko edozein hiribilduri *botoak* ordaintzea eskatu ziezaiokeen monasterioak. Hori litzateke Donemiliaga Kukullako monasterioak hiribilduekin hainbeste auzi izatearen arrazoia. Baina elizekin ere ika-mikak izan zituen etengabe, eliza haiek eskuratu nahi zituztelako Donemiliagak biltzen zituen zergak.

Sarreran aipatu den legez, Donemiliaga Kukullako monasterioari bere kokapen estrategikoak eman zion garrantzia. Bi erreinuen eragin-esparruen jokoen barruan, berebiziko pisua izan zuen, zeren bi erresumek hartu nahi zuten eremuan kokaturik baitzegoen. Gaztelako Erreinuak, 1076. urtera arte, monasterioa bereganatzeko saiakerak gauzatu zituen; Iruñekoak, berriz, Gaztela Zaharrarekiko hedapen-estrategiaren barruan kokatzen zuen. Bi botere horiez gain, hirugarren elementua musulmanak ziren, zeintzuek bi monarkiei aurre egiteko eurenganatu nahi zuten lurraldea.

145. Monetaz ari da.

146. Hiribilduak eta euren alfozak aipatzen dira testuan, behin eta berriz. Alfozak lirateke hiribildu baten jurisdikzioan (terminoan edo barrutian) kokaturik dauden herri ezberdinen multzoa eta barrutia. Hiribilduaren mendekoak izaki, haren foru —ordenamendu— berdinaren menpe zeuden.

Helburu estrategikoez gain, helburu ekonomikoak ere Donemiliaga Kukullakoaren garrantziaren bultzatzaile izan ziren. Izan ere, birpopulatze-gunean kokaturik, lurren kolonizazio-prozesuan ardatz nagusi bilakatu zen monasterioa Errioxa aldean. Garrantzi nabari hori, eta horrek dakarren aberastasuna ulertzeko, ezin dugu ahaztu Donemiliaga Kukullakoa Logroñotik hogeita hemeretzi kilometrora eraikia zegoela eta Naiaratik, berriz, —Iruñeko erreinuko hiriburu politiko zein kulturala X. eta XI. mendean zehar— hamasei kilometrora.

Donemiliaga Kukullako monasterioaren kasuan, jada esan dugu, bi erreinuen artean zegoela kokaturik, bi erreinuon nekazari-lurren kolonizazio-politikaren artean. Horrela, iruindarrek, Banukasitarren gainbehera aprobetxatuz, nekazaritzarako egokiak ziren Errioxako Lurralde Irekietara zein Erribera aldera zabaldu zuten euren agintea X.ean. Emaitza onuragarria benetan: iruindarren lurraldearen hirukoitza baitzen. Hedapen horren ziurtagiria Donemiliaga Kukullakoa bera eta Albeldako San Martin[147] izeneko monasterioaren eraketa, eta bi eliz jaurgoei birpopulazio-lanen zuzenketa gauzatzeagatik emaniko pribilegioak ditugu.

Gaztela Zaharraren estrategia, ordea, ekialdera hedatzea zen, Errioxa aldera, hain zuzen ere. Beraz, Gaztelaren politikak ere mugalde horretan kokaturiko Donemiliagari pribilegio eta dohaintza ugari ekarri zizkion. Alta, monasterioaren geroko handitasuna garaiko koiuntura geopolitikoak gauzatu zuen (García de Cortazar *et al.*, 1991: 98).

Baina azken finean, dokumentua benetan egin zen garaian aztertzen bada lan honetan hizpide den monasterio hori, hots, XII. mendean, bi erreinuon bilakaera politiko eta ekonomikoaren ezaugarria izan zen: feudalismoaren gauzatzea bi lurralde horietan (García de Cortazar *et al.*, 1991: 94-98). *Iraultza feudala*k, G. Duby-ren hitzetan, XI. mendeko Europan, jaurgo-erregimenaren ezarketarekin erlazionaturiko mutazio politiko —jaurgoa beraren ezarpena— eta soziala —gizabanakoaren mendekotasun-erlazioen lasaitzea— litzateke (Bois, 2001: 44)[148].

Erregeek eta nobleek emaniko dohaintzak pilatuz joan zen Donemiliaga. Lurrak, mahastiak, elizak, herrixkak, etxeak, gatzagak, larrainak, bazka-eskubideak

147. Antonio Ubieto-ren ustetan, Antso III.a *Nagusia*ren erregealdira arte Albeldako monasterioa izanen zela inguruko garrantzitsuena, Donemiliaga Kukullakoaren aurrean (1973: 199).

148. Nekazari-lurren kolonizazioaren bitartez, ustiapen-unitate familiarrak —nekazari-ekonomiaren oinarria, alegia— jaun-botere baten pean enkoadratua agertu ziren jada XI. mendearen bukaerako Europa osoan. Nekazari-tresnerian aurrerapausoak emanik, eta, basoaren erroturazioarekin, nekazaritzaren garapena gauzatu zen IX.-X. mendetik aurrera. Prozesu ekonomiko eta politiko horrekin batera, prozesu soziala ere artikulatu zen. Horrela, nekazari-unitate familiarren artean kohesioa eta elkarlana gauzatu ziren, baina betiere, jaun baten boterearen pean, jaun laikoa edo eliz jaun baten boterearen menpe, alegia. Bera baitzen lur kolonizatuan ezarritako ustiapen familiar horien jabea. (Bois, 2001: 20 eta hurrengoak).

eta abereak, errotak, basoak... bereganatu zituen 930 eta 1250 bitartean. Ondorioz, eliz jaurgo honek inguruko biztanleen gaineko mendekotasun ekonomikoa eta soziala ezarri zuen, pixkanaka (García de Cortazar, 1991: 101-103).

ONDORIOAK

Antonio Ubieto Artetak Donemiliaga Kukullako monasterioaren kartularioaren transkripzioa argitaratu arte, aita Serranok 1930ean eginiko bilduma diplomatikoa genuen lan-tresna (Serrano, 1930). Ubieto-k berak dioen legez, bertan, Donemiliagak adbokaziopean zeuden elizetako[149] agiriak bildu zituen. Alta, nahasmena gertatu zen, geografikoki urruti zeuden elizen diplomak batu baitzituen, denak Errioxako monasterioarenak izango balira bezala (Ubieto, 1973: 184). Beraz, arazoa sortu zuen monasterioaren ikerketarako.

Horretaz gain, Ubieto-k berak dio *934*an dataturiko dokumentu honen harira, dokumentuak berak badituela nahiko antzekotasunak beste dokumentu batekin, hobe esanda, beste faltsifikazio batekin, Santiagoko "boto faltsuekin", alegia (1965: 309)[150].

Santiagoko "boto faltsuak" dokumentu idatzia *Historia Compostelana*[151] "kronika kartulario" galiziarrean dago jasota. Bertan Diego Gelmírez-en ekintzak jaso ziren, lehenengo, Konpostelako Santiagoko apezpiku bezala eta, bigarrenik, artzapezpiku lanetan. Gelmirez-en iniziatiba izaki, Konpostelako apezpikutza artzapezpikutza bilakatzearen lorpenak, eta elizaren jabetzak eta eskubideen oinarriak biltzea izan ziren *Historia Compostelana*ren helburuak (Falque, 1994: 23).

Nekazari horien jaunarekiko betebeharrak ez ziren bere pertsonaren gainekoak izanen, berak okupatzen zuen lurraren gainekoak baizik. Beraz, esan dezakegu, lurra izan zela gizarte-egitura horren elementu egituratzailea. Lurraren bidez, jaunaren eta nekazariaren arteko harremanak (ekonomikoak eta sozialak) antolatu zirela, jaunarekiko mendekotasun-harremanak, alegia.

Elizak, nobleekin bat eginez, sistema sozioekonomiko horretan (Feudalismoan) parte hartzearen zilegitasuna hiru ordenak deituriko teoria ideologikoaren bitartez gauzatu zuen XI. mendearen bukaeran; eta, Elizak gizartearen ikuspegi hirukoitza ezarri zuen: *oratores* (elizgizonak), *bellatores* (nobleak) eta *laboratores* (nekazariak) ordenetan banatua zegoena. Hala, hiru taldeek euren lekua eta errekonozimendua izan zuten gizartean. Nekazariek, gizartea elikatzen zuten; elizak, berriz, gizakien arima zaintzen zuten, otoitzaren bidez; eta, nobleek, babesten zituzten nekazariak eta elizgizonak (Bois, 2001: 44 eta hurrengoak), ekintza militarren bitartez.

149. 759.-1129. urte bitartean, Gaztelan Donemiliaga izeneko berrogeita bost eliza zeuden; Nafarroan, berriz, hamabi; Araban, hamar; Gipuzkoan lau eta Huescan bakarra. Bizkaian lau herrik zuten izen hori, Araban bik. "Latxaga" [San Sebastian, J.M.] (1974): *Errioxa'ko San Millan. Euskal iturria*, Donostia, 42. or.

150. Halere, aipatu beharra dago beste egile batek lehenago ikusi zuela bi dokumentuen arteko antzekotasun edota kopia hori: ikus Rodríguez de Lama (1960: 226).

151. XVIII. mendetik aurrera, Erdi Aroko lan hori *Historia Compostelana* titulupean ezagutzen da; berezko titulua *Relato de los hechos de Diego Gelmírez, obispo de Compostela desde 1100 y arzobispo desde 1120.* Lan horren argitalpen kritikorako: Falque Rey, E. (arg.) (1994): *Historia Compostelana*, Akal, Madril.

Lana bi liburutan dago banatuta: lehenengoan apezpikutzaren historia kontatzen da; bigarrenean, aldiz, artzapezpikutzarena. Lehenengo liburuaren sarrerako kapituluak geroagokoak dira, Gelmirez-en apezpikutza eta geroko artzapezpikutzari proiekzio historikoa emateko. Horrela, sarrerako kapitulu horietan "boto faltsuak" aurkitzen ditugu eta Pedro Marcio monjeak XII. mendean idatzi zituela pentsatzen da.

Santiagoko "boto" horietan Urbano II.ak Dalmacio apezpikuari —Gelmirez-en aurreko apezpikuari— emaniko eskubideak jaso ziren:

> Urbano, obispo, siervo de los siervos de Dios, al amado hermano Dalmacio, obispo compostelano, y a sus sucesores canónicamente promovidos, *para siempre [...]*.
>
> *[...]* concedémoste a ti, hermano en Cristo Dalmacio, y a tus sucesores, en virtud del presente decreto y por reverencia del B. Apóstol Santiago que, así como vuestros predecesores tuvieron la cátedra episcopal en la ciudad que se dice Iria, así en adelante y perpetuamente la debáis tener en la ciudad llamada Compostela, donde está la iglesia en que se cree descansar el cuerpo de B. Apóstol Santiago. Por tanto, decretamos que todas las cosas pertenecientes a la diócesis de la sobredicha ciudad de Iria se conserven siempre para ti y para tus sucesores íntegras e intactas.
>
> Además, *[...]* concedemos que tanto tu, como en adelante tus sucesores, a ningún metropolitano estéis sujeto más que al de Roma *[...]*.
>
> Fuera de esto, por decreto para siempre valedero, sancionamos que todo cuanto hasta ahora fue ofrecido justamente a la iglesia del B. Santiago por concesiones (*testamentis*) reales, mas lo contenido en los legítimos catálogos (*catalogis*), y también cada una de las parroquias que se sabe han pertenecido justamente a la cátedra iriense, todo se te conserve siempre íntegro y firme para ti y para tus sucesores con sede en Compostela.
>
> *[...]* cualquier persona eclesiástica o secular, a sabiendas de lo contenido en este decreto, atentare temerariamente ir contra ello; si amonestado por segunda ve, no se enmendare, dando la debida satisfacción, quede privado de la dignidad así de honor como de jurisdicción, conózcase reo ante el divino juicio, sea excluido de la participación del sacratísimo cuerpo y sangre de nuestro Dios y Señor Jesucristo *[...]*. Dada en el pueblo de Privás (*Privatam*), por mano de Juan, cardenal de la santa iglesia romana, a cinco (*nonis*) de diciembre, indicción tercera, año de la Encarnación del Señor 1095 y del pontificado del señor papa Urbano II, el año octavo (Suárez *et al.*, 1950: I, 33-34).

Eskubide horiekin batera, Konpostelako Santiagoko elizaren pean zeuden parrokiek ere exentzioa lortu zuten:

> Pascual, obispo, siervo de los siervos de Dios, al venerable hermano Diego, obispo compostelano, salud y apostólica bendición.
>
> *[...]* Accediendo, pues, a tus peticiones, establecemos por la aserción del presente escrito, que, asi como la iglesia compostelana, por la singular devoción a Santiago, se

> goza de estarguarnecida por la protección de la sede apostólica, así también las demás iglesias de su juro, constituídas por diversas diócesis (*parochias*), que en virtud de las donaciones de los fieles parecen pertenecer a la sobredicha iglesia compostelana, merecen ser favorecidas con idéntica protección.
>
> Así, pues, recibiendo dichas iglesias bajo la tutela de la iglesia romana, decretamos por autoridad apostólica que cualquiera bienes, cualesquiera posesiones que se sepa pertenecen justa y canónicamente a las mismas iglesias, se te conserven firmes e intactos para ti y para tu iglesia. *[...]* que permanezcan íntegra y pacíficamente en tu dominio y de la iglesia compostelana.
>
> *[...]* Dada en Letrán, a 1º de mayo, indicción XI, año de la Encarnación del Señor 1103 y IV del pontificado del señor papa Pascual II (Suárez *et al.*, 1950: I, 44-45).

Santiagoko boto faltsuon proiekzio —eta zilegitasun— historikoa gerora etorri zen: Clabijoko guduaren legenda edo kondairan, alegia, Alfontso X.aren *Kronika Orokor*rean bilduta agertzen zaiguna (Menéndez Pidal, 1977: 359-361). Bertan kontatzen den legez, Erramiro I.aren erregealdian (842-850), kristauek bakearen truke musulmanei urtero eman beharreko 100 neskatilen zergarekin bukatu nahian, bien erlijioetako taldeen arteko gudua gertatu zen. Kronikak dio, Erramirok[152] bilduriko ejertzitoak galdu zuela Albeldan —Logroñotik hurbil— eta gudalditik bizirik atera zirenak Clabijoko gotorlekuan babestu zirela. Gau batean, Santiago apostolua ageri zitzaien laguntza eskainiz. Hurrengo goizean, Santiagok (*Matamoros* ordutik), zaldi zuri baten gainean, zin egindakoa bete zuen, eta musulmanen porrota gertatu zen.

Trukean, eta bere esker ona erakusteko, Erramirok behin betiko eskaintza eman zion Santiagori, "Botoak": *Hispania*ko lurralde kristauek Konpostelako Santiagoko elizari ale eta ardo kopuru bat ematea (Martínez García, 2004: 36-38). Horrela, Pisuerga ibaitik ekialdera Donemiliagako zerga ordainduko zuten, eta mendebaldeko herriek, aldiz, Santiagokoa (Rodríguez de Lama, 1960: 226).

152. Gudu honen inguruan ika-mikak sortu dira historialarien artean. Clabijoko guduaren protagonisten harira, Sánchez Albornoz-ek Ordoño I.ak Muza ben Muzaren kontra egin zuela defendatu du. Lévy-Provençal-en ustetan, baskoiak izan ziren Muzaren kontra egin zutenak 851-852an, beraz, *Kronika*n agerturiko pasartea interpolazio hutsa izango zen. Julián Ruiz-Navarro-k dio, agian, bi gudaldi gertatu zirela: lehenengoan baskoiek eraso zuten Muzaren gotorlekua, eta bigarrenean, Ordoño izan zen Muzaren kontra egin eta irabazi zuena. Ruiz-Navarro Pérez, J. (1972): "El castillo de Clavijo", in *Berceo*, **LVIII**, Instituto de Estudios Riojanos, Logroño, Servicio de Cultura de la Diputación Provincial de Logroño, 151-157. or.

BIBLIOGRAFIA

Bois, G. (2001): *La gran depresión medieval: siglos XIV-XV. El precedente de una crisis sistémica*, Universitat de València, Valentzia [La grande dépression médiévale. XIV et XV siècles. Le précédent d'une crise systémique, Presses Universitaires de France, 2000].

Caro Baroja, J. (1980): "Álava en la llamada `Reja de San Millán´", *Historia General del País Vasco*, III. liburukia, Donostia, 87-108.

Falque Rey, E. (arg.) (1994): Historia Compostelana, Akal, Madril.

García De Cortázar, J. A. (1969): *El dominio del monasterio de San Millán de la Cogolla (siglos X-XIII): introducción a la historia rural de Castilla altomedieval*, Universidad de Salamanca, Salamanca.

————, (1975): "Introducción al estudio de la sociedad altorriojana en los siglos X a XIV", in *Berceo,* **LXXXVIII**, Instituto de Estudios Riojanos, Servicio de Cultura de la Diputación Provincial de Logroño, Logroño, 3-29.

García De Cortázar, J. A.; Arizaga Bolunburu, B.; Martínez Ochoa, R. Mª eta Ríos, Mª L. (1979): *Introducción a la Historia Medieval de Álava, Guipuzcoa y Vizcaya en sus textos*, Txertoa, Donostia.

———— eta ————, B. (1991*): Euskal Herria Erdi Aroan*, I. eta II. liburukiak, Gaiak, Donostia.

Martínez Díez, G. (1975): *Guipúzcoa en los albores de su historia (siglos X-XII)*, Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.

Martínez García, L. (2004): *El Camino de Santiago. Una visión histórica desde Burgos*, Caja Círculo, Burgos.

Menéndez Pidal, R. (arg.) (1977*): IIª tomo de la tercera reimpresión de la Primera Crónica General de España*, Gredos, Madril.

Serrano, L. (1930): *Cartulario de San Millán de la Cogolla*, Centro de Estudios Historicos, Madril.

Ledesma Rubio, M. L. (1989): *Cartulario de San Millán de la Cogolla (1076-1200)*, Anubar, Zaragoza.

Rodríguez De Lama, I. M. (1960): "Colección diplomática riojana", *Instituto de Estudios Riojanos*, **LV**, Servicio de Cultura de la Diputación Provincial de Logroño, Logroño.

————, (1961): "Colección diplomática riojana", *Instituto de Estudios Riojanos*, **LVIII**, Servicio de Cultura de la Diputación Provincial de Logroño, Logroño.

Suárez, M. eta Campelo, J. (1950): *Historia Compostelana, o sea, hechos de don Diego Gelmírez. El primer arzobispo de Santiago*, Porto, Santiago de Compostela.


Ubieto Arteta, A. (1961): *Colección diplomática de Cuellar*, Segovia.

————, (1965): "Los `votos´ de San Millán", *Homenaje a Jaime Vicens Vives*, I. liburukia, Bartzelona, 309-324.

————, (1973): "Los primeros años del monasterio de San Millán", *Príncipe de Viana*, **XXXIV**, **132-133,** 181-200.
————, (1976): *Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076)*, Valentzia.

2.6. HIRIBILDUEN SORRERA EUSKAL HERRIAN: FORUEN FAMILIAK MAPA BATEAN

MAPA



Iturria: "Hirien eta Foru-familien sorrera" mapa in *Euskal Herriko Atlasa. Geografia-Ekonomia-Historia-Artea*, Donostia, 3. argitalpena, Erein-Eusko Jaurlaritza, 1994, 78. orrialdea[153]**.**

Dokumentu-iruzkin honetan mapa historikoa aztertuko dugu.

Euskal Herrian izandako hiribilduen fundazioari buruzko mapa da honako hau, XI. mendetik XIV.enera doan kronologia hartzen duena. Bertan hiribilduek jasotako foruak zeintzuk izan diren agertzen du (gehienetan gutuna jaso zeneko data dakar), nondik nora zabaldu ziren foru horiek eta, beraz, haien artean jatorrian oinarrituta osatzen zituzten taldeak.

153. Lehen argitalpenean (1982) "Erdi Aroa: Hirigintza-desarroiloa eta foru familiak" zeukan mapak izena eta 67. orrialdean zegoen.

Jakina, mapa historiografikoa eta didaktikoa da, eta ez dokumentu historikoa; beraz, historialari batek edo talde batek sortua da hiribilduen fenomenoa hobeto ulertzeko era grafiko batean. Atlas baterako egina izan zen mapa hau 1982an, Erein argitaletxean, eta behin eta berriro erabilia izan da (Lurrek ere erabiltzen baitu, adibidez, 1982ko bertsio hau); 1994ko 3. argitalpenean zuzendu zuten[154]. Bietan garai hartako Euskaltzaindiaren udalen izendegia erabili zuten (lehen argitalpenean 1979koa eta bigarrenean egokituta daude 1994ra)[155]. Oinarrizko atlasa izan da urtetan, euskaraz egindako lehena baita. Ereinen ohiko eta hasierako betebeharra material didaktikoa sortzea izan da, ikastoletarako batik bat, lehen eta bigarren hezkuntza-mailetan, eta hau horretarako sortutakoa da, eskuliburuekin batera material osagarri gisa. Mota honetako liburuetan egileak irakasle ezagunak izan ohi dira, honela, atlas honen egile-batzordearen zuzendaritza zientifikoa Jose Luis Orella Unzue, Iñigo Agirre Kerexeta eta Edorta Kortadi Olano izan ziren. Guk erabiliko duguna 3. argitalpena da, beraz, berrituena.

Agertzen duen garaiaz, esan behar da XI.-XII. mendean Europa osoan hasi zirela hiribilduak eta hiriak fundatzen (prozesua XIII.ean indartu zen, batez ere). Foruen garaia da; jaunek mendeko morroiei eta biztanleei ematen zizkieten pribilegioak eta eskubideak, sarri negoziatuak (diru-truke), morrontzako zamak kentzen eta arintzen zituztenak, morroi izatetik bilau izatera igaroz herri haietako biztanleak.

Foruek, gainera, eskaintzen zituzten eskubideen artean merkataritzari lotutakoak zeuden, asteroko merkatua edota urteroko nazioarteko feriak egiteko baimena emanez, eta bide batez, haiei loturik zeuden zergak arinduz (bidesariak…) eta, beraz, babesa eskainiz. Horrez gain, foruak komunitatearen bilakaeran garrantzitsuak eta oinarrizkoak ziren eskubideak zekartzan idatzita: hasteko, berriro konpetentzia batzuk uzten zizkioten komunitateari (justizia eta defentsa, esate baterako), baina lekuaren eta emandako foruaren araberakoak ziren. Horrela, foru aberatsenek eta eskubide gehienak ematen zituztenek hiribilduak eta hiriak sortu zituzten, *carta puebla*, *foru*, *foru-gutun* edo *hiri-gutun* deitzen den dokumentuaren bidez.

Bestalde, morfologian ezaugarri bateratuak zeuzkaten hiribilduek, hala nola hesiz inguratuta egotea, erregulartasuna, auzokideen etxeak zeuden orubeak, espazio publikoak, etab.

154. Ereinek bigarren argitalpena egin zuen 1990ean eta mapa bera zen, zuzenketarik gabea.

155. Ereinek atlasa egiteko erabili zituen iturriak dira, batetik, Bridgestone/Firestone-Hispaniaren errepide mapa (1:200.000 eskaladuna) —1982ko argitalpenean Firestone-Hispania-rena zen bakarrik—. Euskal Herrirako —mapa geografiko eta errepidekoan erabilia, baina mapa historikoan ez da mapa hori erabili, eta ez da zehazten zein den eskala erabilia—. Gainera, esan behar da mapa orokorrean eta gu aztertzen ari garen mapa historikoan ez direla beti izen berak agertzen. Azkenik NASAren argazki bat erabiltzen du liburuaren azalerako lehen edizioan, baina bigarrenean ez da ageri.

Fenomeno hau gertatu zen VIII.-IX. mendetik zetorren hazkunde ekonomikoaren eta demografikoaren ondorioz, lehenik eta behin, eta, bigarren lekuan, feudalismoaren bortxakeria leuntzen eta sistema orekatzen ari zenean (feudalitatearen bidez, jaunen arteko hierarkiak bakea eta errenten banaketa bermatu zituenean). Merkatuak indartu egin ziren eta horiekin txanpona eta merkataritza ere, salgaiak gehitu zirelako.

Euskal Herrian hiribilduak testuinguru orokor horretan hasi eta hazi ziren, baina, gainera, koiuntura propioak bultzatu zituen. Merkataritza-bide zaharra, Donejakue Bidea —Europa, Penintsula Iberiarraren iparraldea eta Al Andalus lotzen zituena—, bertatik igarotzen zenez, lehen hiribilduak bide horri lotutakoak izan ziren. Baina, baita Iruñeko erresumak hegoalderantz egindako handitze eta kolonizazioan (birkonkista eta birpopulazio izenez ezagutu den fenomenoa) ere. Aurreko biak dira lehen fasean sortu zirenak batez ere (XI. eta XII. mendeetan): batetik, konkistatu ostean Nafarroa Garaiko hegoaldeko birpopulazioari eta, bestalde, Donejakue Bideari lotutako fundazioak (eta Gaztelarekin zegoen muga babesteko eginak). Hiribildu hauetako lehenak Antso Ramirez, Petri I.a eta, batez ere, Alfontso I.a *Borrokalaria* Aragoiko eta Iruñeko erregeek sortu zituzten; eta ondoren berrezarpenekoak.

Hala ere, egon ziren arrazoi estrategikoengatik sortutako hiribilduak, botere politikoa indartu nahian sortutakoak, barne-indarra areagotzeko edo kanpoko indarren aurka. Horrelakoak dira, besteak beste, Guardia edo Biasteri eta Segura hiribilduak (erresumen arteko mugetan), edota Gasteizen Antso VI.ak sortutako *Nueva Victoria,* barneko jaunen boterearen gunean errege-boterea sendotzeko sortutakoak (nahiz eta, haietan ere merkataritzak garrantzi apartekoa izan zuen).

Gainera, merkataritza berria irekitzen joan zen XIII. mendean eta, ondorioz, Donejakue Bideak garrantzitsuena izateari utzi zion. Handik aurrera, ardatzak Penintsulako iparraldean ekialde-mendebalde norabidea izan ordez, hegoalde-iparralde norabidea hartu zuen. Batez ere, Gaztela aldeko eta Dueroz bestaldeko lurrak hartu ostean sortu zen abeltzaintzaren ondorioz —Mestaren babesean—, Europako manufaktura-lekuetara bidaltzen hasi zen artilearen pasagune bihurtu zen Euskal Herria (Nafarroako erresumatik ere igarotzen ziren bertako ardien eta Aragoikoen artileak) eta, jakina, bertako burdinarena. Hori izan zen bigarren fundazio-olatuaren arrazoi nagusia (XII. mendearen bukaeran eta XIII. mendean), kostaldearekin lotuz barrualdea, horrelakoak dira Antso VI.a Jakitunak eta Azkarrak[156] —baita Iparraldean Akitaniako dukeek Baionari eta Nafarroako erregeek Bastidari (Nafarroa Beherean) emandakoak ere— eta Gaztelako erregeek, Antso VIII. eta X.ak, batik bat, emandakoak. (Araban, Bizkaian —bertako jaunak— eta Gipuzkoan batez ere). Eta, azkenak, Behe Erdi Aroan biztanleei aipatutako babesa emateko krisiak sortutako jaunen bortxakeria zela eta (adibidez, Elorrio).

156. Horiek sortutakoek lurraldea indartzeko asmoa ere izan zuten, *Nueva Victoria*ren kasuan argia da.

Foruak jaso zituzten nukleo edo guneak bi motatakoak izan ziren: antzinatetik zetozen hiri edo nukleoak, ahuldu zirenak eta garai honetan berrindartu eta suspertu zirenak (auzo eta populazio berriak sortuz, Baiona edo *Lapurdum* zaharrean gertatu zena). Nukleo berriak sortu ziren[157] modu desberdinetara ere: aurreko nukleoak bilduz (Iruñea azkenean XV.etik); gaztelu edo eliza edo monasterio baten inguruan sor zitezkeen ere; aipatutako bideetan, pasalekuetan edota gune berriak sortuz. Azken era horretakoa da Euskal Herriko hiribildu gehienen sorrera —nahiz eta batzuetan aurretik bazen populazio-gunerik bertan, baina izen berria hartzen du berriak—: Aguraingo *Salvatierra*, Segura, Bergara, Elorrio, Bilbo, Donostia, *Nueva Victoria* Gasteizen, etab. Azken kasu horietan baldintzek bideratu zituzten kokalekuak: hiri zaharren errebaletan sortutakoak (San Zernin eta San Nikolas burguak Iruñean), bideak edo ibaiak eta, oro har, merkataritza-bideak elkartzen ziren lekuetan bildutakoak, ibai-ahoetan eta portuetan[158] (era espontaneoan sortuak sarri eta, gero, jaun baten edo erregearen onespena foruaren bidez erdietsitakoan, beren garatzea bultzatuko zutena). Esan bezala, gehienak hiri txikiak dira, ondorioz, zaila da askotan herri eta hirien arteko banaketa egitea.

Behin ulertuta zein testuingurutan garatzen den mapa honek agertzen digun fenomenoa, azter dezagun zehazki mapa bera.

Erabiltzen dituen ezaugarri grafikoetan Euskal Herriaren mapa geografiko bat ageri zaigu, zeinetan ibaiak agertzen diren urdinez markatuak, baina izenik gabe. Euskal Herria kolore horiz margoturik dago eta marra beltzez bereizia inguruko lurralde berdetik. Kantauri itsasoa ere urdinez ageri da markatua, hau ere izenik gabe. Gaur egungo probintziak ere marra beltzez markaturik ageri zaizkigu (beti ez dira ondo bereizten, adibidez Araba eta Nafarroa artean, hiribildu ugari daudenez markatuak *in situ*). Hiribilduak puntu beltzez ageri dira markatuak eta izena daramate idatzirik eta alboan fundazio data parentesi artean (ezaguna denean legendak dioskunez). Lauki bat karratu baten barruan markaturik daramatenak besteetara hedatuko duten forua jasotako hiribilduak dira (izena, gainera, letra larriz daukate), legendaren arabera "hasierako zentrua"k [*sic.*], eta familia bakoitzak kolore bat darama (Euskal Herritik kanpora emandako foruak direnean, gero Euskal Herrian hedapen-foku berri bat sortu badute, hiribildu horren puntua ere foruaren familiaren kolorez markatuta dago, puntu beltza izan ordez). Kolorezko marrek lotzen dute fundazio-fokua eta gerora haren foruaz sortuko diren hiribilduak (legendan adierazita daude: Jacako forua laranjaz, Tuterakoa arrosaz, Viguerako forua Funes bidez hedatu zen lekuetan marra urdinez eta Logroño bidez izan zen lekuetan marra berdez, Novenerako forua marra horiz, Darocakoa marra beltzez eta Medinacelikoa marra bi koloreduna). Azkenik bestelako foruak ere badirenez, kasu bakarrak direnak zirkulu arrosa batez markaturik ageri dira.

157. Batez ere hiribilduen sare trinkoa osatu zuena, nukleo txiki berri asko sortu baitziren.

158. Batzuk, hala ere, beharrak eskatuta lekuz aldatu zituzten, hala nola: Azkoitia, Itziar-Deba, Segura eta Usurbil.

Herrien izenak euskaraz ematen dira normalean, nahiz eta ez jarraitu Euskaltzaindiaren azken izendegiari[159]. Edo Euskal Herriaz kanpoko batzuk ere euskaratu egin dira legendan, baina mapan ez[160]. Hala ere, datetan dauden oharrak ez ziren itzuli lehen argitalpenean (Uharte-Arakil edo Etxarri-Aranatzen "s." dator '*siglo*' adierazten duena, mendearen laburdura bat jarri beharrean; edo "a." Done Bikendi Haranean '*anterior a*' izan ohi dena, baina 'aurretik' adieraz dezakeena, baina dataren atzetik jarrita, jakina, eta Ermuan zuzenean "a. de" datorrena). Hirugarren argitalpenean (1994), ordea, aldatu egin dira eta itzuli egin dira "antes de" "aurretik" moduan ("aur." laburtzapenarekin, baina azaldu gabe zer esan nahi duen). Bada ere "c." '*circa*' formula latina ere, egokia dena euskaraz, baina kurtsibarik gabe zetorrena lehen argitalpenean (adibidez, Zarrakaztelun); hirugarrenean, berriz, itzuli egin da "ing." formula erabiliz (baina berriro azaldu ez dena, nahiz 'inguru' dela garbi dagoen).

Erratuta ageri dira bi herri: Inzura eta Kontrasta, alegia, trukatuta ageri dira (Inzura Araban eta Kontrasta Nafarroan, eta alderantziz behar luke).

Agertzen diren izenak eta datak hauexek dira[161]:

– Euskal Herritik kanpo ageri direnak:

Asiain[162] *(1132)*: "Asín" Zaragozako hiribildua. Alfontso *Borrokalaria*k eman zion forua 1132ko martxoan (Lema, 1997: 125).

Briones (1256): Errioxako hiribildua. Fernando III.ak (1217-1252) izendatu zuen Brioneseko lehen jauna Diego Lopez Harokoa bere iloba, eta ordutik Gaztelan egon zen, Nafarroarekin istilu ugari izan arren.

Cervera del Río Alhama: Errioxako hiribildua, 1117an konkistatu ostean, Alfontso I.a *Borrokalaria*k eman zion forua (1119an?), Sobrarbeko forua izan zen, Tuterari eman zion berbera. Gaztela bihurtu zenean Errioxa lurraldearen gorabeherak jasan zituen. Henrike II.ak Beltran du Gueslin-i jaurgoan eman zion eta horrek Juan Ramírez de Arellano Cameroseko jaunari utzi zion.

Daroca: Daroca Alfontso XI.ak konkistatu zuen, baina ez dakigu noiz eman zion forua, nahiz eta gutxienez 1129 baino lehenagokoa den, data horretan Kasedari Darocako forua eman zitzaiolako. Ramon Berenguer IV.ak, Bartzelonako kondeak eta Aragoiko erregeak, handitu zizkion foruak XII. mendearen erdialdera. Azkenik Petri I.a Gaztelakoaren setioari aurre egiteagatik 1366an hiri-izaera lortu zuen.

159. Lehenengo argitalpenean Kontrasta erdaraz ageri zen hala ere.

160. Viguera lehen argitalpenean "Bigera" legez ageri zen legendan, nahiz eta mapan ez. Hirugarrenean bietan "Viguera" dator. "Asín" zetorren lehen argitalpenean, baina hirugarrenean "Asiain" dator, hala ere, ez dakigu "Asín" "Asiain" deitu daitekeen euskaraz; bada, halere, "Asiain" bat Nafarroan Oltzan.

161. Mapan ageri diren moduan eta daukaten informazioarekin jarri ditugu.

162. Lehen argitalpenean "Asín" gisa zetorrena, Asiain Iruñerriko Oltzako herri bati ere deritzo.

Frías (post. 1190): Uste da Alfontso VIII.ak eman ziola forua 1202an.

Jaca (1063): Huescako hiribildua, erromatar garaitik existitzen da, 1096an hiriburu bihurtu zuen Antso Ramirezek eta forua eman zion urte horretan edo inguruan. Donejakue Bidean pasaleku garrantzitsua zen eta bere forua beste hiribildu batzuei emateko eredugarri izan zen.

Kalagorri[163]: Kalagorri Errioxako hiria, III. mendetik komunitate kristauak zituen (Emeterio eta Zeledonio martiriek erakusten dutenez) eta apezpikutza-gunea. X. mendean aldi batez Iruñeko erregeek hartu zuten arren, 1045 arte Al Andalusen parte izan zen. Ondoren Gaztelaren eta nafarren artean mugitu zen XIII. mendera arte.

LOGROÑO (1095): Lekua Cid-ek suntsitu zuen 1092an, eta bere etsaia zen García Ordoñez kondeak populatu zuen berriro. Gaztelako garaian fundatu zuen Alfontso VI.a Gaztelakoak 1095ean (populazioak eta kondeak eskatuta), foru frankoa emanez bertako populazioari ere[164] Dirudienez Viguerako forua eman zitzaion eta foru hura hedatzeko bideetako bat izan zen (Miranda de Ebrori eman zitzaion Logroñokoa 1099an).

Mallén (1132): Zaragozako hiribildua. Alfontso I.a *Borrokalaria*k hartu zien musulmanei eta , dirudienez, 1126an egindako espedizio batean mozarabeak ekarri zituen hura populatzera. Forua 1132an eman zion eta urte horretan bertan Templarioei eta San Joan ordenako zaldunei eman zien gaztelua (San Joangoek hartu zuten benetan eta 1151n Ramon Berenger IV.ak berretsi zien). 1354an lortu zuten kontzejuko ofizialak izendatzea, justiziaz arduratzen zena izan ezik, hura ordenakoek hautatzen baitzuten. 1452an Karlos Vianako printzearen kartzela izan.

Medinaceli: Erromatar garaitik populatutako lurraldean dago. Musulmanen esku izan zen XI. mendera arte eta Gaztelan sartu zuten. Foru desberdinak jaso zituen 1129an eta 1180 inguruan.

Miranda (1199): Miranda de Ebro, erromatar garaiko bizigunea, Burgosko probintzian. 1099an jaso zuen Logroñoko forua Alfontso VI.aren eskutik

Navarrete (1195): Errioxako hiribildua. Alfontso VIII.ak sortu zuen hiribildua leku babestua egiteko eta bere barrutiaren menpe jarri zituen inguruko herrixkak. 1192 aldera jaso zuen forua. Henrike II.ak Juan Ramírez de Arellano-ri oparitu zion mesede gisa eta Diego Gómez de Manrique-ren eskuetan amaitu zuen 1380an eta bi familien artean istiluak sortu ziren hiribilduagatik.

163. Lehen argitalpenean “Calahorra” zetorren.

164. Horrek bereizten du Jacako forutik, Jacakoa jatorri frankoa zuten bizilagunentzat baitzen bakarrik eta Logroñokoa, aldiz, frankoentzat nahiz bertakoentzat (Díaz de Durana eta García, 1991).

San Vicente de la Sonsierra (1172): Errioxako hiribildua, 1172an eman zizkion foruak Antso VI.ak.

Santo Domingo de la Calzada (1207): Errioxako hiribildua, 1094an Santo Domingo de la Calzada elizgizonak fundatua. 1124an *montazgo*a barkatu zien Alfontso I.ak (Lema, 1997: 127).

VIGUERA: Errioxako hiribildua. Aurrerago hitz egingo dugu bere foruaz Funeskoarekin batera, oso zalantzakoa baita (XIII. mendeaz hitz egiten da) (Martínez Diez, 1979).

– Araba

Agurain (1256): Alfontso X.a *Jakintsua* Gaztela-Leongoak eman zion Salvatierra izenaz forua 1256ko urtarrilaren 23an, Gasteizi emandako berdina[165].

Antoñana (1182): Antso VI.a Nafarroakoak eman zion forua 1182an.

Argantzun (1191): Euskarazko izena "Argantzon" da benetan. Nafarroako Antso VI.a *Jakituna*k fundatua, baina ez dago urtea garbi, 1191n izatea posible da (García Fernández, 2004)[166]. 1200ean ingurua Gaztelak konkistatzean, Trebiñuren jurisdikzio pean geratu zen, 1254ko foruen berrespenean datorrenez. 1296an ordenantzak[167], eta gero, 1358an ermandadea egin zituzten inguruko hiribilduekin (Haro barne)[168], Pedro Fernandez de Velasco Argantzongo jauna erregearekin haserre zenez, ez zen Argantzon Arabako 1458ko ermandadean sartu; erregearekin haserrea konponduta 1481-1510 tartean, berriz, sartu egin zen, baina berriro atera zen zergatik ez dakigularik (Fernandez de Larrea, 2003: 47)[169].

Bastida: Badirudi 1196an (behintzat 1194 eta 1234 artean) Antso VII.a *Azkarra* Nafarroakoak eman ziola forua, baina garbi dagoena hauxe da: 1200ean gaztelarrek Araba konkistatu ostean, Fernando III.ak berretsi zuen bere forua 1242an, baina antza Alfontso VIII.a Gaztelakoak konkistan egina zuen aurretik Fernando III.ak berak dioenez, eta eskaini zien Antso VI.a *Jakituna* Nafarroakoak Trebiñukoei emandako foru bera. Egile batzuek, beraz, Fernando III.arena jotzen dute benetako fundaziotzat[170]. Hurrengo erregeek konfirmatu zioten forua. 1370ean Henrike II.a Gaztelakoak bere erreposteroa zen Diego Gómez de Sarmiento-ri eman zion jaurgoan eta Joan I.ak

165. Logroñokoaren mendekotasuna zuela haren forua zelako Gasteizkoa ere, 1367an dokumentatu zen moduan eta 1407an berretsi zena.

166. Data hori hobesten da, gorde den foruaren kopia berantagoa bada ere. Hala ere, 1194an eman zion forua Auñamendiren egileen arabera.

167. Vitoria, Trebiñu, Logroño, Santo Domingo, Miranda, Haro, Bastida, Agurain, Santikurutze Kanpezu eta beste batzuekin.

168. Haroko ermandadea osatzen zuten: Vitoria, Logroño, Naiara, Santo Domingo, Miranda de Ebro, Trebiñu, Briones, Añana, Buradon Gatzaga, Bastida, Portilla, Urizarra, Kanpezu eta Harok.

169. Haroko jauna eta Gaztelako kondestablea ere bazena.

170. Ernesto García-ren (2004) arabera, 1242koa da benetako foruaren data Fernando III.aren eskutik.

berretsi egin zuen 1379an. 1429an nafarrak berreskuratzen saiatu ziren arrakastarik gabe. 1470ean Salinaseko konde-titulua jaso zuten Sarmiento-tarrek eta "Hermandad de Tierras del Conde" barruan geratu zen, Guardiako koadrillan.

Bernedo (1182): Antso VI.a *Jakituna* Nafarroakoak 1182an fundatua, forua jaso zuen eta ondoren pribilegio ugari merkataritza bultzatzeko. 1476 arte Nafarroako erresumaren parte izan zen. Gotorleku garrantzitsua zeukan. Ez dakigu noiz bihurtu zen Araba, baina 1490ean Errege-erregina Katolikoek Gasteizi eman zioten bere gaineko jaurgoa eta Gasteizko pribilegioak eman zitzaizkion gotorlekuko buru zen Diego Martínez Arabakoak eskatuta. Komunitateen gerran erregeari laguntzera joan zenez aipatutako gazteluzaina, auzoak matxinatu egin ziren semearen kontra.

Biasteri (1164?): "Guardia" beharko luke izenak, baina "Biasteri" ere onartu da tradizioa sortu duelako. Bertako herrixkan kokatu ziren frankoak merkataritzan aritzeko. 1095ean Alfontso VI.ak Logroñori emandako foruan aipatzen da Guardia. Baina hiribilduari forua 1164ko maiatzaren 25ean eman zion Nafarroako Antso VI.a *Jakituna*k. Foru hau inguruko herriei ere emango zitzaien hiribildu egiteko (Bernedo, Antoñana, San Vicente de la Sonsierra, Labraza, 1196an, eta Burunda ibarrekoei 1208an). Guardiaren jurisdikzioaren mendean daude Errioxa arabarreko lurrak (Bastida eta Labraza izan ezik). 1200ean Gaztelak konkistatu zuen, baina 1208an Antso VII.a Nafarroakoak berretsi zuen forua Nafarroara itzuliz[171]. 1367an Karlos *gaiztoa* Nafarroakoaren eta Gaztelako Henrike II.aren artean Kanpezun egin zuten tratuan, Guardia bahitu gisa eman zitzaion Gaztelako erresumari, eta 1379an diru-truke gotorlekuaren tenentzia eman zioten. Joan I.ak 1386 arte izan zuen hiribilduan bahiturik, baina Karlos III.a *Prestua*ri itzuli zion epeak amaituta. 1429 eta 1430ean eraso egin zuten gaztelarrek, baina 1437an bakeak eginda Nafarroara itzuli zen. 1461ean gaztelarrek erasoko zietela ikusita errenditu egin ziren, horrela Mendozarrek hartu zuten gotorlekuko alkaide-postua. Azkenean Fernando Katolikoak Arabari lotu zuen 1491n.

Done Bikendi Harana (1326 aur.)[172]: Berverigo izeneko gaur egungo despopulatuan bizi zen nekazari-komunitateak jaunari ihes egiteko Fernando IV.a Gaztelakoari eskatu zion babesa, hiribildua sortzeko eskatuz 1295 eta 1312 artean, eta 1312 eta 1319 artean forua eman zitzaien —Alfontso XI.ak eman zion Gasteizko forua 1316ko maiatzaren 15ean egile batzuek diotenez (García de Cortazar *et al.*, 1979 eta Auñamendi)—, beste autore batzuek 1326 hartzen dute datatzat (García Fernández, 2004), emandako forua errespetatzeko sortzen den dokumentaziotik —1324, 1326 eta 1334an emango ditu dokumentu horiek Alfontso XI.ak edo bere izenean bere tutorea zen Don Joanek (Díaz de Durana, 1994)—.

171. Ikus Jimeno Jurio eta Jimeno Aranguren (1998) 62. dokumentua.

172. "Arana San Bixenti (a. 1326)" zekarren lehen argitalpenak.

Gasteiz (1181)[173]: Antso VI.a *Jakituna* Nafarroakoak fundatu zuen *Nueva Victoria* hiribildua Gasteiz herrixka zegoen lekuan 1181ean eta Logroñoko forua eman zion, aldaketa txiki batzuekin (autogobernu gehiago eman zien eta auzokide zahar nahiz berriak berdindu zituen)[174]. J. I. Linazasororen ustez, Antso VI.ak fundatutako hiribildu guztietan bezala, Gareseko oinplanoak eragin zuen eraikitzean (hots, 1122an Alfontso *Borrokalaria*k Garesi emandako foruan datorren oinplanoa), Caro Baroja-ren hitzetan, bi eliza artean kale nagusi bat (adbokazio nagusiko elizaren izena daramana, Santa Maria kasu honetan) eta paraleloan alboetan beste kale bana, harresiz inguratuta dago Goiuria deitzen den zati hau (‘*Villa Suso*’). Gero 1200etik Gaztelak hartuta, lehen zabalpena 1208tik aurrera egin zen Alfontso VIII.a erregeak bultzatuta, mendebaldeko hiru kaleak zabalduz (Sokagileena, Zapatariena eta Errementariena). Hurrengo handitzea 1256 aldera egin zen Alfontso X.aren garaian baina ekialdera (Aiztogileena, Margolariena eta Kalebarria). 1476an hiri-izaera jaso zuen.

Kanpetzu: “Kanpezu” dago erabakita. Alfontso X.a *Jakintsua* Gaztela-Leongoak Logroñoko forua eman zion 1256ko otsailaren 5ean eta berriro eman zuen 1257ko abuztuan dokumentu bera.

Kontrasta (1256)[175]: Alfontso X.a Gaztelakoak eman zion forua 1256an, Done Bikendi Haranean gordeta zegoena. Azken hau mendean izan zuten 1316an Alfontso XI.a Gaztelakoak forua eman zion arte Done Bikendiri. Gaztelako gudu zibilarekin, 1367an Nafarroako Karlos II.ari eman zioten bai Petri I.ak bai Henrike II.ak. Baina Henrike II.ak berreskuratu zuen eta bere mendeko zen Rui Fernández Gaunakoari eman zion jaurgoan egindako zerbitzuen truke, jaurerri bihurtuz.

Labraza (1196): Guardiako forua eman zion Antso VII.a Azkarrak, Tuteran, 1196ko irailean, *San Cristobal de Labraza* izendatuz. XV. mendean pasa zen Guardiarekin Gaztelara, 1461ean errenditu ostean. Filipe II.ak 1559an errege-lur betirako izendatu zuen Labraza (jaurerri bihurtu ezin zena).

Trebiño (1191?): “Trebiñu” arautu du euskaraz Euskaltzaindiak. Gordetzen den forua 1254koa da. Hala ere, inskripzio baten arabera 1161ean fundatu zela esan izan da[176], Ernesto García-k (2004) ere XII. mendearen erdialdera izan zela dio, baina 1191n Antso VI.a Jakitunak fundatua García de Cortazár-en arabera (García de Cortázar *et al.*, 1979)[177]. J. A. Fernandez de Larreak

173. Gasteizen kasuan, Agurainen eta aurreko herriari forua ematean izena aldatu zitzaien beste hiribilduen kasuan, beti zalantza bera sortzen da, hiribilduaren izena testu historikoetan nola eman euskaraz ikusteko. Euskaltzaindiak hobetsitako euskal forma erabili dugu, baina uler bedi beti hiribilduez ari garela, eta ez aurreko populazio-guneaz —Ereinen mapan ere irizpide horri jarraitzen baitzaio—, horrela adierazten ez bada behintzat.

174. Bere fundazioaren testuinguruaz gehiago jakiteko ikus liburu honetan bertan Arriagako Kofradiaz egin den testu-iruzkina.

175. “Cóntrasta” (1256), lehen argitalpenean. Orduan bezala Inzurarekin lekualdatuta ageri da.

176. Auñamendik ere jasotzen du data hau.

177. Argantzon ordukoa delako seguru asko.

(2003: 41) dioenaren arabera, fundazioa 1179 eta 1181 artean izan beharko zen, erregeak ez baitzuen 1179 arte lortu lurraldea, beraz, ezin zuen aurretik ezer fundatu han. 1366an Henrike II.a Gaztelakoak jaurgoan eman zion Trebiñurekin Pedro Manrique-ri, 1453an konderri bihurtu zen eta Arabatik kanpo geratu zen, ez zelako elkartu 1458ko ermandadera

– Bizkaia

Areatza (1338): Joan Nuñez Larakoa Bizkaiko jaunak sortua merkataritza bultzatzeko 1338ko abuztuaren 15ean Logroñoko forua jasoz, eta bere emaztea zen Maria Diaz Harokoaren omenez "Villa de Haro" (Villaro) izena eman zion.

Balmaseda (1199): Merkataritza bultzatzeko sortua ere, 1199an Lope Sánchez de Mena Bortedoko jaunak,[178] Logroñoko forua jasoz honek ere. Erregearen eskuetara igaro zen ondoren, Fernando III.ak foruak berretsi zizkion eta dote gisa eskaini zion horregatik bere alaba Urrakari, Lope Diaz Harokoa *Buru Bipila*rekin ezkondu zenean (Bizkaiko jauna, 1214-1236). XIII. eta XIV.ean koroak berreskuratu eta Bizkaiko jaunei emango die berriro zenbait alditan[179], 1389an Bizkaiko jaurerriaren parte bihurtuko da azkenik (nahiz eta Gaztelako merindadean jarraitu beste 70 urtez).

Bermeo (1236): Lurraldea XI. mendean aipaturik ageri zaigun arren San Juan de la Peñara egindako emanaldietan (1051n *Vermeio* gisa[180]), hiribilduaren fundazioa 1236an izan zen Lope Diaz Harokoa II.ak eta bere emazte Urrakak Logroñoko forua emanez. Dokumentua ez da gorde, 1285ean haien ilobaren berrespenaren bidez ezagutzen da (Labairu, 1968-1972: 797-799), eta pribilegio gehiago jaso zituen mende hori bukatu bitartean.

Bilbo (1300): Aurretik existitzen zen guneari hiribildu izaera eman zion Diego V.a Lopez Harokoa *Sarkina*k 1300eko ekainaren 15ean, Logroñoko forua emanez sorrera-gutunean. Hori dela eta, 1310eko ekainaren 5ean Maria Diaz Harokoak, Bizkaiko andereak, foru berria eman zion (aurrekoaren ia berdina), eta 1315ean foruaren berrespena lortu zuen Alfontso X.aren eskutik. Ondoren pribilegio ugari lortu zituen merkataritza bereganatzeko hiribilduak.

Durango (1372 aur.)[181]: Ez da gorde bere fundazio-gutuna, hori dela eta, zenbait hipotesi garatu dira, tesi zaharretako batek XII. mendearen bukaeran errege nafarren fundazio gisa proposatzen du (Antso VI.aren edo VII.aren eskutik).

178. Bizkaiko jaunen sendikoa zena Gaztela barruan.

179. 1255ean koroaren eskuetara itzuli zen. 1274an Alfontso X.ak jaurerrian sartu zuen atzera, baina bere seme Antso IV.ak berreskuratu zuen 1288an. Diego Lopez Harokoak atera zuen, baina 1312an koroara itzuli zen. 1389an Bizkaiko jaurerrira sartu zuen Joan I.ak, nahiz eta Henrike III.ak XIV. mendearen bukaeran Juan de Velasco-ri eman zion jaurgoan aldi labur batez.

180. Axpeko Santa Maria monasterioaren emanaldian, Donemiliagako kartularioan, 279. zk. (García de Cortázar *et al.*, 1979: 66-68)

181. Lehen argitalpenean "Durango (a. de 1372)" zetorren.

Halere, tesi berriagoek geroagoko sorrera proposatzen dute hiribilduarentzat, XIII. mendearen bukaeran —1290 aldera Jose Angel García de Cortazar-ek proposatzen duen moduan (García de Cortazar *et al.*, 1979)[182]—. 1372an Joan I.ak egiten du konfirmazioa Bizkaiko jaun bihurtzean (hau da gorde den gutuna), baina lehenagotik ere bazen dokumentatua[183].

Elorrio (1356): Don Tello Bizkaiko jaunak fundatua 1356ko ekainaren 27an, populazioa bandoen gerrako erasoetatik babesteko.

Ermua (1372 aur.)[184]: Durangon gertatzen den moduan ez da fundazio-gutuna gorde, dagoen gauza bakarra da Joan I.a Gaztelakoak eta Bizkaiko jaunak 1372ko urtarrilaren 20an emandako berrespen-gutuna[185].

Gaminiz (1236): "Plentzia" moduan dago araututa izena. Lope Diaz Harokoak sortua 1214 eta 1239 artean, bere biloba Diego V.a Lopez Harokoak 1299an Gaminizetik portura jaitsiko du populazioa eta Plentzia hiribildu berria sortu. Pribilegioa 1366an Tellok eta 1374an eta 1389an Joan I.ak berretsi zuten (eta geroko erregeek jakina).

Gernika (1366): Tello Bizkaiko jaunak sortua 1366ko apirilaren 28an (Iturriarte, 1998).

Gerrikaitz (1366)[186]: 1366an Don Tellok fundatua, "Monditibar" izenarekin ere.

Lanestosa (1287): Aurreko populazio-gunea egonagatik, dirudienez 1287ko ekainaren 6an Logroñoko forua eskaini zion Lope Diaz III.ak (García Fernández, 2004).

Larrabetzu (1376): Donejakue Bidean egon arren, Joan I.a Gaztelakoak eman zion forua 1376ko abuztuan, bandoen gerretako arazoetatik babesteko, "Villanueva de Barresogaña" izenarekin.

Lekeitio (1325): Aurreko populazioa agertu arren, hiribildua 1325ekoa da. Orduan, azaroaren 3an, eman zion forua Maria Diaz I.a Harokoak, Bizkaiko andereak, Lope Diaz Harokoaren alabak eta Joan Gaztelako infantearen emazteak. Hiribilduaren garrantzia bere portuan zegoen.

182. Auñamendi entziklopediak dio 1290ean bigarren aldiz fundatu zela "Gernika" atalean. 1290 aldera izanez gero, Diego V.a Lopez Harokoak fundatuko zuen (García Fernández, 2004).

183. 1366an ageri da izendaturik Gerrikaitzeko fundazio-gutunean, baina 1328koa da daukagun aipamen zaharrena, Durangoko auzi batean ageri den dokumentuen artean, Maria Diaz Harokoak eskainitako pribilegio batean. Gainera, Iturrizak dio 1297an sortua izan zela, Diego Lopez Harokoak egina, 1427ko dokumentu batean datorrenaren arabera (Agirre, 2004).

184. "Ermua (a. de 1372 aur.)" lehen argitalpenean.

185. Auñamendik jasotzen duenez, Iturrizak fundazioa 1279an ezartzen du, eta J. A. García de Cortazar-ek uste du Durangorenaren garai bertsuan izango zela 1290 aldera (García de Cortázar *et al.*, 1979) eta fundatzailea Durango eta Bilboren bera (García Fernández, 2004).

186. Lehen argitalpenean Gerrikaiz (1366) zetorren.

Markina (1355): Tello Bizkaiko jaunak eman zion forua 1355ean "Villaviciosa de Marquina" izenarekin, Gipuzkoa aldeko banderizoek egindako erasoetatik babesteko. Bilboko forua eman zitzaien[187].

Mungia (1376): Joan I.ak, Gaztelako erregea izango zenak, emandako gutunarekin fundatu zen 1376ko abuztuaren 1ean, bandoetatik babesteko, garai hartako hiribildu gehienak bezalatsu.

Ondarroa (1327): Honi ere Maria I.a Diaz Harokoak eman zion Logroñoko forua 1327ko irailaren 28an. Joan Núñez Larakoak berretsi zuen 1335eko azaroaren 10ean, harresitzeko eskubidea emanez eta Amalloko errenteriaren ardura emanez. Pribilegioak geroko Bizkaiko jaun ziren Gaztelako erregeek berretsi zituzten.

Otxandio (1250 ing.)[188]: Badirudi forua XIII. mendearen erdialdera eman ziola Diego Lopez Harokoak —Lope II.a Diaz Harokoak 1239-1254 tartean agian (García Fernández, 2004)—, eta geroko jaunek berretsi zuten: Diego Lopez Harokoak, Marañónen 1304an, Tellok 1358an; eta gero Joan II.a Gaztelakoak 1440an eta ondorengo Gaztelako erregeek.

Portugalete (1322): Portua zaharragoa zen arren, Maria I.a Diaz Harokoak eman zion Logroñoko forua 1322an, bertara egokituz. Joan I.ak berretsi zuen 1372an eta ondorengo Gaztelako erregeek ere bai.

Rigoitia (1376): "Errigoiti" gisa araututa dago. Errigoiti Joan I.a Gaztelakoak sortu zuen 1376ko abuztuaren 1ean Idoibaltzagako Andre Maria zegoen lekuan. Tronuratzean berretsi zuen 1379an eta bere ondorengo erregeek ere berretsi zuten. Bandoetatik babesteko sortu zuten.

Ugao (1375): "Villanueva de Miravalles" izenarekin sortu zuen Joan I.a Gaztelakoak Ugaon 1375eko martxoaren 4an, Bilbo kexatu arren bere merkataritza-eskubideen aurka zihoalako haren fundazioa. Eman egin zen halere, eta 1393an berretsi zuen Henrike III.ak eta gero bere ondorengoek ere bai. Ondorioz, kale bakarreko hiribildua geratu zen bidearen inguruan eraikia[189].

Urduña (1229): 1229an fundatu zuen Lope II.a Diaz Harokoak. XV. mendearen bigarren erdian hiri-izaera eman zioten.

– Gipuzkoa

Arrasate (1260): "Mondragón" bezala fundatu zuen Alfontso X.a Gaztelakoak 1260an.

Azkoitia (1324): Jatorrizko izena San Martin Iraurgikoa da, ermita horren inguruan eraiki zelako. Alfontso XI.ak eman zion forua Burgosen, 1324ko urtarrilaren 4an. Arrasateko hiribilduaren eskubideak eman zizkion eta bertara egokitu

187. Iturrizak Auñamendin jasoa.

188. "Otxandio (c. 1250)" forma latino zuzena zeukan lehen argitalpenak.

189. Auñamendi eta Hidalgo de Cisneros *et al.* (1986: 20-26), 3. dokumentua.

zituen, bidean ezarriz. Leku egokiagoa izatearren, 1331ko uztailaren 8an Miranda Iraurgikora aldatu ziren (XIV. mendearen amaiera arte gutxienez gorde izan zuen izena, XV. mendearen erdialdetik Azkoitia deitzen zaio Gipuzkoako ordenantza orokorretan), eta gero, azken hau, Henrike II.ak berretsi zuen 1369an eta ondorengoek. 1339tik ez zuten petxarik ordaintzen eta apur bat geroagotik ezta *yantar*rik ere aitoren seme-alabak izateagatik.

Azpeitia (1310): "Salvatierra de Iraurgui" izenarekin fundatu zuen 1310ean Alfontso XI.ak.

Bergara (1268): Alfontso X.a Jakintsuak fundatua Ariznoan "Villanueva de Vergara" moduan, Gasteizko foruan oinarrituta. Hala ere, Oxirondoko lurrak ere bazituen eta XIV. mendera arte ez zen bere lurraldea finkatu (Basterretxea, 1991).

Deba (1343): "Monreal de Deva" Alfontso XI.a Gaztelakoak fundatu zuen Algecirasen 1343ko ekainaren 17an, baina, aurretik Itziarren Antso IV.a Gaztelakoak 1294ko ekainaren 24an fundatutako "Monreal de Iciar" (Gasteizko forua jaso zuena) lekualdatzeko egin zen, biztanleek eskatuta lekuaren desegokitasunagatik. 1373an berretsi zituen foruak Henrike II.a Gaztelakoak, baita hurrengo erregeek ere.

Donostia (1180): Nafarroako Antso VI.a *Jakituna*k eman zion fundazio-gutuna 1180an.

Eibar (1346): Alfontso XI.ak fundatu zuen "Villanueva de San Andres" izenarekin, 1346an.

Elgeta (1335): Hiribildua Alfontso XI.a Gaztelako erregeak fundatu zuen Maiako zelaietan 1335eko irailaren 13ko gutunaren bidez, Arrasate eta Gasteizko foruak eskaini zizkion eta pribilegio berezituak (hortik "Maya de Elgueta" izena). 1338 eta 1339 artean haien lurralde-barrutia finkatu zuen Gipuzkoako merioak erregearen aginduz. Henrike II.ak berretsi zituen foruak eta barrutia 1371n, eta gero ondorengoek ere bai. XV. mendearen bukaeratik, Gasteizek fundazioaz geroztik lortutako zenbait pribilegio eskatzen eta lortzen joan zen Elgeta, hango forua zeukalako.

Elgoibar (1346): Alfontso XI.a Gaztelakoak Valladoliden 1346ko abenduaren 20an "Marquina de Yuso" haraneko biztanleei gutuna eman zien hiribildua egiteko Elgoibarko zelaian eta "Villamayor de Marquina" deitu zuen (XIV. mendearen bukaeratik batzarretan ageri denez, Elgoibar izenarekin ezagutzen zen jada). Logroñoko forua eman zien, Arrasatekoek zeukatenaren bidez. Henrike II.a Gaztelakoak berretsi zuen 1367an eta berriro 1379an, eta gero ondorengo erregeek.

Errenteria (1320): Orereta zelaian hiribildua egiteko eskatu zioten erregeari inguruko biztanleek. Horrela, Alfontso XI.ak Valladoliden, 1320ko apirilaren 5ean "Villanueva de Oiarso" gisa hiribildua egiteko gutuna eman zien, Donostiako forua emanez. Errege berak berretsi zuen pribilegioa 1343an eta Henrike II.ak, ondoren, 1371n.

Getaria (1209): Ez da gorde sorrera-gutuna, baina Alfontso VIII.a Gaztelakoak 1204 eta 1209 artean emango ziola uste da (horrela diote Garibaik edo Gorosabelek[190]). Gorosabelen arabera (Auñamendi), Fernando III.ak konfirmatu zuen forua 1237an (eta 1201eko larre-pribilegioak) eta gero ondorengo erregeek. Antso IV.a Gaztelakoak zeharkako zergak ez ordaintzeko pribilegioa eman zien 1297an, baina gorde den dokumentu bakarra Fernando IV.aren 1302ko berrespena da.

Hernani (c. 1375): Ez dago bere fundazio-gutunaren berririk (bertakoek ere ez zekiten suteren batean-edo erreko zelako, agian), baina bere ezaugarriengatik hiribildua zela esan daiteke. Murugarrenek[191] proposatzen du Alfontso X.ak emango ziola 1252 eta 1256 artean, kostarako bideak hiribilduz bete zituenean. 1379an hiribildu gisa sartu zen Donostiako auzoan (erregeak 1380an konfirmatu zien) hango forua onartuz, baina bere ezaugarriak ere mantenduz (ofizialak, jurisdikzioa…)[192].

Hondarribia (1203): Alfontso VIII.a Gaztelakoak, 1203ko apirilaren 18an eskaini zion gutuna. Gorosabelek transkribatzen du bere *Diccionario Histórico de Guipúzcoa* lanean, baina geroztik galdu egin zen. Donostiaren estatusa jaso zuen eta bidesariak barkatu zitzaizkion.

Itziar (1294): "Monreal" hiribildua 1294ko ekainaren 24an egin zuen Antso IV.a Gaztelakoak, Gasteizko forua emanez. Pribilegioa, 1318an lehenengo eta berriro 1323an berretsi zuen Alfontso XI.ak. Lekuaren desegokitasunagatik erregeari baimena eskatu zioten foru berdinarekin Deba ibaiaren ahoan kokatzeko eta 1343ko ekainaren 17an eman zien, "Monreal de Deva" berriaren menpe geratuz Itziar herrixka gisa.

Leintz Gatzaga (1331): Leintz haranetik bereizi zen Leintz Gatzaga 1331n forua lortu zuenean, Alfontso XI.a Gaztelakoak emanik Arrasatekoek zeukatenaren berdina. 1370ean Henrike II.ak bere mendeko zen Beltran Gebarakoari eman zizkion justizia eta gatzagen eskubideak, eta bere jaurgopean geratu ziren harana eta hiribildua. XIV. mendearen bukaerako Gipuzkoako batzarretara joan zen, bere eskubideak babestearren, baina denbora laburrez. Errege-erregina Katolikoek urteroko errenta baten truke askatu zuten hiribildua Gebararren menpetik 1485ean. Horrela, 1492an Arabako ermandadea uzteko baimena lortu zuen, 1494an gauzatu zuen eta 1496an Gipuzkoakoan sartu zen.

Mutriku (1209): Alfontso VIII.a Gaztelakoak 1209ko irailaren 1ean eman zion Donostiako forua. Fernando III.ak 1237an eta ondorengo erregeek berretsia izan zen, eta 1256an Alfontso X.ak, berresteaz gain, Donostiakoen pribilegio guztiak eman zizkion.

---

190. Halere, Soraluce-k dio 1204an Alfontso VIII.a Donostian zela, Gipuzkoa hartu zuen unean; *Diccionario Geográfico Histórico de la Real Academia de la Historia*k ez du fundazio-gutunaz hitz egiten, baina 1201eko larre-pribilegio bat aipatzen du (Auñamendi).

191. Auñamenditik.

192. Data-muga gisa 1256-1380 tartea ere ezarri zaio (García Fernández, 2004).

Ordizia (1256): Alfontso X.ak 1256an fundatu zuen Ordizia eta 1268an berriro eman zion gutun bera "Villafranca" izena eta Gasteizko forua emanez. Gaztelako Antso IV.ak osatu zizkion pribilegioak eta lehendik zituenak berretsi 1290ean. Nafarroako mugako hiribildua izanik, Henrike IV.ak 1467an erregeari ordaindu beharreko urteroko ordainketa ere barkatu zion —*pedido* deitzen zutena— (Auñamendi).

Orio (1379): Joan I.a Gaztelakoak Burgosen, 1379ko uztailaren 12an, Donostiako hiri-gutuna eskaini zion "Villarreal de San Nicolas de Orio" izenarekin. Henrike III.ak berretsi zuen 1393an, baita ondorengoek ere.

Segura (1256): Sute baten ostean 1256an Alfontso X.a Gaztelakoak eraikiarazi zuen gaur egungo lekuan, mendixka batean, Nafarroako mugan egonda, babesteko. 1290eko apirilaren 18an Antso IV.ak bere aitak emandako foruen galera aipatzen du sutean, eta urte hartako maiatzaren 12an Gasteizko forua eskaini zion (Diez de Salazar, 1985). Azken pribilegio hori geroko erregeek berretsia izan zen (Henrike II.a hasita) 1290ean.

Soraluze (1343): Alfontso XI.ak 1343ko urriaren 15ean eman zion hiri-gutuna, Logroñoko forua emanez, Algecirasen gerran emandako zerbitzuengatik. Izena "Placencia de Soraluce" edo "Placencia de las armas" moduan eman zion.

Tolosa (1256): Alfontso X.a Gaztelakoak eskaini zion Gasteizko forua 1256ko irailaren 13an. 1259an bidesariak ez ordaintzeko baimena eman zion eta dena berretsi zuen Antso IV.ak 1282an.

Urretxu (1383): Hiri-gutuna Joan I.a Gaztelakoak eman zion 1383ko urriaren 3an, Azpeitiko forua emanez, "Villarreal de Urrechua" izenarekin.

Usurbil (1371): "Belmonte de Usurbil" izenarekin fundatu zuen Toron, 1371ko irailaren 11n, Henrike II.ak Donostiako forua emanez. Eta Joan I.ak 1379an berretsi zuen, baita ondorengoek ere.

Zarautz (1237): 1237ko irailaren 28an eskaini zion Fernando III.ak hiri-gutuna Zarautzi.

Zestoa (1383): Joan I.a Gaztelakoak Segovian 1383ko irailaren 15ean eman zion hiri-gutuna, Azkoitiko foruarekin, "Santa Cruz de Cestona" izena hartuta Aizarnako lurretan sortu zuen. Hurrengo urtean barrutia eman zion baso eta larreekin. Guztia Henrike III.ak berretsi zuen 1392an eta ondorengoek ere berretsi zuten.

Zumaia (1347): "Villagrana de Zumaya" Henrike II.ak sortu zuen 1347an.

– Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ez dago ezer markaturik.

– Nafarroa

Ablitas: Alfontso I.ak 1114an konkistatua, 1117an Tuteraren menpe jarri zuen. 1137an aragoarrek hartu zuten, baina Gartzea Ramirezek berreskuratu zuen eta bizi izan zen arte Gonzalo Azagrakoaren esku utzi zuen, eta ondoren erregearen eskura itzuli zen. Karlos II.ak bere zenbait mendekori utzi zien, eta Karlos III.ak betiko eman zion Martín Enríquez Lakarrakoari.

Alesbes (1191): "Villafranca" moduan fundatu zuen Antso VI.ak eta Iruñeko forua eman zion Tuteran, 1191ko azaroan [193].

Arga-Miranda (1208): "Miranda Arga" arautua Antso Azkarrak 1208ko urrian eman zion forua Lizarran[194].

ARGETAS (1092): "Arguedas" erabakita dago[195]. 1084an konkistatu zuen Antso Ramirez kristauak eta 1092an forua eman zion. Alfontso II.a Kastua Aragoikoak 1172an hartu zuen hiribildua eta foruak berretsi zizkion eta berdina egin zuen Antso VI.a *Jakituna*k nafarrentzat berreskuratzean. 1221ean Valtierra eta Cadreitarekin ermandadea egin zuten elkar babesteko eta ureztapena arautzeko. 1235ean Tibalt I.ak Rodrigo Jimenez Toledoko apezpikuari eman zion bizi zen arte. 1456an Joan II.ak Mosen Martin Peraltakoari eman zion jaurgoan (goi-justizia erregeak berarentzat gordez) eta 1491n erregepatrimoniora itzuli zen Joan III.a Albret eta Katalina Foix-ekin.

Artaxona (1193): "Artaxoa", Antso Azkarrak Tuteran eman zion forua 1193an. Baina aurretik ere, 1134an larreen zergak barkatu zizkion Alfontso I.ak (Lema, 1997: 128) eta forua eman zion. Azkenik 1208an berriro eman zitzaion forua Larraga, Mendigorria eta Miranda Argarekin batera[196].

Atarrabia (1184): Iruñeko San Nikolaseko forua jaso zuen 1184an (Lacarra, 1933).

AZKOIEN (1144): "Peralta" gaztelaniaz. Gaztelaren inbasioan errege nafarrari laguntzeagatik, forua eman zion 1144an Antso Ramirezek eta 1378an Karlos II.ak berretsi zion. 1378an bertan gaztelarrek inguratua izan zenez, indar gehiago egiteko Funes eta Villafrancarekin[197]; herritarrak kexatu egin ziren, baina erregeak berretsi egin zuen 1389an. 1423an Vianako printzearen jaurerri bihurtu zuen Karlos III.ak, baina 1430ean Joan II.ak Mosen Pierres Peraltakoari eman zion jaurgoan (1469an herritarrak errege-jaurgora itzultzen saiatu ziren, baina ez zuten lortu).

Balterra: "Valtierra" gisa dago araututa euskaraz. Tutera hartzean kristauen eskuetara pasa zen Valtierra, Alfontso I.aren eskutik. Gaztelako gerra zibilean XIV. mendearen erdialdean hondatua, Karlos II.ak biztanleak aske bihurtu zituen eta forua eman. Karlos III.ak eta Joan Labritek berretsi zizkioten

193. Alegría, Lopetegui eta Pescador (1997), 114. dokumentua.
194. Jimeno Jurio eta Jimeno Aranguren (1998), 59. dokumentua.
195. Dokumentuetan "Argetas" forma ere hartzen du.
196. Jimeno Jurio eta Jimeno Aranguren (1998), 58. dokumentua.
197. Alesbes.

pribilegioak. 1456an Mosen Martin Peraltakoari eman zion Joan II.ak Karlos Vianakoaren kontrako gerran emandako laguntzarengatik.

Barillas: Alfontso I.ak hartu zuen 1117an eta Tuterako forua eman zion ondoren. Jaun desberdinak izan zituen jaurgoarekin Pedro Sanchez Barillaskoak Antso Azkarrari saldu zion 1225ean; 1323an Pedro Tarazonako apezpikuak erosi zion Karlos I.ari eta hurrengo urtean bere mendeko bati, Juan Perez de San Juan izenekoari eman zion errege-baimenaz. Berriro errege-erreginen eskuetara itzuli zen eta 1466an Leonor printzesak Karlos Pasquier-i, bere kopari nagusia zenari, eman zion.

Berbintzano: "Berbintzana" dago araututa. 1052 eta 1220 artean sortu zen herria, Naiarako Santa Mariaren esku. 1274an monasterio haren eta erregearen artean banaturik zituzten jaurgoa eta errentak (baina Berbintzanako alkatea erregeak hautatzen zuen). 1307an erregeak bertako errentak Oger Maulekoari eman zizkion Mauleko gazteluaren truke, eta 1354an Joan Maulekoak, Arradako jaunak, erregeari saldu zion bueltan. 1414an Mosen Pierres Peraltakoarena zen[198] hiribildua eta Andosillarekin trukatu zion erregeari (nahiz eta bere jabegoak gorde). 1416an izurriagatik hustu egin zen eta horren ondorioz Karlos III.ak petxak barkatu zizkien. 1457an Karlos Vianakoak Maria Armendarizkoari eman zion bizi zen artean. 1495ean Larragako herrixka bihurtua zegoela Leringo kondeari ordaintzen zizkion errentak. 1507an Joan Labritek berretsi zizkion Vianako printzeak emandako pribilegioak, eta izaera berreskuratu zuten; Leringoak jaurgoa berrezartzen saiatu arren, ez zuten lortu.

Biana (1219): "Viana" dago Euskaltzaindiak arauturik. Inguruko herrixketako biztanleekin populatutako hiribildua sortu zuen 1219an Antso Azkarrak, forua emanez. Henrike I.ak 1271n berretsi zuen forua eta Luis *Hutin*ek 1315ean eta 1318an.

Buñuel: Erriberako herria, Tuterako forua jaso zuen 1119 inguruan, beste inguruko hiribilduek bezala. Oriztarren jaurgoan izan zen, Karlos III.ak 1413an ezkontzaz kanpoko Godofre semeari eman zion.

Burunda (1206): Berez 1208ko azaroan eman zioten Guardiako forua, petxak bateratzeko foru gisa, baina ez da hiribildua[199].

Doneztebe (1497): 1380an berriak daude; 1467an hiribilduari ordaintzen zituen petxak barkatu zizkion Leonor printzesak. 1497an Joan Labrit eta Katalina Foix-ekoak larre ugari eman zizkieten eta Jacako forua[200].

Dorreaga (1341): "Torres del Ríó" araututa. Erriberrin, 1341eko uztailaren 5ean, Renaut Nafarroako gobernariak Viguerako forua eman zien Torres del Ríoko kontzejukoei[201].

198. Juan Jordán de Liste-ri, Launarreko jaunari, erosi zion 1404an.

199. Jimeno Jurio eta Jimeno Aranguren (1998), 61. dokumentua.

200. José Yanguas y Miranda (1838): *Análisis histórico-crítico de los fueros de Navarra,* Francisco Erasun, Iruñea.

201. Barragán (1997), 141. dokumentua.

Elo (1147): "Monreal" moduan fundatu zuen Gartzea Ramirez *Berrezarlea*k 1149an Lizarrako frankoen forua emanez[202]. 1271n berretsi zuen Henrike I.ak eta Luis *Hutin*ek 1307an. 1466an Leonor I.a printzesak, Nafarroako gobernari zenak, merkatua egiteko eskubidea eman zien bere aita Joan II.ari laguntzegatik Vianako printzearen kontra.

Erronkari: 1085ean Leireri eman zion Antso Ramirezek eta petxak berdintzeko forua eman zitzaion, baina ez hiribildua sortzekoa (ikus aurrerago foru "txikiez" dagoen zatia).

Esprontzeda (1323): Karlos *Burusoila*k 1323ko maiatzaren 1ean forua eman zien hiribildua izateko[203].

Etxarri-Aranatz (s. XIV): "Etxarri Aranatz" dago arautua. 1351 baino lehenagokoa pribilegio bat berresten baitie bertako biztanleei Karlos II.ak, hain zuzen ere, Filipe *Ederra* eta Joana I.ak 1330ean berretsitako Luis *Hutin*en 1315eko berrespena, antza, 1314ko martxoaren 15ean Engarran Villiers-ekoak, Nafarroako gobernariak, Aranatz ibarreko Etxarri bastidari emandako pribilegioa berresten zuena[204].

Faltzes: Bere forua noizkoa den ez dakigu, Funeskoarekin batera emango zen agian. 1236an Tibalt I.aren urtekarietan aipatzen da erregeari eman ziotela elizen patronatua arazoak zituztelako apaizak izendatzean. 1331n berriro eman zieten patronatua Joana II.ari eta Filipe Evreux-i. 1357an nekazariek Karlos II.aren erresumaren gobernaria zen Luis infanteari eraso zioten krisiarengatik; errepresioa gogorra izan zen (dena kendu zioten), askoz geroago barkatuak izan ziren, baina miserian utziak. Joan erregeak 1457an Mosen Pierres Peraltakoari eman zion Falces hiribildua eta Azagra, Brionesen truke, zerbitzuengatik[205]. Jaurerriak izaten jarraitu zuten, nahiz eta hurrengo zenbait errege-erreginek kontrakoa adierazi.

Fontellas: 1119an hartua izan zen eta irailean forua eman zioten Tuterarekin batera. Aragoarrek okupatu zuten berrezarpenaren ostean, baina Antso VI.ak errekuperatu zuen 1156an. Jaurgoan izan zen, ez dakigu noiztik, 1238ra Antso Barasoringoak Tibalt I.ari itzuli baitzion orduan, beste lur batzuen truke. 1309an errentak errentan emanak izan ziren. 1361ean Karlos II.ak Martin Enriquez-i eman zion eta gero Mosen Rodrigo Urizkoari; Karlos III.ak bere seme ez legezkoari, Godofreri 1413an. Joan II.ak 1429an Godofreri Cortesko konderria kendu zion eta Fontellasko jaurgoa eman zion Pere Sebastian Zangozako auzokoari dote baten diru-truke, baina horrek zorrengatik galdu zuen eta 1438an Antso Eslabakoak, Tuterako auzokideak, erosi zuen eta Erriberako merioa zen Mosen Martin Peraltakoari pasa zion.

---

202. Gartzea Ramirezek eman zien Lizarrako frankoen forua 1149an Lizarran. Alegría, Lopetegui eta Pescador (1997), 11. dokumentua.

203. Barragán (1997), 4. dokumentua.

204. Ruiz (1997), 73. dokumentua.

205. 1461ean Joan II.ak zerga gehiago gehitu zituen bere jaurgoan, Funes eta Peraltako batzuk barne.

FUNES: Alfontso I.ak eman zion forua, fidel izan zitzaiolako (agian Urrakaren aurka) 1110-1113 artean. Teorian Kalagorriko foruak jaso zituen testuaren arabera, baina ez dakigu hark forua zuen, beraz, Viguerakoa eman zitzaiola uste da (Lacarra, 1933: 35) [206].

Fustiñana: Agian erromatar garaikoa, Alfontso I.ak eman zion forua Tuterarekin batera 1119an bertan zegoen populazio-guneari. Gartzea Ramirezek 1142an San Joan ordena militarreko monjeei eman zien hiribildua eta 1189an ordenaren enkomiendaren gune egin zuten. Corbaran Gil Bidaurrekoari eman zitzaion jaurgoa 1275ean, baina San Joan ordenakoei itzuli zitzaien eta Filipe III.a Evreux-ek berretsi zien.

Gallipenzu (1119): "Galipentzu" araututa, Alfontso I.a *Borrokalaria*k eman zion forua 1119an Tutera eta Cerverarekin batera (Sobrarbeko forua hain zuzen ere). Galipentzu Aragoiko muga markatzen zuen hiribildua zen. Borroka latzak izan zituzten auzokideek errealengo izaera gordetzeko eta jaurgoan ez erortzeko (Antso *Azkarra*k bere erroten errentak eman zizkion Martin Semenez Aibarkoari). 1237an Tibalt II.ak zergak gutxitu zizkien eta Filipe *Ederra*k 1300ean berretsi egin zuen. 1375ean Karlos II.ak jaurgoan eman zion Fernando Aiantzekoari baina 1380an berreskuratu egin zuen koroak. Joan II.ak 1450ean bertako petxa Tristan Ezpeletakoari eman zion eta 1470ean gaztelua botarazi zuen Karlos Vianakoarekin izandako istiluetan. 1497an libre eta aitoren seme-alaba izendatuak izan ziren Galipentzuko auzokideak eta petxak zentsu bihurtu zituen Katalina I.a Foix-ek.

Gares (1122): Lizarrako frankoen forua eman zitzaion 1122an. Donejakue Bidean oso hiribildu garrantzitsua izan zen[207].

Huarte-Arakil (s. XIV): "Uharte Arakil" dago arautua. 1164an juduei Lizarrako juduen arauak eman zizkieten. 1355ean aurrez zegoen herriaren gainean fundatu zen hiribildua, Luis infantearen nahiagatik (Karlos II.aren izenean gobernaria zena), baina 1357an ez zirenez joan oraindik (infantea ez zelako bisitan joan promes egindako moduan), etxeak botarazi zizkien jatorrizko herrixketan eta Uhartera joanarazi zituen, eta azkenik 1359an bizitzen jarri ziren Uharten; errenten zati bat Iruñeko Txantreari uzti zion lehen zuen moduan, 1362an krisi garaian Karlos II.ak *fonsadera* ordaintzea kendu zien eta 1366an gipuzkoarren erasoetatik babesteko gotorleku hobearen beharrean izan zen.

Inzura: Antso VII.a *Azkarra* Nafarroakoak 1201ean fundatutako hiribildua[208]. Despopulaturik dago gaur egunean, Artabia aldean.

Irunberri: Forua Antso *Azkarra*k eta gero Tibalt I.ak eman zieten eta 1274 eta 1307an berretsi zieten. 1367an Karlos II.ak bidesariak kendu zizkien eta 1396an Karlos III.ak auzokide guztiak aitoren seme-alaba egin zituen.

---

206. Ikus ere Peñalen.

207. Datu gehiagorako ikus Jimeno Jurio, J. Mª (1999): *Puente La Reina. Confluencia de rutas jacobeas*, Panorama 29, Nafarroako Gobernua-Principe de Viana, Iruñea.

208. Jimeno Jurio eta Jimeno Aranguren (1998), 25. eta 26. dokumentuak, 41.-44. or.

Iruñea: "Pompaelo" hiri erromatarra apezpikuaren esku zegoen, eta haren kanpoaldean San Zerningo burgu frankoa fundatu zuen Alfontso I. *Borrokalaria*k 1129an Jacako forua emanez eta bertara egokituta. 1184a baino lehen San Nikolas izeneko burgu berriari foru berdina eman zion, baina bertan frankoak nahiz nafarrak bizi zitezkeen. Azkenik Antso VI.a *Jakituna*k Navarreriari ere luzatu zion foru bera eta 1324an Karlos I.ak berretsi zuen eta Karlos III.a *Prestua*k 1423an bildu egin zituen hiru burguak hiri bakarrean.

Kabanillas: "Cabanillas" araututa. Tuterarekin batera jaso zuen forua 1119an eta 1124an Cornagoko[209] forua eman zioten. Askatasunak edo pribilegioak eman zizkieten arren, Gartzea Ramirezek San Joango Ospitalearen ordenari eman zion Cabanillas 1142an eta mendi komunalen hamarrena Tuterako elizari ordaindu zioten XVI. mendea arte. Hala ere, 1353 aldera aitoren seme-alaba kontsideratzen ziren biztanle guztiak.

Kaparroso (1102): "Caparroso" araututa, Petri I.ak emandako forua 1102an, gero Gartzea Ramirezek berretsi zuen bere erregealdian (ez dakigu data[210]).

KASEDA (1129): Forua 1133ko irailean eman zien Alfontso I. *Borrokalariak* (Lema, 1997: 127), Daroca eta Soriako foruak emanez eta erregeari ordaindu beharreko bederatzirena[211] barkatuz.

Kaskante: "Cascante" erabaki dute euskaraz. Erromatar garaiko populazio-gunea izandako honi Tuterarekin batera eman zion forua Alfontso *Borrokalaria*k. 1256an Sancho Fernandez de Monteagut eta bere emazte Mayor Perez de Agoncillo-ren jaurgo pean zegoen. Haren ondorengo batek erregeari emanaldi gisa uzti zion seme-alabarik gabe hiltzean, eta 1281ean bere senide ziren Joan eta Milia Santxezek berretsi egin zioten Joana erreginari diru-truke (Kodesekin batera). 1364an Karlos II.ak krisiagatik zergak barkatu zizkien eta Tuterakoen beste pribilegio batzuk eman. 1378an errege berak Roger Bernart Foixekoari, Castelbongo bizkonde eta Noalleseko jaunari, eman zizkion Cascante eta San Martin Unx, Larragarekin batera izan zitzan. Baina 1394an Karlos III.ak Gaztelako erregearen maiordomo zen Joan Hurtado Mendozakoari eman zion Cascante. 1436an populazioa gutxituta petxak jaisteko eskatu zuten auzokideek eta Joan eta Zuriak, behin aztertuta, hala egin zuten. 1445ean Joan II.ak bere kantzillerra zen Joan Beaumontekoari saldu zion hiribilduko harategia eta 1446an labea eta gaztelua. 1452an Diego Gomez de Sandoval-i, Castroko eta Deniako konde eta bere maiordomo nagusiari, eman zion hiribilduko jaurgoa, Gaztelan zuena berreskuratu arte, baina herritarrek ez zuten onartu eta atzera bota zen agindua.

209. Errioxako hiribildua zeini Alfontso *Borrokalariak* eman zion forua ustez 1114an. Besteak beste, Laratarren jaurerria izan zen.

210. Alegría, Lopetegui eta Pescador (1997), 15. dokumentua.

211. Lur berriak lantzeagatik erregeari zor zitzaion zerga.

Kastejon: "Castejón" erabakita. Alfontso I.ak Tuterako forua eman zuen lurraren parte da espresuki, baina jaurerria izan zen Erdi Aro guztian. 1222an Antso *Azkarra*k koroan sartu zuen arte, Arrada leinukoek izan zuten, baina Tibalt I.ak Gillen Perez Castejongoari eman zion 1244an eta Karlos II.ak Joan Ximenez Urreakoari eman zion baina aragoarra zenez Luis infanteak Gaztelak Aragoirekin zuen gerran arazorik ez egoteko, Pedro Martinez Urnizakoa nafarrari eman zion 1360an (nahiz eta petxa barkatu zitzaien auzokideei gerrako kalteengatik). Karlos III.ak lehenengo bere txanbelana zen Martin Aibarkoari eman zion eta gero Karlos Beaumontekoari. Azkenean, azken horren anaia Luisek lortu zuen eta 1453an Atondo, Murco eta Orkoien hiribilduengatik aldatu zizkion bere beste anaia zen Joan Beaumontekoari, sanjoandarren priore zenari, betiere Beaumondarren leinuaren barruan geratzeko.

Kodes (1323): 1269an jaso zuen forua Aguilar de Codesek, Guardiakoa, Tibalt II.ak emanda eta merkatua ere eman zion. 1271n Henrike erregeak agindu zuen Rioko populazioa Aguilar Kodeskora joateko, eta 1273an Pedro Sánchez de Monteagut Cascanteko jaunarena zen Aguilar Kodeskoa eta horrek erregeari oparitu zion. 1281ean Joan eta Milia Santxezena zen eta Joana erreginari trukatu egin zioten. 1368an krisian zamak gutxitu zitzaizkien eta 1373an Azuelo herrixka gehitu zitzaien. XV. mendean Gaztelako Henrike IV.a hartzen saiatu zen lurraldearen barruan zegoen.

Korella: "Corella" araututa. Behin musulmanei konkistatuta, Rotron, Alperche edo Perticako kondeari eman zion jaurgoan Alfontso I.ak, eta Tuterako forua eman zion 1130ean, baina jaurgo berean jarraitzeko. Rotranek bere iloba ezkondu zuen Gartzea Ramirezekin eta dote gisa eman zion lurraldea, errege bihurtzean koroari loturik geratzeko. 1285ean Filipe erregeak eta bere izenean Clemente Lunay gobernariak lurrak eman zizkioten Corellari eta zamak gutxitu. 1360an Luis infanteak, Nafarroako gobernariak, Gil Gartzea Anizkoari, Otazuko jaunari, eman zion hiribildua jaurgoan. Karlos II.ak 1364an pribilegio batzuk eskaini zizkion krisia hobeto jasateko eta 1369an Joana erreginak alkatea izendatzeko aukera eman zien, erregeak berretsi beharko bazuen ere. 1380an Karlos II.ak Pallarsko kondeari eman zion jaurerri gisa, bere zerbitzuengatik. 1417a feria egiteko eskubidea lortu zuten erregearengandik eta errege berak 1423an bere biloba Karlos Vianako printzeari eman zion jaurgoan Cintruénigo eta Azkoien/Peraltarekin batera; 1448an Printzeak bere osaba Joan Beaumontekoari saldu zion Corella.

Kortes: "Cortes" araututa. Alfontso *Borrokalaria*k askatua eta forua eman zion 1119an. 1128an Ramon de Alperche-k zeukan, geroago Gartzez Abarkak izan zuen, eta hil zenean Tuterako elizako kabildoari utzi zion hiribildua. 1234an Toda Rodriguez Gartzez Abarkaren alabaren jaurgoa zen eta erregeari oparitu zion Todak, errealengokoa izanik XV. mendearen bigarren erdira arte.

Lantze (1264): "Lantz" dago araututa. 1264an Tibalt II.ak Iruñeko San Zerningo frankoek zuten forua eman zien. XV. mendearen hasieran erdi bana zuten bere petxa koroak eta Orreagako monasterioak.

Larraga (1193): 1193ko martxoan Antso *Azkarra*k Tuteran eman zien forua[212]. 1208an berriro eman zieten forua, Mendigorria, Artaxoa eta Miranda Argarekin batera (Fernandez de Larrea, 1997: 41)[213].

Larrasoaña: Donejakue Bidean jaiotako hiribildua da. 1212an jaso zuen forua. 1263an Tibalt II.ak Orreagari eman zion errota.

Lizarra (1090): Jacako forua eraldatua eta egokitua eman zion 1090ean[214] Antso Ramirezek frankoen San Martin izeneko burguan (gaur egun San Pedro de la Rua deitzen dena) eta 1164an Antso VI.ak berretsi eta osatu egin zuen jatorrizko forua sortu zenetik gehitu zitzaizkion gehigarriekin; San Migel burgua sortua zen garai hartarako. 1187an nafar biztanleei hedatu zitzaien frankoen forua San Joan auzunean eta 1188an *Arenal* edo hareatzakoei ere bai.

Martzilla (1115): Forua Alfontso I.ak eman zion 1110 aldera Funes eta Peñalenekin batera. Joan II.ak 1429an Mosen Pierres Peraltakoa Faltzesko markesari eman zion jaurgoan.

Mendigorria (1194): Antso *Azkarra*k 1208ko urrian forua berretsi zion eta baldintza berriak eman zizkion[215]. 1463an Joan II.ak Lizarrako forua eman zion.

Mendikute: "Monteagudo" erabaki du Euskaltzaindiak. Alfontso *Borrokalaria*k eman zion forua Tuterarekin batera 1119an. 1380an Karlos II.ak jaurgoan eman zion Gonzalo Sánchez de Mirafuentes-i bizi zen artean. Karlos III.ak 1423an mudejarrei zergak ordaindu zizkien asko hiltzen ari zirelako. 1429an Joan II.ak Mosen Floristán de Agramont-i eman zion jaurgoa erreginari egindako zerbitzuen truke (eta 1454an berretsi zion denboraldi batez kendu ostean).

Milagro: Dirudienez XI. mendearen bukaeran Gillen Mendozakoaren jaurgoa zen, baina ez dakigu noizkoa den bere forua. Tibalt II.ak 1254an larre-pribilegio batzuk eman zizkion. 1393 eta 1398an Karlos III.a *Prestua*k zamak barkatu zizkien krisiagatik. 1446an populazioa gutxituta zerga gehiago barkatu zitzaizkien eta Vianako printzeak Joan Beaumonteakoari eman zion, baina 1481ean Tuteraren esku zegoen.

Murelu-Hautsi: "Murillo el Fruto" arautua. Gaizki dago kokatua geografikoki. Murillo el Frutori petxak gutxitu zizkion Antso *Azkarra*k 1207an. 1265ean Tibalt II.ak mendiak eman zizkien, ehiza eta egurra beretzat gordeta. Filipe

212. Alegría, Lopetegui eta Pescador (1997), 135. dokumentua.

213. Jimeno Jurio eta Jimeno Aranguren (1998), 57. dokumentua.

214. Gaur egun uste da 1076-1084 artean eman ziola.

215. Jimeno Jurio eta Jimeno Aranguren (1998), 56. dokumentua.

III.ak berretsi zituen pribilegioak 1331n. 1380an Karlos II.ak Joan Biarnokoari, Lordako kapitainari, eman zizkion hiribildua eta gaztelua emandako zerbitzuen truke (goi-justizia izan ezik), baina badirudi 1385ean erregeak Ramonet de Sort-i eman ziola eta 1387an Karlos III.ak Bertran Lakarrakoari eman zion. 1447an Joan Beaumontekoari eman zion Vianako printzeak eta 1469an agramondarra zen Petri Nafarroakoa mariskalak hartu zuen beretzat. Joan Labrit eta Katalina I.a Foix-ek utzi egin zioten Joan Beaumontekoari lekua, baina 1513an erosi egin zioten eta Karlos V.ak koroarekiko lotura berretsi zuen 1552an.

Murelu-Konde: Berez Murillo el Fruto da geografikoki puntu horretan dagoen herria eta ez Murillo el Cuende, gainera, hori da Medinaceliko forua jasotzen duena Cascanterekin batera. Gaizki dago kokatuta geografikoki. Hala ere, Murillo el Cuenderi buruz esan dezakeguna da Lope Diaz Harokoarena zela 1277an. Behe Erdi Aroan Olivako monasterioaren jabegoa zen jadanik. Gaztelarrek Nafarroa konkistatuta 1512an, gotorleku suntsituen artean Murillokoa egon zen, baina 1514an alkabala barkatu zien urte batzuez Fernando *Katolikoa*k.

Murtxante: "Murchante" erabakita. 1119an Tuterari emandako forua sartuta geratu zen. Gonzalo Azagrakoa zen Murchanteko jauna eta 1178an bere ondorengoek zati handi bat saldu zioten Tuterako elizako prioreari eta 1370ean falta zitzaiena erosi zuten. Gazelako gerra zibilean Bernard du Gueslin-en mertzenarioek arrasatu zuten 1366an, Erriberako beste herri askorekin batera.

Oibarre: "Oibar" araututa. San Juan de la Peñari emana izan zen pixkanaka 1034tik. Gaztelua erregeak jarritako tenenteek eduki zuten. 1368an Karlos II.ak petxak barkatu zizkien krisiagatik. 1397an Karlos III.ak noble egin zituen biztanle guztiak mugan egoteagatik eta alkatea aukeratzeko eskubidea ematen zaie erregearen berrespenarekin.

Olite (1147): "Erriberri" arautua. Lizarran eman zien Gartzea Ramirezek Lizarrako frankoen forua Erriberriko biztanleei[216].

Orreaga: Ospitaleen fundazioak izan ziren Donejakue Bideagatik XI. mendetik. Bere fundazioa 1127-1132 artean egin zuen Alfontso I.ak.

PEÑA (1150): Peñari forua 1120 eta 1134 artean eman zion Alfontso I. *Borrokaria*k (Lema, 1997: 127).

Peñalen: 1110ean Kalagorriko forua eman zion Alfontso I.a *Borrokalaria*k Martzilla eta Funesekin batera[217].

Rada: "Arrada" arautua. Despopulatu hau Arrada familiaren jaurgoa zen, eta 1222an datatzen da lehen jaun zehatza Bartolome Semenez Arradakoa

216. Alegría, Lopetegui eta Pescador (1997), 10. dokumentua.

217. Alegría, Lopetegui eta Pescador (1997), 135. dokumentua, eta konfirmatu zuen Gartzea Ramirezek; Alegría, Lopetegui eta Pescador (1997), 16. dokumentua.

Antso *Azkarra*ri omenaldia egitean. 1251n Gil Arradakoak Tibalt II.ari eman zion hiribildua eta omenaldia egin zion. Ondorengorik gabe geratzean Arradarrak, koroara pasa zen benetan eta 1307an Mauleko gazteluaren truke Oger Maulekoari eman zitzaion eta 1351n berriro eman zion Karlos II.ak Joan Maulekoari. Karlos III.ak 1389an Martin Aibarkoari eman zion, baina 1402an Oger Agramondekoak Joan Maulekoaren biloba izanik auzitara eramanda lortu zuen erregearengandik jaurgoa. 1455ean beaumondarren esku egonda, Tuterako merioak Mosen Martin Peraltakoak eraso eta hartu zuen eta suntsitu. Maulekoen eta Arradakoen arteko arazoak 1502an arbitratu ziren.

Ribaforada: Antso *Jakituna*k 1157an Tenplarioei eman zien han inguruko lur bat. 1119an musulmanei kendu zien gehiena Alfontso *Borrokalaria*k eta birpopulatu egin zuen. 1312an Tenpleko ordena deseginda Luis *Hutin*ek San Joango Ospitaleko ordenakoei eman zien (nahiz errenta batzuk erregeak beretzat gorde zituen). Populazio-arazoak izan zituzten musulmanen bidalketekin batez ere.

Rocaforte: Karlos II.ak dirua behar zuenez 1367an petxa saldu zien diru-kantitate baten truke. 1406an bere elizaren patronatua Karlos III.ari eman zion herriak eta erregeak Orreagari pasa zion. Vianako printzeak 1454an Mosen Leon Garrokoari eman zion Rocaforte ("Zangoza Zaharra" ere deitua zena), eta hurrengo urtean Joan II.ak berretsi zion bere aldera igarotzean. 1514an berriro berretsi zuen Fernando *Katolikoa*k.

SANTAKARA: Antso VI.a *Jakituna*k eman zion forua 1191ko apirilean Erriberrin eta Antso *Azkarra*k 1210ean foru berria eman zion[218].

Tafalla (1157): Antso VI.ak forua onetsi zion 1157an, baina dirudienez herrikoek idatzia ematen du[219]; Tibalt II.ak berretsi zuen 1255ean bertsio erromantzea eta osatua (Fortún, 1985: 646).

Tiebas (1263): Tibalt II.ak Nafarroakoak Tiebasko biztanleei Lizarrako San Martineko frankoen forua eman zien Tuteran 1264ko urtarrilaren 23an (Jimeno Aranguren, 1999).

Torralba (1263): "Torralba del Río" araututa. Tibalt II.ak 1263an Lizarrako frankoen forua emanda populatu zuen eta Luis *Hutin*ek berretsi zuen 1307an. Karlos II.ak 1358an zergak jaitsi zizkien gotorlekua egitearen truke; 1451n zama gehiago kendu zitzaizkien. Vianako printzeak pribilegioak eman zizkien bere alde egiteagatik 1456an, eta 1466an gaztelarren tropek hartutakoan Leonorrek berretsi egin zizkien. 1512an Logroñora joan ziren hiribilduko ordezkariak Fernando *Katolikoa*ri leialtasuna adieraztera eta hark foruak berretsi zizkien.

218. Alegría, Lopetegui eta Pescador (1997), 113. dokumentua.
219. Alegría, Lopetegui eta Pescador (1997), 12. dokumentua.

TUTERA (1119): 1119ko otsailean hiribildua erori eta forua 1119ko irailean izan zen Alfontso I.a *Borrokalaria*k emana (Martin Duque, 1987). Esan izan da Sobrarbeko forua jaso zuela[220].

Urantzia (1175): "Los Arcos" araututa Antso VI.ak, Iruñean, 1176ko apirilean, eman zien forua Los Arcoseko biztanleei[221]; ezaugarri nahasikoa da, mugako foruen ezaugarri batzuk baititu, baina ez denak, eta, dirudienez, oso gizarte hetereogeneoa arautzeko erabilia izan zen; dena den, badirudi asmo nagusia birpopulazioa izan zela (Fortún, 1985: 647).

Urroz (1288?): "Urrotz" araututa. Urrotzi 1287an (agian 1286an) hiribildu gisa merkatua egiteko eskubidea eman zion Hugo Conflantekoak, Xanpainako mariskal eta Nafarroako gobernariak (Eloko ohiturekin). Beraz, aurretik edo fundatua behar zuen (Zabalza, 1997[222]).

Urzante: Cascanteko despopulatu hau Tuterako foru pean geratu zen 1119an, baina 1121ean bere eliza Tuterako kabildoari eman zitzaion. 1138an Gartzea Ramirezek Jordan de Peña-ri eman zion; 1254an San Joango Ospitaleko ordenakoei saldu zieten eta haren jaurgo gisa geratu zen.

Uxanuri (1273): "Genevilla" arautu da, 1279an jaso zuen forua Guerin Amplepuisekoak emanik —Joana I.aren merio eta Lizarrako gazteluko alkateak (Zabalza, 1997[223])—, nahiz eta aurretik ere ageri den herria dokumentatua (Zabalza, 1997[224]).

Zangoza (1122): 1122an Jacako forua jaso zuen Alfontso I.ak emanda, baina badirudi haren aita zen Antso Ramirezek emana ziola aurretik forua (Lakarra, 1933: 15-21).

ZARRAKAZTELU (c. 1129): Alfontso I.a *Borrokalaria*k emandako forua 1124 inguruan (Lema, 1997: 127 eta Fortún, 1985: 605).

Zintronigo: "Cintruénigo" moduan arautu du Euskaltzaindiak. Tuterako forua jaso zuen 1119an Alfontso I.ak emanda. XII. mendean jaun desberdinen esku egon ostean (besteak beste, Errodrigo Argaizekoa), Antso *Azkarra*k erosi zuen 1219an. 1369an Joana erreginak, Karlos II.aren emazteak, bidesariak barkatu eta zenbait pribilegio eman zizkien. 1380an Corellarekin batera Karlos II.ak jaurgoa Pallarseko kondeari eman zion bizi zen artean. Joan II.ak 1449an betiko errealengokoa bihurtu zuen. 1512an gaztelar konkista handik sartu zen eta 1550ean jaurgoan eman zitzaion Migel Ezpeletakoari.

---

220. Egile batzuek oker datatu zuten gainera emate hori 1117an. Gainera, kurioski Sobrarbeko foruen ondorengoez aritzean beti Tuterakoaz eta bere ondorenaz egiten da hitz eta ez Aragoiko inongoez; dirudienez, Zaragozakoari egiten dio erreferentzia espresioak, Alfontso I.ak apur bat lehenago konkistatu eta forua urte berean —urtarrilean— Zaragozari eman zion forua. Horrek azken batean Jacakoarekin ere harremanetan jarriko luke urrutitik (Martin Duque, 1987).

221. Alegría, Lopetegui eta Pescador (1997), 59. dokumentua.

222. 96. dokumentua, egileak uste du data 1287koa ageri arren, 1286koa dela.

223. 71. dokumentua, 88.-89. or. Horrela agertzen da ere *Atlas de Navarra*n (1977).

224. 67. eta 68. dokumentuak, 81.-85. or.

Komeni da, gainera, mapako zenbait termino historiko azaltzea:

(Hiribilduen edo hirien) Forua: Hiribildu edo hiri bati ematen zaion fundazio-gutuna, zeinetan bere pribilegioak, askatasunak, eskubideak eta betebeharrak zehaztuta agertzen diren. Normalean izaten dira morrontzako zama eta zergen desagertzea edo gutxitzea (kaltegarrienak kenduz), biztanleei egoera juridiko berezia ematea, merkataritza babestu eta bultzatzea (baita artisautza ere, nahiz eta nekazaritza eta abeltzaintza nagusi izan hiribildu gehienetan), lurralde edo barruti bat eskaintzea (bertan pribilegio eta jurisdikzioa aplikatuz), lur komunalak erabiltzeko eskubidea ematea (urak, basoak eta larreak; mugarriz ondo bereizita eta urtero bisitatuak zirenak), autogobernurako konpetentziak ematea (kontzejua sortuz eta ofizialak: alkateak, zinpeko edo zinegotziak, errexidoreak, fidelak, eskribaua…; eta jurisdikzio berezitua: ezin ziren hiribildutik kanpora epaituak izan, ez zen errudun kolektiborik egilea ezagutzen ez zen krimenetan, ezin zen inor preso hartu edo ezin zitzaion inori fidantzarik kendu erruduna zela frogatu izan gabe…; deliruen tratamenduarekin, defentsa militarra), forua eman dien jaunari oraindik dagozkion eskubideak zehaztea, zeinak auzokideentzat ziren (ez biztanle guztientzat). Trukean hiribilduko kideek urtero diru-kantitate bat ordaintzen zioten jaunari (erregeari, hura zenean jauna) eta jaun fundatzaileak justiziako isunen zati bat jasotzen zuen.

Foru-familia: foru-gutun bera zabaldu den taldea, agian aldaketak jasoko dituena edo gehigarriak, baina fundazio berriari beti beste jatorriko hiribilduko forua ematen zaiola esaten da. Horrela, senidetasuna edo lotura duten foru taldeak osatzen dira.

Hiria: Hiria deitzen da foru-gutuna edo hiri-gutuna izan duen herria, esan bezala, estatus berezia daukana (jurisdikzio eta barruti propioa, bertako agintariak…) eta ezaugarri bereziak (urbanismo erregularra, hesia…). Normalean "hiribildu" terminoa erabiltzen da Euskal Herrian '*villa*' zentzuan, ohikoenak diren "hiri" txikiak baitira. Hiriak estatus berezitua lortu zuten hiribilduak dira (gutun aberatsago batekin), esate baterako: Gasteizek eta Urduñak XV. mendearen bukaeran lortu zutena (hiribildu gisa askoz lehenago sortuak izanagatik).

Horrela, mapak erakutsi nahi digu nola zabaldu ziren foruak Euskal Herrian, hots, hiribilduen fundazio-gutunak. Hiribildu bat fundatzeko gutuna edo forua ematen zuenean jaun batek (erregea izan zitekeen), ez zuen beti berria ematen edo asmatzen, aurretik beste hiribildu bati berak edo bere aurreko batek emandakoa eskaintzen zion eta kasu gehienetan gehitzen zitzaizkion lekuari egokitutako klausulak, adibidez, hiribilduari emandako barrutiaren mugak, edo zenbait eskubide berezitu edo berak gordetzen zituen isun edo eskubide batzuk. Nolabait ereduzkoa zen gutun bat hartzen zen (aurrerago ikusiko ditugu Euskal Herrian zabaldu ziren ereduak zeintzuk izan ziren batez ere).

Agertzen dituen familiak hauek dira: Viguerakotik sortutako Logroñokoa eta Funeskoa, Tuterakoa, Jacakoa, Darocakoa, Medinacelikoa eta Novenerakoa.

Era horretan, Viguerako forua Euskal Herrira Logroñokotik eta Funesekotik iritsi zen, ia bere osotasunean. Torres del Ríora ere hedatu zen, baina han ez zuen foruaren hedapen-foku berririk sortu. Aldiz, Logroño eta Funesko foruak nahikoa zabaldu ziren. Funeskoa, batez ere, bere inguruko herrietan zabaldu zen, Nafarroa Garaiko hegoaldean hiribilduak sortuz (Faltzes, Peñalen, Milagro, Arrada, Martzilla, Caparroso, Rocaforte eta Oibar[225]). Funesera aplikatu zen Viguerako forua anonimoa da eta espezialistek ez dakite benetan Viguerakoa den ala elkartze bat den (Lacarra, 1933: 29).

Logroñoko forua, berriz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik gehien hedatu zen forua izan zen; izan ere, Arabako hiribildu guztiek jaso zutena izan zen, baita Bizkaian eta Gipuzkoako barrualdean ere[226]. Kasu askotan zuzenean, edo beste azpifokuetatik. Horrela, Gasteizko azpifokutik zabaldu zen Gipuzkoara: Deba, Itziar, Bergara, Ordizia, Tolosa, Segura (Arrasate —Azkoitia, Elgeta eta Leintz Gatzagara—, Azkoitia —Zestoara— eta Azpeitiaren kasuan ere —Urretxura—, hauen forua zabalduko da)[227]; Arabara (Agurain, Kontrasta, Done Bikendi Harana), Nafarroako Izurara, eta Bizkaian Urduñara. Bilbo bidez Markinara hedatu zen, eta Biasteri edo Guardiatik Arabar Errioxara (Antoñana, Bernedo, Labraza)[228] eta Nafarroako Viana, Genevilla eta Burundara (azken hori ez da hiribildua hala ere, aurrerago azalduko dugunez). Besteetara zuzenean iritsi zen: Araban, Kanpezu, Trebiñu, Argantzonera[229]; Bizkaian, ia guztietara, Lanestosa, Balmaseda, Portugalete, Plentzia, Mungia, Bermeo, Lekeitio, Gernika, Ondarroa, Errigoiti, Gerrikaitz, Larrabetzu, Ugao, Durango[230], Ermua, Elorrio, Otxandio, Areatzara; Gipuzkoan, esan bezala, Elgoibar, Eibar eta Soraluzera; Nafarroan, Esprontzedara.

Jacako forua Nafarroako erdialdean eta Gipuzkoako kostaldean zabaldu zen. Jatorri frankoko populazioei eman zitzaien forua da (Lacarra, 1933: 21). Zuzenean hedatu zen Nafarroan, Orreagara, Erronkari haranera, Doneztebera, Larrasoañara,

225. Horrez gain Kalagorrira ere hedatu zen.

226. Errioxan eta Burgosen ere hedatu zen, mapan datorren moduan Frías, Miranda de Ebro, Santo Domingo de la Calzada, Navarrete, Briones, San Vicente de la Sonsierrara, adibidez.

227. Elgoibarren, Soraluzen eta Eibarren izan ezik, zeren haietan Logroñokoa aplikatu zen zuzenean.

228. Ez dezagun ahaztu zonalde hau 1463 arte Nafarroako erresumaren parte izan zela eta orduan sartu zela Araban.

229. Trebiñu eta Argantzon Arabaren parte izan ziren "mesede henrikearrak" direnak izan arte; XIV.ean Manrique familiari eman zitzaion orduan jaurerri gisa eta horregatik amaitu zuen Burgosko probintzian, baina Arabaren parte izan zen ordura arte, ikus zehatzago Trebiñu eta Argantzon hitz historikoen azalpena.

230. Maparen arabera, berez ez dakigu noiz fundatu zen hiribildua, hori bai, 1372an Joan I.a Gaztelakoak eman zuen foruen berrespenean zekarren Logroñoko foruaren arabera ordaindu behar zirela "kaloña" izeneko isunak (erregeari zegozkion isun kriminalak).

Iruñera (San Zernin burgura[231]), Etxarri Aranatzera, Lizarrara eta Zangozara. Iruñetik (foku berria dena) Lantzera hedatu zen, Zangozatik (foku berri gisa ere) Asínera (Aragoin); eta Lizarratik (foku berria), Torralbara, Erriberrira, Tafallara, Garesera, Elora, Tiebasera, Uharte Arakilera eta Donostiara. Donostiak azpifokua osatu zuen itsas merkataritzako gaiaz kapitulu berezituak zituena. Donostiatik, Gipuzkoako kostaldeko ia herri guztietara: Mutrikura, Zumaiara, Getariara, Zarautzera, Oriora, Usurbilera, Hernanira, Errenteriara eta Hondarribira.

Tuterako forua inguruko Erriberako hiribilduetan ipini zen. Horrela, "Murillo-Hautsi"[232], Valtierra, Castejón, Corella, Cintruénigo, Murchante, Urzante, Cascante, Mendikute, Barillas, Ablitas, Fontellas, Cortes, Ribaforada, Buñuel, Fustiñana, Cabanillasera eta iparraldean dagoen Galipentzura.

Darocako forua Peña eta Kasedari eman zitzaien.

Novenerako forua Mendigorria, Artaxoa, Larraga, Berbintzana eta Miranda de Argari —foru horri "Fuero de la Novena" ere deitzen zaio (Lacarra, 1933: 42)—.

Medinaceliko forua Zarrakaztelu eta Murillo el Frutori[233].

Foru desberdinak dituzte: Santakara, Los Arcos, Azkoien.

Aparte ageri dira puntu beltz eta gezirik gabe (beraz, inongo foru-familiari filiaziorik jarri gabe): Aguilar Kodeskoa, Urrotz, Alesbes.

Laburbilduz, esan genezake, mapa honen asmoa dela agertzea Euskal Herrian, Hego Euskal Herrian, hain zuzen ere, izan ziren hiribilduen fundazioak, haien fundazio-datak eta jaso zuten gutuna adieraziz. Horrekin, foruen familiak erakusten dira era garbian, jaunek hiribilduak sortzean erabili eta zabaldu zituzten ereduak kolpe batez bistaratuz.

Horrela, ikusten da, tradizio nagusiak edo ereduak bi direla, batez ere, Logroñoko forua eta Jacakoa (gutxiago Tuterakoa eta Funeskoa, azken batean Logroñokoaren jatorri bera duena, Viguerako forua[234]; baina haien lurraldeetan ez dira hedatzen ez Jacakoa ez Logroñokoa, aipatutako horiek baizik).

Ondorioz, ikusten da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoako barrualdean Logroñokoa hedatu dela eta Nafarroa eta Gipuzkoako kostaldean Jacakoa. Foru hauek

231. Gero 1189an Navarreriari, lehengo Iruñea zaharrari, ere eman zion Antso VI.ak, nahiz eta banatuta jarraitu, eta gero San Nikolaseko burguari ere bai, nahiz eta ez dakigun data zehatzik (Lacarra, 1933: 15-21).

232. Ez dakigu herri hau zein ote den, zeren "Murillo-Hautsi" deitzen duena, Murillo el Fruto da eta ez dago hor, Zarrakaztelu inguruan baizik. Zona horretan dagoen Murillo bakarra, Murillo de las Limas da, forurik jaso ez zuena. Arazo hau nondik datorren jakiteko ikus aurrerago beste mapa batzuekin konparatzean.

233. Eta ez Murillo el Cuenderi bertan dioen moduan (oker dago izendatuta herria).

234. Ikusi dugu beste tradizio txikiagorik ere badela.

zuzenean zabaltzean bitarteko guneak sortu eta haien bidez zabalduko dira (Gasteizkoaren eta Guardiakoaren edo Donostiakoaren eta Lizarrakoaren ereduak argiak dira). Izan ere, foru-tradizio aragoarra da nagusi, bada, Nafarroan eta Gipuzkoako kostaldean; Iruñeko erresumako errege aragoarrek hasi zuten eta haien jatorriko foruak hedatu ziren gerora. Ostera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoako barnealdean Logroñokoa dago, errioxar tradizioa, baina jatorria Iruñeko erresuman ere zuena.

Dena den, argi dago lurraldeka hedatzeko orduan preferentziak daudela, hots, normalean foruak bere inguruko herri eta hiribilduetara zabaltzen dira, eta ez urrutikoetara; baina berdin-berdin hedatuko dira errege nafarren edo gaztelarren eskutik foru berak. Horrela zehazten du J. Mª Lacarra-k (1933: 6): normalean inguruko herrietan hedatzen ziren foruak eta interesatzen zena baino ez zen kopiatzen edo erabiltzen (hiribildu handi baten forua hiribildu txiki batean aplikatzen zenean klausula batzuk alferrikakoak ziren).

Esan behar da ere, foruak hedatzen zirenean egokitu egiten zirela eta familia berriak sortzen zirela horrela (edo azpifamiliak hobe). Lacarra-k azaltzen du argien (1933: 6):

> Askotan hiribildu bati foru laburra ematen zaio, baina jasotzen dituen ondorengo zabaltzeak […] ere hasierako foruaren izenarekin ezagutzen dira; hori gertatzen da, adibidez, Sobrarbekoarekin Tuterari aplikatu ostean edo Viguerakoa Funesi eta bere eskualdeari eman ostean. Edo, kontrakoa, aplikatutako foru baten zabaltze edo bilakaera esanguratsuenak lor dezake nahikoa izen, beste lekuetara hedatzen denean bigarren izen hori aipatzeko eta ez jatorrizko foruarena; hala nola, Lizarra edo Iruñea, Jacakoaren ordez[235].

Erran nahi baita, Araban, Antso VI.a Nafarroakoak ezarri zuen Logroñoko forua, baina gero, Alfontso X. Gaztelakoak eta bere ondorengoek ere foru beraren hedatuko dute Arabatik (eta Gipuzkoako herri askotatik), beraz ez da erresuma-aldaketan nabari foruen erabilera- eta tradizio-aldaketarik (Guardia edo Biasteriko kasua argia da, XV. mendera arte nafarra da, baina bere foruak Logroñokoan du jatorria eta Araba galdu eta gero ere, errege nafarrek horixe zabalduko dute ingu-ruko hiribilduetan, adibidez, Genevillan 1273an).

235. Jatorrizko hizkuntzan: «Muchas veces se otorga a una villa un fuero breve, pero a las ampliaciones que sucesivamente recibe […] se les sigue conociendo con el nombre del fuero primitivo; tal ocurre, por ejemplo, con Sobrarbe aplicado a Tudela o Viguera aplicado a Funes y su comarca. O, al contrario, la ampliación o evolución más notable de un fuero aplicado cobraba personalidad suficiente para que al extender su derecho se cite éste y no su fuero originario; por ejemplo, Estella o Pamplona, respecto a Jaca».

J. Mª Lacarra berak dioen moduan (1933: 7):

> Ez ziren, bada, erregeak eta erresumak zuzenbidea markatzen zutenak, baizik eta hiribilduen auzokideen baldintzak edo egoera ekonomikoak, haiek beren interesentzat egokiena zen foru-gutuna eskatzen zutenean[236].

Mapa hau ere beste antzeko mapa historiko batzuekin konparatuko dugu antzekotasunak eta desberdintasunak ikusi ahal izateko. Daudenek ez dute Euskal Herria osotasunean hartzen, baina zatika irudi orokor bat eskain diezagukete (gure maparen iturritzat ere erabili baitira kasuren batean edo bestean).

Antzeko beste mapa batzuekin konparatuta, lehenik eta behin ikusten dugu Euskal Herria oso-osorik hartzen duen beste maparik ez dela[237]. Nafarroaz egin diren beste birekin alderatuta ikusten dugu erdaraz eginak direla, baina hiribildu gehiago agertzen direla. Horrela, L. J. Fortún eta C. Jusué-ren *Historia de Navarra* liburua hartuta (1993: 113), Iruñeko erresuman hedatutako foruez hitz egiten da eta haien familiaz ere bai. Berdin egiten da *Atlas de Navarra* (1977: 47) lanean.

Fortún eta Jusué-k daukaten mapan Nafarroako erresumak 1179an zeuzkan mugak irudikatzen dira eta bertan fundatutako hiribilduak agertzen ditu, koloreko puntuez, haien foruaren jatorriaren arabera. Horrela, Jacako foruaren jatorrikoak markatzen ditu: Zangoza, Lizarra eta Iruñea, eta Lizarrakotik, Gares ("Puente la Reina"), Elo ("Monreal"), Erriberri ("Olite") eta Donostia; Iruñekotik, berriz, Atarrabia ("Villaba"), Larrasoaña, Auritz ("Burguete"), Irunberri ("Lumbier"). Beste talde batean Logroñokotik eratorritako foruarekin fundatutakoak daude mapan: Logroño bera, Mendabia, Viana, Labraza, Guardia edo Biasteri ("Laguardia"), Bernedo, San Vicente de la Sonsierra (orduan Nafar Erresuman zena), Argantzon ("La Puebla de Arganzón"), Antoñana, Inzura, Burunda eta Gasteiz ("Vitoria"). Los Arcosek beste foru bat zeukan. Ereinen gure maparekin bat egiten du, baina desberdintasun nabariena da ez duela bereizten Logroñokoaren familian azpifokurik. Eta jarraitzen dute zehaztu gabe Lizarra eta Iruñeko foruetan zein burgutako forua den hedatzen dena (foruetan ere hala delako, normalean Iruñeko foru frankoa aipatzen baita).

*Atlas de Navarra*koa konplexuagoa da eta osoagoa, ez delako, gainera, XII. mendera mugatzen. Eta fundazio-datak ere badakartza, guk darabilgunaren antz handiagoa badu ere, bakarrik nafar dinastiek zabaldutako foruak azaltzen ditu. Horrela, hiribilduak puntu batekin nabarmendu eta kolorea ematen die, haien foruaren jatorriaren arabera. Gainera, foku nagusiak geziz lotzen ditu eta norantz hedatzen diren ere geziz adierazten du, ez dituenean hiribilduak gehiago zehazten.

---

236. Jatorrizkoa: «No eran, pues, los reyes y reinos los que marcaban el derecho, sino las condiciones de vecindad o situación económica de las villas que reclamaban aquella carta foral que creían más conveniente a sus intereses».

237. Lur Hiztegi tematikoan berauxe dator eta gainera lehen argitalpenekoa.

Horrela, Antso *Azkarra*ren garaitik dagoen Nafarroako erresumako lurraldea dauka markatua (esaten ez duen arren), baina hegoaldeko hiribilduak markatzen ditu bakarrik. Jacatik hiru gezi ateratzen dira: Zangoza (c. 1090-1122), Lizarra (1090) eta Iruñera (1129, 1184 aurretik eta 1187). Lizarratik Donostiara (1180), eta handik bere alboetara hedatzen dira bi gezi (Donostiako forua nondik hedatu zen adieraziz). Azken mapa honen arabera hauek dira familia horretatik Nafarroan izango diren fundazioak: Leire (1173), Castellon (1171), Irunberri, Monreal/Elo (1149), Tiebas (1263), Erriberri (1147), Villafranca (1191), Asín (1132), Gares (1122), Urrotz (1286?), Atarrabia (1184), Larrasoaña, Orreaga, Lantz (1264), Uharte Arakil eta Etxarri Aranatz (XIV. mendean) eta Torralba (1263).

Tuterako foruarekin, berriz, Tutera bera (1119), Cadreita, Valtierra, Castejon, Corella, Murillo el Fruto (baina hau oker dago, hor dagoen Murillo bakarra Murillo de las Limas da eta ez du forurik), Cintruénigo, Murchante, Urzante, Cascante, Cabanillas, Fontellas, Fustiñana, Ribaforada, Buñuel, Ablitas, Cortes, Barillas, Tulebras eta Monteagudo (Cervera Gaztelan eta Mallén Aragoin) eta Galipentzu (1119).

Logroñoko forua nafar erregeek zabaldu zuten Logroñotik (1095): Viana (1219), Espronceda (1323), Mendavia (1157), Labraza (1196), San Cristobal de Berrueza (1317), Inzura (1201), Burunda ibarra (1208)[238], Genevilla (1229), Antoñana (1182), Aguilar Kodeskoa (1269), Guardia (1164?) —eta hortik ingurukoetara hedatu zen—, San Vicente de la Sonsierra (1172)[239], Trebiñu (1180?) eta Gasteizera (1181) —eta hortik Gipuzkoa eta Bizkaia aldera ere zabaldu zen—.

Viguerako forua, marra ezjarraituaz (zalantzan, beraz) Kalagorri eta Funesko ibarrera zabaldu zen —Funestik Martzilla eta Peñalenera (1115)—.

Novenerakoa hedatu zen Artaxoa eta Larraga (1193), Mendigorria (1194) eta Miranda de Argara (1208). Darocakoa Kaseda (1129) eta Peñara (1150). Medinacelikoa Zarrakaztelu (c. 1129) eta Murillo (el Fruto) hiribilduetara. Beste foru batzuk: Arguedas (1092), Santacara, Caparroso (1102), Tafalla (1157?) eta Los Arcosera (1175).

Ikusten denez, Murillo herriekin nahasmen handia dago, Ereinen mapan bertan ere Murillo el Cuende eta Murillo el Fruto (eta hauxe da, berez, "Murelu-Hautsi" ere deitu izan dena) nahastu egiten baitira. Mapa honetan egon daiteke, beraz, Ereinenaren okerra.

Ereinen mapan hiribildu asko ez dira aipatzen. Falta dira Ipar Euskal Herriko hiribilduak: Baiona eta Bastida Arberoa (Nafarroa Beherean). Baiona *Lapurdum* hiri erromatarra zen; 1125ean Gilen X.a Akitaniako dukeak forua eman zion eta

238. Lauki bat dauka zirkulua beharrean, hiribildua ez delako agian.
239. Oraindik nafarra zena.

hiria berpizten joan zen bere jauna zen apezpikuaren mendean; forua Rikardo *Lehoi-bihotza*k berretsi zuen Akitaniako duke gisa 1174an, eta 1215ean Joanes I.a *Lurgabea*k, Ingalaterrako errege eta Akitaniako dukeak, eman zion *etablissement* deituriko estatutu bereziaren ondorioz, Lapurditik bereizi zen juridikoki (Goyheneche, 1990). Bastida Arberoa, Nafarroako erregeek fundatu zuten leku estrategikoan, Rabastenseko forua emanez[240], Luis *Hutine*k berretsi zizkion 1312an bere aitak emandako foruak, "Labastida nueva de Clarenza" izenarekin; baina merkataritzan Bigorrako beste herrienak bete beharko zituzten eta 1329an barrutia finkatu zuten Arberoakoekin. Famatuak dira 1329ko sorgin-ehizak. 1350ean Karlos *Gaiztoa*k Arnaud-Raimon Gramontekoari eman zizkion hiribilduko zergak, armagizonen truke; baina 1365ean zerga-pribilegio batzuk eskaini zizkien hiribilduko biztanleei. Eta azkenean Agramonteko jaunak Donibane Garaziko erroten zergen truke itzuli zion erregeari hiribildua Karlos II.aren garaian[241].

Araban ez zaizkigu agertzen: Villafranca Estibalizkoa —1110 inguruan Lope González kondeak fundatutakoa (García Fernández, 2004)—, Gesaltza Añana ("Salinas de Añana" gisa fundatua) —1134 baino lehenagokoa dena Alfontso I.a *Borrokalaria*k fundaturik (García Fernández, 2004)—, Corres (1256), Urizarra —1256 aldera fundatua?—, Buradon Gatzaga eta Portilla —1256 aldera—, Artziniega —1272an Alfontso X.a Gaztelakoak—, Berantevilla —1312an Fernando IV.ak[242]—, Villarreal de Álava (Legutio) —1333an Alfontso XI.ak—, Alegria Dulantzi eta Elburgo —1337an Alfontso XI.ak—, Maracalda —1338an Alfontso XI.ak[243]—, Murgia —"Monreal de Murguía" edo Zuia moduan, 1372an Alfontso XI.ak— eta Lagran —1456 baino lehen fundatua, nork ez dakigu[244]—. Hauek, berriz, bai agertzen dira J. A. García de Cortazar eta kideek egindako mapan (1979).

Gipuzkoan Oñati ere aipatzea litzateke egokia, Gebararren jaurgoa izan arren hiribildua zelako, ustez XIV. mendea baino lehen fundatua (García Fernández, 2004).

Eta Nafarroan ere ez dira ageri forua jasotako hiribildu guztiak, eta ageri direnak ez dira guztiak hiribilduak, aurrerago foruei buruzko azalpenetan agertuko dugunez. Kurioski, bada, badirudi Bizkaikoak direla osorik agertzen dituen bakarrak.

240. Hori kondaira eran kontatzen da, Claire Rabanstensekoa (Bigorran) etorri omen zen istilu feudal batetik ihesi bere sendi zabalarekin eta errege nafarrek baimena eman zioten Arberoan kokatzeko. Foruari dagokionez, zalantza zutenean interpretatzeko Rabastens-engana joaten ziren galdetzera 1338an egin zuten moduan.

241. Auñamendi.

242. Aurretik bazen zalantza eta 1295-1310 artean kokatzen zen (García de Cortazar *et al.*, 1979).

243. Gaur egun Murgian dagoen despopulatua.

244. E. García-ren arabera (2004). J. A. García de Cortazar eta bere kideek (1979) proposatzen dute 1515 baino lehen izango zela.

Gainera, testuinguruan jarri behar da dena, fundazioen arrazoiak ez dituelako agertzen berez mapak (edo nork eginak izan ziren). Esplikatu zeintzuk izan ziren.

Hiribildu kalifikazioa herri bati jartzea, batzuetan zaila da. Foru bat jaso duten neurri bateko herriei deitzen zaie horrela. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, neurri batean, gauzak nahiko garbi daude: hots, herri "berri" bat egiteko errege baten edo jaun baten forua jaso dutenak (horixe da "hiribildua", nahiz eta aurretik existitzen den herri edo gune bat aprobetxa daitekeen, Gasteizen moduan *Nueva Victoria* fundatzeko) hartzen dira hiribildutzat; foru- edo fundazio-gutuna ez dutenak ez (herri, elizate edo elizaurre, herrixka, auzo, haran eta abarrak). Berdina gertatzen da Iparraldean dauden apurrekin.

Nafarroan, aldiz, gauzak, konplexuagoak dira. Forua jasotzen duten herri edo gune guztiak ez baitira hiribildutzat hartzen. L. J. Fortún-ek (1985) oso ondo azaltzen du bestelako foruak (berak "*fueros menores*" deitzen dituenak) jaso dituzten herriak zeintzuk diren eta zein motatako foruak diren (sailkapena egiten du haien artean). Egileak dioen moduan: «foru hauek komunitateek erregearekin zuten estatutua finkatzeko asmoa zuten, baina kondizio juridikoa aldatu gabe»[245] eta aurrerago, «aplikatzen zen lege-arautegia agortzen zuten foru hauek? Dudarik gabe, ez. Kontuan izan behar da, ez dutela ukatzen eta kentzen haien lekuetan zegoen zuzenbidea edo sortzen ari zen jurisprudentzia»[246], (Fortún, 1985: 604 eta 605), hots, ez diote jurisdikzio edo legedi berririk eskaintzen leku horri[247], bestelako foruak dira, Fortun-ek berak jasotzen duen moduan, Maurice Berthe-k "*franquezas menores*" deitu zituenak. Hala ere, Nafarroa Garaiko hegoaldean, (bir)populazio-aldeaz hitz egiten ari garenez, forua jasotzen duten populazio-unitate oro dira hiribildutzat jo (nahiz eta jasotzen dutena "foru txikiago" horietako bat izan). Foru hauek guztiak, betiere, errege-lurretan ematen ziren (eta ez jaunen lurretan), eta asmoak bi ziren bereziki: mugako herriak populatzea (lehen fase batean hedatu zirenak) eta petxak bateratzea foruak, hots, zergak eta zamak estandarizatzeko eta hobeki biltzeko eginak (bigarren fase batean emandakoak, hain zuzen ere).

Horrela, foru "txikiago" horietako bat jaso zutenak dira:

Batetik, mugako forua jaso zuten Uxue (1076), Arguedas (1092), Caparroso (1102), Santakara (1102), Funes, Marcilla eta Peñalén (1110), Cabanillas (1127), Araciel (1128), Encisa (1129), Zarrakaztelu (1129), Kaseda (1129), Marañon

245. Jatorrizko hizkuntzan: "estos fueros pretenden fijar el estatuto de las comunidades con el rey, pero sin transformar su condición jurídica".

246. Jatorrizko hizkuntzan: "¿Agotaban estos fueros la normativa legal vigente? Indudablemente, no. Hay que tener en cuenta que no anulan el derecho consuetudinario o la jurisprudencia que se fuera produciendo en sus respectivos lugares".

247. Izan ere, L. J. Fortún-ek leku berean dioenez, tokian tokiko ohitura eta legeak ere sartzen ziren foru horietan.

(1124-1134) eta Peralta/Azkoien hiribilduek (1134)[248]. Horiek, esan bezala, hiribilduzat hartzen dira eta asko ez dira mapan ageri (esate baterako, Uxue bera). Mugako foruen ezaugarriak dira, datengatik Aragoiko erregeek emandako foruak dira, hau da, lurraldea konkistatu zutenak eta populatu zutenak: Antso Ramirez (1076-1094, Petri I.a (1094-1102) eta Alfontso I.a *Borrokalaria* (1102-1134) (Fortún, 1985: 608-617).

Bigarren foru txikiak petxak (ordaindu beharreko zergak) bateratzeko foruak izan ziren, bada (Fortún, 1985: 618-630); horietako lehenak bitan bereiz daitezke: Antso VI.a *Jakituna*k (1150-1194) emanak —guztiak 1192 eta 1194 artean emanak (eta aurretik beste batzuk)— eta ondoren semeak Antso VII.a *Azkarra*k emandakoak (aurrerago aipatuko ditugunak).

Antso VI.aren foru horien helburua zen fiskalitatea finkatzea bere erresuma indartzeko (Gaztela eta Aragoiko erresumak presionatzen baitzituen, horren kontra hartutako neurrietako bat da). Horretarako urtero ordaindu beharreko kantitate bat finkatu zuen, aurreko lan eta espezietan ziren zama feudalak ordezkatuz, eta Logroñoko forua eman zion Mendaviari (1157) eta, ondoren, besteei Lizarra eta Iruñekoak[249]. Ordaindu beharreko kantitatea bakarra zen eta urterokoa: familiaburuka —Nabaskoze (1185), Leringo Doneztebe harana, Santakara (1191), Erasun-Saldias, Beintza-Labaien, Leitza-Areso eta Larraun ibarrak (1192); Esteribar, Gulina, Basaburua, Odieta (1192), Atez ibarra (1193)— edo herrika ordaintzen zena —Artze ibarra (1162 inguruan), Osa (1189), Aniz (1192), Sorakoitz, Mañeru, Artaxoa, Larraga eta Sorauren (1193)—, kobratuak San Migeletan (irailaren 29an), Ama Birjinaren igokundean (abuztuaren 15ean) edo maiatzaren bukaeran izaten ziren. Herritarren (petxeroen) artean desberdin ordaintzen zen, familiaka ordaintzen zen lekuetan argi ikusten denez: etxean gizonik ez zuten alargunek erdia ordaintzen zuten, berdin "solariego" ziren herritar biztanleek (beste erdia beren jaunari ordaindu behar baitzioten[250]) eta herrian jabegoak edukita kanpoan bizi zirenek, eta nekazari, bilau edo erregearen kollazo zirenen artean, idi-parea zutenen edo ez zutenen artean ere egiten zen desberdintasuna. Petxaz gain afaria (*cena*[251]) ordaindu behar izaten zuten foru batzuen arabera; edo abeltzaintzarako zamen barkamena edo finkapena; kasu gutxi batzuetan lan prestazio batzuk mantentzen ziren (baina oso zehaztugabeak); Nabaskoze, Artaxoa eta Larragan bederatzirena kentzen zitzaien eta askatasuna eman[252]; *calonia*, hots, justiziagatik erregeari ordaindu beharreko zerga (isuna) ordaindu beharra zuten.

248. Poyo de Suson, 1144ko otsailaren 28an eman zizkien foruak Gartzea Ramirezek Azkoiengoei; Alegría, Lopetegui eta Pescador (1997), 6. dokumentua.

249. Iruñeko San Nikolas burgukoa zergari zegokionez eta Lizarrako parral eta hareatzako auzokideei emandakoa 1187 eta 1188an.

250. Antza hiribilduetan bizi ziren jaunak ziren inongo jurisdikziorik ez zutenak beren mendeko nekazariengan L. J. Fortun-en ustetan (1985: 623).

251. Gaztelako *yantar* deitutako zama feudala.

252. Frankoak zirela esanez; bederatzirena zen lur hutsa, erregearena, lantzeagatik erregeari ordaindu beharreko zerga, izenak dioen moduan uztaren bederatzigarren zatia zena.

Larraga eta Artaxoako foruek (1193), Antso VII.ak emandako Mendigorria (1194) eta Miranda Argakoarekin (1208), talde bera osatzen dute, askatasun handiak dituena[253].

Horrela, Antso VII.ak egindako petxak bateratzeko foruetara iristen gara, aitaren bideari jarraituz egindakoak (Fortún, 1985: 630-644), hogeita hamaika izan ziren guztira, baina ezaugarriz aurrekoen antzekoak. Honela izan ziren: Aizpurgi, Bigüezal eta Ustés (1195), Ultzama (1211), San Martin de Elesa (1217), Eslaba (1198), Olaitz, Osakain eta Beraitz (1201) petxa indibidualarekin; eta gerokoak komunitateka kobratuak izan ziren: Mendigorria (1194), Urrotz (1195), Zurindain, Muzki, Orendain eta Artazu (1196), Mendigorria, Larraga, Artaxoa eta Miranda Arga (1208), Arraizega, Izurdiaga, Etxeberri, Irurtzun, Latorlegi, Arakil, Aizkorbe eta Iruñieta, Santakara, Berama, Iriberri eta Ihabar (1210), Aezkoa (1219), Ollo (1232), Aranatzeko lurra (ez dakigu data). Bazituen diru nahiz espezietan jasotako berdinketak: Esteribar (1203), Tafalla eta San Martin Unx (1206); Murillo el Fruto (1207), Aranguren (1208), Lizarraga, Idoate, Andosilla eta Subiza (1210), eta Lerin (1211).

Hurrengo petxak bateratzeko foruen taldea osatzen dutenak Xanpainako erregeek emandako petxa-berdinketak dira (Fortún, 1985: 659-663). Horien artean Tibalt I. eta II.ak emandakoak: Galipentzu (1237), Olandain (1244), Egues eta Puiu (1264), diru eta espezietan; eta dirutan bakarrik Etaio (1234), Mirafuentes eta Ubago (1236), Urrotz (1237), Oko (1250), Munarrizketa (1253), Legaria (1266), Murillo (1270). Petxa gutxitu egiten zaie gainera: Abaiz (Lergako despopulatua) (1244), Lakidain (1249), Aranatz (1251), Melida (1266), Eslaba (1272); eta Taxoare (1251). Gerin d'Amplepuis-ek (Joana erreginaren merioak) emandako foruak ere badira: Zuñiga (1278) eta Lana (1281). Luis *Hutin*ek 1307an Anue, Tafalla eta erresuma osoko nekazariei emandakoak. 1321ean errealengoa bihurturik Villamayor de Monjardin (1324) eta Sorlada eta Burquillo (1325), egokituz jaurgo-lekua errealengokora. Asarta, Azedo eta Villamera (1325), 1238an petxak jarri ostean, egokitu egin zizkieten. Baigorrin (1331) Filipe Evreux-ek petxak gutxitu zituen (krisiaren garaian gauden ezaugarri).

Azkenik, L. J. Fortún-ek (1985: 644-652 eta 663-672) bestelako foru anitz ere jasotzen ditu, filiazio zailekoak direnak. Horien artean: Tafalla (1157) eta Los Arcos (1176). Errealengokoak egiteko: Artaxoa (1236), Lerrutz, Lizoain, Erredin, Ozkaritz eta Leiun Lizoain ibarrean, (1258), Arronitz eta Villatuerta (1342). Populazio-gune berriak: Zazaoz (1237); Tibalt II.ak fundatutako Auritzberri (Orreagan sartuko dena) (1269); baina garrantzitsuenak Bastida Arberoa eta Etxarri Aranatz[254] (1312). Gainera, judutarrentzat eta musulmanentzat egindako foru bereziak, etab.

253. Esan behar da, 1208an denek batera hartu zuten bigarren foru bertsua. (Fernandez de Larrea, 1997: 40-41).


254. Muga zaintzeko sortua.

Laburbilduz, Nafarroan Erronkari eta Burundako foruak ezin dira onartu hiribildu gisa, bai Nafarroa Garaiko hegoaldean diren Funes, Mendigorria… bilauei eta ez burgesei dagozkien foru txikiagoak jasoagatik ere, populazio-lurraldean egoteagatik hala onartu dituelako tradizionalki historiografiak.


Azpimarratu behar da oso mapa garrantzitsua dela zeren Europako hirien berpizkunde-garaia Euskal Herrian nola gauzatu zen ikusteko balio baitu: zein hiribildu fundatu ziren, eta noiz eta zein legerekin. Baina akatsak ditu eta garrantzitsuak dira ere. Ondorioz, zuzendu beharra dago. Horretarako kontuan izan beharko lirateke egindako zenbait kritika.

Egin den azkenetakoa da (euskaraz egin den bakarra eta behin eta berriro erabili dena), hobetu beharra duen arren euskara aldetik (ez bakarrik izendegia arautu delako azken urteotan, erdara ageri duelako ere bai eta koherentzia aldetik zenbait herriren izenak euskaratzean) eta ematen duen informazioaren zehaztasunaren aldetik (hala nola, falta diren hiribilduak jarriz, aurkitu eta zehaztu diren hiri-gutunak jarriz, bereiziz hiribilduenak ez diren foruak, Euskaltzaindiaren izendegiko erabakiak aplikatuz, etab.).

GEHIGARRIAK



Iturria: "Despertar de la vida urbana y familias de fueros" mapa, *Atlas de Navarra Geográfico-Económico-Histórico* (1977): Caja Ahorros de Navarra, Iruñea, 47. or.



Iturria: "Burguei emandako foruak", Fortún Pérez de Ciriza, Luis Javier eta Jusué Simonena, Carmen (1993), *Historia de Navarra I*, Temas de Navarra 7, Nafarroako Gobernua, Iruñea 113.

BIBLIOGRAFIA

Agirre García, J. (2004): "La vida social urbana en el País Vasco: el ejemplo de la villa de Durango", *Sancho el Sabio*, 14. urtea, 2. aldia, **20,** 35-69.

Alegría, D.; Lopetegui, G. eta Pescador, A. (1997): *Archivo General de Navarra (1134-1194)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 77, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Atlas de Navarra. Geográfico-Económico-Histórico (1977): Caja Ahorros de Navarra, Iruñea, 47 ["Despertar de la vida urbana y familias de fueros" mapa].

Barragán Domeño, Mª D. (1997): *Archivo General de Navarra (1322-1349) I. Documentación real*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 74, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Basterretxea, Amaia (1991): *Bergara: Hiria Erdi Aroan*, Bergarako Udala, Bergara.

Colección de Fueros municipales y cartas pueblas, Madril, 1847.

Díaz de Durana Ortiz de Urbina, J. R. (1994): *Alava en la Baja Edad Media a través de sus textos*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Díaz de Durana, J. R. eta García Fernández, E. (1991): *Demografía y sociedad: La población de Logroño a mediados del siglo XV*, Logroño 6, Instituto de Estudios Riojanos, Logroño.

Díaz de Salazar Fernández, L. M. (1985): *Colección Diplomática del Concejo de Segura (Guipúzcoa); tomo I (1290-1400)*, Fuentes Medievales documentales del País Vasco 6, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Enciclopedia Universal Ilustrada europeo-americana (1973-): Espasa Calpe, Madril.

Euskal Herriko Atlasa. Geografia-Ekonomia-Historia-Artea (1982): Erein-Eusko Jaurlaritza, Donostia, 67 eta 148.

Estornes Lasa, B. (zuz.) (1968): *Enciclopédia General Ilustrada del País Vasco*, Auñamendi, San Sebastián, <http://www.euskomedia.org:8080/euskomedia_es/index.jsp> [Oharretan Auñamendi moduan erabili dut].

Fernandez de Larrea Rojas, J. A. (1992): *Guerra y sociedad en Navarra durante la Edad Media*, EHU, Bilbo.

————, (2003): "Treviño, la Puebla de Arganzón y Álava en la Edad Media", in J. Mª Ortiz de Orruño (zuz.), *Informe sobre las vinculaciones históricas, culturales, sociales y económicas de Treviño y Álava*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

Fortún Pérez de Ciriza, L. J. (1985): "Los "fueros menores" y el señorío realengo en Navarra (siglos XI-XIV)", *Principe de Viana*, 46. urtea, **176**, 603-673.

Fortún Pérez de Ciriza, L. J. eta Jusué Simonena, C. (1993): *Historia de Navarra I*, Temas de Navarra 7, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

García Fernández, E. (2004): *Gobernar la ciudad en la Edad Media: Oligarquías y elites urbanas en el País Vasco*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

García de Cortázar, J. A.; Arizaga, B.; Martínez Ochoa, R. Mª eta Ríos, Mª L. (1979): *Introducción a la Historia Medieval de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en sus textos*, Txertoa, Donostia.

Goyheneche, E. (1990): *Bayonne et la région Bayonnaise du XIIe au XVe siècle*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa (1995), Klaudio Harluxet Fundazioa, Donostia.

Hidalgo de Cisneros, C.; Largacha, E.; Lorente, A. eta Martínez Lahidalga, A. (1986): *Colección documental del Archivo General del Señorío de Vizcaya*, Fuentes Medievales documentales del País Vasco 9, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Iturriarte, A. (1998): "Gernika se separa de Lumo", *Aldaba: Gernikako Aldizkaria*, VIII, **92**, 121-131.

Jimeno Aranguren, R. (koord.) (1999): *Documentación histórica sobre la villa de Tiebas*, Concejo de Tiebas, Tiebas.

Jimeno Jurio, J. Mª eta Jimeno Aranguren, R. (1998): *Archivo General de Navarra (1194-1234)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 89, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Labairu, E. J. (1968-1972): *Historia general del Señorío de Bizcaya*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.

Lacarra, J. Mª (1933): "Notas para la formación de las familias de fueros de Navarra", *Anuario de historia de derecho español*, 10. liburukia, 203-272.

————, (1969): *Fueros derivados de Jaca I. Fueros de Navarra I*, Iruñea.

Lacarra, J. Mª eta Martín Duque, A. (1975): *Fueros derivados de Jaca II. Fueros de Navarra I*, Iruñea.

Le Goff, J. (1983): *Tiempo, trabajo y cultura*, Taurus, Madril [1978].

Lema Pueyo, J. A. (1997), *Instituciones políticas del reinado de Alfonso I "el Batallador", rey de Aragón y Pamplona (1104-1134)*, EHU, Bilbo.

Lur Hiztegi Entziklopedikoa (1998), Lur, Bilbo.

Lur Entziklopedia Tematikoa: Euskal Herriaren Historia (1998), Lur, Bilbo.

Martín Duque, A. (1987): "Hacia la edición crítica del fuero de Tudela", *Revista Jurídica de Navarra*, 4, uztaila-abendua, 13-20.

Martínez Díez, G.(1979): "Fueros de La Rioja", *Anuario de Historia del Derecho Español*, **XLIX,** 327-454.

Monreal Cía, G. (1974): *Las instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el siglo XVIII)*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

Pirenne, H. (1970): *Las ciudades medievales*, Ediciones 3, Buenos Aires [2. argitalpena].

————, (1981): *Las ciudades de la Edad Media*, Alianza, Madril [5. argitalpena; itzultzailea: Francisco Calvo].

Ruiz San Pedro, Mª T. (1997): *Archivo General de Navarra (1349-1381). Tomo I. Documentación real de Carlos II (1349-1361)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 76, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Zabalza Aladave, Mª I. (1997): *Archivo General de Navarra (1274-1321). Tomo II*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 75, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

2.7. SEGURAKO HIRI-GUTUNAREN BERRESPENA EDO BIGARREN EMATEA

TESTUAK

1290eko apirilaren 18a **Segura**

Don Sancho por la graçia de Dios rey de Castiella, de Toledo, de Leon, de Gallizia, de Cordova, de Murçia, de Jahen, del Algarbe, / porque la puebla que el rey don Alfonso, mio padre, e yo mandamos fazer en Segura de Guipuzcoa se poble meior e de meiores omes para mio serviçio, ten_/go por bien que quantos fijosdalgo son y poblados o venieren y poblar d'aqui adelante, que sean quitos de todo pecho ellos e los sus solares e que non den fonsade_/ra nin otro pecho nin derecho ninguno e que sean libres e quitos asi commo eran en los sus solares que ante moravan e los lavradores horros que quisieren y venir poblar / que vengan y e que pechen por lo que ovieren en esta puebla en aquellas cosas que les y mandare e toviere por bien, mas que non pechen en otro logar por algo que ovieren. E por / les faser más bien e más merçed, tengo por bien que las ferrerias que son en Legazpia masuqueras que estan en yermo que los fazen robos los malos omes e los robadores, que / que vengan más çerca de la villa de Segura que las poblen porque sean más abondadas e más en salvo. E mando e defiendo firmemente que ninguno non sea osado de / les yr contra esta merçed que les yo fago, sinon qualquier que lo fiziese pecharmi en pena mill maravedis de la moneda nueva e a los pobladores de Segura todo el danno / doblado. E d'esto les mande dar esta mi carta seellada con mio seello de çera colgado. Dada en Vitoria dizeocho d'Abril era de mill e CCC e veyn_/te ocho annos. Yo Martin Peres la fiz escrivir por mandado del rey. Librola el obispo d'Astorga.

1290eko apirilaren 18a **Segura**

Don Sancho por la graçia de Dios rey de Castiella, de Toledo, de Leon, de Gallizia, de Sevilla, de Cordova, de Murça, / de Jahen, del Algarbe, a todos los fijosdalgo de Guipuzcoa, salut e graçia. Los de la mi puebla de Segura se me enbiaron querellar e dizen que quando al comienço que aquella puebla se fizo que / venieron y poblar fijosdalgo e otros omes cada uno desenparando sus casas e sus devisas e sus logares por las franquezas que el rey mio padre les dava. E agora quando ellos van a sus / tierras e llas sus devisas e plantan maçanos o lavran algun heredamiento tan bien en lo suyo commo en los mis exidos que ge lo caiades e les non dexades lavrar, e que non les dexades cortar lenna nin ma_/dera para sus casas en los montes, e que les vedades los pastos e que les çerrades lo camino poro [*sic.*] que las cosas que an menester para mantenençia de su logar. Et esto que ge lo fazedes porque vinieron / poblaren aquel logar que es mio serviçio e que les dezides que si se despoblaren d'aqui que en todo que les daredes parte. E nos bien sabedes que yo parte he en los montes e en los pastos e en las aguas e / caminos e nunca partiestes comigo porque los mis pobladores non se siervan d'ello asi commo vos. E demas que son ellos deviseros en sos logares asi commo nos mismos e pidieronme merçed que / mandase y lo que toviese por bien. Onde vos mando e tengo por bien que todos los que son

pobladores en Segura agora o seran d'aqui adelante que planten e labren sus heredamientos en sos devisas o / en sus logares asi commo lo fazian en ante que y viniesen poblar. E otrosi que se siervan de los mis montes e de los pastos e de las aguas e de los exidos e de los caminos guardando los mis / derechos que yo devo aver. Defiendo firmemente que ninguno non sea osado de les yr nin de les pasar en neguna manera contra esta merçed que les yo fago, sinon qualquier que lo fiziese pechar / mi a en pena mill maravedis de la moneda nueva. E mando a qualesquier que agora son o seran d'aqui adelante merinos en Guipuzcoa que non consientan que ninguno les pase contra esta merçed que les yo / fago. E d'aquel que lo fiziere que recabde d'el la pena sobre dicha para fazer d'ella lo que yo mandare. E non faga ende al sinon a ellos e a quanto oviesen me tornaria por ello. E d'esto man_/de dar esta mi carta seellada con mio seello de çera colgado. Dada en Vitoria dizeocho dias de Abril era de mill e CCC e veynte e ocho annos. Don Marino obispo de Astorga la mando façer / por mandato del rey. Yo Johan Dominguez de Bue[*karrakatuta*] la fiz escrivir.

1290eko maiatzaren 12a **Burgos**

En el nombre de Dios Padre e Fijo e Spiritu Santo, que son tes personas e un Dios; e de la bienaventurada / Virgen Santa Maria, su Madre, et a onra e a serviçio de todos los santos de la corte çelestial. Por grand sabor que avemos de meiorar en el tienpo los nuestros logares, segunt la manera / que los fallamos primero, e porque los de nuestro sennorio nin pueden aver graçia nin franqueza fueraas ende tanta quanta les viene de nos. Por ende conviene que ge la demos nos ca las graçias da_/las el nuestro Sennor Dios a los reyes e a los prinçipes e ellos han las de conpartir por los suyos segunt que es mester. Por ende aviendo grant sabor de levar la nuestra puebla de Se_/gura adelantre et de les fazer mucha merçed, queremos que sepan por este nuestro privillegio todos los que agora son e seran d'aqui adelante commo nos Don Sancho por la graçia de Dios rey de Castiella, de Toledo, de Leon, / de Gallizia, de Sevilla, de Cordova, de Murçia, de Jahen, e del Algarbe; en uno con la reyna donna Maria mi muger e con nuestros fijos el infante don Fernando primero e heredero e con don Alfonso e con don Hen_/rrique, por fazer bien e merçed a los pobladores de la nuestra puebla de Segura e porque los privillegios que el rey don Alfonso nuestro padre les dio se perdieron quando la villa se quemo, otorgamos a los que agora y son e seran d'aqui / adelantre, para siempre jamas, que ayan los fueros e las franquezas que han los de Bitoria en todas cosas. Et mandamos e defendemos que ninguno non sea osado de yr contra este privillegio para quebrantarlo nin para / minguarlo en ninguna cosa, ca qualquier que lo fiziesse avrien nuestra yra e pecharnos ye en coto mill maravedis de la moneda nueva, e a los pobladores sobredichos de Segura todo el danno dovlado. Et porque esto / sea firme e estable mandamos seellar este privillegio con nuestro seello de plomo. Fecho en Burgos viernes doze dias andados de mayo era de mill e CCC e veynte e ocho annos.

Testu hauek izaera publikoa duten testuak dira, autoritate publikoak, erregeak, emandakoak baitira (Gaztela-Leongoak hain zuzen ere, garai hartarako Gipuzkoa Gaztelan zegoenez). Testuak juridikoak dira, eta lehen eskukoak. Darabilgun transkripzioa Eusko Ikaskuntzak egina da (Díez de Salazar Fernández, 1985), jatorrizko testuetatik Erdi Aroan egindako kopietatik, zeren jatorrizkoak galduta

daude hirurak eta, ondorioz, hurrengo erregeek egindako berrespenetatik edo konfirmazioetatik hartu dira (lehena, Gasteizen 1290eko apirilaren 18an Antso IV.ak eman zuena eta bere aita Alfontso X.ak emandakoaren konfirmazioa dena, Alfontso XI.aren 1331ko eta 1342ko berrespenetatik[255] hartu da; bigarrena, Gasteizen 1290eko apirilean emandakoa ere, Fernando IV.ak 1300ean eta Alfontso XI.ak 1331n eta 1342an egindako berrespenetatik, etab.; azkena, Burgosen 1290eko maiatzaren 12an egina dena, Petri I.ak 1351n egindako berrespenetik[256] hartu da).

Hiri-gutunak dira sarritan gure hiribilduetako artxiboetan aurkitzen ditugun lehen aztarna dokumentalak, haiek baitziren harremanak idatziz garatzen hasi ziren garaiko adierazleak, eta horrela gertatzen da Seguran ere. Horrek ez du esan nahi aurretik ez zenik traturik edo erabakirik hartzen, inoiz populatutako lekuei ematen baitzitzaien hiri-gutuna (adibidez, Agurain herrixkari *Salvatierra* fundatzeko hiri-gutuna ematen zaio Seguraren garai bertsuan[257]). Hizkuntza, boterearen hizkuntza da, gaztelania, Gaztelako koroan administrazioan erabiltzen zena eta hiribilduko kontzejuaren administraziorako erabiliko den berbera, beraz, dokumentu idatzietarako erabiliko dena. Horrek eskatzen ditu hizkuntza hori ezagutzen duten eskribauak, eta agintariak ere (behintzat ulertzen zutenak). Hau guztia batez ere XIV. eta XV. mendetik dokumentatzen da argi eta garbi (Vives eta Aguinagalde, 2003: 22-24[258]). Guri dagozkigun dokumentuak B sekzioko ("Sustapena") lehen negoziatuan edo atalean daude: "Antecedentes Históricos" deituan, non orotara 44 dokumentu dauden, ia denak Segura hiribilduari emandako pribilegioak (Vives eta Aguinagalde, 2003: 28-31).

Egilea Antso IV.a *Bipila* (1285-95) da Alfontso X.a *Jakintsua*ren semea, eta testu hauek egin zituen errege gisa aginduak emanez, hortik bere publikotasuna. Antso IV.a errege oinordeko izatera iritsi zen, bigarren semea izanik, bere anaia Fernando de la Cerda hil eta beronen semeari (Alfontso de la Cerda-ri) Alfontso X.ak oinordekotza kendu ostean. Berez, legediaren arabera, *Siete Partidas* deituek agertzen zutenagatik Alfontso de la Cerda-ri zegokion oinordekotza, eta konpentsatzeko Jaenen erreinu bat egin nahi izan zion (bere emazte eta errainaren haserrearen aurrean). Hori dela eta, Antso IV.a haserretu eta gerra zibila deklaratu zion aitari. Musulmanen laguntzarekin borrokatu ziren bata bestearen aurka, baina gorteen laguntza izan zuen Antsok, eta Alfontso X.aren heriotzarekin amaitu zen, Antso IV.a tronura iritsi zenean erresuma osorik hartuta (eta gerran zirela aitak Alfontso de la Cerdakoa-ren alde aldatutako oinordekotza baztertuta). Jaun asko zigortu zituen Antso IV.ak, eta haien artean Lope Diaz Harokoa, Bizkaiko jauna,

255. Kurioski Legazpiko Udal Artxibategian ere bada testu honen XV. mendeko kopia bat.

256. Honen irudia ikusteko (Vives eta Aguinagalde, 2003: 27).

257. Hiribildu horri buruzko datuak ikusteko: E. Pastor (1986).

258. Artxiboei buruz, dokumentazio motari buruz eta, oro har, idazketari buruz, eta zehazkiago Segurari buruzko dokumentazioaz nahiz Segurako artxiboaz datu gehiago ikusteko ere ikus erreferentzia bibliografiko bera.

hil zuen. Tarifa aldean borrokatu zen musulmanen aurka eta bere iloben aurka Aragoin. Tuberkulosiak hil zuen Toledon eta bere 9 urteko semeak jarraitu zion koroan: Fernando IV.ak, Maria Molinakoa amaren tutoretzapean. Istilu ugari egon ziren bere gaztetasuna aprobetxatuz. Hiribilduak fundatu zituen, nahiz eta, guri dagokigun aldean, bere aitaren indarrarekin izan ez bazen ere.

Testuinguru historikoa, XIII. mendearena da, Gaztelan sartu ostean, politikoki, eta loraldi ekonomikoaren garaia da Europan, baina mendearen bukaeran hazkundeak gailurra jo zuen eta krisia sortzen hasi zen leku batzuetan[259]. Hiribilduen sorrera bigarren sorrera-garaia da Euskal Herrian, ekonomia ardatzaren aldaketa aprobetxatuz sortzen diren hiribilduen garaia, Meseta kostaldearekin lotzen duten bideetan kokatzen diren hiribilduen garaia, Gaztelako artilea eta euskal burdina Europara esportatzen den garaian sortzen direnena, zeintzuen helburu nagusia, merkataritza bultzatzea eta ekintza ekonomiko berri guztiak aurrera eramatea eta babestea den (artisautza ere bai)[260]. Testuinguru horretan eman zitzaion hiri-gutuna Segurari eta fundatu zen Alfontso X.a *Jakintsua* errege zela Gaztela eta Leonen, baina galdu egin zen sute batean (berrespen hauek horrela diote) eta Antso IV.ak berriro eman zuen fundazio berria, aurrekoa (bere aitarena) nolabait berretsiz.

Segurako hiri-gutun berri honek bi dokumentu ditu eta hirugarren bat osagarri gisa. Hiri-gutuna diren bi dokumentuen originalak galduta daude eta XIII. mendearen bukaerako eta XIV.eko kopiak gordetzen dira, esan bezala. Hirugarren dokumentu osagarriaren originala gorde da; aldiz, hirugarren horretan Vitoriako foruak ematen zaizkie segurarrei. Hiri-gutuna Gasteizen eman zien Antso IV.a *Bipila* Gaztela-Leongoak 1290eko (era 1328) apirilaren 18an; bi dokumentu dira berez, gutuna eta osagarria; eta maiatzaren 12an, urte berean eta leku berean, errege berak Vitoriako forua eman zien.

Lehen gutunean erregeak dio berak eta bere aitak agindu zutela Seguran hiribildua egitea, eta bertara bizitzera joaten ziren aitoren semeek eta beren orubeek ez zutela petxarik (erregeari ordaindu beharreko zergak) ordaindu behar (ezta *fonsadera* ere, gudura joateko zerbitzuaren ordez ordaindu beharreko zerga edo prestazio publikoa jatorriz, gero zerga feudal bihurtua, edozein motatako lan-prestazio moduan eta gero espezietan eta dirutan kobratua, *ozterate* nafarra); aldiz, nekazariek ("labradores orros") erregeak agindutako petxak (zergak) ordaindu behar zituzten Seguran (ez beste inon). Mesede egiten die, orobat, Legazpin ziren burdinolak ("masuqueras" 'agorrolak') Segurara eramateko, babes gabe zirelako landaren

259. Aldiaren bukaeraz eta geroko depresioaz G. BOIS (2001): *La gran depresión, siglos XIV-XV: el precedente de una crisis sistémica*, Biblioteca Nueva, Madril.

260. Ikus adibidez, Ernesto García Fernández (1998): "Hiribilduen sorkuntza prozesuak eta herri eraketa (XI.-XV. mendeak)", *Lur Entziklopedia tematikoa: Euskal Herriaren Historia*, Lur, Donostia, edo Idem (2004): "El mundo urbano", *Historia de Euskal Herria. Historia general de los Vascos,* Lur, Donostia.

erdian "malos omes e los robadores" direlakoek erasotuta. Bete zedin, 1.000 marabediko isuna kontra egiten zuenari eta kaltearen bikoitza ordaindu behar zuen. Martin Perez eskribauak idatzarazi zuen, Astorgako apezpikuak aginduta.

Bigarren testuan erregeak dio bere herria zen Segurara bizitzera joan zirenek, bere aitak eman zizkien pribilegioengatik joan zirela, ordura arte beraienak ziren etxe eta jabetzak utziz (*sus casas e devisas e sus logares*). Segurara joandakoei ez zitzaien lurrak landu eta sagarrondoak landatzen uzten errege *exidoetan* (hiribilduari emandakoetan), ez eta mendietan etxerako egurra ateratzen, ezta larreak erabiltzen. Horregatik, hiribilduari emandakoak uzteko eskatu zieten Segurako auzokideek hiribildutik kanpora lurrak lantzen jarraitzen zutenei. Baina erregeak agindu zuen *diviseros* ziren haien lurretan landa zezatela eta aldi berean berak hiribilduari emandako bere mendi eta larreak erabil zitzatela (erregearen eskubideak babesean geratuta). Hori betearazteko Gipuzkoako merioak indarra zuen eta 1.000 marabediko isuna ezarri zuen. Erregearen izenean Marino Astorgako apezpikuak bidali zuen egiteko eta eskribau burua Johan Dominguez de Bue[…]k idatzarazi zuen.

Azkena, Burgosen eman zuen Antso IV.ak 1290eko (era 1328) maiatzaren 12an, Segura hiribilduak aurrera egin zezan, eta bere aita Alfontso X.ak emandako pribilegioak sute batean galdu zirenez, Vitoriako forua eman zitzaien berriro (Logroñokoaren familiakoa[261]). Eta aurka joaten zenari 1.000 marabediko isuna.

Beraz, badirudi, lehen fundazio bat izan zen arren Alfontso X.aren garaian, iritsi zaigun pribilegio- eta fundazio-gutuna 1390ekoa dela eta hiru dokumentutan garatu zuela Antso IV.a errege gaztela-leondarrak. Ez dakigu aurretik zein pribilegio jaso zituen edo zein foru jaso zuen eta noiz izan zen berau, baina fundazio berria edo berritzean jasoko duena Vitoria hiribilduko forua da (Logroñokoan oinarrituta Antso VI.a Nafarroakoa *Jakintsua*k eman ziona 1181ean), eta gero gehitzen zaizkio ezaugarri berriak. Batetik bertara bizitzera joan daitezkeenak aitoren semeak eta nekazariak dira; lehenek ez dute zergarik ordaindu beharrik, salbuetsiak zeuden (baita gerrako *fonsadera* ordaintzeaz ere), eta, ostera, nekazariek erregeak agindutako eta eskatutako petxak edo zergak ordaindu behar zituzten (baina bakarrik Seguran eta ez beste inon, errege-jurisdikzio berri honen menpe geratuz gutunaren bidez). Abantaila ekonomikoak eman zizkien; bertara bizitzera joango zirenei hiribilduaren barrutitik kanpora zituzten lurrak mantentzen eta erabiltzen uzten baitzien (*divisero* ziren lurretan), eta aldi berean hiribildukoek zituzten eskubide berdinak zituzten hiribilduari erregeak utzitako mendi eta larreetan (egurra jasotzeko, urak erabiltzeko, abereak bazkatzeko…)[262]. *Divisero* izatea oinordeko eskubidea izatea zen (jabea izatea nolabait, jaraunsteko hala behar denez izan), eta XIV. mende ingurutik aurrera aitoren seme izatearen sinonimo bihurtu zen; kasu honetan

261. Ikus datu gehiagorako hiribilduen mapaz egindako iruzkina.

262. Gogoratu behar da, erregeak lur huts eta abandonatuen jabeak izaten zirela, eta horregatik baso eta mendiena ere bai, eta haiek erabiltzen uzten die barruti gisa emandako lurretan hiribilduei.

landatzen zutenez ari da, nekazariez, pentsa daiteke, baina edonola ere beren lurrak dituztenez. Horrez gain, Legazpiko olak erakartzen dira Segurako barrutira, babestuak izan daitezen hiribilduaren inguruan, zeuden lekuan lapurren esku baitzeuden, ez baitzegoen babesik haientzat, babes militarra agian, baina jurisdikzionala ere eskainiko ziena, jakina. Bere pribilegioak bete zitezen isuna jarri zuen eta Gipuzkoako merioa arduratu behar zen betearazteaz, erregearen ordezkaria probintzian, alegia. Ikus ditzagun testuen testuingurua eta zehaztasun hauek ematen diguten irudia astiroago.

Suteak ohikoak izaten ziren garai hartan, eraikuntza materialik erabiliena egurra izan zelako Aro Berria oso sartuta egon zen arte. Hiribilduetan askotan harriz egindako eraikin bakarrak eliza, eraikin publikoak (kontzejuaren etxeak eraiki zirenean Behe Erdi Arotik aurrera, eta askotan jada, Aro Berrian), eta auzokide aberats eta boteretsuen dorretxeak izaten ziren, eta, jakina, harresia, baina azken hau ere hiribildua sortu berritan, askotan, egurrez egindako hesi hutsa izaten zen, zuresia alegia, eta ez harresia. Harriz eraikitzen zenean ere, egur asko erabiltzen zen, eraikinaren lau hormak izan ezik, estalkia eta barne-banaketa guztiak egurrez egiten baitziren.

XVI. mendetik aurrera, pixkanaka adreilua eta ahal zutenean harria ugaritzen joan ziren hormak egiteko, baina bien bitartean, suteak "eguneroko" gauza ziren hiribilduetan. Hori dela eta, sarri galtzen ziren dokumentuak eta hiri-gutunak haien artean ere inoiz[263]. Ondorioz, hiribilduek neurriak hartu zituzten: artekormak jartzea, hots, hiribilduak bitan banatzea harresi bidez suteen eragina gutxitzeko (Elgoibarren, esate baterako); ordenantzak sortzea suteen arriskuak gutxitzeko (Bergaran gorde direnen modukoak), etab. (Bengoetxea, Cajigas, 1997 eta Basterretxea, 1991).

Seguraren fundazioa, *puebla*rena, hiribilduarena, beraz, errege gaztelar batek egin zuen Alfontso X.ak Gasteizko forua emanez, ustez 1256an. Gipuzkoako lurrak Alfontso VIII.ak konkistatu zituen nafarren eskuetatik 1200ean eta, harrezkero, errege-lurrak ziren, beraz, ez zuten beste jaun baten mendekotasunik edo jaurgorik erregearena baino (horri deitzen zaio "errealengoko lurra", erregearen jurisdikziopean zena, erregea zuten jauna, horrek zekartzan abantailekin; "jaurgo-

263. Horrela gertatu zen, dirudienez, adibidez, Durangon seguru asko; Joan I.ak egindako 1372ko hiri-gutunaren berrespena iritsi ez zaigularik, horrela adierazten dute zenbait dokumentu-aipamenek eta Belén Bengoetxea eta Silvia Cajigas-ek (1997) egindako indusketek agertzen dute aipamen horiekin lotu zitekeen suterik egile honen hipotesi gisa (Agirre García, J. (2004): "La Vida social urbana en el País Vasco: el ejemplo de la villa de Durango", *Sancho el Sabio,* **20**, 35-69, Sancho el Sabio Fundazioa, Gasteiz); aldiz, XVI. mendean jasan zuten sute izugarrian lortu zuten berrespena salbatzea, kontuan izanda ez zela hiribilduaz askorik zutik geratu: eliza, Lariztarren dorretxea eta harresia baino ez. Berreraiketa egitean adreilua sartzen hasi ziren etxeetan ugari (Agirre García, J. (2001): *1554ko sutea: hondamendiaren ondorioak Durangoko gizartean eta ekonomian*, Etxezarreta 5, Durangoko Arte eta Historia Museoa, Durango).

lurra" deituaren aurrean, jaun partikular baten jurisdikzio eta jaurgopean zena, feudalismoaren hedapenaren ostean ohikoa zenez) (Orella, 2003: 43).

Foru hori gorde ez denez, komeni da gai bereko antzeko foruekin konparazea eta jaso zuen Gasteizko *Nueva Victoria*koarekin. Alfontso X.ak Gasteiz kostaldearekin lotzeko asmoz fundatu zuen Segura, beste zenbait hiribildurekin batera: Salvatierra Agurainen, Tolosa, Ordizia eta, egile batzuen ustez, Hernani ere bai, beharbada. Fundazio hauek oso onuragarriak izan ziren ekonomiarako, beraz, esan dezakegu Seguraren fundazioaren arrazoi nagusia ekonomia bultzatzea izan zela, merkatarien nahiak betetzeko horrela (besteak beste, Gaztela osoan bidesariak ordaintzetik libre ziren Gasteizi emandako forua jaso zutenak, eta berdin segurarrak, forua eman zitzaienean).

Handik gutxira, Gasteizko hiribilduak, eta fundazio hauek emandako bermeari esker, Mesta Kontseiluko[264] artilea kostara eramateko eta kanpoan saltzeko sortu zen Gaztelako Paduren Ermandadearen[265] burutza lortu zuen. Fundazio-gutun horrekin, Gasteizi emandako jurisdikzio, pribilegio eta baldintzak eman zitzaizkion eta bertara egokitu ziren, beste bi dokumentuetan ageri denez (Orella, 2003: 44). Ez dakiguna da aurretik zer zegoen Segurako nukleoan. Pentsa daiteke testuak dioenagatik, aurretik ere izango zela herriguneren bat, bere izaera bazuena, agian, hiri-gutunean aipaturik agertuko zena, baina, ez denez dokumentua gorde, ez dugu ezagutzen; aldi berean, bertako barrutia ere finkatuko zen, hobeto ezagutaraziko zigukeena, baina hori ere jakiterik ez dugu.

Historialari klasikoen ustez, bada, Seguraren jatorrizko populazio-gunea San Andres Erratiolazako ermitaren ingurua izan zen, eta gero aldatu ziren gaur egunean dagoen lekura (Lope Martínez de Isasti, Pablo Gorosabel), Oria ibaiaren alboan dagoen mendixka baten gainera, bidea bertatik pasaraziz. Hau izango zen gune zaharra, hiribildu aurrekoa, unibertsitate eta haranek osatzen zuten antolaketaren barruan, hain zuzen ere, Altzaniako partzuergoaren barruan zegoena (Orella, 1987: 14). Gerora, hiribildua fundatuta, bere elizak ermita-izaera izan zuen, parrokiarena galduta (hiribilduan egin zen Andre Mariaren eliza berriaren esku geratu zen parrokia-izaera), baina XIV. mendearen bukaeran kofradia garrantzitsua zeukan oraindik, ordenantzak egin zituena eta hiribilduko etxeen izenak dakar-

264. "El Honrado Consejo de La Mesta", 1273an fundatu zuen Alfontso X.ak berak, Gaztelan produzitzen zen artilea eta berau ekoizteko trashumantzia edo abereen ibiltaritza antolatu, bultzatu eta pribilegiatzeko asmoz.

265. "La Hermandad de las Marismas de Castilla" 1296ko maiatzaren 4an sortua: Castro, Laredo eta Santander, Bermeo, Getaria, Donostia eta Hondarribiak osatzen zuten Gasteizekin batera (Orella, 2003: 51-52 eta Barrena, 2003: 124). Barrenak uste du horregatik dituela gaztelua eta olatak azpian, baina harresiak edo gazteluak hiribilduen ezaugarriak dira, armarrian agertzen dena beti (edo haren ateak edo haien giltzak) eta urak ibaia adieraz dezake, nahiz eta Segura ez egon benetan ibaiertzean. Ikus ere García de Cortázar *et al.* (1979: 98-101), 24. dokumentua.

tzana[266]. Eliza horren inguruan merkatua eta guzti egiten zen, izaera konplexuko nukleoa izango zela adierazten duena, hots, ez bakarrik nekazaritzan aritzen zirenena (Orella, 2003: 44-45).

Hiribildua 1256an sortu zutela uste dute egileek, esan bezala (Gorosabel, 1967: I, 441 eta Barrena, 2003: 116-123), urte hartan fundatutako beste batzuekin batera, Goierrin hiri-gutuna jaso zuen lehen gune bihurtuz. Baina urtea ez da zehatza eta ez dakigu ere ziur non kokatu zen hasieran hiribildua, historialariek orain dagoen lekuan izan zela uste duten arren. Martínez de Isasti-k dio San Andresen bertan fundatu zela eta sutea izan ostean hondatuta aldatu zutela gaur egungo lekura (berak gainera 1236 urtea aipatzen du bere idatzian, oker dagoena, Alfontso X.ak fundatu bazuen behintzat). Gorosabelek zuzendu zuen esanez, aurreko populazioa San Andres aldean zegoela eta sute batek hondatuta 1256an hiribildua fundatu zuela Alfontso X.ak 1256an, gotortzeko egokiagoa zen lekuan (Gorosabel, 1967: IV, 495).

Hala ere, E. Barrenak dioenez (2003: 117), sutea gaur egunean duen kokalekuan izan zen (antza), eta behintzat fundazioa gertatu ostean (hala dio Antso IV.aren testuak); beraz, ezin da onartu fundazio aurreko sutea (beste bat ez bada, eta egile klasikoek ahozko tradiziotik era nahasian jasotako berria ez bada), eta gutxiago, gainera, hiribilduaren fundazioaren arrazoi nagusi gisa. Sutea 1280 ostean izan zela uste du E. Barrenak berak aztertutako dokumentazioaren arabera (2003: 118). Horrela, San Andres parrokiaren lurretan sortu zuten hiribildua, gune berria, babes bila "Segura" izenak dioen moduan 'ziur dena', izen estrategikoa hartuz askatasun juridikoei lotua bainoago[267], eta muga-izaera edukita Nafarroarekin, eta, betiere, gune "berria" zela adierazi nahian izen berriarekin (jurisdikzio eta eskubidez, kokalekuz baino). Beraz, fundazioaren arrazoi nagusia ekonomikoa izan beharrean —Meseta eta kostako lotura moduan (Roldán Gual, 1991) eta San Adrianetik gertu zegoenez (Martínez de Isasti, 1985: 563-567)—, estrategiko-militarra dela uste du E. Barrenak (2003: 120-121). S. Tena-k (1997: 150-151) uste du interes ekonomikoak izan zirela, eta, aldi berean, populazioa biltzeko defentsarako eta errege-boterea nobleen aurrean indartzeko.

266. Hiribildua eta bere kontzejua hobetu eta indartzeko asmoz 1374an 115 auzokidek sortu zuten kofradia San Andres Erratiolazakoa izatea frogatzat jotzen du E. Barrenak (2003: 117), elementu aglutinatzaile gisa antzinako nukleoa izango baitzen. Antzeko prozesuak izan ziren hiribilduak fundatzean, aurretik bazegoen populazio-gune baten inguruan, San Esteban Tolosan, non hiribilduaz aurreko gunea hura zen (J. Agirre Mauleon (1995): "San Esteban Tolosakoa", *Arkeoikuska 95,* Gasteiz, Eusko Jaurlaritza), edo Durangon, San Bizente Mikeldirekin eta San Pedro Tabirarekin, bereziki bigarrenarekin hiribilduari izena eman baitzion, Villanueva de Tabira de Durango gisa.

267. Guardia (Laguardia) edo Urizarra (Peñacerrada) gisa, eta ez Ordiziaren moduan (Villafranca) edo Agurainen (Salvatierra) moduan, baina horiek ere izen euskalduna zuten nukleoaren izena beharrean beste bat eman zitzaien guztiei, eta J. L. Orellak (2003: 44) uste du beste hainbeste gertatuko zela Segurarekin —hala eta guztiz ere, badira salbuespenak, zeren Bergaran Ariznoari "Villanueva de Bergara" jarri zitzaion, baina Bergara ere euskara da, Ibargaraitik datorrela pentsatzen da—.

Edonola ere, erregearen posizioa indartzen zuten hiribilduek, bertako biztanleak bere mendekoak baitziren eta ez beste inongo jaunenak, eta berari zor zioten leialtasuna eta zerbitzua (edozein zela ere), esandako moduan. Baina defentsa-izaera estrategiko horri lotuta, kuriosoa da ikustea ez ziotela erregeari *ozteratea* pagatu behar, agian inguruaren defentsa beren esku zutelako eta hori haien kontu egiten zutelako.

Gizarte bikoitza agertzen da testuetan adierazia hiribildu berrian biziko dena: alde batetik aitoren seme-alabak (*hidalgos*), zeintzuek ez duten ozteratea ordainduko (gerrako gastuei aurre egiteko zerga edo zerbitzua), ezta petxa edo eskubiderik (erregearen bestelako mendeko zergak) ere, ohiko morrontzaren kontrako foruen arauak dira, hiribilduei emanak. Jaiotzez ziren aitoren semeak eta hiribilduan bizitzean ere mantendu egingo zuten haien izaera. Askeak ziren, zergarik pagatu ez eta inongo beste jaunen mendekoak ez zirenak, izaera juridiko osoarekin, beren jatorrizko oinetxeak bezala (Orella, 2003: 46). Horrez gain, hiribilduko auzokide izateak zekarzkien eskubideak zituzten, jurisdikzio bereziarekin: barrutiko mendien erabilera, ofizioetan parte hartzea, etab. (badirudi, hala ere, denborarekin eta bikoiztasuna zegoen hiribilduetan hasieran auzokide-eskubideari eman ziotela garrantzi handiena, haien onura lortzeko, baina gero, denborarekin, aitoren seme izaerari, zergarik ez ordaintzeko, Tolosan egin zuten moduan (Orella, 2003: 47 eta 6. oharra)[268].

Bigarren taldea nekazariak ziren, inguruko nekazari askeak, esandako moduan, baina zergak (petxa) ordaindu behar zituztenak. Nekazari haien ezaugarriak, beraz, erregearen zergapekoak zirela eta izaten jarraitu behar zutela, hiribilduan zituzten ondasunengatik ordainduz, baina ez handik kanpora zituzten ondasunengatik[269], behintzat ez Segurako hiribildua ez den beste inon. Azkenik, *horros* izaera zeukaten[270], hots, nekazari askeak, jaun baten morroi ez zirenak (Orella, 2003: 47), erregearen mendeko zuzenak ziren nekazarien moduan egile horren arabera (errealengoko nekazariak), eta aitoren semeen pribilegioetatik libre zirenak (Barrena, 2003: 136: 31. oharra). Horiek ez dira leku guztietan onartzen, baina Seguran bai, aurre eginez aitoren semeek "komunitate berri bat eratzearen aurka" egindako indarrari Elena Barrenaren ustez (2003: 123), beren lurrak erabiltzeko eskubidea emanez eta zerga Seguran bakarrik ordainaraziz eta erregeak hari emandako barrutian zeuden basoak eta mendiak erabiltzeko eskubidea onartuz. Ikusten da testuan ere, soro edo lursailez gain (laboreetarako-edo izango zirenak), sagastiei ematen

268. Arazo hau bukatu zen gipuzkoar orok aitoren seme izaera lortu zuenean.

269. Berdina agintzen zaie Tolosakoei eta Ordiziakoei beren hiri-gutunean (Orella, 2003: 54. or: 7. eta 8. oharrak).

270. Idem (Orella, 2003: 54: 7. eta 8. oharrak). "Horros" edo "orros" adjektiboak 'askatutakoa' esan nahi du, izan daiteke esklabo askatua, adibidez, baina kasu honetan nekazariei buruz ari denez, morroi izandakoak baina askatuak izan diren nekazariez ari da, nekazari aske ez morroiez (azken batean hiri-gutun edo foruek morrontza ezabatu egiten zuten haien barrutian).

zaien garrantzia, euskal testuetan behin eta berriro aipatuak baitira Erdi Aroan, elikaduran zuen garrantzia agertzen diguna. Talde honek 1374an lortu zuen erregeari zergarik ez ordaintzea —Arrasateko *Mondragón*ekoek bezala— (Truchuelo, 1997: 27).

Hirugarren talde bat ere kontuan har daiteke Legazpiko olak erakarri zirenean babespean gera zitezen. Ola edo errementaldegi horiek, *ferrerias masuqueras* (*masuca* hitzetik eratorria dena), ur-indarrik gabe lan egiten zuten egile batzuen arabera —L. M. Díez de Salazar, adibidez— (Aspiazu, 1999: 68-69), baina zalantzak daude *ferrerías de monte* direlakoen berdinak ote ziren, hau da, haizeolak edo agorrolak ere deituak diren horien berdinak, hain zuzen. Haizeolak mendian egiten ziren, zulo bat eginez lurrean, eta labea gainean eraikiz; altueran egiten ziren haizeak bizitu zezan sua, burdin mea eta egur-ikatza labearen barruan jartzen ziren geruza alternoetan, mea urtu eta burdina beste elementuetatik banatzeko, gero kolpatuz landu ahal izateko eta, horrela, eskoriak kendu eta bigarren lanketan goritu eta lingoteak egiteko[271]. Ola horiek haranetara eta erreka ondoetara hurbiltzen joan ziren, egur-ikatza produzitzen zen lekuetara eta mea zegoen lekuetatik hurbil egoteko, eta geroago agertu ziren ur-indarrez zebiltzan burdinolak edo zeharrolak XIII. mendetik aurrera[272]. Baina, J. A. Aspiazuk ez du uste *ferrería masuquera* hitzak esanahi hori zuenik, haizeola edo agorrolarena, alegia. Egile horrek dioenez, altzairua[273] egiten zuten burdinolak ziren *masuquera*k eta haien maisuak *maestros masuqueros* deitzen ziren, olagizonak izan beharrean, behintzat berak Arrasaten XV. eta XVI. mendean ikertutakoaren arabera. Izan ere, desberdindu

271. Haizeolak edo agorrolak dira Oiola IVkoak Enkarterrin Iñaki Pereda-k egindako indusketetan (Pereda, 1992/1993).

272. Haranetara jaitsi ostean, azkenik Europa osoan XIII. mendetik aurrera ur-indarrez mugitutako burdinolak edo zeharrolak hedatu ziren (Bonnassie, 1994), lehen irin-errotari aplikatutako teknikak burdinaren ekoizpenari aplikatu zizkiotenean, olak ibaien eta erreken alboetara mugitu zituzten indarra erabiltzeko —esan behar da erromatarrek ezagutzen zutela ur-indarrez mugitutako zeharrola, baina ez zuten erabiltzen, bitxikeria gisa gordez—. Bi motatako oletan egindako banaketa hori F. J. Gómez Piñeiro-k egin zuen lehendabizi eta I. Pereda-k jaso eta jarraitzen du (1992/1993: 110).

273. Burdinolako kideek altzairua definitzeko erabiltzen dutena produkzioaren metodoa da: burdin mea sei orduz-edo berotuta burdina biguna lortzen zen ("burdina gozoa" ere deitua), erraz lantzen zena; aldiz, zortzi edo bederatzi ordu ostean, askoz gogorragoa zen burdina ateratzen zen, altzairua, alegia, gero goritu eta uretan hoztuta "tenplatu" zitekeena eta are gehiago gogortu. Euskal Herrian zenbait burdin mearekin, adibidez Udalaitzekoa (Arrasate), lehen erredukzioaren ostean, denbora laburrez izanda ere, lortzen zena oso burdina gogorra zen, baina aldi berean kolpatuta erraz apurtzen zena, ez zelako batere malgua ("raya" deitzen zutena); *raya* hori berriro landu behar zen benetako altzairua lortzeko, karbonoa kenduz (raya baino malguagoa zena), prozesu ez-zuzenaren bidez (burdin mea labean urtzen zegoela raya zatiekin nahasiz; ondoren mailuz jo eta gero uretan hozten zen), beraz, Arrasaten egiten zen moduan. Baziren Euskal Herrian altzairua modu zuzenean lortzen zuten burdinolak, baina Arrasaten egiten zena baino kalitate baxuagokoak ziren. *Raya*k baino karbono gehiago hartzen bazuen arrabioa lortzen zen lehen urtuketan, gero hori berriro landu behar zen burdina malguagoa lortzeko (Azpiazu, 1999: A gehigarria).

behar ziren burdinola motak *masuquera* eta *tiradera* ziren, altzairuaren produkzioari zegokionez. *Masuquera* izenekoak burdin mea lehen altzairu ez guztiz garbia bihurtzen zuen; eta *tiradera* edo *olatxo* deituan, ostera, *masuquera*n ateratako altzairua landu eta altzairu garbia eta kalitatekoa bihurtzen zen, *tenacero*en edo kurrika-erabiltzaileen eskutik —beren lanaren garrantziagatik altzairuaren salmentan eragiten zutenak—. Bada, ur-indarrez zebiltzan olak edo zeharrolak ziren (Azpiazu, 1999: 68-69). Burdinola taldeko kideen ustez, berriz, *masuquera* terminoak bilakaera jazo zuen Erdi Aroan, ondorioz, Segurakoak haizeola edo agorrolak izango ziren, baina XV.-XVI. mendetik aurrera aipatutakoak, berriz, altzairuaren lehen fasea egiteko ur-indarrez zebiltzan zeharrolak (Azpiazu, 1999: 216).

Zeharrolak edo ur-indarrez zebiltzan olak agertzen dira zuzenean eta argi dokumentatuak 1335ean Seguran bertan, *masuquer*ekin batera, eta Legazpiz ari den testuan (Orella, 2003: 54)[274]: «*avemos ferrerías masugueras e otras de / maço de agua e de omes*». Baina testua beste modu batean interpretatzen du Mertxe Urteagak (1996, 1999: 39 eta 2002: 8); izan ere, bere ustez masukera eta *de mazo de agua* bi burdinola mota dira, baina biak hidraulikoak —eta ez agorrolak, beste egile batzuek dioten moduan—, gizonen mailua erabiltzen zutenenen aurrean (giza indarra erabiltzen zutenak); bere ustez, masukeran egingo zen mea burdin totxo egiteko fasea (lehen burdinaren fasea) eta ur-indarrez zebilen mailuarenetan bigarren fasea (barra egitekoa edo beste forjak).

Luis Mª Bilbaok (1987: 64-65) uste du bakarrik giza indarrez zebiltzanak zirela masukera eta ur-mailua zerabiltenak ur-indarrez zebiltzanak (Segurako 1335ekoek bi sistemak zituzten batera); izenaren arabera lehenengo ur-indarrez

274. «Por razon e manera que avemos ferrerías masugueras e otras de / maço de agua e de omes nos e otros en Necaburu e en Legazpia […]» (Díez de Salazar, 1985: 24), 12. dokumentua, Seguran, 1335eko maiatzaren 15ean. Eta Orellak 11. oharrean dakar jarraipena, Seguran, 1335eko maiatzaren 15ean egindako testuaren jarraipena: «[…]nos e otros en Necaburu e en Legazpia e en otros logares de que labran la vena de Necaburu e de Hayzpuru e de Çamora e de Ocannu e de Barbaria […] la dicha vena es vsado de traer a la dicha villa de Segura e de tomar y su alvala de graçia e dende lebra los mercaderos e los duennos del dicho fierro a aquellos logares don entendiese aprovecharse de ello […] e suelen aver de esta villa el pan e la carne e al sidra e la çebada e avena e los otros abastamientos que les faze mester e son defendidods de los omnes malfechores por el apellido e por el defendimiento de esta villa […] e que ayan el moleo del pan o del migo que ovieren a comer lo omnes de las dichas ferrerias de las ruedas e molinos de la dicha villa de Segura e de su termino e non de otro logar» (Díaz de Salazar, 1985: 24). Horrek adierazten du Seguran zutela merkatua, burdinarentzat, janariarentzat eta ogia egiteko irina Segurako errotetan ehotzeko beharra zutela, beraz, bere jaurgopean zeudela (ikus ere Orella, 2003: 52 eta 20. oharra); eta kasu honetan gaizkileak aipatzen dituenean ez dugu zalantzarik lapur hutsez gain bandoen gerrari lotutako eta jaunen erasoei lotutako aipua dela XIV. mendean baikaude Behe Erdi Aroko krisian bete-betean (izurria iritsi aurreko eta Gaztelako gerra zibil aurreko garaia bada ere). Izan ere, XIV. mendearen bigarren erdian bere jurisdikzioan eta auzokidetzan sartu ziren: Legazpi, Idiazabal, Zerain, Ormaiztegi, Astigarreta, Gudugarreta, Mutiloa, Zegama, eta geroxeago Ezkio eta Urretxu eta Zumarraga ere (aldi batez izan bazen ere), babesa lortzeko "malfechores" deituen aurrean (Barrena, 2003: 116).

mugitzen zena mailua zen eta ez barkin edo auspoa; eta mazoa ur-indarrez zerabiltenak lehen burdin fasekoak ziren.

Burdinolakoek egindako hiztegi batean (Arbide *et al.*, 1980: 249-254) esaten da *maisukaria* edo *mazuquero* zela, urak zerabilen ardatzari lotutako gurpilak zeukan hortzetako bakoitza, mailua edo auspoa mugitzen zuena; *masuquero* eta *mazuquero* artean lotura fonetiko hurbila egoteak pentsarazten digu *ferrería masuquera* haiek ur-indarrez zebiltzan burdinolak edo ibarrolak zirela (Azpiazu eta Urteagak diotenez); eta, hasierako urteetan agorrolekin batera zirela martxan, beharbada 1335eko testuan zeuden besteek adierazten duten moduan (hots, *e otras de / maço de agua e de omes* moduan aipatuak; testua nahasia da halere, ez dakigu bi burdinola mota ziren, bata giza indarrez zebilen agorrola eta bestea ur-indarra bakarrik mailuari aplikatzen ziona M. Urteagak dioen moduan —fase neketsuenean erabiliko zena logikagatik agian, bada, burdina meatik banatzean, L. Mª Bilbaok zioenari jarraiki—, ala bakarra ur eta giza indarra erabiltzen zuena; edonola ere, *masuquera* edo *maisukariak* sistema osoari aplikatuko zion ur-indarra, auspoari zein mailuari, burdinaren produkzioaren fase batean edo bestean erabilia) (Legorburu, 2000: 56).

Orellaren ustez (2003: 48), 1290erako Segurak bere barrutia inguruko lurretan hedatua zuen Legazpiraino (Zerain, Zegama eta Mutiloa ere hartuz), beharbada inguruko hiribildu hurbilena edo boteretsuena zelako hurbilarazi zituen agorrolak; egia da, XIV. mendearen bukaeran inguruko herrietakoak Segurako auzokide egin ziren Ahaide Nagusiei ihesi —tentsioak sortu zituena— (Truchuelo, 1997: 36-37 eta 42-47). Izan ere, XIV. mendean (1335ean) emandako pribilegioek adierazten dute hornigaiak eta mea ere Seguratik igarota jaso behar zituztela agorrolek, eta antza tratua ona zen (Orella, 2003: 54: 11. oharra).

Gauza aldatu egin zen 1338an erregeak burdinolen forua egin zuenean, nahiz eta 1340an auzia sortu zuen Segurako eta Legazpiko olagizonen artean (Orella, 2003: 49). Horrekin hiribilduaren ahalmen ekonomikoa ere handitu zen eta bere biziraupena ziurtatu (Barrena, 2003: 124, etab.). Birfundazioan, aurrez hiribilduko auzokide zirenei kanpoan zituzten lurrak erabiltzen uzten zaie, hiribildua indartzeko, errekurtso faltaz desagertzeko arriskuan izan ez zedin, erregeak emandako lurretan mendia ustiatzeko eta berenak ziren lurrak lantzeko. Ondorioz, pribilegio hauekin eta ondoren emandakoekin (aipatu ditugu burdinolen ingurukoak eta beste batzuk jurisdikziozkoak), hiribilduaren indartzea lortu zen (Barrena, 2003: 125[275]).

Bestalde, hasierako gutunetan agorrolak Segurara hurbiltzeko neurria dator eta hori "*malos omes e los robadores*" egindako erasoetatik babesteko zen. Gauden garaian, gaizkile eta lapur hutseaz gain, bandoen gerrak sortu zituzten krisiari aurre

275. Erdi Aroaren hurrengo mendeetan izan zen hiribilduaren garapena ikusi nahi bada, Barrena (2003: 125etik) eta J. A. Achón-ek liburu berean duen artikulua (Intxausti, 2003).

egiteko jaunen erreakzioez eta ekintzez ari ziren testuak. Jaunen helburua beren errentak eta sarrerak handitzea zen. Hala ere, hori ez da garbi geratzen formulatuta hiri-gutunean —Ordiziakoan bezala— (Truchuelo, 1997: 29-30) eta 1335eko dokumentuan.

Ikusten denez, gutxienez bi talde ageri dira juridikoki (edo hiru olagizonak kontuan hartuta), gizartea konplexua da, hiribildura bizitzera joan zirenean lurraldearen berrantolaketa bultzatu zuena (Orella, 2003: 47), beste leku guztietan gertatu zen moduan[276]. Edonola ere, gizartearen talde ekonomikoen banaketa ikusita ere, kontsidera daiteke errementariena, nekazariez gain, hiribilduetan ohikoak baitira ekintza ekonomiko berriak deitzen direnak: merkataritza eta eskulangintza edo artisautza.

Testua, konparatu egin daiteke garai bereko beste fundazio- edo hiri-gutun batzuekin. Aguraingo *Salvatierra* ere 1256an fundatu zuen Alfontso X.ak; kasu horretan izen-aldaketa zehaztu zuen, gero Gasteizko *Victoria*ko forua eta eskubide guztiak eman zizkien, Segurari moduan, baina zehaztu zuen, ez zezatela ordain *moneda forera* deitutako zerga (jaunak kobratzen ziena bere lurrak lantzeagatik, kasu honetan erregeak), Gasteizen bezala asteartero merkatua egin zezaten eskubidea eman zien eta bertako elizen patronatoa beretzat gorde zuen (Iñurrieta, 1989).

Tolosa, adibidez, 1256an fundatu zuenean Alfontso X.ak berak, *Victoria*ko forua eman zien, eta zehaztu zuen bere petxero zirenak Gipuzkoako lurretan ezin zirela bertara bizitzera joan —bada, aitoren seme-alabei mugatuta geratu zen, Seguran ez bezala— (Roldán, 1991).

Arrasaten 1260an Mondragón fundatu zuenean Alfontso X.ak Gasteizi emandako foru bera eman zien, izena aldatuta, baina zehaztasunik gabe; aldiz, hurrengo urteetan pribilegioak gehitu zituen, 1262an bi gutunen bidez egurra hartzeko eskubidea ematen die egur-ikatza egiteko *ferreria*tarako eta gero bigarrenean Pazkoatan *massucas del fierro* direlako olek emandako zergatik salbuetsi zituen.

Ordiziako *Villafranca*koa hartzen badugu, badirudi 1268an fundatu zuela Alfontso X.ak, eta hari ere Gasteizko *Victoria*ko forua eman zitzaion, gehiago zehaztu gabe —ez barrutirik, ez besterik— (Martínez Díez *et al.*, 1991). Horiekin ikusten dugu inguruko foruak antzekoak izan zirela, foru-familia berdinean sartuak, foru bera jaso zutelako, baina desberdintasunak izan zituztela xehetasunetan (beharbada auzokoek eskatuta edo lekuarengatik zehaztu eta egokitzeko asmoz).

276. Bizkaian ere horrela izan zen, ikus Markinako hiribilduaren fundazioa. Gai horretaz I. García Camino-k ere hitz egin du aurreko garaietarako, ikus Argiñetako testu-iruzkinean datozen erreferentzia bibliografikoak informazio gehiagorako.

Bergaran ere, Alfontso X.ak Victoriako forua eman zuen, *Villanueva* izeneko hiribildua egiteko Ariznoa izeneko lekuan; 1268an, eta 1273an edozein petxa ordaintzetik salbuetsi zituen aitoren semeak (Crespo *et al.*, 1995).

Oso interesgarria da ikustea nola Antso IV.ak egindako berrespenetan badiren Tolosa eta Arrasateko *Mondragon*era bidalitako testuak (Valladoliden, 1282ko apirilaren 28an eginak), zeintzuetan berretsi egiten ziren hiribilduen pribilegio eta hiri-gutunak, ezetsiz, aitarekin izandako gudu zibila zela-eta, gorteek emandako pribilegioen ukatzea (Orella, 2003: 51). Hori izan zen Valladolideko Gorteek 1282an Antso erresumako buru hautatu zutenean, Alfontso hil baino 2 urte lehenago, semearekin zuen borrokaren ondorioz bere pribilegio guztiak ezetsi baitziren orduan ere; Seguraren kasuan, ordea, ez daukagu halakorik baina prozesu horretan lortuko zituzten haien gutunak ere, arrazoi gehiagorekin haiei erre egin baitzitzaien hiri-gutuna.

Laburbilduz, Segurako hiri-gutuna eredugarria da bere garaiko fundazioetan, alde batetik, mugako hiribildua izanik, babes-izaera gordetzen baitu inguruko biztanleentzat (Nafarroa eta Gaztela artean), baina baita ere, Meseta eta kostaldea lotzen zituen bidean kokaturik egotean, garaiko ekonomiarako oso garrantzitsua zen bidean kokaturik baitzegoen. Horrela, Gasteizeko hiribilduari emandako forua jaso zuen, bere abantaila eta merkataritzaren babesarekin, eta esplizituki ere artisautza bultzatzen da agorrolak bertara hurbilduz. Bestalde, gizartearen egoera pribilegiatua da, ohikoa denez, hiribilduetan, nahiz eta bi talde juridiko bereizten diren: nekazariak eta aitoren semeak (beste hiribildu batzuetan ere egin zen moduan). Zerga-ordainketan dute alderik handiena; izan ere, nekazariek erregeari zerga ordaindu behar baitzioten eta aitoren semeek ez, baina azken batean morrontzatik urruti, foruen ezaugarria ere badena. Berrespenak direnez, eta ez gutun originala, ez zaigu gordetzen barrutiaren zehaztapena, beraiek ezaguna zutenez berriro jarri ez zena. Hala ere, fundazioaren ezaugarri nagusiak gordetzen eta biltzen ditu, eta ezagutzeko aukera ematen du. Hortik testuaren garrantzia, bestela ez genuke ezagutuko fundazioaz inolako zehaztasunik.

BIBLIOGRAFIA

Arbide Elorza, I. *et al.* (1980): *Ferrerías en Legazpi*, Documento 25, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, Donostia.

Arizaga Bolumburu, B. (1978): *El nacimiento de las villas guipuzcoanas en los siglos XII-XIV*, Kriseilu. Donostia.

————, (1990): *Urbanística medieval (Guipúzcoa)*, Kriseilu, Donostia.

Azpiazu, J. A. (1999): *El acero de Mondragon en la época de Garibay*, Arrasateko Udala, Arrasate.

Barrena Osoro, E. (2003): "Segura: hiribilduaren sorreratik eskualdeko hegemoniara", *in* J. Intxausti Rekondo (zuz.), *Segura historian zehar*, Segurako Udala, Segura, 115-138.

Basterretxea, A. (1991): *Bergara: hiria Erdi Aroan*, Ikerlan Saila 2, Bergarako Udala, Bergara.

Bengoetxea Rementeria, B. eta Cajigas Panera, S. (1997): *Durango: Hiri egituraren aldaketa historikoak,* Durangar bilduma 3, Durangoko Arte eta Historia Museoa.

Bilbao, L. Mª (1987): "Introducción y aplicaciones de la energía hidraúlica en la siderurgia vasca, siglos XIII-XVII. Addenda et corigenda a una versión historiográfica", *Studia Historica. Historia moderna*, **V**, 61-75.

Bonnassie, P. (1994): *Erdi Aroko Historiarako berrogeita hamar hitz nagusi*, Gaiak, Donostia [Bonnassie, P. (1983): *Vocabulario básico de la Historia Medieval*, Crítica, Barcelona, lehen argitalpena (1981): *Les cinquante mots clefs de l'histoire médiévale*, Privat, Toulouse].

Crespo Rico, M. A.; Cruz Mundet, J. R. eta Gómez Lago, J. M. (1992): *Coleccion documental del Archivo Municipal de Mondragón. Tomo I (1260-1400)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 41, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

————————, (1995): *Colección documental del Archivo Municipal de Bergara. Tomo I (1181-1497)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 57, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Díez de Salazar Fernández, L. M. (1985): *Colección Diplomática del Concejo de Segura (Guipúzcoa) (1290-1500). Tomo I (1290-1400)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 6, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1, 2, 3 eta 12. dokumentuak.

García de Cortázar, J.A.; Arizaga, B.; Martínez Ochoa, R. Mª eta Ríos, Mª L. (1979): *Introducción a la Historia medieval de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en sus textos*, Txertoa, Donostia.

Gorosabel, P. (1967): *Diccionario histórico geográfico descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa con un apéndice de las cartas pueblas y otros documentos importantes*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo [2. argitalpena] I. liburukia, 441, IV. liburukia, 493-505 [1. argitalpena: 1900].

Ibañez Etxebarria, A. (1998): "Segurako hirigune historikoaren historia eta arkeologia azterketa", *Arekoikuska 98*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 47-60.

Intxausti Rekondo, J. (zuz.) (2003): *Segura historian zehar*, Segurako Udala, Segura.

Iñurrieta Ambrosio, E. (1989): *Colección diplomática del Archivo Municipal de Salvatierra (1256-1400)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 18, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

IRARGI: *Badator* datu-basea: Segurako Udal Artxiboko inbentarioa <http://www.irargi.org>.

Legorburu Faus, E. (2000): *La labranza del hierro en el País Vasco. Hornos, ruedas y otros ingenios*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.

López Colom, Mº M. eta Urteaga, M. (arg.) (2002): *Agorregiko burdinola eta errotak (Aia, Gipuzkoa)*, Arkeologia 2, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Martínez Díez, G.; González Díez, E. eta Martínez Llorente, F. J. (1991): *Colección de documentos medievales de las villas guipuzcoanas (1200-1369)*, Gipuzkoako Foru Aldundia - Gipuzkoako Batzar Nagusiak, Donostia.

Martínez de Isasti, L. (1985): *Compendio historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*, Amigos del Libro Vasco, Bilbo [1. argitalpena 1625ean, 1850eko facsimilea, Donostian, I. Ramón Baroja].

Moraza Barea, A.; Ibañez Etxebarria, A. eta Agirre Mauleon, J. (2003): "Segurako hiri-gunea XVI-XIX. mendeetan zehar", in J. Intxausti Rekondo (zuz.), *Segura historian zehar*, Segurako udala, Segura, 407-414[277].

Orella Unzue, J. L. (arg.) (1987): *Guipúzcoa y el Reino de Navarra en los siglos XIII-XV: Relaciones, intereses y delimitación de la frontera*, Cuadernos Universitarios Departamento de Historia 4, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.

————, (2003): "Segura bere hiri-gutunean, Erdi Aroko iturrietan eta historiografian", in J. Intxausti Rekondo (zuz.), *Segura historian zehar*, Segurako Udala, Segura, 43-56.

Pastor, E. (1986): *Salvatierra y la Llanada oriental alavesa (siglos XIII-XV)*, Azterlanak 13, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

Pereda, I. (1992/1993): "La metalurgia prehidráulica del hierro en Bizkaia: el caso de los alrededores del pantano de Oiola (Trapagarán, Bizkaia)", *Kobie (Serie Paleoantropologia)*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, **XX**, 109-122.

Roldán Gual, J. Mª (1991): *Colección diplomática del Archivo Municipal de Tolosa. Tomo I (1256-1407)*, Fuentes documentales medievales 36, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Tena García, Mº S. (1997): *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*, Monografías (Instituto Dr. Camino de Historia Donostiarra) 43, Kutxa Fundazioa, Donostia.

Truchuelo, S. (1997): *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII)*, Bekak 1, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Urteaga, M. (1996): "Siderurgia medieval en Gipuzkoa: Haizeolas, ferrerías masuqueras y ferrerías mazonas", *Actas I Jornadas sobre minería y tecnología en la Edad Media peninsular (1995. León)*, Unión Hullera Vasco-Leonesa, Leon, 543-558.

277. Artikulu hau aipatzen dugu hemen, Erdi Aroaz ez den arren, egile hauek liburu eta artikulu zenbait dituztelako (orokorragoak Segurari buruz) prestaketan eta prentsan 2006. urterako eta ez genituzke aipatu gabe utzi nahi.

————, (1999): "La industria del hierro en Gipuzkoa. Las ferrerías hidraúlicas", *Litoral. Patrimonio 2, Hierro al mar*, Instituto de Estudios Cántabros - Asociación Tajamar, Santander, 39-44.

Vives Almandoz, G. eta Aguinagalde Olaizola, B. (2003): "Segurako historia egiteko artxibo iturriak", in J. Intxausti Rekondo (zuz.), *Segura historian zehar*, Segurako Udala, Segura, 21-42.

2.8. ARRIAGAKO KOFRADIAREN AUTODISOLUZIOA: NOBLEZIAREN JARRERA KRISIAREN AURREAN

TESTUA

1332ko apirilaren 2an **Gasteiz**

Alfontso XI.aren erabakia Arriagako kofradeen eskaeren inguruan. Kofradiaren *autodisoluzioa*ren[278] unean erregeak emaniko pribilegio biribila.

[Chrismón: Christus, Alfa, Omega]. En el no*m*bre de Dios, Padre *t* ffijo *t* Sp*iri*tu Sa*n*to q*ue* sson tres pe*r*ssonas *t* un dios uerdadero q*ue* biue *t* Regna por sie*m*pre iamas et dela bie*n* aue*nturada V*irgen Sa*n*ta Maria su madre aq*ui* nos *[zikina]* tenemos por sen*n*ora *t* por auogada/ (2) en todos n*uest*ros fechos et aonrra *t* as*er*uicio de todos los Santos de la Corte Celestial, por q*ue* es natural cosa q*ue* todo om*ne* q*ue* bie*n* faze q*ui*ere q*ue* g*e*lo lieu*en* adela*n*te *t* q*ue* se n*on* oluide nj*n* se pierda. Q*ue* com*mo* q*ui*er q*ue* cansse *t* me*n*gue el cur/ (3) sso dela uida deste mu*n*do aq*ue*llo es lo q*ue* finca en reme*m*bra*n*ca por el al mundo. Et este bie*n* es guiador dela su alma a*n*te Dios. Et por no*n* caer en oluido lo mandaro*n* los Reyes poner en esc*ri*pto en sus p*ri*ujlegios por q*ue* los ot*ros* que/ (4) Regnassen despues dellos *t* toujesen el su logar fuessen tenudos de guardar aq*ue*llo de lo leuar adela*n*te co*n*firmandolo por sus P*ri*uilegios. Por ende nos catando esto q*ue*remos q*ue* sepa*n* por este n*uest*ro P*ri*uilegio todos los om*n*es q*ue* agora son/ (5) et sera*n* daq*ui* adela*n*te. Com*mo* nos Don ALFONSO por la gra*c*ia de Dios Rey de Castiella, de Toledo, de Leo*n*, de Galizia, de SSeuilla, de Cordoua, de Murcia, de Iah*e*n, del Algarbe *t* SSen*n*or de Uizcaya *t* de Molina. En uno co*n* la reyna don*n*a/ (6) MARIA mj muger. Por q*ue* don Lope de Mendoça *t* don Beltrán Yanes de Gueuara sen*n*or de On*n*ate *t* Ioh*a*n Furtado de Mendoça *t* Ferra*n*t Royz Arcidiano de Calahorra *t* Ruy Lopez fijo de don Lop de M*en*doca t/ (7)Ladró*n* de Gueuara fijo *[zikina]* del dicho Don Beltr*a*n Yan*n*es *t* Diago Furtado de Me*n*doça *t* Fernan*t* Pe*re*s de Ayala *t* Ferra*n*t Sanchez de Uelasco *t* Goncalo Yan*n*es de Mendoca *t* Furtado Diaz su h*er*mano t Lope G*arcia* de Salazar *t*

278. Adjektibo horren inguruan garai historiko bakoitzeko interes politikoen arabera ika-mikak —edo kontzepzio ezberdinak— gertatu dira. Kapareek dokumentua "Arabako pribilegioa" deitu zuten.

José Joaquín Landazuri Romaratek XVIII. mendearen bukaeran, Arabako Foru Aldundiaren enkargupean, Arabaren jatorrizko izaera independentea defendatu zuen monarkiaren ahalegin zentralizatzaileen aurrean, hortaz, "voluntaria entrega" izendatu zuen testua. Tesi horren arabera, Arabak erabaki zuen kofradiaren jurisdikzioa Gaztelari ematea; izan ere, igualitarismoa eta foruen defentsaren lemapean, Araba independentea izan zen bere askatasuna mantenduz —1332 arte— inoiz ez zelako konkistatua izan, bere jatorrizko independentzia izaki.

Foruak desagertzean, 1876an, ideia horien erabilera historikoa gertatu zen Arabako berezko antolakuntzak zilegitasuna —historikoa— lortu nahian. XIX. mendeko foruzaleek kofradia eta Ermandadea (1463an sortua) erlazionatzen saiatu ziren.

1982an Eusko Alderdi Jeltzalea gobernuan zegoenean, berriz, "Arriagako hitzarmena" deitua izan zen bi aldeen arteko berdintasuna adierazteko helburuarekin, hots, Gaztelarekiko dependentziarik eza.

Ruy Diaz de Rojas fijo/ (8) de Ruy Sanch*ez t* todos los ot*ros* fijos *[zikina]* dalgo de Alaua assi ricos om*n*es *t* jnfacones *t* cauall*e*ros *t* clerigos *t* escuderos fijos dalgo com*m*o ot*ros* q*ua*les q*ui*er co*n*frades q*ue* solia*n* seer dela confradrja de Alaua. Nos otorgaron la tierra de Alaua que oujessemos ende/ (9) el sennorio *t* fuesse regale*n*ga *t* la pusiero*n* *[zikina]* e*n*la corona delos nu*estr*os regnos *t* pa*ra* nos *t* pa*ra* los q*ue* regnassen despues de nos en Castiella *t* en Le*on*. Et ren*un*ciaron *t* se p*ar*tiero*n* de nu*n*ca auer co*n*fradrja nj*n* ayu*n*tamje*n*to ene*l* ca*m*po de Arrjaga nj*n* en ot*ro* lo/ (10) gar ni*ngun*o auoz de co*n*fradja nj*n* q*ue* sse llam*en* co*n*fradres. Et ren*un*ciaron fuero *t* *[zikina]* uso *t* costu*m*bre q*ue*aujan en esta raz*on* pa*ra* sie*m*pre iamas. Et sobresto fizier*on* nos sus peticion*e*s. Et p*ri*mera mente pidiero*n* nos por m*er*cet q*ue* no*n* diessemos la dicha t*ie*rra de Alaua nj*n* la enagenassemos/ (11) a ni*ngun*a uilla nj*n* aot*ro* ni*ngun*o mas q*ue* finq*ue* pa*ra* sie*m*pre real *t en*la corona de los n*ues*tros regnos *(ez da ongi ikusten)* de Castiella, *t* de Le*on*. Por el con*no*cimiento del gra*n*t se*r*uicio q*ue* los djchos fijos dalgo de Alaua me fizier*on* com*m*o dich*o* es tenemos lo por bie*n*. Pe*r*o q*ue* retenemos en nos lo delas aldeas sobre que *con*/ (12) tiend*en* co*n* los de Salua ti*e*rra pa*ra* fazer dello lo q*ue*la n*uest*ra m*erc*et fu*ere*. Ot*ro*ssi alo q*ue* nos *[zikina]* pidiero*n* por mer*c*et los dichos fijos dalgo q*ue* les otorgassemos q*ue* sea*n* fra*n*cos *t* libres *t* q*ui*tos er*em*ptos de todo pech*o* t s*er*ujdu*m*bre con q*ua*nto an *t* pudiere*n* ganar daq*ui*adel*a*nte segu*n*t q*ue*lo fuero*n* sie*m*pre fasta aq*uí*. Otor/ (13) gamos atodos los fijos dalgo de Alaua *t* tenemos por bie*n* q*ue* sean libres *t* q*ui*tos de todo pecho ellos *t* los sus biene*s* q*ue* an o oujere*n* daq*ui*adelante en Alaua. Ot*ro*ssi nos pidiero*n* por m*er*cet q*ue* los monest*eri*os *t* los collacos q*ue* fuero*n* de sie*m*pre aca de los fijos dalgo, q*ue* les ayan seg*un*t q*ue*los/ (14) ouieren fasta aq*uí* por oq*ui*er q*ue* ellos fuere*n*. Et si por aue*n*tura los collacos dese*m*parare*n* las casas olos solares a sus sen*n*ores q*ue* les pueda*n* tomar los cuerpos oq*ui*er q*ue* los fallare*n* *t* q*ue* les entre*n* las he*re*dades q*ue* oujeren. Tenemos por bie*n* *t* otorgamos q*ue* los dichos fijos dal/ (15) go ayan los monest*eri*os *t* collacos segu*n*t q*ue* los oujeron *t* los deuen au*er*. P*er*o q*ue* retenemos en ellos par*a* nos el sen*n*orio real *t* la iusticia. Et o*tr*ossi q*ue* *sea* g*ua*rdado a las aldeas q*ue* aBitoria la se*n*tencia q*ue* fue dada ent*re* ellos en esta razo*n*. Ot*ro*ssi nos pidieron q*ue*los la/ (16) bradores q*ue* morare*n* *en*los suelos de los fijo dalgos q*ue* sea*n* suyos segu*n*t q*ue*lo fuero*n* fasta q*ui* en q*ua*nto morar*en* en ellos. Tenemos por bie*n* *t* otorgamos q*ue* los dichos fijos dalgo de Alaua ayan en los om*n*es q*ue* morare*n* *en*los sus suelos aq*ue*l derech*o* q*ue* solia*n* *t* deue*n* auer. P*er*o q*ue* retenemos/ (17) en ellos par*a* nos el sem*m*oio *t* el buey de marco *t* el sen*n*orio real *t* la iusticia. Ot*ro*ssi nos pidiero*n* por m*er*cet q*ue* los omiziellos o las calopnias q*ue* acaescier*en* delos dichos collacos *t* labradores q*ue* los ayan los sen*n*ores delos collacos *t* delos solares omorare*n* los labradores. / (18) Tenemos por bie*n* *t* otorgamos q*ue* los fijos dalgo ayan las calopnias *t* los omeziellos cada uno dellos de los sus collacos *t* de los om*n*es q*ue* morare*n* *en*los sus suelos segu*n*t q*ue* lo solia*n* *t* deue*n* auer. P*er*o q*ue* retenemos en ellos par*a* nos el derecho si algu*n*o y auja*n* los sen*n*ores q*ue* solia*n*/ (19) seer dela co*n*fradria de Alaua. Ot*ro*ssi nos pidiero*n* por m*er*cet q*ue* otorgassemos alos fijos dalgo *t* atodos los ot*ro*s de la t*ie*rra el fu*er*o *t* los p*ri*ujlegios que ha Portiella dibda. Aesto respondemos q*ue* otorgamos *t* tenemos por bie*n* q*ue* los fijos dalgo aya*n* el fu*er*o de Soportiella par*a* seer q*ui*tos/ (20) *t* libres ellos e sus bienes de pecho. Et q*ua*nto en los ot*ro*s pl*e*itos *t* enla iusticia. Tenemos por bie*n* q*ue* ellos *t* todos los ot*ro*s de Alaua ayan el fu*er*o de las leyes. Ot*ro*ssi nos pidiero*n* por m*er*cet q*ue*les

diessemos alcalles fijos dalgo natu*r*ales de Alaua *t* si algu*n*o se alçare de/ (21) dellos q*ue* sea la alcada par*a* ante los alcalles fijos dalgo q*ue* fueren *en*la nue*s*tra corte. Tenemos por bie*n t* otorgamos q*ue* los fijos dalgo de Alaua q*ue* ayan alcall*e* o *alcalles* fijos dalgo de Alaua *t* q*ue* ge los daremos assi *t* q*ue* aya*n* el alcada par*a* la nue*st*ra corte. Ot*ro*ssi nos pidiero*n* por m*er*cet q*ue* les/ (22) otorgassemos q*ue* el m*er*ino oujessemos aponer en Alaua q*ue* sea fijo dalgo natu*r*al *t* h*ere*dero *t* raygado en Alaua *t* no*n* delas uillas *t* q*ue* no*n* pueda remedir por algo a ninguno nj*n* pre*n*da nj*n* mate ani*n*gu*n*o sin q*ue*relloso *t* sin juyzio de alcalle saluo ende si fue encartado. Et si al/ (23) gu*n*o fue preso co*n* q*ue*relloso q*ue* dando fiadores raygados de co*m*plir de fuero q*ue* sea luego suelto. Tenemos lo por bie*n t* otorgamos lo. P*er*o q*ue* si algu*n*o fiziere melefiçio atal por q*ue* merezca pena en*el* cuerpo. Tenemos por bie*n* q*ue*lo pueda p*re*nder el m*er*jno *t* no*n* sea dada por fiadores./ (24) Ot*ro*ssi nos pidiero*n* por m*er*cet q*ue* les otorgassemos q*ue* cuando nos olos que regnare*n* despues denos oujeremos aechar pecho en Alaua q*ue* los q*ue* fuere*n* moradores *en*los monesterios *t* los collacos *t* los labradores q*ue* moraren en los solares de los fijos dalgo q*ue* sea*n* quitos de todo pecho *t* de pedido/ (25) salvo del pecho aforado q*ue* auemos en ellos q*ue* es el buey de março *t* el semoyo. Et esto q*ue*lo pechen *en*la manera q*ue* lo pechar*o*n sie*m*pre fasta q*ui*. Tenemos lo por bie*n t* otorgamos lo. Saluo q*ua*ndo nos fu*e*re otorgado de sus sen*n*ores. Ot*ro*ssi nos pedieron por m*er*cet q*ue*les otorgassemos/ (26) q*ue* los labradores q*ue* morare*n* *en*los palacios delos fijos dalgo *t* los amos q*ue* c*ri*are*n* los fijos delos caualleros q*ue* sean q*ui*tos de pecho segu*n*t q*ue*lo fuero*n* fasta q*ui*.

Tenemos por bien t otorgamos que los que moraren en sus palacios que sean quitos de pecho [*ez da ongi ikusten*] et que ssea uno el morador t [zikina] non mas. Otrossi/ (27) que los amos que criaren los fijos legitimos delos caualleros que sean quitos de pecho en quanto los criaren. Et que sea anos guardado el derecho que en ellos auemos. Otrossi nos pidieron por mercet queles otorgassemos que los fijos dalgo que moraron o moraren en las aldeas que diemos a Bitoria que/ (28) ay.an el fuero que diemos a los fijos dalgo de Alaua t que sean librados ellos t lo que ellos oujeren por los alcaes que nos dieremos en Alaua. Tenemos por bien t otorgamos que esto passe segunt que se contiene enla sentencia que fue dada entre ellos t los de Bitoria[279]. Otrossi nos pidieron por mercet que/ (29) les otorgassemos que los montes t sseles t prados que ovjeren fastaqui los fijos dalgo que los ay.an segunt quelos oujeren fasta aqui commo dicho es. Et que los ganados delos fijos dalgo que puedan andar en cada logar oquier que los fijos dalgo fueren diueseros t oujeren casas t solares t to/ (30) dos los otros dela tierra que pazcan segunt quelo oujeron de uso t de costumbre fasta aqui. Tenemos por bien t otorgamos quelos montes t sseles t prados que ay.an cada uno dellos lo suy.o. Et que puedan paçer con sus ganados enlos pastos delos logares o fueren diueseros. Otrossi que los ga/ (31) nados delos labradores t delos otros puedan pacer t usar t cortar libremente. Otrossi nos pidieron mercet que si alguno matare aomne fijo dalgo que peche anos quinjentos sueldos por el omeziello. Et si alguno firiere odesonrrare aalgun omn fijo dalgo ofija dalgo que peche quinjentos sueldos/ (32) aaquel que resçibiere la desonrra. Tenemos lo por bien t otorgamos lo.

279. Horren inguruko dokumentaziorako ikus Martínez Díez (1974: II. alea, 209-219).

Otrossi nos pidieron por mercet queles otorgassemos que nos njn otro por nos non pongamos fferreinos en Alaua. por que los montes non se y.ermen njn se astraguen (eraguen). Tenemos lo por bien t otorgamos lo. Otrossi nos pidieron/ (33) por mercet que deffendiessemos que ninguno non faga casa fuera de barrera. Tenemos por bien t otorgamos que esto passe segunt que passo fasta aqui. Otrossi nos pidieron por mercet queles otorgassemos quelas compras t uendidas t donaciones t fiaduras t posturas t contractos que fueren ffe/ (34) chos t otrossi los pleitos que fueren librados t los que son comencados fasta aqui que passen por el fuero que fasta aqui oujeron. Tenemos lo por bien otorgamos lo. Otrossi nos pidieron por mercet queles otorgassemos que si aalgún fijo dalgo fuere demandad pecho que faziendo se fijo dalgo/ (35) segunt fuero de Castiella que sea libre t quito de todo pecho. Tenemos lo por bien t otorgamos lo. Otrossi nos pidieron por mercet queles otorgassemos que ningun fijo dalgo natural de Alaua non sea desafiado saluo mostrando alos alcalles que dieremos en Alaua razon derecha por que de/ (36) uan auer enamiztat. Et que dando fiadores t cumpliendo quanto mandaren los alcalles quel non desafien t silo desafiare quel nuestro merjno quelo faga afjar. Tenemos lo por bien t otorgamos lo. Otrossi nos pidieron por mercet queles otorgassemos que los que ujenen de los solares de Piedrola t de Men/ (37) doça de Gueuara t los otros caualleros de Alaua que ay.an en los sesteros t diujseros enlos logares do ovjeren segunt quelo oujeron deujsa segunt quelo oujeron fasta aqui t por que esto fuesse meior guardado queles otorgassemos de non fazer puebla nueua en Alaua. Tenemos por bien t otorgamos quelos fijos/ (38) dalgo non ay.an sesteros njn diujsas daqui adelante en Alaua. Otrossi nos pidieron mercet quela aldea de Mendoça t de Mendiujil que sean libres, quitas de pecho t que sean al fuero que fueron fasta aqui. Tenemos por bien por les fazer mercet t otorgamos que sean quitos los dela dicha aldea de pecho. Pero que/ (39) retenemos y. para nos el sennorio real. Otrossi nos pidieron mercet queles otorgassemos que el aldea de Gueuara onde don Beltran lieua la boz que sea esçusada de pecho t de semoyo t buey. de marco segunt que fue puesto t otorgado por y.unta otro tiempo. Tenemos lo por bien le fazer mercet. Et otor/ (40) gamos que la dicha aldea sea quita de pecho segunt dicho es. Pero que retenemos y para nos el sennorio real t la justicia. Et sobresto mandamos t defendemos firme mente que ninguno njn ningunos non sean osados de passar njn de y.r contra esto que dicho es en ningun tiempo por ninguna manera ssi non/ (41) qual quier quelo fiziesse aurian nuestra y.ra t demas pechar nos y.an en pena mill maarabedis de oro para la nuestra camara. Et si alguno o algunos contra ello quisieren y.r opassar mandamos alos alcalles t al que fuere justicia por nos agora t daquiadelante en tierra de Alaua que gelo/ (42) non consientan t queles prenden por la dicha pena t la guarden para fazer della lo que nos mandaremos. Et non fagan ende al sola dicha pena. Et demas aellos t alo que oujessen nos tornariemos por ello. Et desto mandamos dar alos fijos de Alaua este nuestro priujle/ (43) gio rrodado t seellado con nuestro seello de plomo. “Ffecho el priuilegio en Bitoria dos dias de abril en era de mill e trezientos ssetenta annos.” Et nos el ssobredicho Rey. don ALFONSO Regnante en uno con la Rey.na donna MARIA mj muger en/ (44) Castiella, en Toledo, en Leon, en Galizia, en Sseuilla, en Murcia, en Jahen, en Raeca, enBadaioz, en el Algarbe, en Uizcay.a, t en Molina, otorgamos este priujlegio confirmamos lo.

Don Abdalla fijo de Amir Amuzlemin Rey de Granada uassallo del Rey confirma.

Don Alffonso fijo del inffante don Ffernando uasallo del Rey confirma. Don Johan fijo del jnfante don Manuel adelantado mayor por el Rey enla frontera e el Regno de Murcia confirma.

Don Ximeno arcobispo de Toledo *t* primado de las espannas chanceller mayor de Castiella confirma. Don

Ihoan arcobispo de Sanciago *t* capellan mayor del Rey *t* chançeller del Regno de Leon confirma. Don

Ihoan arcobispo de Sseuilla confirma.

(Biribilaren ezkerreko aldearen lehenengo zutabea)

Don Garcia obispo de Burgos confirma.

Don Johan obispo de Palencia confirma.

Don Johan obispo de Calahorra confirma.

Don Bernabe obispo de Osma confirma.

Don Frey Alffonso obispo de Cigueca confirma.

Don Pedro obispo de Segouja confirma.

Don Sancho obispo de Aujla confirma.

Don Odon *(ez da ongi ikusten)* confirma.

Don Cuenca confirma.

Don Pedro obispo de Cartagena confirma.

Don Gutierre obispo de Cordoua confirma.

Don Johan obispo de Plazencia confirma.

Don Ffernando obispo de Jahen confirma.

Don Bartolome obispo de Cadiz confirma.

Don Johan Nunez maestre de la orden dela caballeria de Calatraua confirma.

Don Frey Fernant Rodriguez de Ual bu ena prior de la orden del ospital de Sant Johan

mayordomo mayor del Rey confirma.

(Biribilaren ezkerreko aldearen bigarren zutabea)

Don Johan Nunnez de Lara confirma.

Don Ferrando fijo de don Diago confirma.

Don Diago Lopes su fijo confirma.

Don Joha Alffonso de Haro sennor delos Cameros confirma.

Don Aluar Dia de Haro confirma.

Don Alffon*so* Tellez de Haro confirma.

Don Lop de M*en*doca confirma.

Don Belt*ra*n Yan*n*es de On*n*ate confirma.

Don Alffon*so* Tellez de Haro confirma.

Don Lop de M*en*doca confirma.

Don Belt*ra*n Alfonso de Guzma*n* confirma.

Don Goncal Yan*nes* de Agujlar confirma.

Don Ruy Goncal*e* Macanedo confirma.

Don Lope Royz de Baeca confirma.

Don Jo*a*n G*arcia* Ma*n*rriq*ue* confirma.

Don G*arcia*Ferr*andes* Ma*n*rriq*ue* confirma.

Don Go*n*calo Royz Giro*n* confirma.

Don Nun*no* Nun*n*ez de Aça confirma.

Don Joh*a* Rod*ri*guez de Cisneros confirma.

Ruy G*utie*rrez Q*ui*xada. Et Fern*an*t Ladro*n* de Roias m*er*jnos mayores de Castiella confirma.

(Biribilaren ezkerreko aldearen hirugarren zutabea)

Don Garcia ob*is*po de Leon confirma.

Don Joh*a*n ob*ispo* de Leon confirma.

Don Fernando electo de Astorga confirma.

Don Lore*n*cio ob*is*po de Salama*n*ca confirma.

Don Rodrigo ob*is*po de Camora confirma.

Don Johan ob*is*po de Cibdat Rodrigo confirma.

Don Alffonso ob*is*po de Coria confirma.

Don Joh*a*n ob*is*po de Badajoz confirma.

Don Goncalo ob*is*po de Orens confirma.

Don Aluaro ob*is*po de Ma*n*donedo confirma.

Don Rodrigo ob*is*po de Tuy confirma.

Don Joh*a*n ob*is*po de Lugo confirma.

Don Uasco Rodriguez maestre de la orden de la caualle*r*ia de Sa*n*ciago confirma.

Don Suero P*eres* maestre de Alca*n*tara confirma.

(Biribilaren ezkerreko aldearen laugarren zutabea)

Don P*ero* Fernandez de Castro preguero mayor de t*ie*rra de Sa*n*ciago confirma.

Don Joh*a*n Alffon*so* de Alburq*uer*q*ue* mayordomo mayor de la Reyna confirma.

Don Rodrigo Aluarez de Asturias me*r*jno mayor de L*eon t* de Asturias confirma.

Don Ruy P*eres* Po*n*ce confirma.

Don P*ero* Po*n*ce confirma.

Don Joh*a*n Diaz de Cifue*n*tes confirma.

Don Rod*ri*go P*eres* de Uilla lobos confirma.

Don Ferna*nd* Rod*ri*guez de Uilla lobos confirma.

Don P*ero*, Nun*ez* de Guzman confirma.

(Biribilaren beheko aldea)

Garci Laso dela Uega Justicia mayor de casa del Rey confirma.

Don Alffonso Iufre de Tenoyro almjr*a*nte mayor dela mar *t* guarda mayor del Rey confirma.

Martin Fernandez de Toledo notarjo mayor de Castiella confirma.

Don Joh*a*n P*eres* thesurero dela Egle*sia* de Iah*e*n tenie*n*te logar por Ferra*n*t Rodriguez camarero del Rey

lo mando fa*zer* por mandado del dicho sen*n*or en el ueynt*n*eno an*no* q*ue* ssobredich*o* Rey don

Alffonso Regno.

(Sinadura) Joh*a*n P*erez*.

Yo Ffernan*t* Ryz lo escreuj (Iñurrita, 1983: 15-20).

SARRERA

1332ko apirilaren 2ko errege-pribilegio biribila dugu hau. Alfontso XI.ak Arabako (Arriagako)[280] Kofradiako kideei emanikoa, hain zuzen ere. Beraz, testu juridiko original honek izaera publikoa dauka errege batek emanikoa baita, eta Alfontso XI.ak onartutako *eskubideak* denboran zehar idatziz mantentzea izan zen dokumentuaren helburua.

280. Kofradiak Arriaga du izena, izen bereko zelaietan biltzen baitziren kofradiako partaideak euren bilerak gauzatzeko eta erabakiak hartzeko. Arriaga, gaur egun, Gasteizko jurisdikzio barruan dagoen zonaldea dugu, bertan ermita bat dago eraikia baina eraikuntza hori gerokoa da, XIX. mendekoa.

Dokumentu hori, «Arabako nobleek euren ohiko diru-iturrien zailtasunei aurre egiteko erabili zuten lehenengo erantzunen katalogotzat har dezakegu» (Díaz de Durana, 2003: 158).

Dokumentu horren *egilea* Alfontso XI.a dugu. Alfontso XI.aren —eta Petri I.a, bere semearen— erregealdiak errege-boterearen kontzepzio pertsonalaren garapen handiena ekarri zuen Erdi Aroan. Alta, zentralismoaren eta autoritarismoaren nagusigoa izan zen garai horretako gakoa.

Goi-nobleziak, aurreko garaian legez, pisu politiko garrantzitsua mantendu nahi zuen, baina bi errege horiek tinko egin zuten nobleziako hainbat kideren kontra. Alabaina, euren zentralismoaren ideiak ezin izan zituzten bete; izan ere, Alfontso —eta bere semea— modu goiztiarrean hil zen, izurriteak hila aita eta gerra zibilean semea, hain zuzen ere.

Alfontso XI.aren erregealdian bi une ezberdindu daitezke: lehenengoa 1312-1325 artekoa litzateke, garai horretan adin txikikoa izaki, goi-nobleziaren garrantzia azpimarratzekoa izan zen; bigarrenean, 1325tik aurrera, botere zentralaren nagusigoa islatu zen erregea adinez nagusia zelarik (López Castellón, 1983: 39-41).

XIV. mendearen lehenengo erdialdean, Arabako nobleen egoera ekonomiko, sozial eta juridikoa aipatzen du testuak, hau da, Behe Erdi Aroko krisia[281].

Díaz de Duranaren iritziz, XIII. mendearen bukaeratik jada sistema feudalaren gainbehera hastapenetan zen; era berean, krisiaren gorenaldia 1350. urtearen inguruan kokatzen du egileak.

Krisiaren ezaugarrien artean, Arabako lurraldean demografiaren jaitsiera litzateke batetik, goseak, gerra-giroak edota izurriteak (Izurrite Beltza) eragindakoa. Beste aldetik, eta aurrekoarekin loturik, lurraren okupazioaren mugatzea litzateke krisiaren ezaugarria; ondorioz, despopulatuak agertu ziren, hirugarren ezaugarria, hain zuzen ere.

Ezaugarri horiekin erlazionaturik, sistema beraren mugatzea dugu krisiaren arrazoien artean. Sistema estentsiboa izaki, hazkundea ez zen produktibitatearen

281. Dokumentu hau landu duten egileen artean ikuspegi ezberdinak mantendu dira. Interpretazio klasikoak Kofradiaren eta hiribilduen —Gasteiz eta Agurain— arteko ika-mikaren testuinguruan azaltzen du Kofradia desagertzea. Tesi klasikoen artean ikus M. J. Portilla (1978), G. Martínez Díez (1972) eta J. L. Orella (1984: 289-334). Orellak kofradia eta hiribilduen arteko gatazka testuinguruan kokatzeaz gain, Kofradia geroko Arabako Ermandadearekin (1463koa) lotzen du.

J. R. Díaz de Duranak, aldiz, krisian ikusten du gakoa eta errenta feudalaren gainbeheran kokatzen du Arriagako Kofradiaren desagertzea; halere, ez du gaitzesten tesi klasikoak azpimarratzen duen hiribilduekiko liskarra kofradiaren autodisoluzioa azaltzeko argudio bezala. Ikus J. R. Díaz de Durana (1986 eta 1988: 64-77).

handitzearekin lortuko, produkzioa gehitzearekin baizik. XIII. mendearen bukaerarako sistema feudala hazkundearen gailurrera ailegatu ostean, krisiaren lehenengo islak eragin zuen hazkunde estentsiboa.

Modu horretan, nobleek euren diru-sarrerak murriztean, bide guztiak erabili zituzten beraien estatusa mantentzeko; izan ere, errenten galerak botere-galera ekar zezakeen. Alta, nekazarien gaineko presio fiskal eta fisikoaren handitzea gertatu zen, nekazariak lurrari atxikitzeko asmoarekin eta, horrela, errentak eskuratzen jarraitzeko.

Nobleziaren diru-sarrerak (eta mendekotasuna eskuratzeko moduak) hauexek izan zitezkeen: lehenik, nekazari libre zein dependentearen (*collazo*) gainekoa, zerga eta lanaren bidez. Bigarrenik, mendi eta basoen ustiapena litzateke —Araban nobleek gune horien gaineko jurisdikzioa zuten—.

Hirugarrenik, elizen patronatua dugu. Alta, elizaren ugazaba izaki, nobleak bertako hamarrena eta eskaintzak jasotzen zituen, batetik; baina, bestetik, garrantzi sinbolikoa eskuratzen zuen leku hoberenean esertzen baitziren mezatan, bertan hilobiratuak ziren eta elizako apaiza patronoak berak hautatzen zuen.

Laugarren diru-sarrera errotak ziren; horien bitartez botere ekonomikoa eskuratzeaz gain, nekazariengan mendekotasun-harremanak sustatzen zituen nobleak, nekazaria bere errota erabiltzera behartuz (uzta kontrolatzen zuen).

Bosgarren bidea, lurren bidez lorturiko errentak ziren —dirutan zein espeziatan—; Araban bide hori sinboliko bilakatu zen jaunaren irudia eta noblearen jabegoa oroitarazten zituzten zerga *zaharrak* berreskuratuak izan zirelako, *Semoyo* eta *Martxoko idia*, hain zuzen ere.

Seigarrenik, burdinolen gaineko eskubideak izan zitzaketen nobleek.

Zazpigarren bidea gerra izan zitekeen eta abar.

Noble batek, bere garrantziaren arabera, aipatu diru-sarreretako bat baino gehiago izan zitzakeen, edo bakar bat soilik. Izan ere, ezin dugu ahantzi nobleen estamentuaren barruan hierarkia oso markatua zegoela, baita askotariko errealitateak ere, eta beraiek zergarik ez ordaintzeko batzen zituen[282].

Nobleen errentak murriztearen arrazoi zuzena nekazariek hiribilduetara ihes egitea litzateke (Gasteiz edo Agurainera batez ere), nobleen jurisdikziotik at; edota nekazarien eskutik nobleen kontrako bortizkeria edota matxinadak gauzatzea (Díaz de Durana, 1986: 98-130).

282. Arabako nobleen diru-sarreren adibideak ikus J. R. Díaz de Durana (1986: 303-320), eta Euskal Herri mailako adibideak ikusteko, J. R. Díaz de Durana (2004: 142-169).

Errenta feudalaren *garapen negatiboa*rekin batera, nobleek hiribilduen —Gasteiz eta Agurainen— hazkundeari aurre egin behar izan zioten[283]. Hiribildu horiek nekazari-mailako noble txikiei inguruko herrixkak erosten joan ziren eta auzien bidez ailegatu zaigu guri bi jurisdikzioen arteko erronka. Bertan, Arriagako Kofradiaren (noblezia osoa biltzen zuen *erakundea*) eta bi hiribilduen artean 45 herrixken gaineko jabetzagatik konfliktoa izan zen. Bi aldeek Juan Martínez de Leiva-ren esku —Gaztelako *zerbitzari nagusia* (*camarero mayor)*— utzi zuten auzi judiziala 1331ko urriaren 4an. Kofradiak 45 herrixka horietatik 41en gaineko jurisdikzioa galdu zuen eta erregeak baieztatu zuen epailearen erabakia 1332ko otsailaren 22an[284].

TESTUAREN AZTERKETA

Arriagako Kofradiaren diplomatika sei agirietan datza orotara. Kofradia aipatua agertzen den lehenengo testua 1258ko abuztuaren 18koa dugu[285], non krisiaren lehenengo zantzuak agertzen diren. Erregea hiribilduen izenean agertzen da testuan, kofradiaren aurrean; nobleek hainbat eskumen eman zioten erregeari eta, trukean, Alfontso X.ak euren *estatus* juridikoa eta euren foruak baieztatu zituen.

Horrekin batera, gogoratu beharra dugu Alfontso X.ak *Salvatierra* eratu zuela Agurainen 1256an —Trebiñu (1254) eta Kontrastarekin batera (1252)— eta *Victoria*ko hiribilduaren zabalpena gauzatu zuela hiru kale berrien bidez. Beraz, hiribilduok "*Arabako*"[286] lurraldean gauzatu ziren, kofradiari ekialdetik jaurgolurrak murriztuz. Horrela, 1258an kofradiako kideek erregeari eskatu zioten —eta onartua izan zen— kofradiak hiribilduen aurrean berriz ez galtzea lur gehiago. 1258ko dokumentuan kofradiaren termino geografikoak —eta lurralde-jurisdikzioa— aipatu eta zehaztu ziren. Halere, 1331ko dokumentuetan ikusten den legez, ez zen bete.

Arriagako Kofradiaren diplomatikaren azken agiria, berriz, aztertzen ari garena dugu, 1332ko apirilaren 2ko "autodisoluzioa", alegia. Lehenengo eta azken diplomak dira[287] kofradiaren idazki garrantzitsuenak.

---

283. Kofradiaren auzia ikuspegi horretan landutako historialariaren artikulu espezifikoa, ikus Díaz de Durana (1988).

284. Auzi horren inguruan ikus G. Martínez Díez (1972: 12). Testuaren transkripziorako —kofradiako diploma guztiekin batera— ikus G. Martínez Díez (1976: II. alea, 209-217).

285. "Avenencia dictada por el rey don Alfonso el Sabio entre los caballeros de la cofradía de Álava con el concejo de Vitoria y Salvatierra" titulua du, ikus R. Florantes y Encina (1922: 165-175).

286. Hemendik aurrera, lan guztian zehar Araba erabiltzean, kofradiak hartzen zuen eremua izango da. Berriz, Araba agertzean, gaur egungo probintziaren eremua izango da.

287. Beste dokumentuak: 1262ko uztailaren 15ekoa, Biarnoko Konstantzak —D. Harokoaren emaztea, Bizkaiko jauna izandakoa 1236-1254 bitartean— bi herrixkek ordainduriko zergak Barriako monasterioak jasotzea eskatzen dio kofradiari. Hirugarren agiriak, 1286ko maiatzaren 13an sinatuta, Antso IV.ak Gasteizko auzokideei Lasarte herrixka eman ziela jasotzen du. Laugarren diploman

Bertan, Arriagako Kofradiak Alfontso XI.ari eginiko hogeita hiru eskakizun —arlo ekonomiko, politiko zein sozialekoak— daude bildurik.

Historialari batzuek erregeak eskaera orori baiezkoa eman ziela defenditu arren, oso garrantzitsuak izan ziren Alfontso XI.ak eskaera bakoitzari gehituriko ñabardurak.

Aztertzen ari garen agiri honetan hainbat hitz historiko zein pertsonaien izenak agertzen zaizkigu. Zerrenda oso luzea litzateke, beraz, soilik garrantzitsuenetako batzuk aztertu eta definituko ditugu.

Agurain (*Salvatierra*): Gaztela-Leongo Alfontso X.a *Jakintsua*k 1256ko urtarrilaren 23an Aguraini fundazio-gutuna eman zion eta Salvatierra izenarekin berfundatu zuen gunea[288]. Gasteizko hiribilduarekin gertatu zen legez, erregeboterearen eta kofradiaren arteko gatazkak izan ziren; izan ere, bi hiribilduek Gasteizko forua lortu zuten, nobleen boterearen kontrako nolabaiteko oztopoa; eta, hiribilduak jaunen nekazarien ihesen helmuga ziren.

Araba: Testu honetan Araba toponimoa azaltzean, ezin dugu gaur egungo Araba probintziako lurraldea buruan eduki. 1463 arte ez da probintziatzat hartuko, Arabako Ermandade Nagusia sortu zen urtera arte, hain zuzen ere (Díaz de Durana, 1988: 157). Arriagako Kofradiak zuen jurisdikzioa islatzen du terminoak; *Araba nuklearra* deitua izan da alde geografiko hura[289].

Araba, teorian, hautapen-jaurgoa zen, kofradiaren jauna izateko hautagaiak gutxi batzuk izan arren. Gaztelako monarkiaren mendeko beste jaurgoekin konparatuz gero, hori litzateke *Araba*ko jaurgoaren ezberdintasuna (Martínez Díez, 1976: II. alea, 34).

Collazo (nekazari morroi): «Karga edo zerga multzoaren mendekoa den nekazaria, beste baten lurralde-jabegoan bizi izateak eta haren lurra lantzeak sortuak» dira karga horiek (Pastor, 1997: 259).

Martínez Díez-ek dio, jada, 1258-1332 urte bitartean nekazari morroien —*collazo*— eta askeen artean —*labrador*, nobleen lurretan bizi diren labo-rariak— bereizketa handirik ez zegoela. Biak jabegoak izateko eta horien gaineko eskubideak eskuratu eta banatzeko gai ziren. Biek euren abereak herriaren ustiaguneetan bazka egiteko eskubidea zuten. Halaber, biek foru-zerga[290] ordaintzen zuten. Ezberdintasuna, ordea, mugimendu-askatasunean

(1291ko azaroaren 24a), ika-mika jurisdikzionalengatik kofradiaren eta Gasteizko kontzejuaren arteko gatazkaren berri ematen digu. Bosgarrenak —jada aipatua—, 1332ko otsailaren 8koak, 45 herrixkak direla-eta, Gasteiz eta Aguraingo hiribilduen eta kofradeen arteko pleitoa du hizpide (Martínez Díez, 1972: 8-12). Transkripzioak jasota daude J. J. Landazuriren (1928: 80-127) lanean.

288. Hiribildu horren inguruan ikusi E. Pastor (1986).

289. Kontzeptuaren lurraldetasunaren inguruan ikus G. Martínez Díez (1976: II. alea, 15) mapa; eta horrekin batera, ikusi liburu bereko 19.-25. orrialdeen artean urtez urte kofradiaren mugak. Bestalde, ikus J. L. Orella (1974: 305-310).

290. 24. oin-oharrean azaldua.

zetzan; baina aipatu den legez, 1258rako biek tratamendu bera jasotzen zutela ematen du (Martínez Díez, 1972: 30-31).

Desafioa: Kapareen artean, sinesgarritasun edo fidagarritasunaren galera da, kalte edota desohoreak sortua. Merioak (*Merino*) fidagarri bilakatu zezakeen ("*afiar*" dokumentuetan) —berriz— noblea. Euskal Herri mailan, *desafio*az mintzo zaigun dokumenturik ospetsuena 1456an Ahaide Nagusiek Gipuzkoako zortzi hiribilduei eginikoa dugu. Bertan desafioa zertan zetzan azaltzean hauxe agertzen da testuan: «*tornar la amistad en enemistad*» (J. Martínez Zaldibia, 1845: 91-96).

Dibiseroak: Lurralde baten gaineko jaurgoa zutenak. Lurralde horretako eskubideak banatuta egon zitezkeen hainbat nobleren artean, noble horiek *dibiseroak* lirateke. Horrela, adibidez, noble batek jaurgo bateko errota-eskubidea izan zezakeen eta beste herrixka batean ere bestelako pribilegio bat gozatu.[291]

Encartado: Epaiketara agertzen ez zen presoa, hau da, justiziatik ihesean zebilena. Askotan, iheslari horiek, nobleen guduetan parte hartzen zuten; eta, behar militar zein nobleen interesen aldeko bortxakeria horien trukean, nobleak, justiziaren aurrean babesa ematen zien. «Seguru asko, hauek izaten ziren nekazariek eta hiribilduek salaturiko bortxakerien egileak» (Díez de Durana, 2004: 128), hainbatetan dokumentaturik agertzen zaizkigun gehiegikerien egileak, alegia.

Gasteiz (*Vitoria*): 1181ean, Nafarroako Antso VI.a *Jakituna*k "Gastehiz"[292] izeneko populazio-guneari forua eman zion, eta, horrela, *Nova Victoria* sortu zen, jada existitzen zen gune batean. Errege nafarrak horrela, "*Arabako*" nobleen botere eta jurisdikzioari *oztopo* bat jarri nahi izan zion hiribildu bat eginez.

*Vitoria*ko forua Logroñokoa[293] litzateke baina aldaketa txiki batzuekin. Bertan datorren garrantzitsuena da —kofradiarekiko auzian— lehenik, elizgizon eta kapareak, soilik auzokideen akordioaren bitartez hiribilduan onartuak izango zirela. Eta bigarrenik, onartuak izanda ere, nobleak ez zirenak bezala, kapareek ere ordaindu behar zuten hiribilduetako gastu komunetan parte hartuz. Alta, nobleak izanda ere, zergak ordaindu behar bazituzten, nola ezberdindu euren estatus pribilegiatua? Baldintza nahiko gogorrak bertako nobleentzat, dudarik gabe.

---

291. Alfontso X.aren partidetan, XIII. mendearen erdialdekoetan, horrela agertzen zaigu jasota terminoaren definzioa: «Devisa es una manera de señorio que han los fijosdalgo en algunos lugares segunt fuero de Castiella. Et devisa tanto quiere decir como heredat que viene al home de parte de su padre, ó de su madre, ó de sus abuelos ó de los otros de quien decende, que es departida entre ellos et saben ciertamente quantos son et quales los parientes á quien pertenece». IV. Partida, III. Legea.

292. 1025eko "Donemiliaga Kukullako nabarra" (*La reja de San Millán de la Cogolla*) testuan horrela jasotzen da toponimoa. Euskarazko transkripziorako ikus K. Larrañaga (1992: 163-167).

293. Hiribilduen eta foruen inguruko informazio sakonagoa lortzeko lan honen barruan Euskal Herriko hiribilduez eginiko testu-iruzkina begiratu.

Gaztelako forua: Errege Forua deiturikoa. Arabako lurraldean azkenen artean fundaturiko hiribilduetan eman zen; adibidez, Alegrian (Dulantzin eginiko hiribildua), Zuian, El Burgon... Horrela, erregeak —Alfontso X.ak— hiribilduen laguntza izan zezakeen nobleen botere eta pribilegioen kontra (Martínez Díez, 1988).

Martínez Díez-en ustetan, diploma honetako 19. artikuluan kapareek Gaztelako forua eskatzearen zioa euren estatus (fiskala) pribilegiatua mantentzea zitekeen (1976: II, 34).

Jauna (*señor*): Jauna, gizaki eta lurren gaineko edozein mota eta hedapena duen domeinu bateko titularra da. Hitz batean, edozein motatako jaurgoaren titularra daukagu (G. de Cortazar, 2002: 41).

Jaurgoa (*señorío*): «Hitz honetan, jaun/jabe batek bere agindupeko gizabanakoen lanaren irabaziez jabetzeko erabiltzen ziren baliabide guztiak biltzen dituzte. Baliabide hauek etorki askotakoak dira. Batzuetan lurraren jabetzetik datoz, beste batzuetan behartzeko botere baten erabileratik» (Pastor, 1997: 262).

Kapare (*fidalgo*)[294]: Estatus juridikoa dugu, izan ere, fiskalki salbuetsiak ziren nobleak. Kapareak orube[295] propioaren jabeak ziren —zonalde honetan eta garai honetan gehienak behintzat—; monasterioetako jaunak ere kapareak ziren, parrokia-elizak izan zitezkeen, eta den-denek —lehenago aipatu legez— immunitate fiskala zuten (beste batzuen artean).

Hidalgo ahotsa eztabaida historiko zein linguistiko askotan hizpide izan da. Menéndez Pidal-ek *hidalgo* hitza *hijo dalgo*tik —*filio de aliquo*— zetorrela ezarri zuenetik, gehiengoak paradigmatikotzat hartu zuen[296]; eta egun, eztabaida historiografikoaren gabeziaren aurrean, gehiengoak onartu duena da.

Mª C. Carlé-k zioenez, *hidalgoak* ziren infantzoiak ordezkatu zituen talde soziala. Bi terminoak ("hidalgo" zein "infantzoi") batera agertzen zaizkigu dokumentazioan sinonimo legez. XIII. mendean, ordea, *hidalgo* hitza *infantzoi* ordezkatzen hasi zen; eta ordezkatze horrekin batera, izena bestelako gizarte taldeetan "orokortzen" joan zen, infantzoiak ez zirenetan, alegia, hots, koroari arma-zerbitzuak prestatzearen bitartez *hidalgo* bilakatu zirenetan.

294. Euskarazko hitzaren jatorri eta bilakaeraren inguruan ikus Koldo Mitxelena (1968: 3-18). Beste lanen artean ikus J. Juaristi (1987: 79 eta hurrengoak).

295. Leinuaren oinarria. Bertan, Ahaide Nagusia jaio eta dorretxea eraikita zegoen. Leku sinbolikoa dugu, beraz, arbaso komun baten erreferentzia eta familiaren boterearen kanpoko elementua baita orubea, non leinuaren armarria agertzen den.

Dorretxearekin batera, eliza —bertako ugazaba jauna izaki—, errota edota olaren bat egon zitekeen, betiere familiaren boterearen arabera. Horren inguruan ikusi nobleen diru-sarrerak 6. orrian.

Orubearen garrantzia abizenean islatzen zen; izena + patronimikoa (aitaren izenetik eratorria) + euren jatorrizko orubearen izena agertzen baitzen. Adibidez, "Ruy Martínez [Martinen semea] de Yhurre". Ikus Díaz de Durana (2004: 125-126).

296. Lázaro Carreter filologoak beste tesi baten alde egin zuen: *hidalgo* hitza "fidaticum" —*fides aticum*— terminotik eratorria zela, konfiantzazkoa esan nahi zuena, alegia. Alta, ondorioak eta parametroak guztiz ezberdinak lirateke, basailutzaren kasuan. Carreter-en ustez, terminoaren sorburua eta hedapenaren abiapuntua Leon litzateke (Lázaro Carreter, 1947).

Horrela, talde horiek *hidalgo*en pribilegioak eskuratu zituzten une horretan, esate baterako, bilau-zalditerian parte hartuta (Carlé, 1961).

J. M. Lacarra-k, Fernando Lazaro Carreter-en tesiak berreskuratuz, *hidalgo* hitzaren erroa ez dela *fijo dalgo* dio; eta, terminoa Leondik Gaztelara hedatu zela XIII. mendean, *infantzoi* terminoa ordezkatuz (Lacarra, 1975). Seguru asko, zergapekoak izan arren —Lakarraren aburuz— gizarte talde hori (kapareena, alegia) osatu zutenak armak eta zaldiak zituztenak izan ziren, eta denborarekin pribilegiodunen onarpen soziala lortu zuten.

Beraz, infantzoi terminoa ordezkatua izan zen, baina kontzeptuaren *degradazioa* ere gertatu zen, talde txiki eta itxi batetik irekiago batera pasatuz[297].

J. A. Marin-en lanaren arabera, penintsulako iparraldeko lurraldeetan *hidalgo* hitzak balio eta erabilera familiarra zuen: «*Hidalgo* ahotsaren atzean komunitate familiarra islatzen da, oinarrian etxe-izaerakoa. Hau da, orube baten inguruan hainbat belaunalditako kideak integratzen zituen» (1998: 77).

Kofradia: Giza solidaritatearen erakundetzea gauzatzeko bidea dugu. Horrekin batera, bere kideei kohesioa emateko antolakuntza mota dugu ere, gizarte-egiturak azpimarratzeko.

Kristau fidelen *antolakuntza* horiek izaera erlijiosoa zuten. XIV. eta XV. mendeetan Europa osoan agertu zen fenomeno bat izan zen, baita Gaztelako koroan ere. Antolakuntzan, eskema sinple batez gobernatzen ziren eta santu baten babespean agertzen ziren. Urtero, patroiaren festa zela eta, kofradiako kide oro biltzen zen ospakizunetan (González Mínguez, 2000: 53).

Arriagako Kofradiaren lehengo aipamenak[298], 1258koak, kofradia jada garatuta dagoela erakusten digu, haatik, ezin dugu zehaztu noiz sortu zen. Hainbat

297. Nafarroako koroa izan da Lakarraren lanen hizpidea. *Hidalgo* terminoa XIII. mendean Duero eta Nafarroako mugaldearen artean dokumentatua agertzen dela dio. Nafarroako Foru Orokorrean infantzoi ahotsaren parekoa jaso arren, infantzoi hitza ez da desagertzen ez Nafarroan, ezta Aragoin ere —Aragoiko koroan ez da inoiz erabilia izanen—.

XIV. eta XV. mendeetan, ordea, —nekazari askeen elitearen— ostearen bidezko eransketak ikusten dira *hidalgo* terminoaren barruan, Henrike IV.aren erregealdian bereziki.

298. Landazurik berak 962. urtean datauriko dokumentu baten faltsifikazioa aurkitu eta identifikatu zuen. Egilea, Joan Lazarragakoa izan zen XVII. mendean (Landazuri, 1917: 187).

Faltsifikazioa errege-dekretua da; bertan Nafarroako Antso III.a *Nagusia*k (1005-1034!) arabarrek maiatzaren lehenean Estibalizko mendixkan egiten zituzten biltzar eta junta barbaroak eta ezgizatiarrak baieztatzen ditu.

Estibalizen Elorriagako Kapareen Biltzarrak egiten zituen bilkurak. Elorriagakoa, XV. mendearen bigarren aldian sortu zen Vitoriako jurisdikzioan —*Salvatierra*koan beste bat sortu zen, Donemiliagakoa—. Kapareen Juntak bailara bakoitzean edo herri bakoitzean existitzen ziren; halere, Vitoriako foruagatik, aipatu biok garapen handiagoa izan zuten. Erresistentziarako tresna ziren, nobleen pribilegioak defenditzeko biltzarrak (Díaz de Durana, 2004: 238-239). Elorriagako Biltzarraren dokumentaziorako ikus Martínez de Marigorta (1960).

Beraz, J. Lazarragakoaren helburua Arriagako Kofradia eta Elorriagako Kapareen Biltzarra erlazionatzea izan zitekeen. Horrekin batera, X. mendean kokaturik ohitura luzeegia ezarri zion Biltzarrari, inork aurre ez egiteko modukoa.

historialarik aitortzen du 1200 inguruan sortu izana posible dela. Alfontso XI.aren kronika izan zitekeen horren erakusgarri: «*Acaesció que antiguamente desque fue conquistada la tierra de Alava e tomada a los Navarros, siempre ovo señorío apartado*». Bestelako froga 1258ko dokumentua bera izan zitekeen, eta bereziki esaldi hau: «*la costumbre del reinado de Alfonso VIII*», hots, 1200.-1214. urteren buruan (Martínez Díez, 1972: 44).

Oraindik zaharragoa izan zitekeelako susmoak daude; Nafarroako monarkiarekin sortu izan zitekeen; horretarako, Antso VI.arekin behintzat, Nafarroa (Antso VI.a) eta Gaztelako (Alfontso VIII.a) erreinuen arteko 1179ko bakehitzarmena frogatzat harturik, alegia (Martínez Díez, 1972: 45)[299].

Kofradiaren osaketaren inguruan, aldiz, bertako osagaiak hauek izango ziren: kofradiako jauna, *Arabako* nobleak[300] —jabego, laborari eta morroiekin—, zaldunak eta dibiseroak, eta erregearen lurralde-gobernariak (Gaztelako *Adelantado* eta Merio Nagusia —*Merino Mayor*—; Araba eta Gipuzkoako *Adelantado* edo Merio Nagusia — *Merino Mayor*—; Arabako *Adelantado Mayor*; eta erregearen epaileak eta zerga-biltzaileak).

Bere betebeharren artean, kofradiako jaunak jurisdikzio zibil eta kriminala zuen. Horrekin batera foru-zergak kobratzen zituen, eta alkateak, merioa, *adelantado,* edo gobernariak izendatzen zituen (Orella, 1984: 312-313).

Martxoko idia (*buey de marzo*) eta Semoioa: «Nekazariek Arriagako Kofradiako jaunari eman behar zizkioten foru-zergak —*pecho forero*[301]— ditugu. Semoioa —edo moi edo moio-erdia— tributu-unitate bakoitzak, zerga-etxe bakoitzak, ordaindu behar zuen ale-neurria da. Martxoko idia beste zerga bat da, baina horren esanahia eta zenbatekoa zaila da zehaztea, datuen falta dela eta» (Pastor, 1997: 262)[302].

Bi zergok kofradiako jaunak hartzen zituen —1332ko autodisoluziotik aurrera erregeak berak jaso zituen, bera izan baitzen kofradiako lurrak izandakoen buru—, eta horien balio sinbolikoa, jaurgoaren jauna izatea, ale-

299. Dokumentuaren transkripziorako ikus J. González (1960: I, 802-813).

300. Bai Martínez Díez-ek, bai Micaella Portillak, emakume noble jabeak (*dueñas*) aipatzen dituzte kofradiaren organigrama barruan. Biek 1332ko apirilaren 2ko dokumentua azaltzen dute, non Salvatierrako hiribilduari 15 herrixka eta bi despopulatu eman zizkioten: «caballeros e escuderos fijos Dalgo *[...]* t Dueñas fijas Dalgo que solian ser en la Confradia d'Alaba» (Portilla, 1984: 341). Testu osorako ikus Landazuri (1928: 356).

301. «Nekazariek ordaindu behar zuten zerga eta karga multzo bat, jaun baten lurraldean bizi eta lan egiteagatik. Esandako zentzuaren onuraduna kolonoak landutako finken jabea zen. Beste batzuetan, jaun-loturatik etortzen ziren errentak, lur-jabeek "jaunaren" boterearen mendean jartzen baitzituzten lurralde horietako biztanleak. Arriagako Kofradiaren kasu berezian, Arabako nekazari morroiek —dependenteak— eta nekazariek —askeak—, kofradiak hautaturiko jaunari zentsu bat —foru-zerga edo "pecho forero" deiturikoa— ordaintzen zioten, eskualdeko foruen arabera ezarria» (Pastor, 1997: 261).

302. «Et aquel a quien ellos daban el señorío, debanle servicio muy granado, demás de los otros pechos foreros que decían ellos el semoio et el buey de Marzo», ikus Alfontso XI.ren kronika, 231. or.

gia, balio ekonomikoa baino garrantzitsuagoa izan zitekeen (Martínez Díez, 1976: II, 39).

Merio (*Merino*): Erregearen boterea adierazten duen kargua da, errege-lurraldeko irudia, hain zuzen ere. Hiribilduen jurisdikziotik kanpo, epaile-lanak egiten zituen, eta horrekin batera justizia-administratzaile gisa jokatzeko boterea zuen, betiere, erregearen izenean.

Portilla (d´Ibda): Gaur egun habitat gune hori desagerturik dago. Gotorlekua zen[303], Zadorra eta Ibda —egun Ayuda— ibaien urak igarota, Trebiñuko sarrera kontrolatzeko kokapen militar erabakigarria. Portillako izena 1177rako agertzen da dokumentazioan[304].

Hiribildu horren forua ez da gorde, baina Berantevillako foru munizipalaren bitartez izan dezakegu horren berri (nahiz eta oraindik ere gutxi izan). Beraz, historialariek 1312ko Berantevillako forua (*Soportiella* dokumentuetan agertzen zaigun legez) erreferentetzat erabili izan dute[305].

Soportiella Fernando IV.ak (1296-1310 arteko erregealdia)[306] sorturiko herri berria dugu, lautadan kokaturik eta Portilla d´Ibdatik bi kilometrora, gaur egungo Berantevillaren[307] kokapen geografiko berean, hain zuzen ere. Hiribildu horren izen-aldaketa, 1332-1367 bitartean zertu omen zen, Berantevillako hiribilduaren lehenengo aipua 1367koa da eta (Martínez Díez, 1971: 1111)[308].

Cartapuebla horrek kapareen pribilegio eta immunitate fiskala —bai ogasunaren gainekoa, bai pertsonala— elkartzen zituela dakigu (Martínez Díez, 1971: 1108-1111)[309].

---

303. Portillako gotorlekua harkaitz baten gainean kokatuta omen zegoen, eta bertako dorrea oso famatua zen. Horren arabera, E. Velasco-k zioen agian Arabako Ermandade Orokorraren armarrian —gaur egun Arabako Porbintziarena— agertzen diren harkaitza eta dorrea Portillakoak izan zitezkeela (Velasco y López Cano, 1899).

304. Antso VI.ak errege nafarrak Alfontso VIII.ari eskatzen dizkion gazteluen artean aipatua agertzen zaigu Portilla d´Ibda-koa (1179 arte eman ez zitzaiona). Testurako J. González (1960: I, 802-813).

305. Landazurik dioenez, Elorriagako kapareen eta Vitoriako hiriaren arteko 1476ko pleitoan, Elorriagakoek Soportillako forua eskatu zuten, Berantevillako artxiboan aurkitu zuten (1928: 198).

306. Fernando IV.aren erregealdiari buruz ikus González Mínguez (1976).

307. Ikus Berantevillari buruzko González Mínguez-en lan monografikoa (2000). Bertan, Berantevillako foruaren datazioa 1312an izan zela dio —kofradiaren autodisoluzioa baino hamar urte lehenago—.

308. César Gónzalez Mínguez-ek dio Berantevillako toponimiaren lehenengo aipua 1080koa dela: Munio Alvarez Ilarratzakoak Berantevillako mahasti baten dohaintza egiten dio Donemiliagako monasterioari. Geroago Leireko monasterioari erlazionaturiko dokumentazioan agertuko zaigu (2000: 33).

309. Orellak dioenez, «(So)Portillako foruak ezartzen du, fidantza eta fidatzaile arduratsuak eta forua beteko dutela zin egindakoak emanez gero, inor ezin dela atxilotua eta gartzelaratua izan; foruak erosketak, salmentak, dohaintzak, fidatzaile, kontratu eta auzi judizialak arautzen ditu. 1332 baino lehen, forua idatzi gabe zegoena, usadio eta ohituren bitartez araututa legoke» (1984: 313).

González Mínguez-ek dioenez, biztanle orori zerga nahikoren exentzioa ematen zien foruak —erregeari eman beharrekoa salbu—, *enprestito*z, laguntzaz, zerbitzuz eta atesariz, Toledo, Sibilia eta Murtzian izan ezik, erreinu osoan (González Mínguez, 1989: 42).

Beltran Iañez Gebarakoa: Oñatiko jauna. Nafarroako koroaren basailua. Hainbat mementotan Gaztelako Koroarekin harremanetan ikusiko dugu, hala ere.

Lope Mendozakoa: XII. mendetik Mendozatarrak Gaztelako koroarekin erlazionaturik agertzen zaizkigu.

Lope Gartzea Salazar: Gobiaran, Burgos eta Aiaran hainbat lekutako jauna[310].

Fernan Perez Aiarakoa: Aiara familiak Gaztelako Alfontso X.a eta Antso IV.arekin gorakada nabaria izan zuen. Petri Lopez Aiarakoa Kantzillerraren aita dugu. Bera izan zen Kexanan (Aiara) komentua sortu eta Aiaran lurrak berreskuratu eta erosi zituena. Barakaldon beste monasterio bat ezarri zuen (Portilla, 1984: 361).

Fernan Ruiz Gaunakoa: Kalagorriko artzedianoa. Garaiko noble arabarren artean oso aberatsa izan arren, nahiko ezezaguna bilakatu zaigu.

Oñaztarra, Dulantzin dorretxea zuen Arabako Mendietan —Kanpezuren bitartez besteak beste— eta Lautadan sartu eta ateratzen zen. Bere ondasunak, mahastiak, dorreak, jauregiak... Araban, Errioxan eta Trebiñun kokatuta zeuden (Portilla, 1984: 357).

IDEIA NAGUSIAK

Testu honen garrantzia Euskal Herriko Erdi Aroko diplomatikaren barruan, jada nahiko azpimarratuta egon arren, hurrengo orriotan bertan garrantzi gehien duten ideiak azaltzen saiatuko gara.

1332ko apirilaren 2ko akta honetan, hogeita hiru artikulu ezberdinen aipuak eta bakoitzari Alfontso XI.ak eginiko erantzunak biltzen dira. Artikuluz artikulu birpasatuko ditugu batzuen eskakizunak eta koroak onarturikoa.

– Lehenengo artikuluan, kapareek eskatu zioten Alfontso XI.ari *Araba*ko jurisdikzioko —izandako— lurrak ez saltzeko hiribilduei, ez *inori*.

Erregeak onartu zuen, Aguraingo herrixkak salbu. Jada aipatu dugu Gasteiz eta Aguraingo hiribilduak Arriagako Kofradiarekin auzietan ibili zirela 45 herrixken gaineko jurisdikzioaren harira. Kofradeek galdu zituzten, eta herrixka horiek errege-lurralde bilakatu ziren. Hortaz, Aguraingo hiribilduak lorturiko herrixken gaineko erabakiak —saltzeko, etab.— erregeak berak hartu zituen berarentzat.

310. Lekuen deskripziorako ikus Orella (1984: 299).

– Bigarren artikuluan, kapareek euren estatus pribilegiatua bermatzea eskatu zuten. Euren gaineko eta euren ondarearen gaineko exentzio fiskala onartu eta baieztatu zuen erregeak.

Artikulu hori oso garrantzitsua da, kapareen nagusitasun sozialak kolokan zeudelako isla izan daitekeelako. Hainbat idazlek artikulu honen garrantzia azpimarratu dute, horien artean Díaz de Durana dugu. Díaz de Duranak aipatzen du errenta feudalaren jaitsieraren aurrean kapareen estatus pribilegiatua bera arriskuan zegoela; beraz, artikulu hori krisiaren erreferentetzat hartu du historialariak[311].

Feudalismoaren krisiaren[312] isla izateaz gain, artikulu horretan kofradiaren eta hiribilduen arteko lehia antzeman dezakegu. Gasteizko foruak dioenez, bertan bizi nahi duten kapareek eta elizgizonek gastu komunetan parte hartu behar dute beste auzokideek bezala. Beraz, kapareen fiskalean —hots, zergarik ez ordaintzea— oinarrituriko ezberdintasun soziala, ezabaturik suertatzen zen.

– Hirugarren artikuluan, monasterio eta mendeko nekazarien *jabegoa* mantentzea eskatu zuten. Hala, patronatuez hitz egiten digu artikulu horrek: legez laikoen eskuetan geraturiko elizak, hain zuzen ere[313].

Horretaz gain, haien nekazariek ihes eginez gero, jaunek jazarpen-eskubidea eskatu zuten —jada 1258ko Arriagako Kofradiaren dokumentuan eskatu zutena, baina onartu ez zitzaiena— (Martínez Díez, 1972: 12)[314]. Oraingoan, jazarpen-eskubidea bai onartu zitzaien; halere, monasterio eta nekazari dependenteen gaineko jurisdikzioa erregearen esku geratu zen, errege-jaurgoa eta justizia, hain zuzen ere.

– Laugarren artikuluan, kapareen lurretako nekazari dependenteen (morroien) gaineko eskubideak —hau da, mendekotasun juridiko zein soziala— bermatzea eskatzen zuen kofradiak. Aldiz, erregearen esku geratu ziren *moio* eta *martxoko idia* zergak (lehenago kofradiako buruari zegozkionak), jurisdikzioarekin batera. Azken finean, jaurgoaren sinboloak zirenak erregearen esku geratu ziren, nahiz eta nekazari horiek kapareen mendekoak izan —ez ziren euren *jaunak*, jaurgoa zuena erregea baitzen—.

– Aurrekoarekin loturik, bosgarren artikuluan, kofradiako jaunarenak ziren zergak jada erregearen esku —bera baitzen jauna— zeudela azpimarratzen da. Artikulu horretan dirutan ordaindu beharreko isunez mintzatu ziren. Bertan neka-

311. Jada aipatua dago lanean zehar; ikus lan honen 5. eta 6. orriak nagusiki.

312. Feudalismoa gizartea antolatzeko modu global bat legez ulertua. Sistemaren krisi orokorra gertatu zela, hots, iraupen luzeko prozesua gauzatu zela defendatzen dute historialari batzuek, non egiturak bere osotasunean ukituak izan ziren. Valdeón Baruque, J. (1982): "Álava en el marco de la crisis general de la sociedad feudal", *Vitoria en la Edad Media*, Gasteiko Udala, Gasteiz, 329.-337. or.; 329. or. bereziki.

313. 6. orrialdean azaldua, nobleziaren diru-sarreren atalean.

314. Testuaren transkripziorako —kofradiako diploma guztiekin batera— ikus Martínez Díez (1976: II, 209-217).

zarien, bai aske bai morroien, isunak bertako jaunak eskuratu zitzan eskatu zuten. Eskaera hori onartua izan zen, baina, kofradiarenak ziren eskubideak monarkiaren eskuetara igaro ziren. Beraz, erregeak berak —ordutik aurrera kofradiako jaunak— jaso zituen zergok.

– Seigarren artikuluari buruz debate handiak sortu dira garai ezberdinetako historialarien artean[315].

Izan ere, bertan, kapareek *Araba*ko lurraldekoentzat Portilla D'Ibdak zuen forua eskatu zuten eta. Erregeak berriz, Soportillakoa eman zien nobleei soilik. Bestelakoei «*a todos los otros de la tierra*», hots, kofradiako lurraldeetako nekazari (aske zein morroi), zerbitzariei... Errege Forua eman zien erregeak.

Bertan azpimarratzen den legez, euren estatus pribilegiatua eta exentzio fiskala erlazionatzen ditu; beraz, kapareen ezberdintasuna eta nagusigo soziala justizia arloan[316] —eta batez ere politikoa eta ekonomikoa, hiribilduekin zuten borroka zela eta— bermatzeko helburuarekin.

Lehenago ikusi dugun legez, ez dakigu asko Soportillako foruari (1312) buruz, baina dakiguna horixe bera da: noble eta petxarien arteko ezberdintasun markatua islaturik mantentzen dela bertako foruan. Kontuan hartu behar dugu —gaur egungo— Arabaren gehiengoa bestelako ordenamendu juridikoetan oinarritzen zela gobernatzeko. Lehenago komentatu den bezala, *Victoria*ko foruan petxariak eta nobleak berdindurik agertzen dira "fiskoaren" aurrean, biek ordaindu behar zutelako gastu komunetan. *Victoria*koa Arabako hiribilduen gehiengora barreiatu zenez, hori litzateke arrazoi nagusia kapareek Portillakoa eskatzeko[317].

315. Jada aipatua izan da Berantevillako foruaren inguruko informaziorik eza. Izan ere, dokumentu beraren gabezi fisikoaren aurrean —soilik 1419ko kopia bat gorde da; kopia ez da dokumentu originalarena, baizik eta 1408ko konfirmazio batena—, hipotesiak askotarikoak izan dira. Hiribildu horren inguruan gogoratu lan monografikoa (González Mínguez, 2000).

316. Justizia, Antzin Erregimena bukatu arte, modu ezberdinean ezartzen zen epaituaren estatus juridikoaren arabera. Klase sozial bakoitzak isun eta justiziarako metodo propioak zituen; adibidez, kapareak ezin ziren torturatuak izan, ezta urkatuak ere; heriotza-zigorra gauzatzeko ere, hainbat modu zeuden. Horrela, 1789an Frantziako Iraultza izan zenean, heriotza-zigorraren bidez islatzen ziren desberdintasun sozialekin bukatu nahian, gillotina sortu zen herioaren aurrean ere herritar guztiak berdinak izateko, hots, denak modu berean hiltzeko.

317. Bestelako egoera juridikoak egon bazeuden Arabako lurraldean. Gesaltza Añanako foruan (sorturiko lehenengo hiribildua 1140an, hain zuzen ere) ez da onartzen ez infantzoirik, ez infantzoi horien nekazari dependenterik bertan ezartzerik. Bestelako egoera batean islaturik agertzen dira nobleak *Victoria*ko foruan (1181ekoa) aipatu den bezala; eta, azkenik, ezberdintasunak markatzen dira Berantevillako foruan (1312) eta 1373ko Aiarako foruan. Halere, komentatu beharra dago Aiarako biztanleek 1469an uko egin ziotela euren foruari eta Errege Forua eskatu zutela.

Laguardiako foruan (1164) infantzoiei euren estatus juridiko pribilegiatua bermatzen zitzaien. Hala ere, Laguardia 1461ean Nafarroako koroari irabazia izan zen. Beraz, garai horretan oraindik ezin dugu Arabako lurraldeko forutzat hartu. Ordenamendu juridikoak ikusteko, Martínez Díez (1971).

Orellak bi testuen —Soportillako eta *Vitoria*ko foruen— «lurraldetasuna eta banaketa gauzatu zela 1332an» defendatzen du. Hau da, kofradiako lurrak, hiribildu gabekoak —Agurain, Gasteiz eta Trebiñu salbu—, Soportillako forua izango zuen, nobleen eskubideen defentsarekin erlazionatuta zegoena; eta, *Vitoria*ko forua hiribilduetan, burgesiaren interesak defendatzen zituen testua zelako. Horrela, jada sortua zegoen egoera, kofradiako lurraldean hiribilduak agertzea, alegia, kofradiak onartu zuen beste hiribildu berrien eratzea galarazi nahian. Orellak ondorioztatzen du, kofradiaren etsaia ez dela botere monarkikoa, baizik eta hiribilduetako burgesia (Orella, 1984: 308).

– Zazpigarren artikuluan kofradiako kideek alkatea noblea eta Arabakoa (kofradiako lurraldekoa eta ez hiribilduetakoa) izatea eskatu zuten. Horrela, noblea soilik noble batek epai zezakeen. Apelazioa egitekotan ere, Gaztelako Gorteko kapareen aurrean egiteko eskubidea eman zitzaien, hiribilduetako foruen araberako justiziaren aurrean izan beharrean.

Artikulu hori noble arabarrek erabilia izan zen Behe Erdi Aroan zehar, hiribilduetako karguak —alkatearena barne— bestelako bizilagunen artean[318] monopolizatzeko.

– Aurreko artikuluan bezala, zortzigarren artikuluan, merioa arabarra eta kaparea izatea eskatu zuen kofradiak. Kapareak ezin ziren preso hartu alkatearen epaiketarik gabe, soilik enkartatua bazen —justiziatik ihesean bazebilen, alegia—. Eta norbaitek zigor fisikoa merezi duen delituren bat eginez gero (traizioa, alegia), merioak preso har zezakeen.

– Bederatzigarrenak, aldiz, foru-zerga ("*pecho forero*") du hizpide. Eskatzen dute *Araba*ko biztanleek petxarik ez ordaintzea, ez bada foru-zerga, hots, "martxoko idia" eta "semoioa" izeneko zerga zaharrak. Hamargarren artikuluan ere, kapareek eskatzen dute euren nekazari libreek petxarik ez ordaintzea, eta hamaikagarrenean, euren etxeko morroiek.

Kapareek euren nekazariei exentzioa ezartzea eskatzearen helburua bikoitza izan zitekeen. Batetik, nekazari horiek soilik kapareek ezarritako zergak ordaintzea, bakarrik euren esku gelditzea. Bigarrenik, nekazari horiek kapareen lurretan mantentzeko ahalegina izatea (Díaz de Durana, 1988: 72).

– Hamabigarren atalean, 1331n 45 herrixken gaineko jurisdikzioagatik Gasteizko kontzejuaren eta kofradiaren artean izan zen auzia islatzen da. Bertan, Gasteizek inguruetako behe-mailako kapareei —ekonomikoki egoera kaxkarrean aurkitzen zirenei— lurrak erosi zizkien. Kofradiak kapare horiek euren estatus

318. Hiribilduetako biztanleen artean bereizketa egiten zen biztanleen —*morador*— eta auzokideen —*veçino*— artean. Denak ziren biztanleak baina ez ordea auzokide. Kategoriaren arabera, eskubide politikoak ezberdinak ziren, alta, kontzejuetako kide izateko eta bozkatzeko eskubidea izateko —beste batzuen artean— auzokidea izan behar zen.

juridikoa eta eskubide guztiak mantentzea eskatu zion erregeari. Alfontso XI.ak auzi horretan bertan (1331koan) epaitu zena errespetatu egingo zuela erantzun zien. Beraz, 45 herrixka horietatik 41 Gasteizko kontzejuaren pean geratu ziren, ondorioz, Gasteizko foruaren pean. Alabaina, bertako kapareek mantendu zuten euren estatus berezia, Berantevillako forua ezarriko zitzaielako, *Vitoria*ko foruaren ordez —nobletasun gabeko bizilagunei ezarriko zitzaien legez—[319].

Martinez Díez-en ustetan, kontzejuaren jurisdikziotik babespen-eskaera hori erregeak ez zuen onartu (1972: 68).

– Hamahirugarren puntuan dibiseroak izandako herrietan, jada galduriko lurretan, alegia, —eta *Arabako* nekazariak, aske zein morroi: *t todos los dela tierra*— mendi, zelai eta bazkaren inguruko eskumen guztiak mantentzea eskatu zuten (hamalaugarren puntuan ere eskatutakoa, hau da, *Arabako* beste orok lehenago bezala egitea); baita eman ere.

Díaz de Duranaren aburuz, eskaera horiekin mendiaren ustiapenean eskubide berriak lortu zituzten kapareek. Horrela, "mendia ustiatzeko jabetzaren banakotasunaren" fenomenoa hasi zen, XV. mendearen hasieran indartu zena, hain zuzen ere. Eskakizun horren bitartez garaiko egoera ekonomiko eta soziala antzeman dezakegu; izan ere, eskakizunaren memento horretan mendi eta zelaien ustiapena oso preziatua bilakatu baitzen nobleen diru-iturri legez (Díaz de Durana, 1988: 73-74).

– Hamabosgarren puntuan, kapareen kontrako ekintzek jasoko zituzten zigor ekonomikoak zehaztu ziren. Kapare bat hiltzeak —erregeak jasoko zukeen— edo desohoratzeak —biktimak berak— zer-nolako isunak suposatzen zituzten eta zeinek jasotzen zituen agertzen zaigu bertan.

– Hamaseigarren artikuluan kapareek *Araba*ko lurraldean ola gehiagorik ez ezartzeko eskatu zioten erregeari. Erregeak etorkizunean kofradiako jurisdikzioan

319. «(...) son las quarenta et una aldea de de las quarenta et çinco aldeas, sobre que amas las dichas partes contendian que sean et finquen con el conçeio de Bitoria et que las exentas et francas et libres et quitas segunt el fuero et huso et costumbre que an el dicho çonçeio de Bitoria, et partidas del fuero et uso et costumbre de los Confrades d'Alava, et que las ayan las dichas aldeas con montes et con prados,et con pastos, et entradas, et salidas, et con todas sos pertenencias que an et deven aver desde foia del monte fasta la piedra del rio.

Et otrossi que los fijosdalgo moradores en las dichas aldeas o los que an y algo que les sea goardado todo so derecho que an en todas estas cosas sobredichas assi como siempre lo ovieron en tal manera et con tal condición que del dia de oy en adelante en ningun tiempo non puedan los bitorianos aver en tierra d'Alava, nin en todo so fuero mas aldeas destas que dichas son, por compra nin por cambio nin por donadio, nin por pennos, nin por otra razon ninguna.

Otrossi que los fijosdalgo que an algo en estas aldeas sobredichas o en algunas dellas que estos algos que y ovieren que sean libres et quitos de todo pecho con quanto mas ovieren et podieren ganar daqui adelante et que lo ayan al fuero de los fijosdalgo de Soportilla» (Martínez Díez, 1976: II, 216-217). [Azpimarrak gureak dira].

oihan-ola ("ferrería de bosque")[320] berririk ez eraikitzea lortzean —eta hamahiru eta hamalaugarren puntuetan esan bezala mendien gaineko eskubideak izaki—, jada nobleek zuten olen ustiakuntza abiapuntu harturik, sektorearen monopolioa mantentzea lortu zuten (Martínez Díez, 1976: II, 224-225).

– Hamazazpigarren eskakizunean *fuera de barreras* etxe berririk ez egitea aipatzen da. Hau da, herri bakoitzean abereen *irteera* oztopatzen zuten hesiak (Martínez Díez, 1972: 68).

– Hemezortzigarren artikuluan ordura arte eginiko auzi, kontratu, salerosketa, dohaintzak... aurreko foruaren arabera gauzatzearen eskaera egin zioten Alfontso XI.ari kapareek; eta horrek baimendu zuen.

Zioa erraza zen: hortik aurrera negozio horiek guztiak hiribilduetako —*Vitoria*ko— foruaren arabera gauzatzearen beldur ziren kapareak.

– Hemeretzigarren puntuak nobletasunaz hitz egiten digu. Bertan erregeak onartu zuen kapareren bati petxarik eskatuz gero, Gaztelako foruaren arabera nobletasuna bete eta frogaturik badu, estatus juridiko berezia eskuratuko zuela; hortaz, ez zuen petxarik ordaindu beharko.

Artikulu honetan Gasteizekiko auzia agertzen zaigu. Bertako foruak zioenez, denek ordaindu behar zituzten zerga komunak. Hau da, Gasteizek kofradiatik eskuraturiko lurretan bizi ziren kapareen egoera islaturik agertzen zaigu, alegia; noble horien eskubide fiskalen beldur ziren eta.

– Hogeigarren artikuluak desafioa du elepide. Alkatearen erabakia ez bada, *Araba*ko noblerik ez desafiatzeko onartu zitzaien. *Afia*tzeko, ordea, eskumena merioak zuen[321].

– Hogeita batgarrenean kapareei debekatu zitzaien hortik aurrera dibisero izatea —ez ordea abereak bazka egitea dibiseroak izandako lekuetan (13. art.)—. Haatik, eurek eskatu zuten beraien dibisen defentsarako ez eratzeko herri berririk *Araba*ko lurraldean; eta ordura arte zituzten dibisak bere hartan mantentzea.

– Hogeita bigarren puntuan Alfontso XI.ak Mendoza eta Mendibileko herrixkek —biak Mendozatarren esku— petxarik ez ordaintzea onartu bazuen ere, jurisdikzioa erregearen esku utzi zuen, beraz, jaurgoa eta justizia jadanik ez zen Mendozatarren esku geratuko.

1332ko apirilaren 2an bertan, Alfontso XI.ak Juan Hurtado Mendozakoari bi herrixken foru-zergaren eskumena eman zion; 1342an, aldiz, justizia.

320. Olen tipologiaren inguruan lan honen barruan Segurako foruaz eginiko testu-iruzkina kontsultatu.

321. Ikusi *desafio* hitza lan honen glosategian.

– Azken eskakizunean, Gebara herriari onartu zitzaion, —Beltran Iañez Gebarakoaren pean zegoenari, Oñatiko jaunaren pean, alegia— ez petxarik, ez foruzergarik ez ordaintzea; jurisdikzioa eta justizia-eskubideak monarkiaren esku geratu ziren.

Landazurik eginiko transkripzioan bestelakoa jasotzen da: «[...] *tenemoslo por bien por le facer merced y otorgamos que la dicha Aldea sea quita de pecho Señorio Real y la justicia.*» (Landazuri, 1928: 124). Horrela, jaurgoa bera Gebaratarren esku geratu zela uler daiteke.

Azkeneko bi artikuluetan goi-mailako bi nobleen aipamen espezifikoak daude, (ondorioetan ikusiko dugun bezala) kofradian bertan, jada, hierarkizazioa oso nabaria zen boterea oso gutxiren esku fokalizatzen ari zelako. Familia horiek izanen ziren kofradiaren *autodisoluzioa*rekin gehien irabaziko zutenak.

ONDORIOAK

1332ko apirilaren 2ko aktaren bidez, Arabako nobleek bizi zuten egoera kezkagarria bideratzen saiatu ziren.

Nobleek errenten murrizketa oztopatzea zuten helburu; horretarako, errenten gainean eragin ezkorra zuten zenbait fenomeno sozialen garapena neutralizatu behar zuten. Alde batetik, nekazarien ihesak nobleen lurrak uztea zekarren; beste aldetik, hiribilduen eraketak —edo handitzeak— kofradiako jaurgopeko lurrak galtzea zekarren ere.

Lurren galeraz gain, nobleek euren estatus pribilegiatua kolokan ikusi zuten, hiribilduek gastu komunetan parte hartzea nahi baitzuten.

Egoera larriari aurre egiteko beste bide bat, mendiaren ustiakuntzaren jabegoa lortzea izan zitekeen eta, horren bidez, diru-sarrera berriak eskuratzea.

Autodisoluzioarekin kofradiak lorturiko lorpen nagusiak hiru izan ziren: lehenik, nobleek euren estatusaren baieztapena eskuratu zuten. Exentzio fiskal horrek estatus sozial zein politiko pribilegiatua zekarren; eta, hori bera litzateke nobleen helburuetako bat: gailentasun ekonomikoaz gain, lehentasun soziala eta politikoa izaten jarraitzea bakoitzaren komunitatearen barruan. Izan ere, lehentasun hori prestigiotik eta euren *nobletasun*etik eratortzen zen, ezberdintasunetik, hain zuzen ere. Azken finean, aurreko egoera mantentzea zen helburua.

Bigarrenik, nekazaria lurrari atxikitzeko, nekazarien gaineko jazarpen-eskubidea izan zuten, 1258an erregeari eskatu arren lortu ez zutena. Hirugarrenik, mendiaren ustiakuntzaren kontrola zuten nobleek (olen monopolioak... barne).

Baina, zeintzuk izan ziren eskumen horiek guztiak *gozatzeko* aukera izan zuten nobleak?

Kofradiako dokumentazioa aztertuz gero, nobleen aipamenak geroz eta gutxiago zirela konturatuko gara. Adibidez, 1331ko urriaren 4ko dokumentutik 1332ko apirilaren 2kora kofradeen izen ugari falta dira; hala nola, Martin Erramirez Montoriakoa, Antso Perez Gazeokoa, Ienego Ruiz Arangizkoa, Lope Diaz Hugarengoa [Ugarte?], Diego Lopez Araiakoa, Pedro Lopez Montoiakoa[322]...

Nobleen barne-hierarkia geroz eta nabariagoa izan zen Behe Erdi Aroak aurrera egin ahala. Nekazari-munduko nobleen aipamenak modu ez zuzenean egiten dira 1332ko apirilaren 2ko dokumentuan formula honen bidez: *y otros fijosdalgo de Alaba*. Mendoza eta Gebaratarren eskakizunek, ordea, dokumentuaren artikulu berezi bat osatzen dute. Beraz, kofradiaren boterea eta kideen arteko nagusitasuna gutxiren esku geratuz joan zen. Mendoza edota Gebaratarren boterea kofradian bertan, nahiz Araba osoan (gerora Gaztelako Gortean), nabaria zen jada. Erregearen alde egiteko prestu zeuden eta, horrek, eskualdetik Gortera salto egiteko abagunea eman zien goi-nobleziaren familia arabar horiei.

Dokumentuetan aipatu gabeko nobleak, hau da, bestelako kofradietako kideak, euren artean estuki erlazionatuta zeuden eta goi-nobleziaren klienteletan sartu ziren basailutza-harremanen bidez (Díaz de Durana, 2004: 133).

XIV. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, fokalizazio-fenomeno hori lurraldearen jaunpetze-prozesuarekin batera gertatu zen Araban[323].

Alfontso XI.ak nobleei zenbait kontzesio egin arren, ez ziren nahikoak izan krisiari aurre egiteko. Ondorioz, Petri I.ari (1350-1369) eskatu zioten, edota indarrez hartu zuten. Henrike II.ak goi-kide horiei —beste batzuekin batera, Aiara, Rojas, Manrique, Sarmiento, Belasko, Abendaño...— emandako eskumenen[324], lurren eta karguen bitartez jaunpetze-prozesu hori nabarmenagoa izan zen. Familia horietako batzuk maiorazgoak eratzen joan ziren ondasunak eta familiaren nagusigoa denboran zehar mantendu ahal izateko.

Dokumentu honen erabilera etengabekoa izan zen Behe Erdi Aroan zehar. Izan ere, oraindik ere hainbat arazo zituzten nobleek euren estatus ezberdindua bermatzeko. Arabako nobleek autodisoluzioaren hainbat artikuluren erabilera politikoa egin zuten.

1332ko aktaren bidez besteak beste defendatu zen Arabako alkateek kapareak izan behar zutela. Dokumentuan, ordea, Alfontso XI.ak onartu egin zuen *Araba*ko lurraldean, hots, Arriagako Kofradiak zuen lurraldean, alkatea izateko noblea izan behar zela. Alabaina, Arabako nobleek, testuaren erabilera politiko horren bidez,

322. Nobleon deskripziorako ikus Portilla (1984: 342-345).

323. Jada Julio Valdeón-ek 1982an hipotesi bezala planteatu zuena (1984).

324. Eskumenen harira ikus Díaz de Durana (1986: 322 eta hurrengoak).

Erdi Aroaren bukaeran Arabako kontzeju gehienak bereganatu zituzten (Díaz de Durana, 2004: 269)[325].

Horren aurka agertu zen hiribilduetako jendea. 1332az geroztik, kofradiaren lurrak izandakoen populazioaren berdintzea gertatu zen, *Vitoria*ko foruaren bitartez. Behin eta berriz, ez nobleak, euren eskubideak defendatzen saiatu ziren, forua erabiliz.

Beraz, petxarien eta nobleen aurkako lehia kofradia desagertu ostean mantendu egin zen; borroka hori ez zen hiribilduetan bakarrik libratu, ordea.

Nekazari-munduan ere, bi talde ezberdinen arteko ika-mikak luzaroan mantendu ziren. Arabako landa-munduko petxariek 1345erako, jada, Alfontso XI.ak zuzenduriko Burgoseko Gorteetara jo zuten kexu.

> [*Kofradia desagertu ostean*] los clerigos e escuderos de Alava que estan casados con labradoras que ganaron nuestras cartas en que ynbiamos mandar que los dichos clerigos e las dichas labradoras mugeres de los escuderos que non pagasen en los nuestros pechos con los dichos nuestros pecheros de Alava por los bienes que avyan e ganasen en qualquier manera, e asy que los dichos clerigos e las dichas mugeres labradoras mugeres de los escuderos que avian ganado e comprado e ganavan e compravan de cada dia las heredades de los nuestros pecheros e que se escusavan de pechar de pechos e los dichos labradores nuestros pecheros que no podian conplir en pagar los pechos que les non mandamos que diesen, e que eran por ello pobres e despoblados e yermos muy grand partida de ellos.

Kapare —gizonezko— eta nekazarien —emakumezko— arteko ezkontzak ohikoak izan ziren bezala, ohikoak ziren ere bestelako nekazarien kexuak. Alde batetik, emakumeak eta bere seme-alabek senarraren estatus berezia eskuratzen zuten, hots, nobletasuna. Beste aldetik, emakume horrek dotetzat emandako lurrak (ordura arte zergapekoak zirenak) hortik aurrera exentzio fiskalak gozatzen zituen noble baten lurrak balira bezala —senarrak ematen baitzion familiari kapare-titulua, eta senarraren jabetza bilakatzen baitziren—.

Beste petxarientzat, berriz, izugarrizko *zama* ziren ezkontza horiek; zerga kopuru bera gutxiagoen artean ordaindu behar zuten eta.

Ezkontza misto horiek nekazari aberatsak noble bilakatzeko bide *nahiko* erraza eta pentsatzen duguna baino erabiliagoa izan ziren. Horren froga, petxarien ahalegina dugu, 1345etik aurrera, lur *aske* horiek zergak ordain zitzaten. Beraz, petxariak —emakume nekazari horren familiakoak askotan— modu guztietan saiatu ziren lur horien izaera petxaria izaten jarraitzea, ondorioz, zergak ordaintzeko.

325. Postu horiek —batez ere korrexidorearena— lortu zituztenak bigarren mailako nobleak izango ziren. Hau da, nekazari-mundutik eratorritakoak (Díaz de Durana, 2004: 142).

Horrela, 1345eko Burgoseko dokumentua eta Arriagakoa behin eta berriz erabili zituzten bai nobleek bai petxariek —eta hainbat erregek baieztatuak izan ziren— elkarren aurkako auzietan —XV. mendera luzatu zirenak—, bakoitzak bere interesak defendatu nahian. Horrek erakusten digu Arabako landa-munduko gizartearen konplexutasuna eta ikerketarako interesa (Díaz de Durana, 2004: 228-230).

Arabako kasua aztertu dugu orain arte; baina Bizkaiko kasuan, bertako kapareek bildu, eta, era kolektiboan, Bizkaiko jaunarekin bere eskumenak eta pribilegioak zehaztu zituzten —*Arabako*en antzera— 1342an Gernikan, mendiaren erabilera hizpide izan zutelarik batik bat.

1342ko hitzarmenean, mendien gaineko eskumenak eta dibiseroak ziren mendien ustiakuntza zehaztu zuten Bizkaiko nobleek bertako Jaunarekin. Horrela, mendien zaintze-lanak eta oletara zuzenduriko basoaren erabilera arautu zituzten.

Hitzarmenaren helburua —lortu zutena— hiribilduen aurrean euren eskubideak mantentzea zen; alde batetik, abeltzaintza, olak, eta mendiaren ustiapenetik ordura arte lorturiko diru-iturria ez desagertzea; eta beste aldetik, merkataritzan —hazkunde-prozesuan zegoena— parte hartzea, hiribilduen monopolioaren aurrean, hain zuzen ere.

Hitzarmen horren inguruan, garaiko Bizkaiko nekazari-munduko gizartearen ezaugarriak antzeman ditzakegu, hots, Arabako kasuan legez, ezberdintasunak ziren nagusi. Kapareek dokumentuaren bitartez, euren estatus ezberdindua bermatu nahi zuten, bai nekazari, bai hiribilduetako biztanleen aurrean.

Horren adibide argiak hauexek ditugu: epaiaren ezarpen ezberdina, hau da, isunak eta zigor ezberdinak estatusaren arabera; klase sozialak irizpide harturik, merkataritzako jarduera desberdinak; eta, mendien jabego eta ustiapenaren inguruan ere, maila ezberdinak[326].

Beraz, XIV. mendearen erdialderako nobleziaren egoera larria zen jada, eta aurreko lehentasuna mantentzeko ahaleginak konstanteak izan ziren Erdi Aroaren ilunabarrera arte.

Nobleziaren barruan, noski, ahaleginak ezberdinak izan ziren bakoitzaren botere eta egoera ekonomikoaren arabera. Halere, denak saiatu ziren modu batean edo bestean. Lehiakide, petxariak eta hiribilduetako jendea izan zituzten nobleek. Luzea eta gogorra izan zen bakoitzaren biziraupena helburu zuen borroka hura.

Goi-noblezia irabazle atera bazen ere, zerbait ezberdina zen jada gizarte hierarkizatu horretan.

326. Bizkaiko 1342ko kapitulatuaren inguruan: Hidalgo de Cisneros *et al.* (1985: 30-47); García de Cortazar *et al.* (1985: III, 249-251); García de Cortazar (1978: 223-267).

BIBLIOGRAFIA

Carlé, Mª C. (1961): "Infanzones e hidalgos", *Cuadernos de Historia de España*¸ **LXV-LXVI,** 207-276.

Díaz de Durana Ortiz de Urbina, J. R. (1986): *Álava en la Baja Edad Media. Crisis, recuperación y transformaciones socioeconómicas (1250-1525)*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

————, (1988): "1332. Los señores alaveses frente al descenso de sus rentas", *Cuadernos de Sección. Historia y Geografía*, **X,** Eusko Ikaskuntza, Donostia, 64-77.

————, (2003): "Crisis y cambios al final de la Edad Media", in A. Rivera. (zuz.), *Historia de Álava*, Nerea, Gasteiz, 155-183.

————, (2004): *La otra nobleza. Escuderos e hidalgos sin nombre y sin historia. Hidalgos e hidalguía universal en el País Vasco al final de la Edad Media (1250-1525)*, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Bilbo.

Florante y Encinas, R. (1922): *Memorios y privilegios de la M. N. y M. L. ciudad de Vitoria*, Biblioteca de Historia Vasca, Colección de obras y documentos inéditos relativos a la Historia del País Vasco, VI. liburukia, Vicente Risco inprimatzailea, Madril.

García de Cortázar, J. A. (1978): "El Señorío de Vizcaya hasta el siglo XVI", *Historia del Pueblo Vasco*, I. alea, Donostia, 223-267.

————, (2002): "Señores, siervos y vasallos en la Europa altomedieval", *Señores, siervos y vasallos en la Alta Edad Media,* XXVIII Semana de Estudios Medievales de Estella, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

García de Cortázar, J. A.; Arizaga, B.; Ríos, Mª L. eta Val, M. I. (1985): *Vizcaya en la Edad Media: Evolución demográfica, económica, social y política de la comunidad vizcaína medieval*, Donostia, IV. liburukia.

García Fernández, E. (2003): "Clérigos, caballeros, "burgueses" y campesinos en la Alta Edad Media", in A. Rivera (zuz.), *Historia de Álava*, Nerea, Gasteiz, 111-153.

González, J. (1960), *El reino de Castilla en la época de Alfonso VIII*, CSIC, Madril, I. liburukia.

González Mínguez, C. (1976): *Fernando IV de Castilla (1295-1312): la guerra civil y el predominio de la nobleza*, Valladolid, Valladolideko Unibertsitatea.

————, (1989): *El portazgo en la Edad Media. Aproximación a su estudio en la Corona de Castilla*, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Bilbo.

————, (2000): *Berantevilla en la Edad Media. De aldea real a villa señorial*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

Hidalgo de Cisneros, C.; Largacha Rubio, E.; Lorente Ruygómez, A. eta Martínez Lahidalga, A. (1985): *Fuentes jurídicas medievales del Señorío de Vizcaya. Cuadernos legales, Capítulo de la Hermandad y Fuero Viejo (1342-1506)*, Donostia.

Iñurrita Ambrosio, E. (1983): *Cartulario real a la provincia de Álava (1258-1500)*, Fuentes Documentales del País Vasco 3, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Juaristi, J. (1987): *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, Taurus. Madril.

Lacarra, J. M. (1975): "En torno a la propagación de la voz «hidalgo»", *Homenaje a don Agustín Millares Carló*, II. liburukia, Gran Canarias.

Landazuri Romarate, J. J. (1798): *Historia civil de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Álava deducida de autores originales y documentos auténticos*, Gasteiz.

————, (1917): *Historia General de Álava*, I. liburukia.

————, (1928): *Suplemento a los cuatro tomos de la Historia de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Álava. Disertaciones y apéndices de documentos literales, para pruebas, e ilustraciones de su historia civil y eclesiástica*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz [2. arg.].

Larrañaga Elorza, K. (1992): *Euskal Herria Antzinate Berantiarrean eta Lehen Ertaroan: materiale eta agiriak*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.

Lázaro Carreter, F. (1947): "Hidalgo, hijodalgo", *Revista de Filología Española*, **XXXI,** 161-170.

López Castellón (zuz.) (1983): *Historia de Castilla y Leon*, IV. liburukia, Valladolid.

Marín, J. A. (1988), *«Semejante Pariente Mayor». Parentesco, solar comunidad y linaje en la institución de un Pariente mayor en Gipuzkoa: los señores del solar de Oñaz y Loyola (siglos XIV y XVI)*, Donostia.

Martínez de Marigorta, J. (1960): *La Noble Junta de Hijosdalgo de Elorriaga. Catálogo y documentos de su archivo*, Edición Católica, Gasteiz.

Martínez Díez, G. (1972): *La Cofradía de Arriaga, 1258-1332*, Institución Nacional de Estudios Jurídicos, Madril.

————, (1976): *Álava Medieval*, II. liburukia, Gasteiz.

————, (1971): *Álava: Desarrollo de las villas y Fueros Municipales (Siglos XII-XIV)*, Institución Nacional de Estudios Jurídicos, Madril.

————, (1988): *Leyes de Alfonso X. II. Fuero Real. Edición y análisis crítico*, Fundación Claudio Sánchez Albornoz, Ávila.

Martínez Zaldibia, J. (1845): *Summa de las cosas cantábricas y guipuzcoanas*, Donostia [Fausto Arozenak eginiko argitalpena kontsulta daiteke (1945)].

Mitxelena, K. (1968): "Aitonen, aitoren seme 'noble hidalgo'", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País (BRSVAP)*, **XXIV**. urtea, 3-18.

Orella Unzúe, J. L. (1984): "Las instituciones públicas de Álava. Desde la entrega voluntaria hasta la Constitución definitiva de la Hermandad de Álava (1332-1463)", *Congreso de Estudios Históricos. La formación de Álava. 650 aniversario del Pacto de Arriaga (1332-1982)*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 289-334.

Pastor Díaz de Garayo, E. (1986): *Salvatierra y la Llanada Oriental alavesa (siglos XIII-XV)*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

————, (1997): "Glosario-Hiztegia", in C. González Mínguez (koor.), *Iragana eta orainaldia, Arabako Biltzar Nagusiak*, Gasteiz.

Portilla Vitoria, M. J. (1978): "La cofradía de Álava y sus cofrades en la última junta de Arriaga en 1332", *Historia del Pueblo Vasco*, I. liburukia, Erein, Donostia, 191-221.

Portilla, M. (1984): "Cofrades de Álava en 1332", *Congreso de Estudios Históricos. La formación de Álava. 650 aniversario del Pacto de Arriaga (1332-1982)*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 341-383.

Velasco y López Cano, E. (1899), "El fuero de Soportilla", *Euskal-Erria*, **XL,** 551-554 eta **XLI,** 45-47.

2.9. KRISIALDI DEMOGRAFIKOA LIZARRAKO MERINDADEAN XIV. MENDEAN

TAULA

HERRIAK	Su-kopurua 1330ean	Su-kopurua 1350ean	Jaitsiera-tasa (%)
Erribera			
Andosilla	176	92	% 48
Azagra	221	37	% 83
Baigorri	53	40	% 25
Cárcar	149	61	% 59
Legardeta	19	7	% 63
Genevilla	6	0	% 100
Lerín	549	284	% 48
Mendabia	216	103	% 52
Oteitza	208	67	% 68
San Adrián	50	11	% 78
Sesma	242	61	% 75
Villatuerta	202	54	% 73
Denetara	2.091	817	% 61
Eguzkitza ibarra			
Aberin	57	21	% 63
Allo	115	25	% 78
Arellano	116	40	% 65
Arroitz	243	45	% 81
Deikaztelu	53	11	% 79
Etxabarri	20	4	% 80
Leorin	3	1	% 67
Zaraputz	24	9	% 62
Denetara	631	156	% 75

Arga ibarra			
Almunza	25	6	% 76
Andion	64	19	% 71
Artaxoa	1.171	340	% 71
Berbintzana	218	73	% 66
Casanueva	12	0	% 100
Faltzes	552	210	% 62
Funes	32	8	% 75
Larraga	658	237	% 64
Miranda Arga	433	186	% 77
Milagro	65	37	% 43
Azkoien	257	106	% 59
Hiriberri	1	0	% 100
Denetara	3.488	1.222	% 65
Doneztebe ibarra			
Barbarin	9	5	% 44
Lukin	21	9	% 57
Denetara	30	14	% 53
Beste			
Busto	9	9	% 0
Lazaguria	31	9	% 71
Denetara	40	18	%55

Maurice Berthe-ren taula Lizarrako Merindadeko 36 herriren bilakaera demografikoaz 1330 eta 1350 artean. Iturria M. Berthe (1984: 338).

Dokumentu mota aztertzen badugu, taula estatistiko-demografiko historikoa da.

Egilea Maurice Berthe Toulouse-le Mirail Unibertsitateko irakaslea da. Taula hau bere estatu-tesia deitzen den lanean egindako ikerketaren partea da. Bere lanik gehienak Behe Erdi Aroko nekazari-munduaren historiaz eta demografiaz egin ditu.

Taulak jasotzen dituen datuen testuingurua Behe Erdi Aroa Nafarroan da. Garai nahasia izan zen Europa osoan eta, marko orokorra ikusita, Behe Erdi Aroko gizartea eta haren krisia dela testuingurua esan behar dugu. Krisi horren ezaugarri nagusiak G. Bois moduko egileek aztertu dituzte sakonki[327]. XIII. mendearen bukaeran eta XIV. mendearen hasieran ekonomiak gailurra jo zuen. Tekniken berrikuntzarik gabe ez zegoen gehiago ekoizterik eta produktibitateak behera egin zuen lurrak ahituta baitzeuden[328]. Horrela hasi zen ekonomia eta gizarte-sistema osoaren krisialdia, feudalismoaren lehen krisialdi latza (loraldiaren ostean). Krisiaren sintomak argiak izan ziren: gosea, gerra, izurritea eta haien ondorioa zen heriotza (Heriotzadantza izeneko abesti kantatzen zituzten Apokalipsiaren lau zaldunek batuta). Uzta txarrek gosea eta gaixotasunak ekarri zituzten; 1348ko Izurrite Beltzak egoera okerragotu egin zuen. Errentak galduta gerrak hasi ziren jaunen artean eta horrek gaixotasun, gose eta heriotza gehiago ekarri zituen. Jendez "gainezka" zegoen Europa husten hasi zen.

Krisia gertatzeko arrazoi ugari izan dira. Azalpen tradizionaletatik hasita, hauek aipatu izan dira: gerra (sintoma zena arrazoia baino, ikusi dugunez) eta klimaren okertzea (oso zaila dena neurtzen). Ondoren, bestelako azalpen ekonomiko-demografikoak izan ziren. Neomalthusiar eskolak[329] ikusi zuen ekonomiaren ekoizpenaren hazkundea ez zela nahikoa handitzen, ez behintzat populazioa hazten zen neurrian, eta hautsi egin zela oreka baliabideen eta populazioaren artean. Azkenik, azken elementu bat gehitu zitzaion: gizarteko osagaien arteko gatazka —nekazarien eta jaunen artekoa, jaunen errentak gutxitu egin zirenean aurreko arrazoiengatik, istiluak sortu zituzten errenta haiek elkarri banatzean—. Aurrekoari gehitu zaion azken azalpen hau *Brenner eztabaida*k hasi zuen (Philpin, 1988) eta G. Bois (2001) eta beste historialari batzuek osatu dute.

Krisiaren ondorioak argiak izan ziren: aipatu ditugun sintomak agertu ziren (gosea, gerra, gaixotasuna, heriotza), baina baita errebolta gogorrak, heresiak eta heriotzaren eta munduaren amaieraren inguruko ideia apokaliptikoak ere. Azkenik, ondorio garrantzitsuena, susperraldia bera izan zen. Hau da, Europa husteak lur gutxiago eta hobeak lantzea ekarri zuen eta ekonomia arlo berriak ere ireki eta zabaldu ziren. Ondorioz, feudalismoa egokitu egin zen eta Erregimen Zaharreko gizartera aldatu zen.

Oso era laburrean, eta beharbada sinpleegian azalduta, horixe izan zen testu hau Europako eskalan inguratzen zuen egoera. Krisiaren eta aldaketaren unea zen, garai berrira bidean.

---

327. Gai honetan sakontzeko ikus G. Bois (2001), Sarasa (1991) edo I. Zalduaren sarrera Behe Erdi Aroari (Bilbao, 1998).

328."Errendimendu beherakorren legea" deitzen zaio horri.

329. Malthus demografoaren ideien jarraitzaileak.

Testuko hitz historikoak aztertzen baditugu, lehenik eta behin Lizarrako merindadeaz hitz egin beharko genuke. Lizarrako merindadea, XIV. mendearen erdialdean Nafarroako erresuma zatitzen zuten bost merindade edo azpibarrutietako bat zen, mendebaldekoena. Lizarran bizi ohi zen erregearen merino batek zeukan epaile eta exekutatzaile izateko ardura. Ordena publikoa zaintzen zuen merindadean, leku batetik bestera ibiliz.

"Fuego" edo "sua" definitzen badugu, M. Larrañagaren definizioa hartzen badugu (2005: 250), populazioa antolatzen zen unitate fiskal bakoitza zen.

Atal honetan, gainera, herri bakoitzaren azalpen txiki bat egin beharko litzateke: non dauden, haien ezaugarriak, bilakaera eta historia[330].

Taulan agertzen da hogei urteren buruan nola aldatu zen populazioa Lizarrako merindadeko 36 herrietan. Taula egiteko irizpidea da 1330 eta 1350 urteetan dauden su-kontaketak edo fogerazioak kontuan hartzea. Hau da, unitate fiskalak nola aldatu ziren data batetik bestera, kontuan izanda ez garela populazio kopuru zehatzez hitz egiten ari (datu kuantitatiboa den arren), su bat ez baita beti auzokide bat, eta, gainera, auzokide bakoitzak familia bat izango duela atzetik. Horrela, badirudi egoera ideala izango zela auzokide bat, familia bat, etxe (orube) bat eta su bat elementuek osaturiko laukotea, baina errealitatean, baziren familiak su baten erdia edo laurdena ordaintzen zutenak; halaber, orube berean etxe bat eta familia bat baino gehiago bizi ziren, etab. Beraz, Behe Erdi Arorako zaila da kuantifikatzen populazio kopuru zehatzak, eta suek jasandako aldaketak aztertzen konformatu beharko gara.

Hala ere, irudi bat emango digute datuok, krisiaren eragina ikusten lagunduko diguna.

Egileak, konparazioa egiteko, 1348ko Izurrite Beltzaren aurreko eta ondorengo data bana hartu nahi izan du. Krisialdia aurretik bazegoen, uzta txarrekin eta, izurriak katastrofea handitu egin zuen, eta horrela errazagoa da populazio-galera datuetan nabaritzea.

Taulan argi ikusten da, datu absolutuak emanez, zein izan zen joera bi urte horien artean, ikusiz zenbat jaitsi ziren suak kontaketa batetik bestera. Aldi berean, nabariagoa egiteko, egileak jaitsieraren ehunekoa kalkulatu eta jarri du, herri bakoitzaren datuen alboan. Ondoren, haran edo azpilurraldeka dauden datu orokorrak eta jaitsieraren ehunekoa ere ematen ditu.

Ondorioa garbia eta nabarmena da, su kopurua, jaitsi egin zen ageri diren merindadeko herri guztietan (batean izan ezik: Busto, zeinetan berdin mantendu zen su kopurua) eta, beraz, populazioa ere jaitsi zela pentsatu behar dugu. Kasu batzuetan ehuneko oso handian gainera.

330. Ikus eredu gisa hiribilduen maparen testu-iruzkina, adibidez, herri batzuei buruzko sorreraz apur bat jakiteko.

Nabarmendu behar da merindadean aztertzen diren bost aldeetan, guztira % 50 baino gehiago jaitsi zela su kopurua. Erribera aldean % 61 jaitsi zen batez beste, Eguzkitza ibarrean (Aberin) % 75, Arga ibarrean % 65, Doneztebe ibarrean (Lerin) % 53 eta bestelako lurretan % 55 batez beste.

Herriak banan-banan hartuta, oro har, gehienek % 50etik gorako jaitsiera nabaritu zuten suetan, salbuespenak salbu. Erriberan % 50 baino gutxiago jaitsi zirenak Andosilla eta Lerin (% 48) eta Baigorri (% 25) izan ziren. Eguzkitzan bat ere ez. Argan Milagro bakarrik (% 43), Donezteben Barbarin (% 44) eta gainerakoetan aipatutako Busto (galdu ez zuena). Normalean, datuak dauden herri hauetan % 60 baino jaitsiera handiagoak jasan zituzten, eta askok % 70 baino handiagoa (Erriberan bost herrik hamabitik, Eguzkitzan lau herrik zortzitik, Argan zazpi herrik hamabitik, eta bestelakoetatik batek —Lazaguria—). Gainera, badira % 100 galdutakoak ere: Erriberan Genevilla eta Argan Casanueva eta Villanueva.

Orotara, jaitsiera kopuruak (Bustoko galerarik eza kenduta, jakina) % 25 eta % 100 artean daude, oso kopuru handiak edonola ere, eta herrien kopuru handiena, beraz, % 50 eta % 80 jaitsiera-tartean dago bilduta. Horrek ematen duen egoeraren itxura garbia da.

Esan behar da Berthe-ren kalkuluak, oro har, ondo daudela ehunekoak emateanⁱ³³¹. Hala ere, hamarreko gabeko biribilketak egitean, badira akats txiki batzuk: Arellanoren ehunekoak % 64 izan behar luke, Andionenak % 70 eta Berbintzanakoak % 67, % 1en gorabehera agertzen dutenak (gora nahiz behera). Aldiz, akats lodiagoa dago (errata izango dena, seguru asko) Mirandan; han % 77 dakar taulak, baina jasotzen dituen kopuru errealekin kalkulua eginda, berez, % 57 jaisten da su kopurua.

Taula egiteko datuok *Libros de Monedaje* deitutako iturritik aterata daude, M. Berthe-k (1991 eta 1984: 337) berak azaltzen duen moduan, edota J. A. Fernandez de Larreak (2004b) bere sintesian jasotzen duen moduan. 1330erako dauden datuak 36 herri hauetakoak dira bakarrik, 1350erako Nafarroa gehienekoak daude (Zangozako gehienak falta arren), baina konparazioa egin ahal izateko, jakina, aurretik zeudenak erabili egin behar izan zituen M. Berthe-k.

Suak gutxitzeko arrazoiak askotarikoak izan daitezke: demografia-krisia (populazioa hiltzea, gosea eta izurriaren ondorioz), suen berrantolaketa (krisiaren ondorioz), krisi ekonomikoagatik ordainketak barkatzea auzokide batzuei eta abar. Horrela, M. Berthe-k (1991: 46) argi dio hildako jendearen kopuruak handiagoak izan zirela suen jaitsierak adierazten duena baino. Baina, testuingurua ikusita, nabari da krisia adierazten duela, edonola ere.

331. Taulako suen datuak ondo daudela onartu dugu, ez delako gure lana taula ateratzeko testua aztertzea. Hala ere, ikerketa zientifikoa egiteko beharrezkoa izango litzateke hori ere egitea.

M. Berthe-k (1991: 32) kalkulatzen du XIV. mendearen lehen erdian, gutxienez 25 urte txar izan zirela Nafarroan, nahiz eta ez eragin neur daitezkeen herri guztietan batera (gogorrenak 1313, 1328 eta 1336 izan ziren). Hala ere, egile berak uste du gosete horiek ez direla populazioaren jaitsiera gogorra azaltzen dutenak, haustura gogorra 1346 eta 1350 artean izan baitzen (denera 56.000 su ziren Nafarroako erresuman, Nafarroa Beherea barne). J. A. Fernandez de Larrearen (2004b: 336-338) arabera ere, sintesia eginez, 1330 eta 1350 arteko urteetan zenbait fase ikus daitezke bilakaeran. Fernandez de Larrearen esanetan, berritasuna da 1300-1350 artean herri guztiek jasan zutela gutxienez gosete gogor bat 10 urtez behin, eta, beraz, erregulartasunez.

Horrela, M. Berthe-k dio 1347. urtean gosea orokorra izan zela, eta ondoren izurria iritsi zela 1348an (gaixotasunaren eraso gogorrena izan zena). Ondorengo olatu indartsuenak, berriz, 1362-1363koa eta 1400-1402koa izan ziren (azken hori Bizkaian ere ikusi zena argiro[332]), eta Zangozako merindadea Iruñekoa baino askoz gogorrago jo zuten.

Abagune hori ikusita, M. Berthe-k (1984: 337) Lizarran 1330 eta 1350 urteen artean egondako suen jaitsiera azaltzeko (merindadean batez beste % 64koa kalkulatzen duena orotara) erabiltzen dituen faktoreak hauek izan ziren: gosea eta gerra 1334 eta 1336 artean (aurrez aipatu ditugun goseteak direnak, eta gogoratu dezagun 1336koa oso gogorra izan zela), gosea berriro 1340an eta, azkenik, gosea eta izurritea 1347 eta 1350 artean. Azken urte horiek izan zuten joera katastrofikoa kontuan izanda, aurrez azaldu dugunez.

Arazoa, beraz, M. Berthe-k agertzen zuen moduan, goseari izurria gehitu zitzaionean izan zen 1347 eta 1350 urteen artean (Nafarroa osoko datuak ditugu eta 212 herritatik soilik 15ean ez dago izurriaren aztarnarik), orotara populazioaren % 50 hil zela kalkulatzen da eta suen (familien, beraz, agian) % 75ek galdu zuen gutxienez partaide bat Nafarroan. Gero erregularki itzuli zenez izurria (hamar urterik behin ia), ezin izan zen susperraldi demografikoa gertatu (Fernandez de Larrea, 2004b: 336-338).

Datu hauek konparatzen baditugu Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Iparraldekoekin, arazo nagusia iturri falta da, ondorioz, hauetan are zailagoa da krisia kuantifikatzea[333]. Hala ere, badakigu Nafarroa Beherean % 30 jaitsi zela populazioa (Bastida Arberoan % 68raino iritsi zen jaitsiera), Araban % 30 eta 40 tartean izan zela, eta Bizkaian ere jaitsi egin zela, baina hango datuak kualitatiboak baino ez dira[334] (Fernandez de Larrea, 2004a eta 2004b).

332. Fernandez de Larrea (2004a)

333. Lapurdirako eta Gipuzkoarako ez dago berririk, adibidez, eta Zuberoan bakarra dago, beraz ezin da konparaziorik egin XIV. menderako.

334. Ikus zehatzago aztertuta Chinchillaren kapituluen iruzkina.

Penintsulakoekin egiten bada konparazioa, ikusten da Nafarroako krisi-datak Mendebaldeko Europako krisi-datuen eta Iberiar Penintsulakoen artean ageri direla (beraien artean ez baitute beti bat egiten urte gogorrenek[335]). M. Berthe-k dioen moduan, Mendebaldeko Europa eta Mediterraneo aldeko gosete garrantzitsuen tokiko agerpena dira (1991: 35-36).

Bestalde, J. A. Fernandez de Larreak (2004b) aztertu duenaren arabera, esan behar da, ondorioetan badirela bi berdinak izan zirenak Euskal Herri osoan (Nafarroa barne, jakina): mugako lekuetan hiribilduen sorrera (lapurren erasoetatik babesteko[336]) eta, bestea, herri despopulatuen agerpena (Nafarroa Garaiko 1.170 herritatik 390 hustu ziren, % 33, alegia[337]), eta normalean, altuera handian ziren herriak ziren eta populazio txikikoak[338].

BIBLIOGRAFIA

Berthe, M. (1984): *Famines et epidemies dans les campagnes navarraises a la fin du moyen age*, SFIED, Paris [bi liburuki].

————, (1991): *Fams i epidèmies al camp navarrès als segles XIV i XV*, Còrsia 5, Làvenç, Bartzelona.

Bilbao, G. *et al.* (1998): *Historia testu bidez*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

Bois, G. (2001): *La Gran Depresión medieval , siglos XIV-XV: el precedente de una crisis sistémica*, Biblioteca Nueva, Madril.

Fernandez de Larrea Rojas, J. A. (2004a): "Crisis y recuperación del mundo agrario en el Páis Vasco", in P. Barruso eta J. A. Lema Pueyo (koord.), *Historia del País Vasco. Edad Media (siglos V-XV)*, Hiria, Donostia, 377-403.

————, (2004b): "La población y sus actividades económicas durante la Baja Edad Media", in J. Agirreazkuenaga (zuz.), *Historia de Euskal Herria: Historia General de los Vascos: 2: De la Romanización a la conquista de Navarra (siglo I-XVI),* Lur, Bilbo, 335-365.

Larrañaga Zulueta, M. (2005): *Campesinado y conflictividad social en la Navarra Bajomedieval*, Univesidad SEK, Segovia.

Philpin, C. H. E. eta Aston, T. H (argit.) (1988): *El debate Brenner: estructura de clases agraria y desarrollo económico en la Europa preindustrial*, Historia y Teoría, Crítica, Bartzelona.

335. Adibidez, Mendebaldeko Europan 1315eko gosealdia oso gogorra izan zen, aldiz, Nafarroan eta Penintsulan 1330eko hamarkadara itxaron behar da antzekorik aurkitzeko. Aldiz, 1343-1346an izan zen gosea Gaztelan eta Nafarroan eta Valentzian 1347an izan zen une txarrena.

336. Ikus Chinchillaren iruzkinean Markinaz esandakoa.

337. Nahiz eta fenomeno hori ere aldakorra izan aldearen arabera, eta horietatik % 24 errekuperatu egin zen. Gainera, hustuetan une garrantzitsuenetako bat 1347-1349koa izan zen, aztertzen ari garen tartean, alegia (Fenández de Larrea, 2004b: 335).

338. Horrela izan zen Araban ere, Fernandez de Larrea (2004a).

Sarasa Sánchez, E. (1991): *Las Claves de las crisis en la Baja Edad Media*, Planeta, Bartzelona.

Zabalo Zabalegui, F. J. (1968): "Algunos datos sobre la regresión demográfica causada por la peste en la Navarra del siglo XIV", in *Miscelánea ofrecida al Ilmo. Sr. D. José María Lacarra y de Miguel*, Zaragoza, 1968, 485-491.

2.10. BIDASOA: BI JURISDIKZIO AURREZ AURRE, XV. MENDEAN

TESTUA

1458ko irailaren 28an **Ubeda**

Hendaian frantsesek eginiko dorrearen, eta, Lapurdiko biztanleen inguruko errege-probisioa.

Don Enrique por la gracia de Dios Rey de Castilla, de León, de Toledo, de Galicia, de Sevilla, de Córdoba, de Murcia, de Jaén, del Algarbe, de Algecira e Señor de Vizcaya e de Molina. A vos Juan de Hurtado de Mendoza mi prestamero maior de Vizcaya e mi Corregidor de la Provincia de Guipuzcoa e a todos los concejos, Alcaldes, prebostes, regidores caballeros escuderos oficiales e homes buenos de todas las villas e lugares de la dicha provincia de Guipuzcoa e de la villa de Fuenterrabia e a cada uno de vos a quien esta mi Carta fuere mostrada salud e gracia. Sepades que yo soy informado que non embargante que yo por mis cartas embie a rogar e requerir al mui alto e esclarecido Principe Rey de Francia mi mui caro e primo hermano e aliado e al su mayro de Vayona que cesaren de facer la torre e edificio que tenian comenzado en la ribera del rio que es cerca de la dicha villa de Fuenterrabia por quento era comenzado y fecho en perjuicio mio por la dicha tierra e rio seer de mi Señorio e pertenecer a mi e a la mi Corona Real que agora de poco aca ha excuso por su mandado han fecho e acabado la dicha torre e que han puesto gente en ella de la qual han fecho e de cada dia facen mal e daño a la dicha mi villa de Fuenterrabia e vecinos y moradores de ella e que algunos de la tierra de Urturia que es del dicho reyno de Francia han entrado y entran en esa dicha provincia e andan por algunas partes de ella en asechanza por que con la ayuda de en lo principal de la dicha torre yo entiendo proveer segund cumple a mi servicio e a honor de la corona Real de mis Reynos por que lo que a mi e a los dichos mis Reynos pertenece non sea perturbado mande dar esta mi Carta en la dicha razon por la qual tengo por bien e es mi merced que si de aqui adelante los dichos franceses asi de la dicha tierra de Ortoria o algunos de ellos o otros qualesquier quisieren entrar en esta dicha provincia para librar e ver sus faciendas primeramente lo notifiquen cada vez que si hubiere de entrar al alcalde mas cercano del lugar por ante escribano publico asegurando el que asi quisiere entrar al tal el Alcalde que non fara ni tratara mal ni dapno a los de la villa de Fuenterrabia ni sera en Concejo de ello llevando cedula de tal alcalde para los de la dicha provicia notificandoles su entrada e como dio seguridad que no faria ni trataria mal ni dapño a los de la dicha villa e mandolo asi notificar a la dicha villa de Fuenterrabia por que todos los dejen andar libre e segurament la qual dicha cédula mando a qualquier alcaldes ante quien fuere notificado la tal entrada luego recibiendo la dicha seguridad e si alguna persona o personas de la dicha tierra de Orturria o de los que han sido contra la dicha villa de Fuenterrabia en ayuda de los dichos franceses de aqui adelante entrare en esta dicha provincia o en su termino sin facer la diligencia suso dicha e sacar el dicho alvala es mi merced y mando a cualquier que los fallare los pueda matar e mate sin pena alguna ca yo por la presente les do licencia para ello por que vos mando a todos e cada uno de vos en vuestros

lugares e Jurisdiciones que por que lo suso dicho mejor se ha guardado e cumplido e venga a noticia de los de la dicha tierra de Orturia por que cada y quando quisieren entrar primeramente fagan las dichas diligencias e de ello no puedan pretender ignorancia vos las dichas mis Justicias fagades pregonar por las plazas y mercados de esas dichas villas e lugares esta mi carta publicamente por pregonero e ante pregonero e ante escribano publico por que venga a noticia de todos e de ello no pueda pretender ignorancia e fecho el dicho pregon si los de la dicha tierra de Orturia o otros quales quier del dicho Reyno de Francia o otras qualesquier personas de los que han sido en facer mal e dapño a los de la dicha villa en esa provincia o en su tierra entraren sin facer la dicha diligencia e llevar la dicha cédula de seguro que sin pena alguna los pueden matar e maten quien quisiere e los fallare e por ello vos las dichas mis Justicias a los que lo ficieren e contra los tales fueren no fagades desaguisado alguno ca yo por la presente gelo mando asi e les do licencia e facultad para la dicha villa de Fuenterrabia por quento era comenzado e fecho en perjuicio mio por la dicha tierra e rio seer de mi Señorio e pertenecer a mi e ala mi Corona Real que agora de poco aca ha excuso por su mandado han fecho e acabado la dicha torre e que han puesto gente en ella de la qual han fecho e de cada dia facen mal e daño a la dicha mi villa de Fuenterrabia e vecinos y moradores de ella e que algunos de la tierra de Urturia que es del dicho reyno de Francia han entrado y entran en esa dicha provincia e andan por algunas partes de ella en asechanza por que con la ayuda de en lo principal de la dicha torre yo entiendo proveer segund cumple a mi servicio e a honor de la corona Real de mis Reynos por que lo que a mi e a los dichos mis Reynos pertenece non sea perturbado mande dar esta mi Carta en la dicha razon por la qual tengo por bien e es mi merced que si de aqui adelante los dichos franceses asi de la dicha tierra de Ortoria o algunos de ellos o otros qualesquier quisieren entrar en esta dicha provincia para librar e ver sus faciendas primeramente lo notifiquen cada vez que si hubiere de entar al alcalde mas cercano del lugar por ante escribano publico asegurando el que asi quisiere entrar el tal el Alcalde que non fara ni tratara mal ni dapno a los de la dicha Villa de Fuenterrabia ni sera en Consejo de ello llevando cedula de tal alcalde para los de la dicha provincia notificandoles su entrada e como dio seguridad que no faria ni trataria mal ni dapño a los de la dicha villa e mandolo dejen entrar libre e seguramente la qual dicha cédula mando a qualquier alcaldes ante quien fuere notificado la tal entrad luego recibiendo la dicha seguridad e si alguna persona o personas de la dicha tierra de Orturria o de los que han sido en contra de la dicha villa de Fuenterrabia en ayuda de los dichos franceses de aquí adelante entrare en esta dicha provincia o en su termino sin facer diligencia suso dicha e sacar el dicho alvala es mi merced y mando a qualquier que los fallare los pueda matar e mate sin pena alguna ca yo por la presente les do licencia para ello por que vos mando a todos e cada uno de vos en vuestros lugares e Jurisdiciones que por que lo suso dicho mejor se ha guardado e cumplido e venga a noticia de los de la dicha tierra de Orturia por que cada y quando quisiere entrar primeramente fagan las dichas mis Justicias fagades pregonar por las plazas y mercados de esas dichas villas e lugares esta mi carta publicamente por pregonero e ante pregonero e ante escribano publico por que venga a noticia de todos e de ello no pueda pretender ignorancia e fecho el dicho pregon si los de la dicha tierra de Orturia o otros quales quier del dicho Reyno de Francia o otras qualesquier personas de los que han sido en facer mal

e dapño a los de la dicha villa en esa provincia o en su tierra entraren sin facer la dicha diligencia e llevar la dicha cçedula de seguro que sin pena alguna los pueden matar e maten quien quisiere e los fallare e por ello vosd las dichas mis Justicias a los que lo hicieren e contra los tales fueren no fagades desaguisado alguno ca yo por la presente gelo mando asi facer e cumplir para la mi Camara e demas mando al home que vos esta mi carta mostrare que vos emplaze que parescades ante mi en la mi corte do quier que yo sea del dia que vos emplazare fasta quince dias primeros siguientes so la dicha pena a cada uno so la qual mando a cualquier Escribano publico que para esto fuere llamado que de ende al que vos la mostrare testimonio signado con su signo por que yo sepa como cumplides mi mandado. Dada en la Ciudad de Ubeda veinte e ocho dias de septiembre año del nacimiento de nuestro Señor Jesu Christo de mil e quatro cientos e cincuenta e ocho. Yo el Rey. Yo Alvaro Gomez de Ciudad Real, secretario de nuestro Señor el Rey la fice escribir por su mandado registrado Chanciller (Orella, 1983: 71-73).

SARRERA

Gaztelako Henrike IV.ak, 1458an, Joan Hurtado Mendozakoa Gipuzkoako Korrexidoreari luzaturiko errege-probisioa da. Beraz, testu juridikoa da eta original honen izaera publikoa da, testuan bertan agertzen den bezala: «[...] *kontzeju, alkate, probestu, errexidore, zaldun, ezkutari, ofizialak eta gizon on guztiei* [...]». Helburua, Bidasoaz haraindiko nobleen gehiegikeriaren aurrean, Hondarribia hiribildua babestea izan zitekeen. Izan ere, 1458ko testu honetan, Bidasoa ibaia bi erreinuen arteko tirabiren protagonista agertzen da.

Hiribildu baten eta jaun baten gehiegikerien auzia, kokapen geografikoa dela medio, hau da, Bidasoaren ertzean egoteagatik, nazioarteko arazo bilakatu zen. Horrela, Hondarribiko eta Urtubiako lurren arteko auzi honetan, bi lurraldeetako erregeek, Frantziako Karlos VII.ak eta Gaztelako Henrike IV.ak, parte hartu zuten bakoitzaren jurisdikzioa babestu ahal izateko.

Dokumentu honen egilea, jada aipatu bezala, Henrike IV.a (1425-1474) da. Bere erregealdian gerra zibila egon zen Gaztelan. Nobleek tronutik bota nahi izan zuten "*la farsa* de *Avila*"[339] delakoan. Bere ondorengotzarekin izan ziren arazo larrienak; lehia bi emakumeen artean gertatu zen, hots, Joana *Beltranena*ren (alaba) eta Isabelen (I.a *Katolikoa*, bere arreba) artean. Joana Henrikeren alaba ez zela aitzakia hartuta, Isabelek tronua erreklamatu zuen (bere senar Fernando Aragoikoaren laguntzaz). 1474tik gudu zibila egon zen, harik eta 1479an Isabelek irabazi zuen arte.

Henrike IV.aren erregealdiak ondorio baikorrak izan zituen Gipuzkoako hiribilduetan. Izan ere, Gipuzkoako Ermandadea bultzatu zuen, bere interesak eta

339. Tronutik botatzen saiatu ziren panpin bat erabiliz.

hiribilduetako gobernarienak bat egin baitzuten nobleziaren gehiegikerien aurrean. 1457. eta 1463. urteetan Gipuzkoako Ermandadearen ordenantza-koadernoak onartu zituen Henrike IV.ak, bertan jaun horien bortxakerien kontra eginez (Insausti, 1972: 539-541).

Horrekin batera, 1456an, Ahaide Nagusiek Gipuzkoako 24 bizilagunen kontrako desafioa egin ostean[340], erregeak Ahaide Nagusi garrantzitsu batzuen erbesteratzea ezarri zuen, 1457an. Granadako lurretara bidaliak, urtebete eta lau urte bitartean egon behar izan zuten bertan, *fede katolikoaren etsaien* kontra borrokan (Díaz de Durana, 2004: 184). 1460an, *barkamena* eman zien[341], leialtasuna zin egin ostean.

XV. mendearen erdialdeko testu honek garaiko mugaldeko egoera islatzen du. Erreinu bakoitzak bere jurisdikzioa hedatzen den eremuan soilik goberna zezakeen. Hortaz, erreinuaren legedia eta boterea erreinu beraren mugetaraino bakarrik zeuden indarrean. Gogoan hartu behar dugu, XV. mendean, Hondarribiaren kokapen geopolitikoa, bai Nafarroako bai Frantziako erreinuekin (Urtubiako lurren bitartez) mugan zegoen.

Mugaldeko izaera horrek alde positiboa eta negatiboa izan zezakeen. Hiribilduarentzat (Hondarribia kasu), onuragarria zen merkataritza gauzatzeko beste erreinuko merkatari zein merkantziekin. Hondarribiko terminoan, Behobian, *ibi* naturala zegoen, beraz, Gaztela eta Nafarroako merkatariak bertatik igarotzen ziren. Beraz, ekonomikoki mugaldean egotea positibotzat har dezakegu. Baina, erasoak eguneroko errealitatea ziren bertako biztanleentzat. Jurisdikzio —eta legedi— mugez baliatuz, noble zein petxari, mugaz bestaldera pasa, eta lapurretak, hilketak, etab. burutu ostean, berriz itzultzen zen. XIV. mendetik aurrera, erreinu arteko bandolerismoa ekiditeko, Nafarroaren eta Gaztelaren artean (Gipuzkoa eta Arabako lurraldeak, noski) *Mugaldeko Ermandadea* sortu zen, *malfechores* horiei justizia ezartzeko[342]. Iparraldearekin ere (Baionarekin) itunak sinatu ziren[343].

Lapurreta horien atzean askotan Ahaide Nagusiak zeuden, eta *akotatu*en edo *atreguatuen*[344] bitartez harrapakinak eskuratzen zituzten. Beraz, testu honen bidez, Urtubiako jaunak bere *akotatu* eta gizonen bidez, Hondarribiko hiribilduari kalte

340. Ikusi honen inguruan Arriagako Kofradiaren iruzkineko desafioaren definizioa —eta testuaren aipu bibliografikoa—, glosategian. Chinchillaren inguruko iruzkinean ere, Henrike IV.aren ekintza politikoen inguruko aipuak bildurik daude.

341. Testua kontsultatzeko Amaia Rekalde eta Jose Luis Orella ikusi (1988: I, 67 eta hurrengoak).

342. Mugaldeko Ermandadearen harira ikusi, beste batzuen artean, Ciervide, R. (1982): "Conflictos fronterizos entre Navarra, Guipúzcoa y Álava en el siglo XIV", *Vitoria en la Edad Media*, Gasteizko Udala, Gasteiz, 449-470.

343. Ikusi Baiona eta Donostiaren arteko bi urteko treguaren dokumentua, Hondarribian gordetzen dena. Larrañaga *et al.,* (1993: 88-99).

344. Ikusi Arriagako Kofradiaren inguruko iruzkinean, definizioak.

handiak eragiten zizkiola agertzen zaigu, Hendaian kokaturiko dorrearen laguntza militarra jasoz[345].

TESTUAREN AZTERKETA

Henrike IV.aren errege-probisioaren edo aginduaren kopia bat gorde da Gipuzkoako Artxibategi Orokorrean (Rekalde *et al.*, 1988: 65-66). Beraz, bi testuak kontsultatu ditugu iruzkin hau egin ahal izateko.

1458ko testu honetan, hainbat hitz historikoren eta pertsonaien izenen aipuak daude. Honatx definizioak:

Alkatea: Funtzio jurisdikzionalak eta judizialak zituen kontzejuaren kargua. Gipuzkoako hiribilduen artean bi eredu zeuden; eta, bi eredu horien arteko ezberdintasuna, forua zen, Gasteizko forua jaso zutenak (barnealdekoak) eta Donostiako forua[346] jaso zuten hiribilduak (kostaldekoak), alegia. Alkatearen kargua era ezberdinean eman zen bi ereduon arabera. Alta, Gasteizko forua zuten hiribilduek bina alkate izan zuten bitartean, kostaldeko hiribilduetan alkate bakarra egon zen, funtzio judiziala zuena, nagusiki (Orella, 1979: 197).

Baiona: XI. mendearen hasieran Akitaniako dukeek bildu zituzten Gaskunia eta Akitaniako dukerriak, Pirinioetaraino. Herentzien jokoagatik 1137an guztia geratu zen emakume baten esku: Leonor Akitaniakoaren esku. Hau 1152an ezkondu zen, bi urte geroago Ingalaterrako erregea izango zenarekin (Henrike II.a Plantagenet-ekin). Horrela, Frantziako hego-mendebalde osoa gelditu zen Ingalaterrako errege-erreginen esku eta hori izan zen Ingalaterraren eta Frantziaren arteko Ehun Urteetako Gerraren jatorria.

XI. mendean Lapurdi agertu zen bizkonderri bezala Akitaniako dukerriaren barruan. 1215ean Joanes I.a *Lurgabea*k eman zion Baionari estatutu berezia (*établissement* deitua); eta, horrekin, Baiona Lapurditik banatu, eta lurralde autonomo bihurtu zen bere jurisdikzioarekin, eta foru bereziarekin, Akitaniako Dukearen menpe zuzenean. 1197an, Ingalaterrako erregeek hartu zuten Lapurdiko bizkonde-titulua. Eta, administrazio ingelesak Uztaritzen (Lapurdiko hiriburuan) erregearen ordezkaritza ezarri zuen, *baile*-ak zuzenduriko magistratu talde bat, alegia.

---

345. Ikusi Baiona eta Urtubiako lurren definizioa, bilakaera politikoa ezagutzeko. 1451n Lapurdi osoa frantsesen esku geratu zen. Ematen du Karlos VII.ak, bere botere faktikoa Bidasoa ibairaino ezarri nahi zuela, Hendaian bertan dorre bat eraiki baitzuen.

346. Gasteizko forua, Logroñoko forutik eratorria dago; Donostiakoa, berriz, Jaca eta Lizarrako forutik. Foru-familien inguruan ikusi hiribilduen inguruko iruzkina.

Hiribilduen izenak kurtsibaz idatzi ditugu, berez, populazio-unitate bat hiribildu bilakatzean erregeak izena aldatzen ziolako. Horrela, gaur egungo hirien euskarazko izenak, populazio-gune horiek hiribildu bilakatu aurretik zituzten izenak dira, eta, gaur egun erdaraz erabiltzen ditugun toponimoak, ordea, gune horiek hiribildu bilakatu ostekoak.

Baiona eta Lapurdi bi jurisdikzio ezberdinduak ziren, eta bien arteko ikamikek XIV. mendean, bakoitzaren jurisdikzio-hedapena zuten hizpide[347]. Horretaz gain, 1399an, Ingalaterran arazo dinastikoak izan ziren, "Bi Arrosen Gerra", alegia. Eta, egoera politiko zailak eragin handiak izan zituen Ipar Euskal Herri horretan: Baionak Rikardo II.aren alde egin zuen; Lapurdiko nobleek, berriz, bere lehengusuaren alde egin zuten, Henrike IV.a Lancaster-koaren alde. Lapurdi atera zen garaile.

XV. mendearen erdialdean galdu zuten ingelesek dukerria, Ehun Urteetako Gerra amaitu zenean, hots, frantsesek 1451n Baiona konkistatu zutenean[348] (M. Goihenetxe, 1999: I, 384-387 eta 454-455).

Frantziako erregea: Karlos VII.a (1422-1461). Karlos VI.aren semea eta ondorengoa. 1429an Reimsen errege koroatu zuten. Ingalaterrako Henrike VI.aren kontra borrokatu zen, Ehun Urteetako Gerraren bigarren fasean.

Gipuzkoako Korrexidorea: Gipuzkoako lurretan, bi berezitasun izan zituen ofizio honek. Lehenik, Bizkaiko Jaurgoan legez, karguaren eragin-esparrua lurralde osoa izan zen, kontzejuaren esparrura murriztuta egon beharrean[349]. Bigarrenik, korrexidorearen kargua ez zen ia existitu XV. mendera arte. Korrexidorearen lehenengo aipua 1397koa dugu, Gonzalo Moro Getarian bilduriko Batzar Nagusietara agertu zenean. Hortik aitzina, kargu horren inguruko aipuak daude, baina auzi espezifikoez arduratzeko eta erregeek bidalirik. Soilik 1487tik aurrera, modu iraunkorrean agertuko zaigu Gipuzkoako dokumentazioan (Tena, 1997: 203-204).

Korrexidorearen funtzioak askotarikoak izan ziren Gipuzkoan: erregearen eta administrazioaren interesen ordezkaria zen, eta, horrela, Ermandadearen Batzarretan erregearen ordezkari parte hartzen zuen. Funtzio fiskalak zituen Ermandadean; funtzio judizialak apelazioko epaile-lanetan.

Gizon onak (*homes buenos*): Nekazariak zein kapareak[350] izan zitezkeen. Nahiz eta batzuetan, dokumentazioan *homes buenos* agertzean, soilik nekazariez ari zirela ematen duen. Beti kolektiboki aipatuak dira, eta ez da izenik agertzen. Ospea zen *homes bonos* edo *buenos* izateko baldintza bakarra.

347. Jada ikusi dugu, beste iruzkin batzuetan —Arriagakoan nagusiki— XIV. mendea krisi-garaia izan zela. Eta, krisian murgildurik, nobleek euren estatus ekonomiko zein politikoa mantendu nahi izan zutela. Testuinguru horretan ulertu behar ditugu, beraz, bi jurisdikzio horien arteko lehiak: lurralde, errenta, merkataritza... azken finean, diru-sarrerak dira bien helburu.

348. Testu horiek kontsultatzeko gaztelaniaz, ikusi Manex Goihenetxe (1999: 479-482).

349. Soledad Tenaren aburuz, Gipuzkoako lurraldearen tamainaren ondorioa izan zitekeen. Horrekin batera, hiribildu txiki horiek ezin izango zuten korrexidorearen soldata ordaindu, banaka (1997: 203).

350. Ikusi, lan honen barruan, Arriagako Kofradiaren inguruko iruzkinean, *kapare* terminoaren definizioa.

Gipuzkoako kontzeju irekietako partaideak ziren, baina, XIV. mendearen bigarren erdialdean kontzejuak ixtean[351] (bizilagun eta auzokide guztiek osaturiko kontzejutik, talde itxi eta txiki bat soilik biltzean) bertako atal bat baino ez ziren izan, ordea.

Hondarribiko hiribildua: Ikertzaile batzuen aburuz, Hondarribia, Alfontso VIII.ak (1203an) hiribildu bilakatu arren, Gaztelako errege horrek jada ezarrita zegoen egoera juridikoa baieztatu baino ez zuen egin (Orella, 1979: 142 eta hurrengoak). Modu horretan, gaskoiak Donostiara etortzean, Nafarroako Antxo VI.ak forua eskaini zien 1180an. Eta, pribilegio horiek guztiak Donostiako hiribilduaren jurisdikzio osora hedatu ziren, hau da, Higer lurmuturraren pean kokaturiko gaskoiei ere (Tena, 1997: 79-80).

1203ko baieztapenarekin, Hondarribia, hiribildu *eratu* zen. Bere jurisdikzioa Bidasoako ibaitik Oiartzun ibaira hedatzen zen. Hau da, Hondarribiaren pean, Irun-Urantzu *kollazioa*[352], Lezokoa eta Pasai Donibanekoa (*Pasajes de Allende*, Donostiako dokumentazioan). Hondarribiaren kokapenak berak ekarri zion Erdi Aroan zehar izan zuen garrantzia. Mugaldean zegoen, Nafarroarekin eta Frantziarekin mugan. Kokapen horren ondorioz, merkataritzaren bidez aberasteko abagune paregabea izan zuen Hondarribiak, bertara ailegatzen baitziren leku askotako produktuak eta merkatariak, eta denek uzten zituzten zegozkien zergak hiribilduan bertan. Mugaldeko sena horrek behartu zuen hiribildua, behin eta berriz, gerra-ekintzetan barneraturik egotera.

Joan Hurtado Mendozakoa: Gasteiz inguruan kokaturiko Martioda lurraldeko jauna. Gaztelako Henrike IV.ak Ahaide Nagusiak erbesteratu ostean, Joan Hurtado Mendozakoa izan zen Gipuzkoako Korrexidorea (1452-1459), eta, Bizkaiko eta Errege Kontseiluko Prestamero Nagusia (Tena, 1997: 204).

Hurtado Mendozako familiaren adar batek Bizkaiko Probestu[353] postua berea egin zuen XV. mendean (Díaz de Durana, 2004: 164).

Mayro: Gaur egun frantsesez '*maire*', alkatea. Baionan gobernua alkate probestu batek zeukan. Esan dugunez, Baionak foru berezia zuen, eta ondorioz, juridikoki, Baiona ez zen Lapurdi.

---

351. Kontzejuen itxiera prozesu baten gailurra dugu, hiribilduaren boterearen monopolizatzearen prozesuaz ari gara, ezbairik gabe. Prozesu horren protagonistak hiribildu horietako oligarkak izan ziren, hau da, diru eta onespen sozialaren bitartez kargu eta botere publikoa bereganatu zutenak. Hauek izan ziren —hiribilduaren izenean, hau prozesuaren lehenengo eskala izan baitzen— Gipuzkoako Ermandadea gorpuztu eta erabili zutenak, euren eta erregearen interesak defendatzeko. Honen harira ikusi Tena, 1997: 190-208.

352. Hiribilduen inguruan, organizazio-formularik orokorrena. Gaztelako alfozetako (hiribilduaren terminoa) herri-kontzejuen antzekoak. Tamaina txikikoak zirenez, eta, hiribilduetatik gertu egotearen ondorioz, kollazio horien erakundetze-garapena oso txikia izan zen, eta kontzejuetan, pisu gutxi izan zuten (Tena, 1997: 158-159).

353. Ikusi, hiztegiko atalean, probestuari dagokion definizioa.

Probestua: Erregearen ordezkaria hiribilduetako jurisdikzioan; horrela, hiribilduko alkateen epaien ondoriozko eskubideak jasotzen zituen. Probestuak eskuratzen zituen errentak hauek ziren: mendi, errota eta gurpilen ingurukoak; eta, merkataritzaren inguruko eskubide batzuk.

Gipuzkoako noble-familia batzuek berea egin zuten kargua, hiribilduetako bizitza politikoa kontrolatzeko *giltza* izaki, kargu —botere— publikoa modu pribatuan erabiltzen baitzuten (Díaz de Durana, 2004: 164).

Hondarribian —Donostia eta Orereta[354] hiribilduetan bezala— probestuaren karguak izugarrizko garrantzia izan zuen; izan ere, kontzejuaren beste karguak urtero hautatzen ziren (Tena, 1997: 324) eta hau ez[355].

Urturia/Ortoria/Orturriako lurra [Urtubiako[356] lurra]: Urtubiako jaunaren menpe zegoen Lapurdiko hegoaldeko lurraldea.

Iparraldeko jaun oso garrantzitsua dugu. 1341ean, Ingalaterrako erregeak, Urtubian, harrizko gaztelu bat eraikitzeko eskubidea eman zion Urtubiako jaunari. Beraz, alde hori, garai horietatik familia horren pean zegoen[357]. Lapurdi osoa, 1451n, Frantziako erregearen menpe geratu zenean, fideltasuna eta mendekotasuna adierazten zuten Beltzuntzeko ituna sinatu behar izan zuten ingelesen alde borroka egindako noble lapurtarrek. Sinatzaile horien artean Urtubiako jauna aipatzen zaigu[358] (M. Goihenetxe, 1999: 479-481).

XV. mendean, Lope Gartzea Salazarrek, bere *Binandanzas e fortunas* lanaren XXII. liburuan, Urtubiako jaunez aipuak eman zizkigun. Bertan, Joan Lopez Lazkanokoaren suhia zela dio, Gipuzkoan, Bandoen Gerraren testuinguruan, Oñaztarren alde, 1458an.

354. Alfontso XI.ak 1320an Orereta (*orrea* hitzetik eratorria) deituriko lekuan eratu zuen hiribildua, *Villanueva de Oyarçun*, hain zuzen ere. Hiribildu berri hori, Oiartzun Haraneko populazioak jendeztatu zuen arren, Oiartzungo familia batzuek haranean ezarrita jarraitu zuten. Bi populazioen arteko tirabirak amaigabeak izan ziren mendeetan zehar, jurisdikzio eta eskubideengatik. Oiartzun Harana, hiribilduaren jurisdikziopean mantendu zen, 1453an hiribildu bilakatu zen arte. Oiartzun, hiribildua izatearen ondorioz, *Villanueva de Oyarçun*ek izena aldatu zuen; eta hortik aurrera, Errenteria izendatua izan zen, bertan altzairurako biltegia baitzegoen: errenteria bat, alegia. Ikus Goñi Gaztanbide, J. (1979): *Historia de Rentería*, I, 11. or.

355. Hautaketa errotazio bilakatu zen hiribildu horietan. Karguak, hiribildua gobernatzen zuten talde pribilegiatuen —ez kapare zirelako, baizik eta dirua eta onespena zutelako— familien artean banatzen ziren. Errotazioaren ondorioz, kontzejuaren gobernua eskuratzeko lehiak desagertu ziren, Gaztelako beste hiribilduetan ez bezala.

356. Errege-probisio honen kopia egin zen; eta, kopia horretan, "Urtubiako lurra" aipatua agertzen da (Rekalde *et al.*, 1988: 65-66), Orturiaren ordez.

357. Urtubiako jaunen inguruan ikus Jean de Jaurgain (1992): *Urtubie, Nîmes, Lacour*. [Baiona, 1896, 1. argitalpena].

358. Frantsesen aldekoek (Foix-eko jaunaren zuzendaritzapean) Irosu Urtubiako (beste nobleen artean) jauna bahitu zuten. Bahitutakoak askatzeko, 2.000 ezkutu eskatu zizkieten lapurtarrei.

Testu honetako ideia nagusiak argiki agertzen dizkigu testuak berak. Bidasoako beste aldetik, dorre baten laguntza estrategikoaz zein militarraz baliatuz, Bidasoa gurutzatu eta Hondarribiko terminoan lapurretak eta bidegabekeriak burutzen zituzten. Hortaz, bi erreinuak gurutzatzea ez zen saihestu; izan ere, Lapurdi aldeko nobleek Hondarribiko terminoan ondasunak omen zituzten: *para librar e ver sus faciendas*. Baina, horretarako, alkatearen aurrean eginiko gutuna behar zuten (albala). Betetzen ez bazuten, ordea, edozeinek zuen horiek hiltzeko eskubidea, inongo epaiketarik gabe. Eta inork ezjakinarena ez egiteko, pregoilariek hiribilduetan aldarrikatu behar zuten Henrike IV.ak emaniko probisio hura.

Dorrearen harira, dokumentuaren arabera, Henrike IV.ak Karlos VII.ari eskatu omen zion dorrea ez eraikitzeko. Baina, kasurik egin ez, eta jada bukatuta zegoen dorrea. Hondarribiko biztanleentzat arriskutsua izaki. Beraz, azken finean, noble baten gehiegikeriaz ari zaigu dokumentua. Gaur egungo Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko lurraldeetan hainbat adibide ditugu dokumentatuta, hau bezalakoak direnak. Baina, azterturiko kasu honetan, ezberdintasun nabari bat aurkitzen dugu: erreinuen arteko auzi bilakatu zela, alegia. Gaztelako erregeak ezin zuen noble horien kontra bere jurisdikzioa erabili Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian egin zuen legez.

Henrike IV.aren testuingurua eta Ahaide Nagusien kontra buruturiko ekintzak —Ahaide Nagusien erbesteratzea, euren dorreak txikitzea...— kontuan hartzen baditugu, erraz ulertuko dugu testu honetan agertzen den erabakia. Haatik, ezin zituen euren dorreak *desmotxatu* (bota). Nobleok ez zeuden bere mendean, ez zen haien erregea.

Gure ustez, horregatik ez da Gipuzkoako Ermandadeari buruzko aipu bat ere agertzen testuan. Ez zen Gipuzkoako lurraldeko Ahaide Nagusien kontrako ekintza, lapurtarren kontrakoa baizik. Nahiz eta Gipuzkoako Ermandadeak Ahaide Nagusien boterearen aurka bideratu euren ekintzak, Henrike IV.ak ezin zituen Ermandadearen tropak bidali noble lapurtar horien kontra. Halere, aipatu bezala, gertaera honen ezaugarriak berdinak dira: jaunen delinkuentzia hiribilduen aurrean (Hondarribia, kasu honetan), alegia.

Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu, Lapurdiko eta Gipuzkoako nobleen arteko harremanak sendoak zirela. Asko linaje edo leinu berekoak ziren, hots, familiaz gaindiko egitura familiar berekoak ziren. Leinua, familia talde bat zen, *ahaide* komun bat zuena (Díaz de Durana, 2004: 125); eta, leinu horretako kideek era ezberdinetan parte hartzen zuten bertan. Harreman familiar horiek, odolezkoak eta "artifizialak"[359] ziren —*atreguatuak*, *akotatuak* eta *enkartatuak*[360]—. Harreman

359. Odol-harremanak ez zeuden harreman mota horietan; ez ziren familia berekoak. Baina, beste motatako erlazioen bidez, erakunde berera (leinura) atxikituta zeuden. Horrexegatik "harreman familiar artifiziala" terminoa erabiltzen da egoera horiek izendatzeko.

360. Arriagako Kofradiaren iruzkinean termino horien definizioak jasota daude. Informazioa osatzeko ikus Díaz de Durana (2004: 125-129).

artifizialak mendekotasunean oinarrituta zeuden. Horrela, Ahaide Nagusiaren —leinuaren burua eta ordezkaria— babesaren (ekonomikoa edota fisikoa) trukean parte hartzen zuten egitura (supra)familiar horretan, ekintza militarretan Ahaide Nagusiaren alde. Adibidez, Joan Urtubiakoa, Urtubiako jauna, Joan Lopez Lazkanokoaren suhia zen. Eta, Ganboatarrek Berastegi erre zutenean, Joan Urtubiakoa eta Joan Lopez Lazkanokoa (Oñaztarrak) elkarrekin agertu ziren erasoari aurre egin nahian (*Bienandanzas e fortunas*: XXII. Liburua).

Hondarribiko Artxibategian gorderiko bi dokumentu, 1455 eta 1459koak, hurrenez hurren, erlazionaturik daude azterturiko errege-probisio honekin.

1455eko dokumentuan, Henrike IV.ak bere errege ofizialei eskatu zien, erail, irain, edo bestelako delitua gauzatzen zuenaren kontra egitea (Larrañaga *et al.*, 1993: 110-112). 1459ko errege-probisioan, berriz, ez zen horrelakorik eskatu, arestian azaldu dugun bezala, Henrike IV.ak ezin zuen eta. Baina, 1455eko testuan ikus dezakegunez, hori zen errege gaztelarraren politika, zigortzea, alegia. Lapurtarren kontra ezin zuen bere justizia aplikatu, ezin zuen Ermandadearen bidez egoera normalizatu. Baina, bai ordea, eskubidea eman edozeini *justizia* aplikatzeko, hots, *frantses*en aldekoak erailtzeko eskubidea eman zien. Beraz, bi dokumentuetan jorratuta agertzen den errege-politika berbera da: *gaizkile feudalak* eta euren aldekoak zigortzea.

Errege-probisioarekin erlaziona daitekeen bigarren dokumentua 1459koa dugu. Bertan, Pio II.ak Baionako eliz barrutiaren ordenamendua berretsi zuen, Irun eta Hondarribiko elizetan (Larrañaga *et al.*, 1993: 170). Antza denez, Baionako eliz barrutiak ez zuen arazorik izan nahi bere elizekin. Eta, berrespen horren bitartez, bere boterea mantendu zuen Bidasoa aldean. Izan ere, Bidasoaldeko eremua Baionako apezpikutzaren pean zegoen. Pio II.ak ez zuen nahi jurisdikziotirabirek elizaren jurisdikzioekin ere arazorik sortzea.

ONDORIOAK

Jada aipatu da testu honen bidez islatzen den testuinguru bikoitza: jaunen eta hiribilduen arteko auzia, batetik; eta, bestetik, bi erreinuen arteko ika-mikak jurisdikzioaren mugengatik, Bidasoa ibaia bera bi erreinuen muga geografikoa izaki. Hortaz, aztertu den Henrike IV.aren errege-probisioa, Bernako Dorrearen kasuarekin erkidetu dezakegu.

Bernako Dorrea gaur egungo Bizkaiko Amorebietan kokatuta zegoen. Bernako jaunek bortxakeriak eta lapurretak egin zituzten *Tabira de Durango*ko hiribilduaren kontra, eta dorrearen ingurutik igarotakoen kontra, XIV. eta XV. mendeetan zehar.

XV. mendearen erdialdean, Durangokoek, Bizkaiko Korrexidorearen epaia gauzatu zuten, Bernako dorretxea erretzea, hain zuzen ere.

Gertakizun horren ondorioz, Durangoko kontzejua eta Ahaide Nagusia auzi bikoitzean sartu ziren orduan, 1463an.

Bernako jauna, erreketa ostean, Henrike IV.aren onespenik gabe, dorrea berreraikitzen ari zen. Ondorioz, Durangoko kontzejua auzian sartu zen jaunarekin. Baina, Bernako jauna, Durangokoek dorrea erretzeagatik, auzian sartu zen Durangoko kontzejuarekin.

Auzi bikoitz horretan ere jurisdikzio-arazoak aurkitzen ditugu. Izan ere, Durangoko Merindadea Bizkaiaren barruan ote zegoen erabaki behar zuten, Bizkaiko Korrexidorea izan baitzen Berna erretzearen epaia egin zuena. Eta, Bernako Dorrea, Durango edo Zornotzako terminoan ote zegoen ere erabaki behar zuten Durangoko kontzejuak hartu baitzuen Korrexidorearen epaia bere gain (I. Bazan, 1988: 25-30).

Horren guztiaren arabera, Henrike IV.aren errege-probisioaren eta, Bernako Dorrearen auziaren artean, elementu komunak ugariak direla ikus dezakegu. Beraz, gorago aipatu bezala, landu dugun testuak aditzera ematen digu hainbat eta hainbat aldiz, eta Euskal Herri osoan zehar, jazo zen egoera: *bortxakeria feudala* eta horren aurrean hiribildua, boterea antolatzeko era berria —erregearen laguntza zuena—, bien arteko lehian irabazle atera zena.

BIBLIOGRAFIA

Bazán Díaz, I. (1988): "El Refugio de la delincuencia señorial : torres y casas fuertes en el País Vasco, el ejemplo de la torre de Berna", *Sancho el Sabio. Euskal kultura eta ikerketa aldizkaria*, 8. urtea, **VIII,** Gasteiz.

Díaz de Durana, J. R. (arg.) (1998): *La Lucha de Bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal. Guipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV a XVI)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

–––––––––, (2004): *La otra nobleza. Escuderos e hidalgos sin nombre y sin historia. Hidalgos e hidalguía en el País Vasco al final de la Edad Media (1250-1525)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

Goihenetxe, M. (1999): *Historia General del País Vasco. Prehistoria - Época Romana - Edad Media*, I. liburukia, Ttarttalo, Donostia.

Insausti, S. (1972): "Repercusiones del reinado de Enrique IV en Guipúzcoa", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* (*BRSVAP)*, **XXVIII,** 539-565.

Larrañaga, M. eta Tapia, I. (1993): *Colección documental del Archivo Municipal de Hondarribia,* I. liburukia (1186-1479), Fuentes documentales medievales del País Vasco 48, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Orella Unzué, J. L. (1979): "Régimen municipal de Guipúzcoa en los siglos XIII-XIV", *Lurralde*, **II,** 103-267.

————, (1983): *Cartulario Real de Enrique IV a la Provincia de Guipúzcoa (1454-1474)*, Fuentes documentales del País Vasco 2, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Rekalde, A; Orella, J. L. (1988): *Documentación real a la Provincia de Guipúzcoa. Siglo XV*, *I. liburukia*, Fuentes Documentales del País Vasco 13, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Tena García, S. (1997): *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastían, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*, Kutxa, Donostia.

2.11. BANDOEN INDARRAREN GALERARAKO BIDEA BIZKAIAN: CHINCHILLAREN KAPITULU-BILDUMA (1483)

TESTUA

Chinchilla lizentziadunaren lehen kapitulu-bilduma

1483ko azaroaren 22an **Santiago parrokian, Bilbon**

Laburpena: Errege-erregina *Katolikoe*k Chinchilla lizentziaduna Bilbora bidaltzen dute, Gasteizen *Vitoria* hiriari 1476an eman zitzaionaren antzeko ordenantza batzuk egin ditzaten Bilbon, kontzejuko kideak bandoak baztertuz aukeratuak izan daitezen.

Bibliografia:

LABAIRU (1968, III: 343-351)

GUIARD LARRAURI, Teófilo (1971: 139-151)

HIDALGO *et al.* (1987: 26-42)

ENRÍQUEZ *et al.* (1999b: 518-530): 1621ean San Joan Urkietak egindako kopia Domingo Martinez de Isasi-Legizamonek eskatuta, Bilboko Artxibo Munizipalean dagoen 2. kutxa, 1. erregistroa, 1. zenbakia eta 4. kaxa, 1. erregistroa, 1. zenbakia.

Hautatutako testu zatia Labairuk aukeratutakoa da.

Bilduta Chinchilla eta Bilboko auzokide gehienak, *Vitoria* hiriari Errege-erregina *Katolikoe*k emandako ordenantzak ikusita, Bilboko hiribilduari honako kapitulu-bilduma hau eman zion bandoen arazoetatik urrundu zedin:

> "Primeramente, porque el prinçipal fundamento e ruidos de todos los escandalos e muertes e feridas de omes, e mengua de justicia, e otros males e dapnos que en esta villa de Bilbao ha habido en los tiempos pasados, ha seido las parcilaidades e banderias que en ella habia, por haber apellidos de diversos e contrarios linages, asi como Oñez, Gamboa, Leguizamo, Basurto, Zurbaran, Arbolancha, Bilbao la Vieja, e otros que dependen de estos; e por querer algunos de los parciales de los dichos linages con nombres de cabezas de bandos, e parientes mayores, sostener los dichos bandos e parcialidades, e criar y favorecer divisiones e enemistades entre los del pueblo; por manera que los malos eran sostenidos e favorecidos; e los que deseaban bien vivir non podian nin habian lograr, antes eran contenidos e apremiados a seguir las dichas parcialidades e bandos en peligro de sus animas e personas, e en dapno de sus faciendas: e porque el remedio de esto es estirpar e desarraigar los dichos parcialidades e bandos e dar forma como todos se aparten de los dichos apellidos, e todos sean unanimes e conformes en el servicio de su Rey e Reyna, e Señores naturales, e en favor de su justicia e en el bien comun de su republica: es acordado e ordenado, que cerca de esto se tenga, e guarde la ordenanza que se sigue.

Que de aqui adelante en tiempo alguno non se nombren en esta villa de Bilbao apellidos, ni bandos de Oñez, nin de Gamboa, nin de Leguizamo, nin de Zurbaran, nin de Arbolancha, nin de Basurto, nin Bilbao la Vieja, nin otros apellidos, nin quadrillas, ni voz de parientes mayores, nin cofradias algunas, salvo las coffradias antiguas que solamente eran para causas pias; mas que todos sean juntos en una conformidad con las justicia del Rey e de la Reyna nuestros señores; e den favor e ayuda a la ejecucion de ella; e que todos los vecinos e moradores de ella hayan de jurar e juren solemnemente a Dios, e a la señal de la cruz, e a las palabras de los Santos Evangelios, sobre el altar mayor de la Iglesia del Señor Santiago de la dicha villa, que de aqui adelante, para siempre jamas, nunca ellos, nin algunos de ellos, seran de bandos nin de parcialidad en esta dicha villa de Bilbao, nin en todo el Condado de Vizcaya con las Encartaciones, de Oñes, nin de Gamboa, nin de alguno de los otros linages susodichos nin de otro linage, nin apellido alguno, nin se armaran con ellos en sus bandos, nin parcialidades, nin se juntaran so color de cofradia nin de hospital, nin de quadrilla nin de otra manera en bando, nin en parcialidat, nin acudiran a voz de apellido, nin de linage a roydos, nin asonadas, nin en hueste, nin en llamamiento, nin en otra manera alguna, nin a bodas nin a honras, nin a mortuorios, nin a otros ayuntamientos, ni abtos algunos de uncion ni en parcialidat de bando, publica nin secretamente, direte ni indirete, acudiran a caballeros, acudiran a caballero, nin escudero alguno, nin a otra persona, nin ciudat, nin villa del Condado de Vizcaya, e Encartaciones en sus comarcas, por llamamiento, nin ayuntamiento de bando, nin apellido, nin parcialidat; non entraran ni estaran en tregua, nin encomienda de pariente mayor, nin en sus ligas, nin alianzas; mas que todos vivan so el seguro real: e cumpliran, non embargantes qualesquier obligaciones, promesas, capitulos e juramentos, e omenages, so qualesquier penas civiles e criminales, que sobre lo susodicho fasta aqui, sus antecesores de los que ansi han de facer el dicho juramento, por si o por ello, o ellos mismos por si hayan fecho, por estar en las dichas parcialidades, bandos, treguas e apellidos, e acudir a ellos; pues las tales promesas, e obligaciones, e juramentos e omenages en quanto a esto, son temerarios e contra conciencia, e buenas costumbres, e contra el bien comun de su patria; e non son obligados a los guardar, antes en los guardar pecan: e a mayor abundamiento que sea suplicado al Alteza de los Rey e Reyna, nuestros señores, queden por quitos a todos los que asi fecieron sobre si los dichos juramentos e obligaciones, e promisiones e penas, por escrito, o por palabra o en otra qualesquier manera e a sus herederos e subcesores e a cada uno de ello, general e singularmente de todo lo susodicho e de cada cosa de ello, alzandoles los tales omenajes e dandoles por libres e quitos de ellos e a sus fijos e descendientes, e a sus bienes para siempre jamas: e que qualquiera de los vecinos e moradores de la dicha villa, de qualquier estado o condicion que sean, que fecho por este juramento en la forma susodicha lo quebrantaren o pasaren contra él, que por el mismo fecho caya en mal caso, e muera por ello, como deservidor del Rey e de la Reina, nuestros señores, e enemigo de la paz e bien comun de su patria, e pierda todos sus bienes muebles e raices, e sean aplicados, la meitad para la guerra del rey e de la reina, nuestros señores, facen contra los enemigos de nuestra santa fe catolica; e la quarta parte para el reparo e fabrica de las iglesias del señor Santiago e Sant Anton de esta dicha villa; e de la otra parte para el reparo de muros e puentes, e para las otras cosas necesarias de esta

dicha villa de Bilbao; pero sea entendido que los vecinos e moradores de la dicha villa puedan ir por el mandamiento de la justicia e concejo de ella a requerimiento de qualquier concejo de las villas e ciudad de Vizcaya e Encartaciones, e de las justicias de la tierra llana, a dar favor a las justicias de los dichos rey e reyna, nuestros señores, e a les ayudar e defender, si qualquier caballero o ome poderoso les quisiere ofender, o facer fuerza o a las otras cosas que fueren servicio de los dichos Rey e Reyna, nuestros señores, e que puedan acudir a defender a qualquiera persona de los vecinos e moradores de la dicha villa, si algunas personas vinieren a ferir o matar o facer fuerza, tanto que non acudan a ello por apellido de bando, ni de parcialidat; e si el roido o quistion fuere en al dicha villa o en sus arrabales o entre los vecinos e moradores de ella, que los vecinos e moradores de ella pongan paz e sean tenidos de se juntar con las justicias para lo pacificar o castigar.

Otrosi: que qualquiera de los vecinos e moradores de la dicha villa que fuere requerido en persona por mandamiento del concejo de ella que faga el dicho juramento que de suso se contiene: si lo non ficiere dentro de seis dias cumplidos primeros siguientes, contados des dia en que asi fuere requerido, que por el mesmo fecho, sin otra declaracion, nin sentencia, haya perdido e pierda la vecindad de la dicha villa, e non sea mas habido por vecino, ni natural de ella, nin pueda en ella haber oficio, nin gozar privilegios, nin libertades, nin franquezas, nin inmunidades de que gozan los vecinos e moradores de ella; e que dentro de otros tres dias primeros seguientes, contados del dia que se cumplieren los dichos primeros seis dias, sin otro mandamiento, nin sentencia, sea tenido de salir, e salga fuera de esta dicha villa e sus terminos e non entre mas en ella, nin en ellos, en tiempo alguno, so pena que por la primera vez que entrare en la dicha villa, o en su termino, o non saliere fuera de ella, o de ellos, dentro de los dichos tres dias, que le sea derribada la casa que en esta dicha villa toviere; e si non toviere en la dicha villa que le sea derribada la que toviere en el termino de ella; e si non la toviere que pague en pena cient mil maravedis; e por la segunda vez que quebrantare lo susodicho en la forma susodicha, pierda la meitad de todos sus bienes, e por la tercera vez, todos sus bienes muebles, e raices, e sean partidos e confiscados, e aplicados segunt que de suso es dicho de los bienes del quebrantador del dicho juramento, e si despues de esto todavia entrare en la dicha villa o en su termino, que sea preso e puesto en la carcel publica de esta dicha villa, e non salga de ella fasta tanto que pague las dichas penas pecuniarias, si las non hobiera pagado, e dé seguridad e fiadores llanos e abonados a contentamiento de dicho concejo de la dicha villa, que nunca entrara más en ella nin en los dichos sus terminos.

Otrosi: que el que hobiere salido de la dicha villa e de sus terminos por non haber querido facer el dicho juramento, si se arrepintiere, e lo quisiere facer, e conformarse en lo susodicho con el dicho concejo de la dicha villa, e habiendolo fecho primeramente e non en otra manera que en tal caso el dicho concejo pueda dispensar con el e restituirle la vecindad e tratarle como a vecino e natural de la dicha villa; pero que si el tal hobiere caido en qualquier de las penas susodichas por non haber salido de la dicha villa e de sus terminos, o por haber entrado en ella o en ellos, segun dicho es, contra el tenor de esta ordenanza, que el dicho concejo, nin la dicha villa non pueda dispensar con él, ni le restituir la dicha vecindad, sin que sean

primero realmente ejecutadas en sus bienes, e pagadas las penas en que hobieren incurrido.

Otrosi que por quanto e los tiempos pasados de los dichos bandos e parcialidades e con el favor e poder de ellos la eleccion de los oficiales e repartimiento de los oficios de alcaldia, e fieldades e regimientos e escribanias de consejo e juradurias, que en cada un año suelen facer en esta dicha villa, segunt las ordenanzas e previllejos de ella, se usurpaba, presumiendo algunas personas, de las que seguian los dichos bandos de facer la dicha eleccion e repartir los dicho oficios por via de los dichos linages e bandos e parcialidades por respecto de ello, contra el tenor e forma de las sentencias e previllejo que es dicha tiene del señor rey Don Enrique el tercero, de gloriosa memoria, que Dios haya: e otrosi, eligiendo para los dichos oficios personas parciales e de bandos e de treguas criminosas, e indignas de los dichos oficios, contra el tenor e forma de las ordenanzas e previllejo que la dicha tiene del señor rey Don Juan, de gloriosa memoria, fijo del señor rey Don Enrique, e aun a causa de haber los dichos oficios muchas personas, que en otra manera non entraran, los dichos linages e bandos se metian en ellos: Por ende deseando quitar e desraigar del todo los dichos bandos e las causas de ellos, e proveer cerca de la eleccion de los dichos oficiales como cumple al servicio de los dichos Rey e Reyna, nuestros señores, e al buen regimiento de la dicha villa, es acordado e ordenado que de aqui adelante la eleccion de los dichos oficiales del concejo, de que ende yuso se fara mencion, que de nuevo se han decriar para entrar e estar en dicho concejo, non se faga, nin pueda facer por via de los dichos linages, nin bandos, nin apellidos, nin por respeto nin consideracion de ellos, nin sea elegido para los dichos oficios, nin para alguno de ellos perdona alguna que sea de tregua nin encomienda de pariente mayor, nin siga los dichos bandos, nin apellidos, nin linages nin algunos de ellos, mas libremente el dicho concejo o las personas de él que han de elegir los dichos oficiales, segunt la forma de las dichas ordenanzas e previllejos, e de estas ordenanzas fagan su elección, eligiendo para los dichos oficios personas idoneas e suficientes quales cumplan al servicio de los dichos Rey e Reyna, nuestros señores, e a la egecución de su justicia e al bien comun de la dicha villa, e que al tiempo de la eleccion de los dichos oficiales, los tales electores sean tenudos de jurar e juren solepnemente que guardaran todo lo contenido en este capitulo, en uno con las otras cosas que han de jurar: e que fasta ser fecho este dicho juramento non puedan facer la dicha eleccion; nin fecha valga, nin obre efecto alguno; e fecho este dicho juramento si contra la forma de él los dichos electores feciesen la dicha eleccion por via de los dichos linages, e bandos, a apellidos, o parcialidades, o repartir los dichos oficios por respetos de ellos o eligieren para qualquier de los dichos oficios persona o personas que sigan los dichos bandos, e parcialidades o apellidos o que esten en las dichas treguas o encomiendas de parientes mayores, que como perjuros e enemigos del bien publico de la dicha villa sean echados e desterrados de ella, e de sus terminos para siempre jamas e que non puedan en ella haber honra, nin oficio alguno, e pierda la meitad de todos sus bienes; de la cual la meitad sea para el reparo e fabrica de las dichas iglesias de Santiago e San Anton; e la otra meitad para las necesidades de la dicha villa, e que la tal eleccion sea en ninguna, e se torne a facer otra eleccion de nuevo, segunt las dichas ordenanzas e previllejos e segunt el tenor e forma de este capitulo e

ordenanza, la cual eleccion se faga por las personas que subcediesem en lugar de aquellos que hobieren fecho la primera eleccion, e non por ello; e estos que dicho es de la pena de los dichos electores, se entienda, si supieren al tiempo de la dicha eleccion, las personas ser de los dichos bandos e parcialidades, e apellidos, e treguas o encomiendas, o que las siguen, o si fuere asi publico, que non pueda pretender ignorancia de ello; mas si non lo sopiere, que non haya pena alguna en ello: pero que todavia la dicha eleccion sea en si ninguna e la tornen de nuevo a facer, e segunt el dicho previllejo e ordenanzas, las mismas personas que fecieron la primera.

Otrosi, es acordado e ordenado que de aqui adelante haya en esta dicha villa veinte e cinco diputados de los cuales siete sean de cada calle, uno para que entren e esten en el dicho concejo, e entiendan en la eleccion de los dichos oficiales, e en todas las otras cosas e fechos de él en que puedan entender los regidores, e juren todas las cosas que los regidores han de jurar, al tiempo que fueren elegidos para ello personas idoneas, sin bandos ni parcialidades, como de susso es dicho de los alcaldes e fieles e otros oficiales que han de entrar, e estar en el dicho concejo; e la eleccion de ellos sea fecha segunt e quando e por la forma e manera e en el mismo lugar, e por las personas, con el mismo juramento e solepnidat e so las mismas penas que de suso en las dichas ordenanzas e previllejos se contiene, e han de ser elegidos los dichos regidores: e que los otros dies y ocho diputados sean para que anden, e sean tenidos de andar con la justicia, e acompañarla, e le ayudar, e favorecer cada que vieren que cumple, o por ella fueren requeridos; e que estos dies y ocho diputados asimismo sean de los que non siguen bandos, nin apellidos, nin parcialidades, ni son en treguas, nin encomiendas de parientes mayores, e que hayan fecho el dicho juramento de los non seguir, ni ser en ello, segunt que de suso en estas ordenanzas se contienen; e sean buenas personas, de buena entencion e deseos del servicio del Rey e de la Reyna, nuestros señores, e de la justicia e del bien comun de la dicha villa; que sean elegidos por el alcalde, e regidores, e fieles; e sean diputados, en uno, con los dos escribanos del concejo, al tiempo de la eleccion de los otros dichos oficiales, con juramento que primeramente fagan, que los elegiran tales, como es dicho, en cuanto supieren e Dios les diera a entender.

Otrosi por quitar la confusion e desorden que se suele seguir de entrar en el concejo de esta dicha villa todos los que quieren e porque el secreto de las cosas que en él se pasaren, mejor se pueda guardar, es acordado e ordenado que de aqui adelante non esten otras personas algunas en el ayuntamiento del concejo de la dicha villa en las cosas que en él pasaren, e se hobieren de ordenar, salvo solamente el alcalde, preboste, fieles e regidores, e los escribanos del concejo e el letrado del concejo e los fieles e diputados que de suso se face mencion: e si otras personas algunas tentaren de entrar, e estar en el dicho concejo, e ayuntameinto, que los dichos alcaldes, prebostes e fieles, regidores e diputados, que le non consientan: e si contra su voluntad insistieren de estar en él, ejecuten en ellos las penas contenidas en las leyes de Zamora e Cordoba, fechas por los señores reges de gloriosa memoria Don Juan e Don Enrique; e se guarden las dichas leyes en todo e por todo segund que en ellas se contiene.

Otrosi, es acordado e ordenado, que quien viviere con señor alguno, o levare de él acostamiento o quitacion en tanto que con él viviere, o lo levare, non pueda tener ninguno d elos dichos oficios de alcaldia, nin de fieldad, nin de regimiento, nin de escribania de concejo, nin diputacion de los siete, nin de los diez y ocho diputados susodichos; salvo si vinieren con el Rey e con la Reyna, nuestros señores, e con el Principe, nuestro señor, su fijo solamente, sin otro señor; e si contra el tenor de estas ordenanzas alguno que viva con otro señor, o levare de él quitacion o acostamiento, fuere elegido para qualquier de los dichos oficios, la tal eleccion sea en si ninguna, e le sea quitado el dicho oficio; e si usare de él, pague en pena diez mill maravedis, para el dicho concejo, e sea elegido otros nuevo en su lugar; e el tal oficial que fuere en la tal eleccion, sabiendolo, por el mismo fecho sea inhabil para haber los dichos oficios; e que en tiempo alguno non puedan haber nin tener ninguno de ellos en esta dicha villa, e pague más en pena otros diez mil maravedis para el dicho concejo.

Otrosi, como quier que es defendido por las ordenanzas antiguas de esta villa, confirmadas por el dicho señor rey Don Juan, que ninguno en esta dicha villa non sea osado de sacar ballesta o roido, nin pelea que en ella haya so ciertas penas; pero por la mengua de justicia que ha habido en ella a causa de los dichos bandos, non han seido egecutadas las dichas penas como convenia, e porque de esto se ha seguido muchas muertes, e feridas e enemistades, inovando la dicha ordenanza, e añadiendo en ella es acordado, e ordenado, que qualquier persona que a roido o pelea que haya en la dicha villa, o en sus arrabales, de aqui adelante sacaren ballesta o espingardas, o otro tiro de polvora, que por el mismo fecho sea desterrado por diez años de esta dicha villa, e de sus terminos como quier que non tire con la dicha ballesta e tiro de polvora, e si tirare qualquier persona con ella, como quier que non fiera, que le corten la mano derecha publicamente por justicia; e si feriere que muera por ello como quiera que el ferido no muera, e si matare que muera muerte de alevoso; salvo los que sacaren las dichas ballestas, o espingardas o tiros de polvora, o tirare con ellos en defension de la dicha villa, o de los vecinos o moradores de ella, si algunas gentes de fuera parte, o otros homes poderosos venieren contra ellos por los ferir, o matar, o por ocupar la dicha villa, o por les facer otros males, o dapnos, o fuerzas, o otras cosas que no sean servicio de los dichos rey e reyna, nuestros señores; o si lo fecieren cada uno en defension de su casa que le combatan, o que crean que quieren, quebrantar o entrar por fuerza, non seyendo la justicia que quiere entrar en la tal casa, que en tales casos non cayan en las dichas penas; e si en los tales casos exedieren de su justicia e defension, tirando con las dichas ballestas, o tiros de polvora como non deben, que esten a la pena del derecho.

Otrosi, que ninguno de los vecinos e moradores de esta villa non mentan gentes en ella de fuera parte, por via de alboroto, nin de asonada; salvo si fueren en defension de la dicha villa, e de los vecinos e moradores de ella en los casos que de suso es dicho en el capitulo ante de este e con mandamiento del concejo e justicia de la dicha villa, so pena que quien lo contrario feciere, demas de las otras penas de derecho, que sea desterrado de la dicha villa, e de sus terminos por diez años, e pierda el tercio de todos sus bienes, e sea aplicado al reparo de los muros e puentes de la dicha villa; e a las fabricas de las dichas iglesias; e que en este caso haya lugar pesquisa como en otros casos en que por las ordenanzas de esta villa se puede facer.

Otrosi, por quanto las personas que destierran las justicias de esta dicha villa, o les mandan salir fuera de ella e de sus terminos con algunas leguas derredor, en desprecio e menosprecio de las dichas justicias, e sin temor de la pena que les ponen, vienen a estar cerca de la dicha villa, junto con los arrabales de ella, e alli facen males e dapnos contra los vecinos e moradores de ella, deciendo que no pueden alli ser presos nin el destierro se estiende a donde ellos estan, diciendo que la jurisdicion de la villa non pasa de los dichos arrabales, e la justicia e concejo de la dicha villa contradicen esto, diciendo, que puede facer los dichos destierros con las dichas leguas enderredor, e fuera de todo el dicho concejo, segunt derecho y costumbre; e porque de esto han nacido en esta dicha villa, e nacen de cada dia muchos roidos y escandalos e es causa de turbar la paz y sosiego de ella, proveyendo en ello e por quitar todas dubdas e quistiones, es acordado e ordenado, que de aqui adelante el alcalde, e otras justicias de la dicha villa puedan desterrar qualesquier vecinos e moradores de ella e otras qualesquier personas que en ella o en sus arrabales, e jurisdicciones cometieren qualesquier maleficios para que non entren en la dicha villa, nin en todo el Condado de Vizcaya, villas e ciudad, e tierra llana, e Encartaciones, e dentro de dicho condado en las leguas en derredor de la dicha villa que la justicia entendiere que cumple a la ejecucion de ella, segunt el maleficio que hobiere cometido o la causa porque le mandare salir fuera; e que si mismo los puedan desterrar para que sirvan en Alaman o en qualquier de los otros castilllos fronteros, e que estos tales destierros, o mandamientos, de salir fuera del dicho condado, o de las dichas leguas en derredor, sea de tanto vigor en el condado, o las leguas dentro de él en que fuere puesto, como en la dicha villa; e asi sean punidos los que lo quebrantaren, como si contra la sentencia o mandamiento del dicho destierro, entrasen en la dicha villa; y que si necesario es sea suplicado a la alteza de los dichos Rey e Reyna, nuestros señores, que les plega confirmarlo en este capitulo contenido; e otorgado de nuevo si menester fuere, mandando al corregidor de Vizcaya, que es, o fuere de aqui adelante, e a qualesquier concejos e justicias, asi ordinarias como Hermandat de las dichas villas e ciudat e tierra llana del dicho condado con las Encartaciones, que cada e quando los tales desterrados entraren o estovieren en su jurisdiccion de qualquier de las dichas justicias, contra la forma de las dichas sentencias, o mandamientos de destierro, seyendo requeridos por las dichas justicias de la dicha villa, les prendan los cuerpos, les secresten los bienes que les fallaren e les envien presos e a buen recaudo a la dicha villa e los entreguen a la justicia de ella a sus costas de los mismos desterrados, si les fallaren de qué, e si non, a costas de la justicia o concejo, e cada uno de ellos quel dicho requerimiento, segun la forma de este capitulo, realmente o con efecto non complieren por el mismo fecho pierda los oficios, e la tercia parte de todos sus bienes para la camara de los dichos Rey e Reina, nuestros señores.

Testu historiko hau, testu juridikoa (edo legegilea) da eta publikoa. Arautegi bat da eta adierazten du Bilboko hiribilduaren funtzionamendua eta, batez ere, nola hautatu auzokideen artean bertan aginduko zuten kontzejuaren ofizioak edo karguetako ofizialak, bandoak baztertuta. Horretarako egin eta betearazi zuen Garci Lopez Chinchilla lizentziadunak, Errege-erregina *Katolikoek* bidalitako ordezkari gisa.

Labairuk ez du esaten nondik atera zuen lantzeko erabili dugun transkripzioa egiteko testua. Aldiz, Eusko Ikaskuntzako egileek berri gehiago ematen dituzte testuaz (Enriquez *et al.*, 1999b) testu originala eta XVII. mendeko kopia bat erabili zituzten (1621ean San Joan Urkietak egindako kopia Domingo Martinez Isasi-Legizamonek eskatutakoa). Eskuz egindako kapitulatuaren borradore originala ere aurkitu zuten, buztin bidez erregistro batera loturik, baina hain egoera kaxkarrean egonda, zoritxarrez ezin da konparatu azken idazkerarekin[361]. Ondorioz, pentsa daiteke testua dioen garaikoa dela eta benetakoa, eta, ia zalantzarik gabe, pentsa dezakegu testuak ez duela aldaketarik jasan, bere egiazkotasuna zalantzan jarriko duenik[362].

Testu hau ulertzeko testuinguru historikoa aztertu behar da lehenik eta behin. Europa osoan eragiten ari zen feudalismo gizarte-sistemaren lehen krisiaren garaia zen, Behe Erdi Aroko krisiaren garaia[363].

Bizkaian ere eragin zuen krisialdiak[364]. Eta, oro har, garai hura ulertzeko bere bilakaera aztertu behar da laburki.

Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabarekin batera Gaztelan sartu zen behin betiko XII. mendearen bukaeran (1200ean). Nafarroa saiatu zen berreskuratzen, behintzat Gipuzkoa eta Araba, Henrike eta Petriren arteko gudu zibila (1366-1369) aprobetxatuz, baina ez zuen lortu.

Azkenik Harokoak Laratarrekin elkartu ziren ezkontza bidez, baina Laratarren familia ondorengorik gabe geratu zenean, herentzia Joana Manuelen eskuetara iritsi zen 1370ean —Henrike III.a Trastamarakoaren emaztea— eta urte berean bere seme Joan infanteari eman zitzaion Bizkaiko jaunaren titulua (1379an Gaztelako errege bihurtu zena).

361. Benetan zoritxarrekoa da, horrelako dokumentuak kontserbatzea arraroa baita eta oso baliotsua izango litzateke ikusteko zein ziren lehen asmoak eta zein zuzenketa egin zitzaizkion, bertan idatzi zuten eskuak identifikatuz —gutxienez zenbat ziren, etab.— (Enriquez *et al.*, 1999b: 518).

362. Transkripzioaren egileek ez dute, gainera, ustezko interpolazioen berririk ematen —geroagoko letra motan edo (ez Labairuk ez Eusko Ikaskuntzakoek)—, eta horiek dira, hain zuzen ere, testua beren eskuetan izan dutenak.

363. Ikus krisialdi honetaz egin den azalpen laburra Lizarrako merindadean izandako demografia-krisiaren testuan.

364. Ikus zehatzago ezagutzeko: J. A. Fernandez de Larrea Rojasen artikuluak (2004a, 2004b), Manex Goihenetxe (1999) eta J. A. García de Cortazar (1966) eta J. A. García de Cortazar *et al.* (1984).

Jaunaren ahalmenak hauek ziren: administratiboak, batetik, eta bere agenteen aukeratzailea ere ba zen. Bere agenteak honakoak ziren: merioa/ibar-jauna hasieran (gero prestameroak XIII-XIVan ordezkatu zuen) eta azkenik 1370etik erregea jaun bihurtzean, haren ordezkaria korrexidorea zen. Justiziaren exekutatzaileak ziren lehen biak eta hirugarrena jaunaren legeen exekutatzailea ere bazen, erregearen ordezkaria zelako jaurerrian. Hirugarren lekuan zergak jasotzen zituen jaunak. Gerrara berak zeramatzan jaurerriko tropak. Epailea zen lehen instantzian eta apelazioan, auzi zibil eta kriminaletan. Azkenik, legeak egiteko eskubidea zuen eta hiribilduei foruak eskaintzekoa. Bere sarrerak ziren morroi izandakoen petxa edo zerga, hiribilduen *pedido*a (hiribilduek urtean ordaintzen zioten kantitatea), burdinaren produkzioaren gainean zuen eskubideagatiko zerga, hiribilduetako probestuak hautatzen zituen (hiribilduetako epaileen aginduak betearazten zituen exekutatzaileetako bat, baina sarri ohorea zena kargua baino), auzietako isunak eta Elizaren hamarrenak eta beste zergak (Monreal, 1974).

Lurraldeari dagokionez, hiru zati zeuzkan Bizkaiak: Bizkaia Nuklearra, Enkarterri eta Durangoko merindadea. Azken biak XIII. mendearen hasieran sartu ziren Harotarren jabegoetara (Durango aldea 1212an Navas de Tolosako gudaldian egindako zerbitzuengatik eman zion Gaztelako erregeak Diego Lopez Harokoari). Urduña eta Balmaseda joan etorrian ibili ziren XV. mendera arte (Balmaseda 1466an eta Urduña 1467-1481 tartean sartu ziren Bizkaian behin betiko). Laudio ere XV. mendean sartu zen Araban[365] eta Orozko 1785ean, ordura arte Bizkaian egon ostean.

Behe Erdi Aroan jurisdikzio desberdinetan banaturik zegoen Bizkaia. Bizkaia Nuklearra Lurralde Irekia edo Arrunta deituan eta hiribilduetan. Lurralde Irekia edo Arrunta lau merindadetan banaturik zegoen XIV.ean (Uribe, Arratia, Busturia, Markina) eta sei ziren XV.ean (Uribe, Arratia, Busturia, Markina, Bedia eta Zornotza, azken bi horiek Arratiatik banaturik). Behe Erdi Aroaren hasieran merindadean merioak zeukan ardura jaunaren ordezkari edo ofizial moduan eta elizatetan zatitzen da (herrixkak). Baina Bizkaiko Lurralde Irekian prestameroa[366] zen garrantzitsuena —eta merioa prestameroaren exekutatzailea eta mendekoa baino ez zen— eta garaiak aurrera egin ahala korrexidoreak hartu zuen prestameroaren lehen lekua XIV. mendearen bukaeratik Bizkaiko jaunak Gaztelako errege bihurtu zirenean —eta prestameroa merioaren mailan geratu zen ia— (Monreal, 1974: 150-161). Durangok berak osatzen zuen merindadea. Durangok merindade-izaera hartu zuen Bizkaian

365. Castro ere garai hartan atera zen Bizkaiko batzarretatik.

366. Izena, antza, tenenteei, hots, jaun baten izenean lur bat zeukaten jaun txikiagoei ematen zitzaien "prestrimonio" edo ohoretik dator. Prestameroa zen justiziaren eta jaunaren aginduen exekutatzaile lehena eta nagusia eta jaurerriko leinu garrantzitsuenen esku zegoen. Korrexidoreak lekua kendu zionean, prestamero generala edo orokorra bere laguntzaile gisa geratu zen eta bere lugartenienteek edo ordezkoek mendean jarraitu zuten, merindade bakoitzean bana, morroiekin batera. Azkenean, Aro Berrian prestameroek eta merioek konpetentzia eta eginkizun berberak zituzten (Monreal, 1974: 150-161).

integratzeko, eta merio eta prestameroaren ondoren, korrexidorearen teniente edo ordezko propioa zeukan Lurralde Irekirako. Foru eta batzar propioa izan zuen XVI. mendera arte (Enkarterriren antzera) eta merindade hau ere elizateek osatzen zuten.

Enkarterrin aurreko eredua errepikatzen zen, baina nekazari-erako barruti bakarra zeukan.

Bigarren osagaia hiribilduak ziren. Jurisdikzio propioa zuten jaurerrian, baina Batzar Nagusietan batzuetan aparte eta besteetan Lurralde Arrunta edo Irekiarekin batera biltzen ziren, hartu beharreko erabakien edo eztabaidatu beharreko arazoen arabera. Orotara 21 izatera iritsi ziren XIII.etik XIV. mendearen bukaerara agertu zirenak, jaunaren menpe eta gero jaunaren ordezkaria zen korrexidorearen menpe; juridikoki banaturik zeuden beste lurraldetik (Lurralde Irekia edo Arrunta) eta "Tertzio" edo Heren izeneko hiru taldetan antolaturik zeuden (heren- edo tertzio-buruak Bermeo, Bilbao eta Durango ziren). Hiribilduetan jaunaren ofizialek ezin zuten eragin, edo era mugatuan soilik, eta hiribilduek, gainera, beren ofizial propioak zituzten: alkatea (epailea zena), errexidoreak (hiribilduaren antolaketan eta ordenantzak egiten laguntzen ziotenak alkateari) erreximentua osatuz; zinpekoak (aurrekoak bezala auzokideek aukeratuak) eta probestea (erregeak izendatutako noble bat) justizia betearazteko.

Gernikako Batzar Nagusietan osatu zuten lehen ermandadea edo anaiartea 1394an, koaderno bat idatziz jaurerrian ordena publikoa gordetzeko (Gonzalo Moro korrexidorearen partearekin), bortxakeria handitzen ari zelako nobleen aldetik. 1452an ohiturazko legedia idatzi zen, Foru Zaharra deiturikoa, 1526an osatu eta zuzendu zen eta Foru Berria izendatu (Bizkaia osora orokortu zena). 1500 aldera Batzarretik Erreximentu izeneko gobernu-organoa sortu zen, itxiagoa zena, Lurralde Irekiak edo Arruntak bere Batzarra egiten zuen eta hiribilduek ere, baina batzuetan denak biltzen ziren elkarrekin (denborarekin Diputazioa emango zuen instituzio horrek egitura iraunkor moduan).

Bizkaian Behe Erdi Aroko krisiari buruz ditugun datuak hauek dira: XIV. mendean fundatzen diren hiribilduen gutunetan ageri diren despopulatuak (*mortuorios*, *yermos*)[367] —inoiz hiribilduetan ageri ziren orube hutsak ere— eta iturri fiskalak, demografikoki gertatu zena aztertzeko. Azken horiek aipamen esanguratsuak izaten dira, baina datu zehatzik gabeak: lehorteak eta goseteak XIV. eta XV. mendeetan, izurritea XV. mendean dokumentatu da batez ere[368]. Kontuan izanda Araban izandako krisiak eta Gaztela eta Andaluziako krisiek eragingo

367. Adibidez, horrela ikus daiteke Gernika hiribilduaren hiri-gutunean (Hidalgo de Cisneros, 1986: 179-181). Orotara, 1330 ostean fundatutako zortzi hiribilduetatik seitan (Fernandez de Larrea, 2004a: 382-383 eta 2004b: 342).

368. 1400 eta 1422an Bilbon dokumenta daiteke izurritea, 1446an Castro Urdialesen dokumentatzen da eta 1467an Portugaleten J. A. Fernandez de Larreak (2004a: 380) E. Fernández de Pinedo eta J. A. García de Cortázar.

zutela (handik itsasoz ekarri ohi zituzten gariengatik, *trigos de la mar* deituak). Beraz, demografia ez dela hazten nabaria da XIV.ean Bizkaian J. A. García de Cortázar-ek (1984: 269) adierazi zuen moduan. Baina ezin da askoz gehiago esan, bai baitakigu Bermeon populazioa jaitsi egin zela datu kualitatiboak erabilita, eta berdin Lekeitio, Ondarroa eta Durangon (XV.ean ere) eta, aldiz, Bilboren hazkundea gertatu zen (García de Cortázar, 1966: 73-77; Fernandez de Larrea, 2004a: 382-383 eta 2004b: 342).

XV. mendean susperraldi bat izan zen. Iturri fiskalei dagokienez, bi kontaketa ditugu zentsuak ordaindu beharreko etxeez, bata 1436an eta bestea 1493an (jaunaren mendeko morroi izandakoen errentak dira, txanponetara igaro zirenak). Zenbait autorek egindako ikerketen arabera ondorio desberdinak lortu dira baina nabaria da XV.ean populazioaren hazkundea egon zela egile guztien arabera (L. M. Bilbao, E. Fernández de Pinedo eta J. A. García de Cortázar), nahiz eta ez diren ados jartzen kopuruetan. Orotara, XV. mendean urteko hazkundea beharbada % 0,40 inguruan ibiliko zen.

Bizkaian gertatzen da, Araban eta Gipuzkoan gertatzen den gauza bera, iturri eskasia dela eta, aipatu ditugun goseteak eta abandonatutako populazio-guneak dira ditugun aztarna bakarrak eta XIV. mendean krisia izan zela dioskute nahiz ez dagoen datu zuzenik. Aldiz, XV.eko susperraldia hobeto ezagutzen dugu. J. A. García de Cortázar-ek egindako kronologiaren arabera, badirudi faseak hauek izan zirela: atzeraldia 1330 eta 1380 artean, errekuperazioa 1380 eta 1450 artean (1420tik aurrera batez ere), eta hazkundea berriro 1450etik XVI. mendearen lehen hamarkadak arte.

Oso goiz izan zen susperraldia Bizkaian, *mortuorio* edo hustutako lekuak berehala birpopulatu baitziren, gutxienez 1411tik dokumentatuta daude (1415-1416-1426-1452-1487an ere bai) eta landutako lurraldea Bizkaian ere hazi egin zen.

Zituak lantzeko babesa eta bultzada ematen zuten erakundeek, garia batez ere, nahiz eta inportatzen jarraitu behar zuten (populazioaren hazkundeagatik). Dena den, hazkuntza nagusiek zuhaitzak izaten jarraitzen zutela uste dute historialariek: sagarrondoak, eta intxaurrondo eta gaztainondoak gutxiago. Kostaldean zitrikoak landatzen zituzten arrainen kontserbazioan erabiltzeko. Hiribilduen inguruetan mahastiak ere ageri ziren barne-kontsumorako (Bilbon, adibidez; Durangokoetan ez dirudi horrelakorik zegoenik, eta kanpotik ekartzen zen).

Elizak ere bultzatu zuen nekazari-hazkundea, Ziortzako kolegiatak bikoiztu egin zituen garitan kobratzen zituen bere errentak XV. mendean eta XVI.ean. Hori egin zuten baserriak sortuz korta edo oletan, eta ondorioz, populazioa sakabanatua izan zen. Horrela, abeltzaintzarako espazioa zena, mistoa zen batekin ordezkatu nahi izan zuten: abeltzaintzari nekazaritza gehitzen zitzaion, bide batez, aprobetxamendu komunaleko lurrak pribatizatzeko. Aldi berean, batez ere XVI. mendean gero

eta errenta gehiago garitan eskatzen hasi zen, lehengo sagarretan erdi bana eskatutakoen aurrean. Hala ere, abelazkuntzak jarraitu zuen pisu handieneko jarduera izaten (txerri eta behiena batez ere).

Arrantzak ere bere garrantzia zeukan. XIV. mendearen erdialdetik arrantzale euskaldunak zeuden Asturias aldean eta Galizian, baita Ipar Itsasoan eta Irlandan ere. Balea-arrantza ere egiten zen, gantza eta olioa lortzeko batez ere (*sain* deitua), nahiz eta gero eta urrutiago joan beharra izan baleak harrapatzeko, horrela, XVI. mendearen hasieran Ternura iritsi ziren. XIV. mendeaz geroztik Bermeoko mareanteen edo marinelen kofradia agertzen da, haien antolaketa adierazten diguna

Giltzarria hiribilduetan eta haietan garatutako ekintza ekonomikoetan zegoen, dirudienez (artisautza eta merkataritzari ez zien hainbeste eragin krisialdiak). Batez ere, Bilbok aurrera egin zuen eta bere indarra sendotu zuen XV. mendean, jaurerriko buruzagitza ekonomikoa lortuz (XVI. mendean politikoki ere berak izan nahi du hiriburua eta besteak baztertu, Bermeo, hiriburua, eta Durango, tertzio edo heren burua).

Artisautzari dagokionez, burdingintzak jarraitzen zuen izaten garrantzitsuena, zeharrola izeneko burdinoletan (ur-indarrez zebiltzanak). Badirudi krisiak ez ziola bereziki eragin, eta XV.ean hazkunde-aldia izan zuen García de Cortázar-en arabera. L. M. Bilbaok uste du XV. mendearen bigarren erdiko hazkundea XVI.aren lehen erdikoa baino handiagoa izan zela, gainera. Frantziako eta Flandesko portuetako datuak ikusita Ingalaterrak inportatzen zuen burdinaren % 80 eta % 95aren artean euskalduna zen, Europako susperraldiak eskatutako burdina zen (tresnetarako, armetarako…). Penintsulako koroen eskaerak ere bultzatu zituen burdinolak (gerrak, konkistak…) ontzioletarako aingurak eta nekazaritzako tresnak egiteko. Burdinolen foruak ere agertu ziren horren guztiaren ondorioz; haien artean Bizkaikoa 1440an egin zen.

Ontzigintza zen bigarren eskulan-jarduera garrantzitsuena Bizkaian burdingintzaren ostean. Arrantza-ontziak, gerraontziak egiten ziren, baita merkataritzarako ontziak (gutxienez, XVI.etik esportatu ziren, 1501etik galarazita egon arren[369]) ere. Ontziolak Bilboko itsasadarrean, Lekeition eta Bermeon zeuden XIV. mendeko lehen erdian dagoneko.

Oihalgintza ere bazen, bertako kontsumorako. Gune garrantzitsuenak Bizkaian Durango eta, era apalagoan, Balmaseda ziren. Baina, betiere, bertako merkaturako produzituak. Larrugintza ere oso inportantea zen (Durangon zapatari ugari zeuden, suen kontaketak aztertzean ikusten denez).

Merkataritza eta garraioan mandazainak ugariak ziren, batez ere, garia eta bestelako merkataritza-gaiak (artilea kostaldera eramateko, kasu) ekartzen

369. Ezin bazen, merkataritzako bidaian eraman eta gero saldu egiten zen ontzia.

baitziren Burgos edo Gasteiztik. Itsasoz, euskaldunek gutxienez XII.ean garraiolari-lanak egiten zituzten merkatari gaztelarrentzat, Mendebaldeko Mediterraneoan indar handia hartu zuten eta ia monopolioa zuten Gaskonia, Bretainiatik Ingalaterrara bidean eta Herbehereetara eta Flandesera bidean ere (azken hori oso garrantzitsua izan zen XIV. mendetik aurrera, eta XVI. mendearen hasieran Bilboko Kontsulatua sortu zen). Pirateria ere praktikatzen zen merkataritza aitzakian, batez ere XIV. mendearen bigarren erdian eta XV.aren hasieran Ehun Urteetako Gerra aprobetxatuz.

Leinu-gerrak edo bando-gerrak testuinguru horretan gertatu ziren, eta haien ondorioz idatzi zen lantzen ari garen testua. XV. mendearen azken hamarkadetan bukatu ziren azken bortxakeria garrantzitsuak (orduan egin ziren ahalegin legegile handienak bandoen aurka Araba, Bizkaia nahiz Gipuzkoan). Hala ere, aurretik ere baziren ahaleginak, XIV. mendetik, hiribildu batzuen sorrerak adierazten digun moduan (Elorrio, Errigoiti, Mungia eta Larrabetzu nekazariak jaunen erasoetatik babesteko sortu baitziren). Jaunek, beren errentak jaisten ari zirela ikusita, eraso egin zieten nekazariei eta beraien artean eta hiribilduen aurka borrokatu ziren, eta hiribilduetan bertan ere bando desberdinak borrokatu ziren botereagatik. Eraso hauen arrazoia errentak berreskuratzea eta berriak lortzea zen eta lurraldearen gainean kontrola eta boterea izatea (beraz, hasieran uste zena baino mugimendu konplexuagoa da eta ez jaunen arteko borroka hutsa).

Birfeudalizazio gisa izendatzen den nekazarien gaineko presioa aregotzeari eta erasoei aurre egiteko erresistentzia eratu zen, nekazari eta hiribilduen aldetik. Nekazariak matxinatzera iritsi ziren leku batzuetan. Hiribilduak sortu ziren, esan bezala, nekazariak babesteko eta elizen errentak jaunengandik askatzeko erabakiak hartu ziren. Azkenik, ikusi dugu 1394an ermandadea sortu zela jaunen harrapaketei aurre egiteko.

Bizkaiko lurraldean Behe Erdi Aroko heresien aztarnarik ere izan zen. Durangoko heretikoak XV. mendearen lehen erdian fraide frantziskotar batzuen predikuagatik agertu ziren (Alonso de Mella buru), non pobrezia goratzen zen eta arrazoiaren erabilera erlijioan sinistean, merindade osotik eta kanpora ere hedatu ziren. Errepresioa 1444tik aurrera egin zen. Ernesto García Fernández-en (2004b) arabera, loturak aurkitu ditu heretikoen jazarpena egin zutenen eta babestu zituztenen artean, leinu-gerrekin. Hots, beraien artean aurkariak ziren taldeek egindakoak zirela aurkitu du (elizen errentengatik borrokan eta senideei laguntza emanez).

Azkenik bandoak menderatuak izan ziren, aurrerago zehaztuko dugun moduan, 1526an Foru Berria idaztean aitoren seme izendatu zirelako Bizkaiko biztanle guztiak eta, ondorioz, haien arteko desberdintasunak desagertu zirelako, teorian[370]. Hala ere, bandoen oroipena geratu zen batzarretako junteroak edo

370. Hauetaz gehiago jakiteko ikus J. R. Díaz de Durana (2004).

batzarkideak aukeratzean, oinaztarren edo ganboatarren aldeko taldeetan hautatzen zirelako.

Dagokigun testua garai horretan egin zen. Testua zuzenean aztertzen badugu, lehenbizi ikusten duguna da, zehazki, Bilbon egin zela Santiago elizan, 1483ko azaroaren 22an.

Garci Lopez Chinchilla-k eginarazi zituen ordenantzetako lehena da, Errege-erregina *Katoliko*ek aginduta, XV. mendearen azken herenean. Bilbon egin zen bandoen botereari aurre egiteko, hiribilduaren administrazioaren botereguneetan sar ez zitezen.

Errege-erregina *Katoliko*ek tronura igotakoan Gaztela eta Aragoin politika indartsua bultzatu zuten, haien asmoa koroaren boterea indartzea zen eta horretarako nobleziaren botere politikoa gutxitu eta haien boterera meneratu zuten, trukean botere ekonomikoa utzi zieten nobleziako kideei, Isabel eta Fernandori tronura iristen emandako laguntzarengatik (Henrike IV.aren ustezko alabaren kontra) eta haien boterea onartzeagatik (Perez, 1997).

Testuinguru horretan, nobleziaren altxamenduen aurka egin zuten eta haien kontrolpera meneratu zituzten. Istilu horietako bat Bandoen Gerra izan zen, Euskal Herrian gertatzen ari zena, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban (Díaz de Durana, 2002). Horrela, aipatutako ermandadeen erreakzioa gertatu zen jaunen bortxa geratzeko, nekazariek aurrera eramandako jaurgoaren kontrako erreakzioekin batera. Baina kasu honetan ikusten da nola egin zitzaien aurre hiribilduetan, kontzejuko organoen boterea eskuratzeko eta kontrol fiskala eskuratzeko —jaunen gehiegikeriak baztertuz— (Díaz de Durana, 2002: 25-26).

Jaunak menderatzeko, beraz, bat egin zuten hiribilduetako biztanleek eta Gaztelako koroak.

Isabel Bizkaira joan zen bisitan 1483an foruak zin egitera eta, bide batez, Bizkaiko andre moduan zegozkion lur eta errentak ikuskatzera. Lan hori Bizkaian bere ordezkari zen Lope Rodríguez de Logroño lizentziadunari utzi zion, korrexidorea baitzen, baina badirudi ez zuela arrakasta handirik izan, lurreko jaunak indartsuak baitziren.

Bilbok ikusita *Vitoria* hiriak 1476an bandoen aurka lortu zituen ordenantzak[371], bere kontzejuko ofizioak libreki hautatu ahal izateko, eskaera egin zien Errege-erregina *Katoliko*ei berari ere Gasteizko hirikoen antzeko ordenantza batzuk emateko bandoek hiribilduaren kontzejuan sortzen zituzten arazoak baztertzeko asmoz. Isabel eta Fernandok onetsi egin zuten eskaera eta horretarako 1483an Bizkaira, Bilbora, bidali zuten Garci Lopez Chinchilla lizentziaduna, hiribilduaren ermandadea egin zezan.

371. Fernando erregeak eman zizkionak Alfonso de Quintanilla-k bultzatutako justizia egiteko ermandadeen ondorioz.

Horrela, azaroaren 6an hiribilduko kontzejuko kideak elkartu ziren: Peru Lopez Vitoriakoa, alkatea, eta bere tenientea edo ordezkoa Diego Perez Arbolantxakoa; Joan Otsoa Bediakoa, probestu tenientea; fidelak, Antso Santxez Libanokoa eta Otsoa Martinez Iurretakoa; errexidoreak, Mendiguren, Markina, Barraondo, Ondiz eta Martinez Bilbokoa. Haiekin batera, Gartzea Kareaga batxilerra, kontzejuaren abokatua edo letratua zena; Rolin Uribarrikoa, prokuradore sindikoa, eta eskribauak: Joan Martinez Gueldokoa eta Martin Otsoa Iurretakoa, hiribilduko hainbat jende ezagunarekin. Horrela bilduta, haien aurrean agertu zen Garci Lopez Chinchilla, eta errege-erreginek eman zioten gutuna[372] irakurri zuen. Bertan, eskumena ematen zitzaion Vitoriako ordenantzak Bilbori emateko eta hiribilduko auzokideekin berriak egiteko. Bilboko kontzejuan zirenek onartu egin zuten eta laguntzeko promesa egin zuten.

Horrela, Garci Lopez Chinchilla-k, Fernando eta Isabelek *Vitoria*ri emandako ordenantzak irakurri ostean[373] eta hiribilduaren ordezkariekin bilduta[374], Bilboren beharrak aztertu zituzten eta Gasteizkotik desegoki ziren zatiak kendu zituzten eta Bilbori egoki zitzaizkionak jarrita, "hiribilduaren ermandadea" gidatuko zuten kapitulatu edo ordenantzak idatzi zituzten, ermandadeen arau orokorrak kontuan izanda eta hiribilduaren ezaugarrietara egokitua. (Labairu, 1968: III, 345). Egiten lagundu ostean, Santiago elizan bildutako kontzejuko erreximentuko kide eta hiribilduko diputatu edo ahaldunei irakurrarazi zitzaizkien azaroaren 22an onespena eman zezaten[375].

372. Gasteizen, azaroaren 4an datatua.

373. Hauei buruz gehiago jakiteko ikus J. R. Díaz de Durana (1982, 1984, 1985). Lan hauetan egileak erakusten digu koroaren nahiek bultzatuta egin zela Gasteizeko 1476ko kapitulu-bilduma, baina baita hiriko oligarkiako kideek ofizioen banaketa monopolizatu ahal izateko ere, eta, aldi berean, biei interesatzen zitzaien merkataritza garatzeko bakea bultzatzeko.

374. Gartzea Kareagakoa, batxilerra, hiribilduko abokatua zena, Lope Santxez Quincoceskoa, Erruiz Santxez Zumeltzukoa, Joan Aranakoa, Joan Otsoa Aranakoaren semea, Antso Arkaetxekoa, Martin Markinakoa, Diego Betolazakoa eta Martin Arriagakoa.

375. Han bildu zirenak izan ziren: Martin Perez Markinakoa, Joan Otsoa Aranakoa, Martin Arriagakoa, Antso Benegiz Arkaetxekoa, Gartzea Kareaga batxilerra, Errolin Uribarrikoa, kontzejuaren prokuradore sindikoa, Joan Zalduondokoa, Joan Guemeskoa, Joan Fernandez Olartekoa (Oloartekoa), Peru Lopez Quincoceskoa, Antso Salcedokoa, Esteban Salazarkoa, Otsoa Gortekakoa, Karlos Enperadorea, Otsoa Gastañazakoa, Peru Otsoa Undakoa, Benigno Arkaetxekoa, Martin Otsoa Iurretakoa eskribaua, Joan Martinez Igeldokoa eskribaua, Martin Santxez margolaria, Otsoa Arbolantxakoa, Peru Ibañez Barkakoa, Joan Santxez Salazarkoa eskribaua, Joan Santxez San Bizentekoa, Martin Otsoa Gerrikaitzekoa, Antso La Bargakoa, Pedro Aranakoa, Lope Quincoceskoa, Peru Otsoa Aranakoa, Urti Santxez Zumeltzukoa, Joan Santxez Arriagakoa kartzelazaina, Martin Santxez Arangoa, Martin Perez Markinakoa, Martin Perez Basozabalakoa, Martin Ibañez Bilbokoa, Antso San Joangoa, Diego Martinez Basozabalgoa, Martin Perez Galbarriartokoa, Joan Lopez Artietakoa, Joan Martinez Olartekoa, Martin Martinez Lozorekoa, Peru Ibañez Ibarzabalgoa, eta hiribilduko zinpekoak edo zinegotziak Joan Mungiakoa, Joan Millurgikoa, Otsoa Aranakoa, Urtuño Iturriozkoa eta Martin Urizarkoa. Hau da, hiribilduko auzune garrantzitsuenetako kideak (bandoen aurka zirenak, jakina).

Kapitulu-bilduma eta ordenantza onartu ziren eta, lizentziadunak eta bileran ziren guztiek banan-banan zin egin zituzten kapituluak Santiago elizako aldare nagusiaren aurrean, eta gonbidatu zituzten Bilboko auzokide eta biztanle guztiak (nahi zuenak) zin egitera.

Azkenik, azaroaren 29an hiribilduko pregoilariak zabaldu egin zituen kaleetan, bete zitezen.

Testua ulertzeko azaldu behar dira bertan agertzen diren hitz eta termino historikoak; izan ere, ugari agertzen zaizkigu testu aberats honetan. Lan honetan denak aztertzeak luze joko lukeenez, hauek dira aipagarrienak:

abtos [actos] *de uncion*: Gantzutzeko sakramentua daramaten ekintzak, inbestidurak, etab.

alcalde, alcaldía: Alkatea eta bere ofizioa. Hiribilduko epaile nagusia izaten zen eta kontzejuko burua errexidoreekin batera.

alianzas: Aliantzak, elkartzeak. Kasu honetan familiek egiten zituzten aliantza pertsonalak bandoak edo leinuak osatzeko eta elkartzeko.

apellidos: Deitura edo abizenak eta haiek adierazten duten odol-lotura ziren. Hori zen leinuak lotzen zituena eta bandoak sortzeko erabiltzen zena, nahiz eta garai hartako etxean benetan odolkideak ez ziren jendeak ere hartzen eta sartzen ziren. Etxekoak kontsideratzen ziren denak eta leku beretik jaten zutenak (*paniaguados* ere deituak ziren horregatik jaun baten mendekoak eta kideak), familiakoak eta leinukideak kontsideratuz[376].

Arbolantxa: Bilbo eta Etxabarrin oinetxea zuen familia edo leinu garrantzitsua. Jatorria nobletutako merkatarien familia batean zeukan.

arrabales: Errebalak hesitik kanpora eraikitzen ziren auzoak izaten ziren, normalean hesiaren ateetatik ateratzen ziren bideen ertzetan kokatzen ziren edo merkatua egiten zen lekuaren inguruan (inoiz santutegi baten inguruan ere bai).

asonadas: Indarkeria erabiliz zerbait lortzeko jende-bilkura[377].

a voz de parientes mayores, *nombrar apellido*, *juntarse so color de cofradia*, *a voz de apellido*: Ahaide Nagusien edo deituraren deiari erantzutea edo bandoen edo kofradien kolorearen pean biltzea; gutxi gorabehera, denek ekintza bera adierazten dute. Bando edo leinu baten inguruan biltzea zen, haiek deituta, era pribatuan eta istiluak sortzeko edo justizia era pribatuan egiteko (galarazita egon arren garai hartan).

376. Bandoei buruz gehiago sakontzeko A. Dacosta (2003).

377. *Diccionario de la Real Academia Española* (DRAE): 'Reunión o concurrencia numerosa para conseguir tumultuaria o violentamente cualquier fin, por lo común político'.

ayuntamientos: Besterik gabe, elkartzea, edozein bilera. Denborarekin kontzejuaren bilerak hartuko du izena eta ondoren kontzejuaren instituzioak.

banderías, *parcialidades*: Bando eta alderdiak elkarrekin borrokan ziren nobleziako kide taldeak ziren. Haien asmoa batak besteak baino botere eta errenta gehiago lortzea zen. Senidetasun-loturen bidez kohesionaturik izaten ziren, eta elkarrekin borrokan egiten zuten, nekazariak zapaltzen eta esplotatzen zituzten indarkeria erabiliz eta hiribilduetan boterea eskuratzen saiatzen ziren. Lope Gartzea Salazarrek zioen moduan "*quien vale más*" ikustea zen haien helburua, norgehiagoka, errentak eskuratzeko.

bienes muebles y raices: Ondasun mugikor eta mugiezinak, pertsona batek zituen diru eta gauzak eta etxe eta lurrak ziren, hurrenez hurren.

Bilbo: Diego Lopez Harokoa Bizkaiko jaunak 1300ean fundatutako hiribildua Ibaizabalen ibai-ahoan. Hura fundatzeko helburua ekonomikoa izan zen batik bat, merkataritza indartzea, alegia. XIV. eta XV. mendeetan indarra hartzen joan zen eta XV. mendearen bukaerarako Jaurerriko hiribildu indartsuena bihurtu zen ekonomikoki eta politikoki, tamainan ere gainditu zituen aurrez pisu handiagoa zuten Bermeo, Lekeitio eta Durango.

bodas: Ezkontzak, ohikoa izaten zen kohesioa sortzeko ezkotzetara joatea leinukide edo edozein motatako taldekideen artean, horregatik sendi zuzena ez zirenei galarazi egin zitzaien haietara joatea, leinu-loturak hautsi nahian.

caballero: Zalduna, nobleziako kidea, behe-mailakoa. Haien jatorria ez da noblea (hasieran, Goi Erdi Aroan, nekazari pribilegiatuak edo aberatsak izaten ziren, besterik gabe zaldiz borrokatzen zirenak, beraz, bere arma-ekipoan zaldi bat izan zezaketenak), baina denborarekin noblezia feudalaren kide izatera iritsi ziren. Euskal Herrian goi-nobleziako kide gutxi ziren, beraz, gehienak aitoren seme izanik, zaldun izaera zuten.

cabezas de bandos, *parientes mayores*: Ahaide Nagusiak, leinu-buruak, jaun handienak Bizkaian. Oro har, maila ertaineko jaunak ziren garaiko Gaztelako koroako beste leinu eta familia batzuekin konparatuta.

calle: Etxeen artean izaten den espazio publikoetako bat (ezagun eta garrantzitsuena). Hiribilduek barne-urbanismoa antolaturik izaten zuten eta kale erregularretan banatzen zen hesi barruko espazioa. Normalean, Euskal Herrian hiru kale izaten ziren Erdi Aroko hiribilduetan: "go(i)enkalea" (*calle de suso* edo *somera*), "artekalea" (*calle de medio*), "barrenkalea" (beheko kalea, *calle de yuso*); batzuetan bat "kale nagusia" izaten zen (*calle mayor*) edo horixe izaten zen bakarra (Donejakue Bideko hiribilduetan bereziki). Batzuetan, kaleak zeharka mozten zituzten kale estu eta txikiagoak izaten ziren "zeharkale" edo "kantoi" izenekoak.

camara real: Fiskoa, errege-erreginek biltzen zituzten zergak eta isunak edo haiei zegozkienak biltzen zituen instituzioa da.

capitulos: Kapituluak, kasu honetan ordenantzei dagozkie, hiribilduaren bizitza ordenatzeko arautegi multzoa edota arautegiaren zati bakoitza.

carcelero: Kartzelazaina, hiribilduaren ofizioduna izaten zen eta hiribilduak zeukan kartzela publikoa zaintzen zuen, preso hartu beharreko edonor han sartzen zen eta ofiziodun honek zaintzen zuen bertan.

ciudat: Hiria, hiri-gutuna duen hiribildu handia. Hiribildu guztiek ez zuten gutun hori lortzen. Urduña eta Gasteizek (1476) XV. mendearen bukaeran lortu zuten, Donostiak XVII. mendean, baina Bilbok ez du oraindino lortu. Hiribilduek baino pribilegio zabalagoak izaten zituzten eta, normalean, katedrala izan ohi zuten. Europako hegoaldean askok erromatar hiri batean zuten jatorria.

cofradias: Izenak zioen moduan, kofradiak edo anaiarteak, berdinen arteko bilerak edo bilguneak ziren. Haien asmoa elkartzea eta bilutakoen artean kohesioa biltzea izaten zen. Arrazoi ugari izan daitezke kofradiak egiteko: jainkozaletasuna edo pietatea praktikatzeko (prozesioak, karitatea…); ofizio bati loturik ageri direnean, aurrekoaz gain, lanbidea eta lankideak babesteko izan daitezke (gaixotzen baziren elkarri lagunduz, heriotzan…), baita produkzioa kontrolatuz eta monopolizatuz lana ziurtatzeko ere. Kasu horretan, kofradiak bandoen edo familia eta leinuen bilerak ezkutatzeko erabiltzen zirela adierazten digu ezartzen den debekuak.

concejo: Kontzejua hiribildua zen, eta, aldi berean, bere agintaritza zeukan taldeari ere deitzen zitzaion, hots, hiribilduaren eta kontzejuaren ordezkaria zen instituzioa.

Condado de Vizcaya: Bizkaiko konderria, jaurerriari ematen zaion beste izendapena. Bizkaian kondea X. mendetik aipatzen da, Iruñeko erresumaren orbitan (haren izenean zegoen tenete gisa beharbada), Momo kondea Belaskita anderearekin ezkondu zenean (Iruñeko erregearen alaba zena)[378].

derribar casa: Etxea botatzea oso kontu grabea izaten zen. Hiribildu bati fundazio-gutuna ematen zitzaionean, bertara bizitzera zihoazen auzokideei orube deitzen zen lur zati bana ematen zieten, etxea eraikitzeko. Etxea izatea auzokide bakoitzaren eskubidea zen eta, aldi berean, bere eskubideen bermea ere izan ohi zen.

desterrar: Deserriratu, garai hartan ohiko zigorra izaten zen krimen handiengatik (heriotza-zigorra aplikatzen ez zenean), Ahaide Nagusi asko izan ziren deserriratuak, koroak bandoen aurkako neurriak hartu zituenean.

diputado: Diputatuak edo ahaldunak auzokideen ordezkariak ziren, ez ziren beti izaten kontzejuko ofizioen artean, baina Bilbon hala agertzen zaizkigu. 25 izan behar zutela dio: 7 kaleen ordezkariak (bakoitzeko bana) eta beste hemezortzi, errexidoreei eta alkateari laguntzeko. Diputatu hauek batzuetan

378. Ikus adibidez, Mañaricúa y Nuere, Andrés (1984): *Vizcaya, siglos VIII al XI, los orígenes del Señorío*, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo.

hautatzen ziren ere hiribilduko auzokideen ordezkari-lana egiteko beste instituzioen aurrean (korrexidorea...) edo hiribilduak erabaki garrantzitsu bat hartu behar zuenean, kontzejuaren kideei horretan laguntzeko (ordenantza batzuk egin, erabaki handiak hartu…)[379].

elección: Kontzejuko ofizialak edo karguak hautatzeko modua. Bi modutara izan ohi zen: ateratzen zen ofizial taldeak edo auzokideen ordezkari talde batek hautatzen zituen, edo insakulazioaz, hau da, hautagaien izenak pitxer, zaku edo kutxa batean sartzen ziren eta banan-banan zoriz ateratzen zirenak izendatzen ziren. Bizkaian tarteko bidea erabiltzen zen, hautatzaileak izendatzen ziren eta horiek hautagaiak izendatzen zituzten, zozketaz.

Encartaciones: Enkarterri, Kadagua ibaiaren harana, Bizkaiko mendebaldean kokaturik. XIII. mendean geratu zen Harotar Bizkaiko jaunen esku. Hamar errepublika (kontzeju eta haranak) eta hiru hiribildu (Balmaseda, Portugalete eta Lanestosa). Bizkaia Nuklearretik edo zaharretik banatua, bere pribilegio propioak, Batzar Nagusiak, eta forua zituen; 1394ko ermandade-koadernoan parte hartu zuen eta XVI.ean Bizkaiko Foru Berriarekin bat egin zuen (Monreal, 1973: 172-173).

encomienda: Testuinguru honetan jaun baten babespean jartzea da.

Enrique III, el Doliente: Henrike III.a *Gaixotia* Gaztelakoa (1390-1406), 1379an jaio zen Burgosen eta 1406an hil zen Toledon. Joan I.aren eta Leonor Aragoikoaren semea zen eta Henrike II.a Trastamara *Mesedeena*ren iloba. Katalina Lancaster-ekin ezkondu zen eta harekin Joan II.a izango zena izan zuen seme. Oso gazte iritsi zenez koroara, hasierako urteak nahiko istilutsuak izan ziren. Noblezia ertainaren laguntzaz gobernatu zuen tronuan eta juduen kontra egindako erasoak lasaitzen saiatu zen. Errege-erregina *Katolikoak* (*Rey e reyna*): Isabel I.a Gaztelakoa *Katolikoa* eta Fernando II.a Aragoikoa *Katolikoa*. Isabel I.a (Madrigal de las Altas Torres, 1451 - Medina del Campo, 1504), Gaztelako erregina (1474-1506), Joan II.a Gaztelakoaren eta Isabel Portugalgoaren alaba, bere neba Alfontso hil zenean bere neborde Henrike IV.a *Ziztorra*k zuen koroaren oinordeko izendatu zuten 1468an Guisandoko itunaren bidez (bere alaba Joana *Beltranena* baztertuz); Fernandorekin ezkondu zenean 1469an Henrikeren haserrea lortu zuen eta oinordekotza kendu zion, baina 1474an hil zenean koroa hartu zuen Isabelek. Fernando II.a (Sos, 1452 - Madrigalejo, Caceres 1516), Aragoiko erregea (1479-1516), Gaztelako erregea (1474-1504), Siziliakoa (1468-1516) eta Napolikoa (1504-1516); Joan II.a Aragoikoa eta Nafarroakoaren eta Joana Henrikezen semea; 1469an Isabelekin ezkondu zen eta Gaztelako erregetzat aitortu zuten hura bizi artean (1475eko Segoviako itunaren bidez); Joana *Beltranena* deituak Gaztelako koroa eskuratu nahi zuenez, gerra zibila izan zen, zeinetan portugaldarrek parte hartu zuten Joanaren alde (Alfontso V.a Portugalgoa buru zutela), baina Isabelek garaitu zuen Fernandoren

379. Azken kasu hau, betiere, kontzejuko bilerak itxiak zirenean eta auzokideek ezin zutenean libreki parte hartu, kontzeju irekia izaten zenean bezala.

laguntzaz 1476an (Toron) eta 1479an Alcaçobas-eko bakea sinatu zuten Portugalekin (Albueran izandako garaipenaren ostean). Urte hartan bertan, Joan II.a hil zen eta Aragoiko errege egin zuten Fernando. Esaten da haiek izan zirela estatu modernoaren sortzaileak Iberiar Penintsulan. Saiatu ziren Penintsulako bi erresuma boteretsu eta handienak elkartzen koroa bakarraren pean, eta lortu zuten haien alaba Joanaren, baina batez ere biloba Karlosen garaian. Hala ere, erresuma bakoitzak bere egitura eta instituzioak mantendu zituen, eta konpartitzen zutena koroaren jabe berak izatea zen. Penintsulako lurraldeak elkartu eta homogeneizatzeko asmoz, Granadako azken erresuma musulmana konkistatu zuten (1482-1492), juduak kanporatu zituzten (1492) eta Inkisizioa sortu zuten (1481), Cisneros kardinalaren erreforma erlijiosoak bultzatu zituzten eta Nebrijaren *Gramatika*, gaztelania Penintsula osoko hizkuntza bihur zedin. Kontinentetik kanpora salto egin zuten: Kanariar Uharteak konkistatu ziren (1484-1496), Ameriketara iritsi zen Colón haien laguntzaz (1492); Afrikan, Melilla (1497) eta Aljer-eko erresuma (1501) eta, azkenik, Napoliko erresuma (1504). 1504an Isabel hiltzean, beren alaba Joana I.a *Eroa* izan zen Gaztelako erregina aukeratua, bere senar Filipe I.a *Ederra*rekin batera. Baina handik bi urtera hil zen Filipe eta alabaren ardura eta erregentzia edo erregeordetza berreskuratu zituen Fernandok. 1516an hil baino lehen, 1512an Nafarroa konkistatu zuen, barne-liskarrak aprobetxatuta (aurretik berak berpiztutakoak), eta 1515ean Gaztelako koroan sartu zuen.

escribano: Eskribaua, idazlaria edo notarioa, kontzejuaren idatziak egiten dituena (dokumentuak, bileretako aktak…), berak bakarrik egin ahal ditu kontzejuaren idatziak, karguduna da.

escudero: Ezkutaria, berez, zaldunaren laguntzailea zen; zaldunak noble bihurtu zirenean, ezkutariak ez zuen zertan noblea izan. Denborarekin zaldun izatera iristeko lehen pausua izan ohi zen ezkutari izatea, baina zaldun bihurtzea gero eta garestiagoa bihurtu zen heinean, behe-noble denek ez zuten modurik zaldun errituala ordaintzeko, ondorioz, ezkutari moduan geratu ziren, nobleziaren mailarik baxuena osatuz.

fabrica de las iglesias: Horrela deitzen zitzaion elizen eraikuntza eta mantentzeari, elizek *libros de fabrica* zirelakoak izaten zituzten eraikitzen edo konpontzen zena apuntatzeko eta nolabaiteko kontabilitatea eramateko.

fiel, fieldad: Fidela, kontzejuaren karguduna da. Funtzio ugari izaten ditu, errexidoreei lagundu behar die informazioa biltzen edozein gairen inguruan, kontzejuaren ardurapeko salgaien prezioak jarri behar ditu eta zaindu behar du ondo betetzen direla… Normalean bi edo gehiago izaten ziren eta haien betebehar nagusia, kontzejuaren kontuak eramatea izaten zen, kontu-liburuetan eta urte bukaeran aurkeztu behar zituzten sarrerak eta gastuak eta Bizkaian korrexidoreari erakutsi behar zizkioten ondo zeudela egiaztatzeko. Gainera, prokuradore-lana ere betetzera iritsi ziren, hots, hiribilduaren ordezkari izatera beste erakundeen aurrera joan beharra zegoenean.

franquezas: Askatasunak, pribilegio mota batzuk dira, feudalismoaren morrontza-karga astunen barkamenari lotuak. Izena dator hiribilduetako biztanleak "franko" deitzeko ohituratik. Hasieran horrela deitzen zitzaien, lehen hiribilduetako biztanleak Pirinioez bestaldekoak zirelako, lehengo frankoen erresumako kideak, baina denborarekin 'gizon askearen' sinonimo bihurtu zen hitza eta hortik askatasunei *franqueza* deitzea.

Garci Lopez Chinchilla lizentziaduna: Letratua, Errege-kontseiluko kidea, epaile eta ikertzaile (peskisidore) gisa bidali zuten Bizkaira Errege-erregina *Katoliko*ek bandoen arazoa kontrolatzeko. Horrela, 1483an lehen kapitulu-bilduma osatu zuen, 1486an Bizkaiko hiribilduetan egindako zerga-banaketak (*repartimientos*) aztertu zituen, 1487an bigarren kapitulu-bilduma egin zuen eta, azkenik, 1488an Bilboko auzokide batzuei jarritako isun eta kondenez arduratu zen.

(h)omenajes: Jaun bati fideltasuna adierazteko egindako zina zen omenaldia, trukean feudoa jasotzen zen.

(h)ome poderoso: Gizon boteretsu moduan Ahaide Nagusiak eta jaunak izendatzen zituzten, besteen gainean boterea zeukatenak, alegia.

honras: Hildakoen omenez hileta eta geroko egunetan ospatzen zen elizkizuna, urteurrenari ere horrela deitzen zitzaion, ezkontzekin gertatzen zen bezala, solidaritate-modu bat zenez, horrekin bukatzea bilatzen da.

hospital: Ospitalea gaixoak eta behartsuak jasotzeko karitate-instituzioa zen. Kasu honetan kofradiaren sinonimo moduan erabiltzen da, bando gisa elkartzeko aitzakia moduan.

hueste: Armada edo pertsona baten edo zerbaiten jarraitzaile eta alderdikideak. Armada ere izenda dezake osteak[380].

inmunidades: Immunitateak, babesak dira, normalean zergak ordaindu behar ez izateari lotuta. Auzokideek, denek, pagatzen zuten zerga berdina (batzuetan desberdintzen ziren petxeroak, zerga pagatu behar zutenak, eta aitoren semeak, pagatzen ez zutenak, baina denborarekin ordainketaz salbuetsiak izaten hasi ziren guztiak). Kasu batzuetan ordaindu arren, kantitate finko bat izaten zen, denborarekin fosildua, eta fundazio-gutuna lortzean ezarria beste jatorri feudaleko zergak konpentsatzeko. Gutuna lortzeko negoziazioaren ondorioa izaten zen (gutuna "erosteko" egin zitekeen ordainketaz gain), horrela, jauna zein zen adierazten zuen zergak (kobratzen zuena), eta bestalde, auzokideak berdinak zirela eta salbuetsita zeudela beste zergetatik, ordaintzen zutena (Bizkaian *pedido* deitzen zena), "borondatez" ordaintzen zutela.

380. Horrelako terminoetarako (jatorria ezagutzeko, etab.) ezinbestekoa den liburua: Bonnassie, P. (1983): *Vocabulario básico de la Historia Medieval*, Crítica, Bartzelona. / (1994): *Erdi Aroko historiarako berrogeita hamar hitz nagusi*, Gaiak, Donostia, 1994.

Juan II, hijo de Enrique III: Joan II.a (Toro 1405 - Valladolid 1454), Gaztelako erregea izan zen 1406 eta 1454 artean. Txikia zen bitartean bere osaba Fernando Antequerakoak izan zuen agintea (gero Aragoiko Fernando I.a izan zena). Bere erregealdiko gertaera ezagunena Aragoiko infanteen (Fernandoren semeen) eta Álvaro de Luna-ren arteko liskarrak izan ziren gorteko boterearengatik, Aragoirekin arazoak eragin zizkiona ere.

jurado, juraduria: Zin egina, zinpekoa edo zinegotzia, kontzejuko kargudunek hautatutako ofizioduna zen. Taldean ibiltzen ziren eta alkateak eta erreximentuak emandako agindu eta zigorrak betearaztea zen haien lana, batez ere, aguazilen antzera. Ardura bera izaten zuen probestuak, baina izaera desberdineko kargua zen.

jurar, juramentos: Zinak edo zin egiteak, pertsonen borondatea eta ohorea lotu eta konprometitzen zuten hitz emateak izaten ziren, lege bat edo lotura errespetatuko zela adierazten zutenak. Askotan gurutzearen edo Ebanjelioen aurrean edo gainean egiten ziren, eta sarri eliza batean (hortik zenbait eliza edo baselizak gordetzen duten *ermita* edo *iglesia juradera* izena). Hori hausteak norberaren ohorea galarazteaz gain, arima ere galaraz zezakeen. Lotura pribatuak eta pertsonalak nagusitzen diren garaian zabaldutako praktika da, baina bandoen kontrakoa zen ofizioak hautatzeko erreformaren ostean praktikatzen jarraitu zena.

justicia (*del Rey e de la Reyna*): Justizia da zuzenbidearen helburua erromatar garaitik. Hau da, bakoitzari berea ematea, ona eta txarra bereiziz. Erregeerreginen justiziaz ari garenean edo testu hauetan justizia aipatzen denean, justizia publikoaz ari dira hitz egiten, edo, gutxienez, monarkiak zuela justizia banatzeko eskubidea bakarrik (edo bere ordezkariek edo monarkiarengandik eskubide hori jaso zutenek), feudalismoaren justizia pribatuaren garaia gaindituz (jaunek egiten zutena, koroa eta estatu publikoaren botere nagusi hau usurpatu ostean). Zalantza hor dago, justizia publikoa da berriro ala erregeak gizarte feudalaren buru moduan zeukan eskubidea justizia egiteko aginte gorena zelako. Ondorioa antzekoa da; izan ere, koroaren eskuetara itzuli nahi zen justizia egiteko eskubidea eta betebeharra, eta oinarria, berriro, Antzinateko erromatar zuzenbidean bilatu zen (berriro erresuma osorako lege orokorren nahia Alfontso X.aren *Siete Partidas* bezalako legediek bultzatu zuten XIII. mendetik Gaztelan, adibidez).

Legizamon: Bizkaitar jatorriko familia, Etxebarrin zuena oinetxea. Etxe batzuk zituen inguruko herri eta hiribilduetan, hala nola, Bilbo Zaharrean eta Somera kalean, Bilboko hiribilduan. Beste familia garrantzitsu batzuekin elkartu ziren ezkontza bidez, Arbolantxatarrekin, hain zuzen. Haien errenten artean, Begoñako elizako patronatoa eta Boluetan zituzten burdinolak zeuden[381].

381. Hau bezala aztertu beharko lirateke familia-izen guztiak, baina lekua aurrezteko horrela utziko dugu.

letrado, *abogado del concejo*: Legeetan jakituna izanik, kontzejuari bere auzietan kontseilatzen eta laguntzen dion ofizio edo karguduna.

ligas: Elkarteak, askotan etsaien aurka egiteko mota desberdinetako jaunen artean egiten zirenak.

linajes: Leinuak, familia zabalek osatzen zituzten dinastia edo taldeak. Horiek elkartuta sortzen zituzten bandoak.

llamamiento: Deia, kasu honetan leinuek egindakoa laguntza eske edo eraso bat egiteko kide bila.

malos: *Malhechores feudales* zentzuan uler daiteke, hots, nekazari eta hiribilduen kontra erasoak eta bortxa erabiltzen zituzten jaun feudal eta haien gizonak. Haien helburua errentak eta harrapakinak lortzea zen.

monipodios: Helburu gaiztoekin egindako elkartea.

moradores: Biztanleak, leku batean bizi direnak (auzokide izan gabe).

mortuorios: Kasu honetan hiletak, hildakoa lurperatzeko egiten diren prestaerak, *honra* eta ezkontzen kasuan egiten den moduan. Beste esanahi bat da despopulatutako herria, hustua edo abandonatua izan dena.

muro: *Cerca* ere deitzen zitzaion, hesia, hiribilduaren gune urbanoa markatzen zuen eta zurezkoa edota harrizkoa izan zitekeen (hasieran zurezkoa egiten zen —hesia— eta denborarekin, eta egoera ekonomikoa hobetzen zen heinean ere, harriz eraikitzen zen —harresia—). Ateak izaten zituen sartzeko, gauez, normalean, itxi egiten zirenak babesteko. Hiribildu edo hiriaren babesa izaten zen, beraz, kanpoko indarkeria-erasoetatik, baina baita gaixotasunetatik, suteetatik... ere. Aldi berean hiribilduaren sinboloa da eta, horregatik, agertzen da armarrietan (bera edo bere ateak sinbolizatzen dituzten giltzak); aldi berean, fundazio-gutunean ageri diren pribilegioak ezartzeko gunea markatzen zuen sinbolikoki, eta bere jurisdikzioa, kontzejuarena, nahiz eta gero inguruan lurralde bat izan.

naturales: Jatorriari dagozkionak, bertakoak. Batzuetan jaunei lotuta ager daiteke ("jaun naturalak"), berezko jaunak direnak.

oficio: Kontzejuko kideek dituzten lanak edo ardura-postuak, oro har: alkate, errexidore, fidel, eskribau eta zinpeko edo *jurado*enak dira, gehituko zaizkio letratua edo abokatua eta prokuradore sindikoa eta probestua (ikus *preboste*). Bigarren mailakoak ere baziren: pregoilaria, jabegoen zaindariak, ateetako giltzak zituztenak, kontzejuaren patronato peko elizen maiordomoak…

Oñaz, Ganboa: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Bandoen Gerran parte hartu zuten bi talde, alderdi edo bando nagusiak, hauen barruan hainbat leinu edo familia zeuden, batzuetan aldatu ere egiten zirenak interesen arabera. Oñaztarren buruzagi nagusiak Muxika-Butroetarrak ziren Araba eta Bizkaian eta Lazkaotarrak eta Loiolarrak Gipuzkoan; eta ganboatarrenak, Olaso-Ganboatarrak

Gipuzkoan, Abendañoarrak Araban eta Bizkaian, eta Gebararrak Araban eta Gipuzkoan. Ez dago garbi haien jatorria non dagoen. Gartzea Salazarrek bere *Bienandanzas e Fortunas* liburuan jasotzen duen tradizioaren arabera (Rodríguez Herrero, 1984), prozesioetan kandela-eskaintzak nola eraman behar ziren eztabaida izan zen zatiketaren arrazoia. Batzuek uste zuten kandelak behetik eraman behar zirela (oinetan, beraz, oñaztarrek) eta besteek goian (ganboatarrek), baina hau ipuina baino ez da.

ordenanza: Ordenantza erakunde baten funtzionamendurako lege edo arautegia da, kasu honi dagokionez, hiribildu baten ordenantzak eguneroko bizitza, karguak zeintzuk diren, nola hautatzen diren eta zeintzuk diren haien funtzioak, justizia nola banatu, hornikuntza ziurtatu, bizikidetza, erlijiozkotasuna, jai-egunak, etab. arautzen ditu. Normalean, hiribilduko kideek egiten dituzte, haien kontzejuko kargudunek eta auzokideen ordezkariek eta gero haien jaunari (erregeari) baieztatzeko eskatzen diote.

pintor: Margolaria, pintorea, margotzeaz bizi den artisau edo eskulangilea. Kontzejuan aritzeko maisua izango zela pentsa genezake, hau da eskulangile-ofizioaren hierarkiako maila altuena, tailerburua.

preboste: Probestua, kontzejuaren aginduak eta batez ere zigorrak betearazteaz arduratzen den ofizioa. Normalean erregeak hautatzen zuen zuzenean eta zerbitzu baten truke emandako mesedea izan ohi zen. Zinpekoekin lan egin behar zuen teorian, bera ere aguazil antzekoa izanik.

Príncipe: Joan, Fernando eta Isabelen lehen semea eta oinordekoa. 1478an jaio zen Sevillan eta gazterik hil zen Salamancan 1497an. Margarita emaztea haurdun utzi zuen, baina umea hilda jaio zen.

procurador síndico: Prokuradore sindikoa, hiribilduaren ordezkaria da, kanpoko instituzioekin edozein tratu, auzi edo ekintza egin behar zenean bidaltzen zena. Hasieran prokuradorea hiribilduko edozein auzokide edo kontzejuko ofizioen kide izan zitekeen, denborarekin fidelek hartu zuten lan hau, eta azkenik, izen berezitudun ofizioa sortu zen, nahiz eta hiribildu batzuetan fidelek betetzen jarraitu zuten funtzioa.

privilegios: Pribilegioak (ikus *villa*).

quadrillas: Koadrilak, jende taldeak ziren, zerbait egiteko elkartzen zirenak. Ospakizunetarako izan zitekeen, baina kasu honetan, leinuek bultzatutako ekintzetarako bildutako jende taldeak lirateke, eta armatuak (norbait erasotzeko, lapurtzeko…) deituraren menpe.

regidor, *regimiento*: Errexidoreak, erreximentua, hiribilduari zegozkion ofizio eta karguduna, alkateei laguntzen diete justizia-banaketan eta hiribilduari dagozkion antolamendu, arazo eta bizimoduaz erabakiak hartzen dituzte. Erreximentua, errexidoreen bilera edo multzoa da, baina kontzejuaren sinonimo gisa ere erabiltzen da, eta beraz, alkatea agertzen den bilerari ere deitzen zaio. Alfontso XI.ak sortu zuen hiribilduak eta hiriak antolatzeko modu hau XIV. mendean, baina pixkanaka zabaltzen joan zen. Suposatzen

da kontzejuko erabakiak talde horretan hartuko zirela bereziki. Bizkaiko hiribilduetan XV. mendean zabaltzen ari zen oraindik. Bizkaian XVI.ean ere horrela deituko zaio Lur Arrunt edo Irekiko eta hiribilduetako batzarrei edo juntei, diputazioaren bidean aurrekaria delarik.

republica: *Res publica*tik datorren hitza, hots, aginte publikoari dagokiona. Feudalismoaren une anarkikoaren ostean, pixkanaka, monarkiak gizartearen hierarkiaren erpinean berrezartzea lortu zuen, baina botere publikotik baino, areago, botere eta lotura pribatuaren bitartez. Halere, Antzinateko eta Antzinate Berantiarreko estatuaren terminologia eta ideia aurrean zutela, beren boterea berezkoa zela adierazi nahian, berriz hasi ziren botere publikoari zegozkion hitzak edo terminoak erabiltzen, gorago aipatutako jaun natural gisa onartua izatearen bidetik.

roido (ruido): Istilua.

Santiago eliza (eta San Anton eliza): Santiago eliza Bilboko eliza nagusia zen hiribilduaren harresien barruan, San Anton lehenagokoa dela dirudien arren. Bi parrokia ziren, hots, sakramentuak banatzen zituzten eliza nagusiak.

seguro real: Erregearen babesean, bere justiziaren menpe eta jaun feudalen boteretik kanpo.

señores naturales: Berezko jaunen figura monarkia feudalarekin sortu zen. Monarkiarenganako mendekotasuna justifikatzeko erabili zen, esanez, erregearen nagusigoa ez zela soilik tratu pribatuen bidez egindakoa (feudalitatearen ondorioz), baizik eta, erresuma bateko biztanleak, han jaiotzeagatik bakarrik, erregea zutela haien jauna, jaun naturala, berezkoa.

Tenientea (alkate, kartzelazaina): Ordezkoa, karguduna falta denean bere papera egiten edo betetzen duena; haren ordezkaria ere izan daiteke korrexidoreak bere ordezkaria duen moduan Durangoko merindadean.

terminos de la villa: Hiribilduaren barrutia eta lurraldea, hiribilduak gune urbanoaz gain izaten zuen lurraldea bere inguruan. Tokiaren arabera tamaina handiagokoa edo txikiagokoa izan ohi zen, eta Euskal Herrian ez ziren oso handiak izaten oro har (egun batean egin zitekeen ibilaldia izaten zuten barrutiak). Bertan izaten zituen hiribilduak erabili ahal zituen basoak eta larreak. Lurralde horretan aplikatzen zen bere jurisdikzioa eta gutuneko pribilegioen muga ere. Bilboren kasuan, gainera, 1483an bertan Isabel erreginak lurraldea zabaltzeko eskubidea eskaini zion hiribilduari, nahi beste zabal zezan barrutia, inori kalterik ez egiteko baldintza bakarrarekin[382].

Tierra Llana: Lurralde Irekia edo Arrunta, Bizkaiko jurisdikzioa zuen lurra da, hiribildurik ez zuena, eta Behe Erdi Aroan elizate edo elizaurre izeneko herriek osatzen zutena. 1452an idatzi zen bere Foru Zaharra eta 1526an Foru Berria.

382. Enriquez *et al.* (1999b), 157. dokumentua, Santo Domingo de la Calzadan, 1483ko abuztuaren 24an, originala desagerturik eta kopia 1526koa da (Labairuk ere argitaratu zuen).

tregua: Erasoak geratzea etsaien artean aldi baterako. Baina kasu honetan ez erasotzearen ezaugarriaz gain, aliantza-zentzua dauka, *atreguados* dira elkarri ez erasotzeko hitzarmena dutenak eta elkarri lagunduko diotenak besteen kontra ere; nolabait, hitzaren jatorrizko esanahiari lotuta, *triggwa* hizkuntza gotikotik dator eta 'akordioa' esan nahi du.

vecinos: Auzokideak, etxea duena eta horregatik hiriko foruak emandako pribilegioak gozatzen dituena (ofizioetan parte hartu, etab.). Biztanleak ez dituen pribilegioak ditu.

villa: Hiribildua, errege-erreginek eta jaunek fundatutako herri mota, fundazio-gutuna (hiri-gutuna edo forua ere deitua) izaten dute, zeinetan hiribilduak dituen pribilegioak eta betebeharrak zehazten diren. Normalean, gutun horrek feudalismoaren usadio txarrak eta prestazio gogorrenak kentzen zituen, merkataritza bultzatzen zuen, barrutia eta justiziaren banaketa nork eta nola egin behar zen zehazten zuen, antolaketa administratiboa auzokide talde batek eramaten zuela zehazten zuen, Penintsulan kontzejua izaten zen (Alfontso XI.aren garaitik *erreximentua* deitzen zena kargudunen izen eta izaerarengatik). Pribilegio hauek guztiak populatua izan zedin bultzatzeko ematen ziren. Hiribildu hauek Europa osoan XII. mendetik aurrera gertatzen den hirien berpizkunde-aldiari lotuta daude, baina Euskal Herrian fundazio-arrazoi desberdinak izan ziren. XI. mendearen bukaeran eta XII. mendearen hasieran fundatu zirenak musulmanei kendutako lurretan populazio kristaua bultzatzeko eta erakartzeko egin ziren ("birpopulazio" deitu dena) edo Donejakue Bidea bultzatzeko (sarri jatorri frankoko populazioak ekarriz Pirinioez bestaldetik). Ondoren, arrazoi geo-estrategikoek bultzatuta sortu ziren, Gaztela eta Nafarroako koroen artean zeuden lurraldeak eskuratzeko nahiengatik mugetan edo lurralde batean errege-boterea indartzeko. Kostaldera zihoazen bideetan merkataritza bultzatzeko, artileak iparraldeko lurraldeetara joateko Mesetatik Kantauri itsasora egin behar zuen bidean (ardatz ekonomiko berria osatuz). Azkenik, XIV. mendearen bigarren erdialdean fundatu ziren azkenak, batez ere, nekazariak babesteko Bandoen Gerrako jaunen erasoetatik.

Zurbaran: Jatorria nobletutako merkatari-familia batean zeukan Bilboko Erdi Aroko leinu nagusietako bat.

Hitz historiko batzuk aztertu ostean, testuaren edukiaren laburpena eta azterketa egitea dagokigu.

Kapitulatuaren hasierako azalpenean esaten da hiribilduan gertatu ziren istilu eta heriotza eta zaurien arrazoia leinuen arteko liskarrak izan zirela (Oñaz eta Ganboa bandoen arteko istiluak, oro har, eta zehazki bertako leinuen artekoak: Legizamon, Basurto, Zurbaran, Arbolantxa eta *Bilbao la Vieja*). Bando horiek Ahaide Nagusien menpe zeuden eta gainerako biztanleak behartzen zituzten bandoetan sartzera haien bizitza eta ondasunak arriskuan jarriz. Horren ondorioz, Erregeak eta Erreginak agindu zuten ordenantza hau, bandoak desegiteko eta jendea

haietatik urruntzeko, denak bat izan zitezen hiribilduan: hots, «todos sean unanimes».

Horrela, agindu zuten lehen kapituluan, Bilbon jendea ez zedila izendatu bandoen deiturengatik, ez aipatuengatik ez beste batzuengatik, eta egiten ziren kofradia bakarrak helburu erlijiosoekin egindakoak izan behar zutela. Horrela, biztanle guztiek bat egin behar zuten errege-erreginen justiziarekin. Gainera, laguntza eman behar zuten errege-justizia hori aurrera eramateko. Horretarako, Bilboko auzokide eta biztanle guztiek zin egin behar zuten sakratuan (Santiago elizako aldarearen aurrean, gurutzearen eta ebanjelioen gainean) ez zirela inoiz ere bandoetako kide izango, ez Bilbon, ez Bizkaiko konderrian edo Enkarterrin; ez zituztela bandoak sortuko eta ez zirela haietan elkartuko (ez kofradia, ez ospitale, ez koadrilatan, aitzakia baitziren bandoak sortzeko); ez zirela haien deialdietara joango, ez zakuratze ez istiluetara ez armadetara, ez eta ezkontza edo bestelako taldeko elkartasun-ekintzetara (kohesioa eta familia-loturak sortzen zituzten ezkontzak, hiletak…) eta ez zirela inongo zaldun edo ezkutarirengana joango laguntzera, ezta hiribildu, hiri edo lekutara. Ez zirela Ahaide Nagusien edo bandoen tregua, enkomienda, liga edo aliantzatan sartuko promes egin behar zuten, guztiak errege-ziurtasunaren mendeko izanez. Alegia, haien jaun bakarrak errege-erreginak izango zirela eta ez beste inongo jaunik (jada koroa jaun ligioa edo solidoa izatea baino harago doa, jaun garrantzitsuena ez eze, bakarra ere bihurtu baitzen, azkenean gorago aipatu dugun mendekotasun naturalaren ideia guztiz garatuz, eta monarkia absoluturantz doana, eta, beraz, Aro Berrirantz).

Horrela, aurrez egindako omenaldi, promesa, kapitulu, zin egiteak utzi behar zituztela promes egin behar zuten (nahiz eta zituzten aurreko loturak haustekotan zigortuak izango zirela zin eginak izan), zeren haiek usadio txarrak ziren eta ohitura edo usadio onen aurkakoak, eta herrialdearen onerako (lotura guztiak hautsiz beste jaunekin) egin behar zuten. Ondorioz, lehengo itunak gordetzeko obligaziorik ez zuten gehiago izango eta gordetzen bazituzten bekatu egiten zutela ezarri zen kapituluetan (errege-erreginen aurka aritzea, Jainkoak ezarritako berezko jaunen aurka egitea baitzen). Horretarako, errege-erreginek zin eta lotura horietatik aske egin zituzten auzokide eta biztanle haiek eta beren ondorengoak (kontuan izanik zin haiek garai hartan zuten garrantzia ohorea lotzen baitzuten, baina, gainera, bizibidea mantentzeko ere bidea bazen bandokide izatea eta haien babespean egotea eta aritzea, eta ez bakarrik gizon armatuentzat, leinuen eraginagatik karguak zituztenentzat ere, etab.).

Zin berri hau errege-erreginen nahiaren kontra hautsiz gero, edota haren aurka eginez gero, “mal caso” deituan eror zitezen eta hilak izan zitezen agindu zuten, errege-erreginen zerbitzari ez izateagatik eta bakearen eta herrialdearen on komunaren etsaiak izateagatik (hau da, traizioa egiteagatik). Gainera, zigor fisikoaz gain, beren ondasun guztiak galduko zituzten. Ondasun horietatik erdia errege-erreginek Granadako musulman nazartarren aurka zuten gerrarako izango zen;

laurden bat Santiago eta San Anton elizen konponketetarako (Bilboko elizak) eta azken laurdena Bilboko hiribilduaren harresi, zubi eta beste beharrizanetarako. Zigorra horrela banatzea ohikoa izaten zen, hiribilduko eraikin nagusien konponketetarako zati bat utziz (elizak eta harresia normalean, harriz eraikita eta garestienak izan ohi zirenez), eta beste partea koroaren ganbararen fiskoak jasotzen zuen, gorterako (jaun gorena zenez eta, aurretik esan den moduan, justiziaren garantea eta egile nagusia).

Hala ere, kapitulu honen zigorretik salbuetsita geratzen ziren, baldin Bilboko auzokide eta biztanleak Bizkaiko Lurralde Arruntaren edota beste hiribilduen edo hirien kontzejuari laguntzera joaten baziren, errege-justizia babestearren eta Bilboko kontzejuak deituta. Kasu horretan, haiek eta hango jendeak (hiribildu eta elizateetakoak) babestera taldean joateko eskubidea zuten, erregearen aurka indarkeria baliatzen zuten zaldun edo gizon boteretsuen aurka; baina, betiere, bando gisa joaten ez ziren bitartean. Istilua Bilboko hiribilduan bertan izanez gero, bakea ezarri behar zuten auzokide eta biztanleek, eta justiziaren aurrera eraman bake-hausleak, zigorra ezartzeko.

Bigarren lekuan agintzen zen hiribilduaren kontzejuak eskubidea zuela behartzeko hiribilduko edozein auzokide edo biztanle zin egitera, kontzejuak eskatzen zionean (bandoetan zebilela susmagarria zelakoan). Ez bazuen egiten eskatu eta seigarren egunerako, inongo sententzia edo agindurik gabe auzokidetasuna galtzen zuen eta, ondorioz, ezin zituen hiribilduko pribilegioak eta askatasunak gozatu eta ofizioak izan. Beste hiru egun igarotzerako hiribildutik eta bere lurralde-barrutitik atera beharra zeukan deserriraturik. Bertan geratzen bazen edo berriro sartzen bazen, lehenengoan hiribilduan zeukan etxea botako zitzaion (galaraziko ziona auzokide izateko aukera eta bere pribilegioak izatea, ondasuna galtzeak zekarren kalteaz gain, jakina barkamena eskatuta besteak beste, orubearen garrantzia adierazten diguna). Ez bazeukan etxerik hiribilduaren hesiaren barruan, barrutian zeukana eta, ez bazeukan, 100.000 marabedi ordaindu behar zituen. Bigarren aldian, gainera, bere ondasunen erdia galduko zuen; hirugarrenean bere ondasun guztiak (mugikor eta mugiezinak), zin-hauslearen erara banatuz (delitu hori egindakoen ondasun konfiskatuekin egin ohi zen moduan[383]); eta, dena den, hiribildura sartzen bazen, kartzelan sartua izango zen zorrak kitatu arte eta fidatzaileak (bermelariak / berme-emaileak) eman beharko zizkion kontzejuari, inoiz ez zela berriro sartuko ziurtatzeko.

Hirugarren aginduaren arabera zina ez egiteagatik kanporatua izan zenak, damututa, zina egin nahiko balu (onartuz kontzejuak ezarritako baldintzak), zina egin ahal zuen, eta, behin eginda, kontzejuak bere auzokidetasuna itzuli ahal zion. Baina zin egin gabe sartu zelako zigortua izan bazen, ezin zitzaion itzuli ondasunik eta ezin zitzaion itzuli auzokidetasuna zigor denak ordainduta izan arte.

383. Ikus gorago nola ezarri zuten kapitulu-bilduman bertan.

Laugarren tokian dio ofizioen urteroko aukeraketa ohi zenez pribilegioetan egin ordez (alkatetza, fidelak, erreximentua[384], kontzejuaren eskribau edo idazkaria, zinpekoak edo zinegotziak), bandoen arabera egiten zela pribilegioa usurpatuz, eta Henrike III.a erregeak emandako aginduaren kontra eta Joan II.a haren semeak emandako pribilegioen aurka.

1399an Henrike III.ak emandako sententzia izan zen Legizamon familiakoen kexaren ostean hartutakoa. Bertan erabakitzen zen Zurbaran eta Basurto familiek hautatu ohi zituztela txandaka hiribilduko kontzejuko karguak, legizamondarrak aparte utziz (azken horiek ere txandaketan parte hartzeko eskubidea izanagatik, pribilegioa baitzuten horretarako Henrike III.arengandik jasoa 1395ean[385]). Legizamondarrek egindako kexaren ostean, erregeak agindu zuen hiruren artean banatzeko karguak. Hau da, ez ziren bandoak galarazten edo bando bidezko hautaketa galarazten, baizik eta bandoko partaideen kopurua handitzen zen bitik hirura (Enríquez *et al.*, 1999a: 137-145[386]). Baina Bilbokoak kexatu ziren esanez, hiribilduaren fundaziotik kontzejuak jartzen zituela ofizialak eta, orduan, erregeak korrexidorea bidali zuen egia zein zen ikuskatzera 1396an[387]. Horrela, Gonzalo Moro korrexidoreak aztertu zuen ea Legizamonek zioen moduan ala kontzejukoek zioten moduan hautatzen ziren ofizioak ohituraz[388]. Ondorioz, Moro-k agindu zuen kontzejukoek hautatu behar zituztela ofizialak, Legizamonen aurka sententzia emanez, lekukoak entzunda jakin zuelako hautaketa egiten zela kontzejuan bilduta (pregoilariaren deiaz) hiribilduko ofiziodunak eta gizon onak (*omes buenos*); eta, han, hautatzen zituztela ofizioak, bi bando horietakoak izan ala ez izan, egokiak: «*sino tanto que fuesen omes buenos e pertenesçientes [ezabatua]*». Sententzia hau Legizamonek apelatu zuen, baina erregeak bere kontseilukoei entzunda berretsi egin zuen eta betearazlea egin. Beharbada sententziaren bukaera ezabatua egotea adierazgarria izan daiteke[389].

Joan II.ak ere behartu zituen 1435ean alkate bakarra, bandokidea ez zena, hautatzera, ordura arte bi baitzeuden bandoka Basurto, Zurbaran, Legizamon, Arbolantxa, Anuntzibai eta Barraondo familiakoek hautaturik (Enríquez *et al.*, 1999a: 248-271[390]).

384. Errexidoreek osatzen zutena, alkateari lagunduz.

385.1395ko azaroaren 16an Madrilen emana.

386. 46. dokumentua.

387.1396ko urtarrilaren 24an Sevillan emandako aginduaren bidez.

388. Ikuskaketa egin bitartean zeuden kontzejuko ofizialak mantendu ziren erregearen izenean agindu zezaten Bilbon erabakia hartu arte, eta zegokien soldata ordaindu behar zitzaiela karguan ziren arte.

389. Testuaren beste kopiarik agertu arte, ez dakiguna.

390. 68. dokumentua. 1435eko ekainaren 10ean Valladoliden, originala dago baina 1562an egin zen pribilegioen liburutik dago transkribatua. Dokumentuan, Joan II.ak, bere emazte Maria eta seme Henrikerekin batera, konfirmatu zuen, berak emandako legedi bat. Legedi hori egin zen Bilboko kontzejuko kideek (alkateak, prebosteak, errexidoreek, fidelek), zaldunek, ezkutariek, ofizialek eta

Ondorioz, bandoak eta leinuak aukeraketatik kanpo uzteko agintzen zuen Chinchilla-ren kapitulu-bildumak, Errege-erregina *Katolikoe*n gustura izan zedin, haien nahia eta justizia betez eta hiribilduaren onerako. Beraz, ez zen kontuan hartu behar nongoa zen bakoitza edo Ahaide Nagusien enkomiendarik (babesik edo gomendiorik); baizik eta hautatzaile izan behar zutenek ordenantzen arabera aukeratu behar zituzten hautagaiak, hau da, pertsona egokiak eta baliozkoak aukeratu behar zituzten, era askean. Hautatzaileek hori guztiori egingo zutela zin egin behar zuten, kapitulu hauetan ageri ziren eta egin behar zituzten beste zinez gain, edo bestela ezin izango zuten inor hautatu edo balio gabe geratuko zen hautaketa.

Behin zin eginda, haren aurka eginez gero (hautaketa bandoak jarraituz eginez gero), perjuro izendatuak izango ziren eta hiribilduaren etsai gisa deserriratuak izango ziren betiko. Horrez gain, ezin izango zuten ohore eta ofiziorik izan bertan eta, aldi berean, ondasunen erdia galduko zuten (erdia Santiago eta San Anton elizen konponketarako eta beste erdia hiribilduaren beharretarako). Horrela, hautaketa balio gabe geratzen zen eta ordenantzen araberako aukeraketa berria egin beharko zen, ordezko hautatzaileak jarrita. Zigorra aplikatu behar zen, hautatzaileek jakinda hautatzen zituztenean bandoetako kideak. Ez bazekiten, ez zitzaien zigorrik jarriko, baina hautaketa balio gabe geratuko zen berdin-berdin eta berriro egin beharko zen. Beraz, ziurtatzen zuten hautaketa bandorik gabe egitea, hautatzaileak horretara zin egitera behartuz.

Bosgarren lekuan esaten zen handik aurrera hiribilduak hogeita bost diputatu edo ahaldun izango zituela, haietatik zazpi kale bakoitzeko bana kontzejuan egon behar ziren, ofizialen hautaketa egiteko eta errexidoreek eskatzen zieten gauza guztietan; eta haiek ere zin egin behar zuten errexidoreek bezala. Gainera, pertsona egokiak hautatu behar ziren diputatu izateko, bandoetakoak izan gabe ere eta ofizioetarako esan zen moduan. Eta beste hemezortzi diputatuak justiziari laguntzeko izan daitezela, eta bandorik gabe aukeratuak ere bai eta "buenas personas"[391] errege-erreginak zerbitzatzeko; azken hemezortzi diputatu horiek alkate, errexidore

gizon onek egindako eskaeraren aurrean, bakea egiteko auzokideen eta biztanleen artean, erregeari baieztatzeko eskatua. Kapituluak erregeak eman zituen, baina Pero Gonzalez Santo Domingokoa doktoreak, erregearen korrexidorea zenak Bizkaia eta Enkarterrin, egin zituen Bilboko hiribilduko zenbait auzokiderekin (horretarako hauatatuak izan ziren) eta sinatu zituzten haiek eta frai Pedro Cereceda maixuak eta Iohan Santxez Leongoa eta Iohan Martinez Zearrakoa, eskribauek. Kapituluak egin ziren Bilboko leinu eta bandoen artean zeuden istilu eta heriotzengatik azken 20 urteetan (Legizamon bandoaren eta besteen artean: Basurto, Zurbaran, Arbolantxa, Martin Santxez Barraondokoa eta Martin eta Diego Anunzibaikoak zirenak). Horregatik bandoetan sarturik ez ziren hiribilduko kontzejuak, gizon onek eta auzokideek eskatu zuten bakean bizi nahi zutela. Horretarako erregeak bidali zuen Pero Gonzalez doktorea korrexidore eta ikuskatzaile moduan, eta haren bidez esandako moduan kapitulatua eginarazi zuen eta bandoburuak gortera deitu zituen. Horrela idatzi ziren kapituluetan esaten zen: bandoen arteko istiluak geratzeko bakeak frai Pedro Cerecedakoa maixuak egin zituela, zin eginaraziz bakealdia eta erregeari eskatu zitzaion baieztatzeko eta betearazteko bake hori.

391. *Boni homines*en parekoak, aitoren semeak (kapareak) agian.

eta fidelek hautatuak izan behar ziren, bi eskribauekin eta beste ofizioak hautatuak ziren garaian.

Hurrengoan dio kontzejuan edonor ez zedin sartu eta han gertatzen zenaren sekretua hobeki gorde zedin, kontzejuaren bileran egon zitezkeenak ziren: alkatea, probestua, fidelak eta errexidoreak, kontzejuko eskribauak, kontzejuko letratu edo abokatua eta gorago aipatutako diputatuak. Beste inork egon edo sartu nahiko balu, aipatutako ofiziodunek ez liekete utzi behar, eta, hala ere, sartu nahiko balute, zigortuak izango lirateke erresumako legeen arabera. Kapitulu honek adierazten du, kontzeju itxia zela, auzokide guztiek parte har zezaketen antzinako kontzeju irekiaren ordez. Itxira ofizialak joan zitezkeen bakarrik eta kontzejuaren oligarkizazio-prozesuaren lehen pausua izan zen (hurrengoa izan zen ondasun kopuru gutxieneko bat izatea).

Zazpigarrenean zioen jaun batekin bizi zenak, edo berarengandik *acostamiento* (lo egiteko lekua) edo *quitacion* (soldata) izango balu, ezin zuela alkate, fidel, errexidore, eskribau edo diputatu (ez zazpietakoa ez hemezortzietakoa) izan, ez bazen haien jauna erregea, erregina edo printzea. Eta ez bazen betetzen, balio gabe geratuko zen hautaketa eta ofizioa kenduko zitzaion. Hala ere, ofizioa erabiltzen bazuen, zigor gisa 10.000 marabedi ordaindu behar zituen kontzejuarentzat eta berria hautatu behar zen. Eta hura jaun baten menpe zela zekien ofiziala ere, kargutik kendua izan behar zen, beste bat hautatua, beste 10.000 marabedi ordaindu behar zituen eta ezin izango zuen inoiz ere ofiziorik izan. Berriro ere, koroaren mendeko ez zen jauna zuenari ofizioak izatea ukatzen zaio kapitulu honetan, bandoen menpe izan ez zedin eta inongo jaunen mendekotasunik izan ez zezaten kontzejuko kargudunek.

Zortzigarrenean dio, Joan erregeak sinatutako ordenantza zaharretan zetorren moduan, inongo biztanlek ezin zuela baleztarik atera edo borroka edo istilurik, ezarritako zigorren pean; bandoen arazoengatik ez zen betetzen, eta, ondorioz, heriotza, haserre eta zauri asko izan ziren. Ondorioz, berritu zen ordenantza, eta gehitu zitzaion inongo istilu edo borrokatan hiribilduaren barruan edo errebaletan balezta, espingarda edo beste suzko armarik aterako balu norbaitek eta beste pertsona bati tiro egingo balio, eskuineko eskua publikoan moztu beharko zitzaiola; inor zaurituko balu, heriotza-zigorra jasoko zuen, zauritua hiltzen ez bazen, eta zauritua hiltzen bazen, *alevoso*aren heriotza izango zuen (traidorearena, zigorrik txarrena izaten zen eta lotsagarriena). Salbuespena zen, hiribilduaren eta bere auzokide eta biztanleen babeserako armak ateratzea, errege-erreginen justiziaren aurka zetorren kanpoko jendearen aurka bazen edo hiribildua hartzera edo hango jendea zauritu eta hiltzera zetozen jaun boteretsuen (Ahaide Nagusien edo beste jaunen) aurka. Kasu horietan ez zuen zigorrik jasango, baina justiziak dioenetik harago joaten baziren defentsan, orduan, zuzenbidearen zigorra jasoko zuten.

Auzokideek eta biztanleek ezin zuten kanpoko inor sartu hiribilduan, hiribilduaren defentsarako ez bazen (aurreko kapituluan agertutako justiziazko kasuetan), bestela hori egiten zuena hamar urterako erbesteratua izango zen hiribildutik, zuzenbidearen zigorra jasotzeaz gain, bere ondasunen herena galduko zuen (hiribilduaren harresi eta zubiak konpontzeko eta elizen fabrikarako erabiliko zena), ordenantzek agindutako moduan peskisak edo ikerketak eginez horretarako.

Azkenik, hiribilduko justiziak erbesteratutako pertsonek ez bazuten euren barrutitik alde egiten (justizia horri mespretxu eginez) edo hiribilduaren gertu geratzen baziren (errebaletan) eta auzokide eta biztanleen kontra kalterik egiten bazuten (esanez, ezin zituztela han preso hartu eta justiziaren barrutia ez zirela errebalak) neurriak hartu beharrean egongo ziren. Horren ondorioz, istilu ugari izaten zirenez Bilbon, zalantzarik izan ez zedin, hiribilduko alkateak eta beste justiziek errebaletan edo hiribilduaren jurisdikzioan zebilen edonor erbestera zezaketen, hiribildutik nahiz Bizkaiko konderritik (egindako kaltearen arabera). Gainera, erbestera zitzaketen *Alama*n zerbitza zezaten (musulmanen aurka) edo beste mugetako gaztelu batean[392]. Eta erbesteratze hauek hausten zituztenak zigortuak izan behar ziren eta, beharrezkoa bazen, errege-erreginek konfirmatzea eskatu ahal izango zuten edo korrexidorearengana bidali ahal izango zituzten. Gainera, Bizkaiko ermandadeak eta Bilboko hiribilduko justiziek eskatuta, beste edozein lekutako justiziek preso hartu behar zituzten, ondasunak bahitu eta preso bidali Bilbora (gastuak erbesteratuaren kontura edo ez bazegoen nondik kobratu, kontzejuaren kontura). Betetzen ez zuenak ofizioa galduko zuen eta bere ondasunen herena errege-ereginen ganbara eta fiskoarentzat izango zen.

Ideia nagusiak laburbiltzen baditugu, esan behar dugu, testuaren egileak Chinchilla lizentziaduna eta hiribilduaren ordezkariak direla, errege-erreginen aginduz eta horretarako Chinchilla ordezkari moduan bidalita epaile gisa (korrexidorearen ordezko figura bat zen *juez pesquisidor* zelakoa).

Koroaren izenean kapitulu-bilduma edo ordenantza egin zuten, bandoen aurka, hiribilduko ofizio edo karguetatik kanpo gera zitezen, eta karguak gutxitzeko (alkate bakarra biren ordez, adibidez) eta ziurtatzeko hiribilduko auzokide izateagatik jasoko zituztela karguak eta ez bandokide izateagatik. Ondorioa, garbia da,

392. Antzekoa gertatu zen 1456an desafioa egin zietenean Gipuzkako hiribilduei, lehenengo behartu zituzten bandoak uzteko eta hurrengo urtean erbesteratuak izan ziren Ximena eta Esteponara musulmanen aurka egitera 1457an, nahiz eta gero barkatuak izan ziren 1460an. Zehatzago ikusteko ikus: Martínez de Zaldibia, J. (1944): *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas,* Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia; Dalmases, C. (1977): *Fontes Documentales de Sancto Ignatio de Loyola,* Monumenta Historica Societatis Iesu 115, Institutum Historicum, Erroma; Orella Unzué, J. L. (1983): *Cartulario real de Enrique IV a la Provincia de Guipúzcoa (1454-1474),* Fuentes medievales documentales del País Vasco 2, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 13. eta 19. dokumentuak; eta Orella Unzué, J. L. eta Recalde Rodríguez, A. (1988): *Documentación real a la Provincia de Guipúzcoa. Siglo XV.* Tomo I, Fuentes medievales documentales del País Vasco 13, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 23. dokumentua.

teorian kanpoan utzi zituzten, horretarako justiziaren indar guztia aplikatu zuten, koroaren babesarekin eta bere mendeko justizia guztiarekin (eta zigor gogorrenak ere aplikatu ahal zituzten).

Hala ere, ez dugu ahaztu behar, askotan, bandoetan zeuden nobleak zirela hiribilduetako karguetan jarraituko zutenak, baina nolabait "birziklatuta", hau da, egoera berrira egokituta, auzokide boteretsu gisara. Horrela, gertatu zen Arbolantxa eta Legizamon familiekin Bilbon R. Porres-ek (1998: 627) argi dioen moduan, zeren oligarkia berrian sartu baitziren, nahiz eta talde berriekin erdibanatu behar izan zuten boterea. Ondorioz, J. R. Díaz de Duranarekin (1985: 220) ados dago, zeren Chinchilla-ren erreformaz azken egile horrek egiten duen interpretazioa da aitoren semeek ez zutela onartu hasieran, jatorri noblekoak ez ziren kideak sartzen zirelako horrela ofizioetara. Izan ere, dio egile berak, Arbolantxatarrek onartu zuten lehenengo, berez nobleak izan gabe, merkataritzarekin lortutako irabaziek nobletutako familia zirelako (Guiard eta Basas-i jarraiki). Baina J. R. Díaz de Duranak azpimarratzen duen moduan, azkenean, aitoren semeen familia garrantzitsu guztiek onartu zituzten kapituluak eta sinatu (Zurbaran, Legizamon eta Basurtoek, hau da, kapitulu-bilduma haien kontra eginda egon arren), integratzeko berriro hiribilduko oligarkian eta ofizioak izaten jarraitzeko. Ondorioz, leinuetako kideek ofizioak izaten jarraitu zuten, baina oligarkia berriko kideak onartu behar izan zituzten, ofizioak eta boterea banatuz. Hori izan zen aldaketa nagusia.

J. R. Díaz de Durana (2004d: 167), R. Porres (1998), E. García Fernández (2004: 270) eta beste egile batzuk harago doaz; horien ustez, ezertan geratu zen erreforma, zeren bandoak azkenean instituzionalizatu egin ziren, eta, beraz, funtzionatzen jarraitu zuten izenez ere (ez bakarrik ezkutuan), hiribilduan eta, batez ere, probintzian.

Bestalde, gizarte-talde desberdintzat hartzen ditugunen arteko banaketa, hots, Ahaide Nagusiek, zaldunek eta ezkutariek osatzen zuten taldearen (nobleena) eta hiribilduko biztanleek (burgesia, noble ez zena) osatutako taldeen arteko banaketa faltsua izan daiteke, leinukide askoren jatorria Bilbon merkataritzan baitzegoen (gorago esan bezala, adibidez, Arbolantxa edo Zurbaran familiena), eta, gainera, 1526tik aurrera, Foru Berriarekin, guztiak ziren aitoren seme[393]. Desberdintasuna zetzan, beraz, hiribilduaren oligarkia zabaltzean eta, beraz, karguetan sartzea lortu zuten ala ez.

Gainera, planteatzen da arazoak nobleek sortzen zituztela, bandoetan zatituta baitziren, Behe Erdi Aroan krisialdian ohi ziren gatazken artean koka dezakeguna. Ahaide Nagusiek gidatutako bandoez ari da testua. Bi bando handi zeuden Oñaz eta Ganboa bandoak, eta horrela aipatzen dira (orokorrak, nolabait), baina Bilbon

393. Horrek bizkaitar denak aitoren seme bihurtu zituen. Gehiago jakiteko ikus Díaz de Duranaren (2004d) sintesi laburra.

gatazketan parte hartzen zuten familiak zehazki aipatzen ditu ondoren: Legizamon, Arbolantxa, Basurto, Zurbaran eta Bilbao la Vieja.

Bandoek, testuaren arabera, sortzen zituzten arazoak batez ere bi ziren: bortxakeria-istiluak (borrokak, gatazkak…) eta hiribilduaren boteregunea ziren kontzejuaren karguak monopolizatu eta banatzeko ohitura, beraien boterea handitu eta sarrerak lortzeko.

Horretarako, nobleek beste biztanleak behartzen zituzten batzuen edo besteen alde, haien biziak eta ondasunak arriskuan jarriz. Ondorioz, errege-erreginek bilatu zuten bilbotarrek beren burua hiribilduaren bidez identifikatzea, ez leinu edo bando bateko edo besteko kide moduan. Bada, hiritarrak ziren eta lotura ez zen handik aurrera odolkidetasuna izango, lurraldetasuna edo hiribilduak eskaintzen zuen auzokidetasuna baizik (eta horrek zituen pribilegioak eta betebeharrak). Jaun bakarra onartuko zuten: errege-erregina bikotea eta mendekotasuna eta aginduak haiengandik jasoko zituzten bakarrik. Erresumaren barruko boterea indartzea eta kontrola haztea zen kapitulu hauen helburua, beraz, korrexidorearen figurarekin batera, urtero egiten zituzten kontrol fiskalekin-eta indartuko zena (Enriquez *et al.*, 1990).

Ez hori bakarrik, Chinchilla-ren lehen kapitulu-bildumari, 1487an bigarren batek jarraitu zion; G. Monreal-en (1973: 196-197) ustez, oso garrantzitsua izan zen (aurrekoa baino efektiboagoa seguru asko), hiribilduak Batzar Nagusietan boteretsuago bihurtu zituelako Lurralde Ireki edo Arruntaren mailaraino gutxinez, aparte biltzeko eskubidea eman baitzien. Horrela, Batzar Nagusietan, handik aurrera, hiribilduak haien kontura biltzen ziren eta, Lurralde Arrunta berera, eta soilik biei zegozkien kontuetan biltzen ziren elkarrekin. Ondorioz, biak parean izango ziren, leinuei indarra kenduz (Lurralde Arruntean baitzeukaten boterea bereziki), hiribilduetako biztanleei ordura arte zutena baino indar handiagoa emanez (beraiei ez ezik, erregearen boterea ere hazi zen, hiribilduak bere meneko izanik).

Hiribilduko kideei ere abantailak ekarriko zizkien errege-erreginen justizia onartzeak, ekonomia indartzeko lagundu baitzuen, leinuen arteko gatazkak ahaztu (berez haien interesak ez zirenak utziz) eta protagonismoa hartuz hiritar eta auzokide moduan Bilboko hiribilduaren kontzejuaren karguetan edo ofizioetan (botere-esparrua[394]). Aldi berean, bakeak eta kontzejua sendo izatean merkataritza garatzen lagundu zuen.

Gatazkaren konponketa egiteko lehen pausua leinuen mendekotasuna eta zinak haustea izan zen errege-aginduz, erresumako agintari nagusi moduan. Behartu zituzten Bilboko hiritarrak zin egitera sakratuan, elizan (agintea zuten eta izen ona zuten bereziki, gero nahi zuena ere libre zen egiteko), ez zituztela bando eta leinuak sortuko eta ez zirela haiekin bilduko (liga, aliantza, zin,

394. Eta gero probintzian ere.

kofradia[395], bestelako kohesionatzaileen bidez), inori kalte egiteko (zakuraketa, eraso, istilu…).

Galarazi zen zenbait armaren erabilera, balezta eta su-armak, batez ere, hilgarrienak[396]. Zigor handiak, gatazkak sortzen zituztenak zigortzeko (eskuineko eskua moztu edota heriotza lotsagarria *de alevoso*). Bakarrik onartzen ziren armak kanpoko erasoetatik hiribildua babesteko (koroaren alde egiteko erasotua zenean). Armak galarazten ziren leinukideek haien istiluetan eta beste auzokoen kontra erabil ez zitzaten, populazioa babesteko eta indarkeriaren monopolioa koroaren esku uzteko.

Kanpotarrak hiribilduan sartzea galarazten zen, leinukideek izaten zituzten talde armatuak galarazteko. "Gaizkile" profesionalak izaten ziren, mertzenarioak bezalakoak. Beste herrietatik etorritako leinukideak ere izan zitezkeen. Kanpoko laguntzaileak ere bakarrik onartzen ziren hiribildua kanpoko erasoetatik babesteko.

Hala ere, badirudi, kapituluek gorabeherak izan zituztela juridikoki ere (eta ez bakarrik praktikan bete zirelako edo ez). Ematen du, hurrengo urteetan korrexidoreak izendatzen zuela alkatea (Enriquez *et al.*, 1990), 1504an berriro Chinchilla-ren kapituluen arabera egitera behartu baitzuen Joana erreginak. Baina aldaketak ez ziren hortan geratu, zeren 1544an Karlos I.ak behin betiko errexidoreak sortu zituen Bilborako eta, haiek, ofizioak bandoen bidez hautatzeko ordenantzak egin zituzten berriro. Azkenik, 1549an kendu egin ziren eta ordenantza berriak egin ziren, Chinchilla-ren kapituluen araberako hautaketa egitea ezarriz berriro, A. Mañaricúa-k jaso zuenez (Porres, 1998: 629).

Beraz, esan genezake, uste baino eragin gutxiago izan zuela testuak. Ezin zaio bere garrantzia ukatu, hala ere, Bizkaiko beste hiribilduetara eta Logroñora edo San Vicente de la Barquerara zabaldu baitzen ofizioak hautatzeko sistema hau (Díaz de Durana, 2004d: 166-167), eredua ezarriz (Bizkaian egokitu egin zen hiribildu bakoitzera, eta sarri behin eta berriro errepikatu zen agindua, iruzurrak egiten zirelako, Durangon gertatzen zen moduan).

Koroaren esku-hartzea kontzejuen barne-antolaketan boterea zentralizatzeko nahi bat izanik eta, aldi berean, bere mendeko jurisdikziokoak diren esparruak hobeto kontrolatu nahian, kanpoko beste botereak baztertzeko ahalegina (nobleak, jaunak) izan zen. Azken batean hiribilduak beren jaunarenak dira, fundatu dituenarenak eta haren ondorengoenak, kasu honetan Bizkaiko jaunarenak, baina

395. Kofradien inguruan bazen dokumentu bat, galdu egin dena, Santo Domingo de la Calzadan, 1483ko abuztuaren 24an koroak emana, zeinetan hiribilduaren erreximentu-bileretara sartzea eta aginduak ematea galarazten zitzaien Bilboko Santa Maria, Santiago, San Nikolas, San Migel eta San Sebastian kofradiei. Jakin beharko litzatekela bandoekin harremanetan zegoen agindu hau, seguru asko bai, baina zoritxarrez testua galdu egin da. Bere aipamena Fuentes Documentales medievales, 95, 156. dokumentua da.

396. Eta oso nobleak ere kontsideratzen ez zirenak, gainera, urrutitik borrokatzen zenez haiekin.

errege-erreginen eskuetara iritsi ziren, Bizkaiko jaun-andre titulua eskuratu orduko; ondorioz, errege-jurisdikzio pekoak ziren, eta ez zuten onartu nahi nobleziako kideek haien botereko lekuan ingerentzia edo sarraldirik egiterik.

Ofizioak, ustez, antzinako pribilegioan zetorren moduan hautatu behar ziren, bandoek desegin zutena berrezarriz. Horrela, bandoen iruzurra kentzen zen, haien arabera ez zutenez egiten hautaketa. Horretarako hautatzaile batzuk egongo ziren, hautagaiak hautatuko zituztenak. Hautatzaile izateko zin egin beharko zuten kapitulu-bilduma, edo bestela ordezkatuak izango ziren. Tarteko bidea deitu izan zaio horri, oligarkia zabaltzen baitzuen bandoetako kide ziren leinuetatik kanpo (Porres, 1998: 632).

Hautagaiak ere bandoei jarraitu gabe hautatu beharko zituzten, pertsona egokiak hautatuz (bandokide ez zirenak eta kargurako egokiak zirenak beren ezagutza, izaera eta kalitateagatik, suposatzen da). Hautatzaileek hautagai bandokideak hautatuz gero, hautaketa ezerezean geratzen zen eta hautatzaileak zigortzen zituzten baldin bazekiten hautatuak bandokide zirela; ezin zuten ofizio gehiagorik eduki, ohorea galtzen zuten baita ondasunen erdia ere. Azkenik, kaleko ordezkari gisa eta laguntza moduan diputatuak aukeratzen ziren.

Kontzejua, itxi bihurtu zen eta sekretua. Bertara joan zitezkeenak kontzejuko kargudunak ziren bakarrik: alkatea, probestua, fidelak eta errexidoreak, kontzejuko eskribauak, kontzejuko letratu edo abokatua eta gorago aipatutako diputatuak. Beste auzokiderik ez, beraz, kontzeju irekiaren figura desagertu zen Bilbon. Asmoa garbia zen, boterearen monopolioa erabakietan kargudunek izatea, goitik kontrolatzeko errazagoa zena; zeren bilera irekia izango balitz, edonork parte hartu ahal izango zuen, horrela, bandokideak kanpoan uzten ziren (ikusi dugu ez dela egia azkenean), baina, bide batez, beste auzokide batzuk ere (denborarekin elite bat sortu zen karguak monopolizatuko zituena, eta ohikoa da garai hartan, pixkanaka artisau taldeak desagertzea kontzejuko ofizioetatik).

Bestalde, hiribilduko justiziei eman zitzaien botere irekia (berez bazuten, baina idatziz zehaztu eta azpimarratu zen) erbesteratzeak egitean, ez bakarrik hiribildutik kanpora, baizik eta Bizkai osotik ere bai (justiziako delitu gorenak ere epaituz, beraz, Bizkaiko jaunaren izenean eta bere ordez). Horretarako eskumena zeukaten zona urbanoan ez eze, barruti osoan ere.

Bukatzeko, egunerokotasunean islatuta geratzen da erlijioak zuen garrantzia zinak elizan egiten baitziren eta ordenantza publiko honen aurka egitea erlijioaren aurkako bekatua baitzen (bandoko kide izateaz dioen moduan lehen kapituluan). Eta ez bakarrik egunerokotasunak, botereak ere zeukana, errege-agindu baten aurka egitea Elizaren eta Jainkoaren aurkakoa zen, horrek zeukan pisu psikologikoarekin populazioaren gainean[397].

397. Gai honetan sakontzeko ikus: Nieto Soria, J. M. (1988): *Fundamentos ideológicos del poder real en Castilla (XIII-XVI)*, Eudema, Madril.

Gizartearen kohesioa ere ikus daiteke bandoen aurka egitean leinuekin elkartzeko galarazten diren gauzen artean: kofradietan biltzea (ez baziren erlijiosoak), ezkontza, hileta eta urteurrenetara joatea… Odolkidetasunarekin batera, pertsonen artean loturak sortzen zituzten ekintzak ziren, taldekidetasuna sortuz, bai bandoetan, bai auzokideen artean edo bestela. Zina zen lotura pertsonalik sendoena, horregatik galarazi ziren bandoei egindakoak eta ezerezean utzi (baliorik gabe), eta, ostera, behartu zuten jendea zin berri bat egitera haien aurka. Feudalismoaren ondorioa da, lotura pertsonaletan oinarritzea edozein ekintza edo erabaki publiko ere. Eta zinak zigorra zekarren ez bazen betetzen: bekatua erlijioaren kontra edo isuna (zigor publikoa), zina "ona" bazen (ikusi dugunez, bandoei egindakoak haustea beharrezkoa egin baitzen).

Zigortzeko beste modu bat erbesteratzea zen eta, kasu askotan, gerrara bidaltzea jendea, horrela kartzela aurrezten zen (mantenua ordaintzea oso garestia baitzen, normalean norbait preso harrarazten bazen, zorrengatik edo, akusazioa egindakoak ordaindu behar zuen presoaren mantenua —agian, lehen egunetan soilik botere publikoak egiten zuen—), eta erabilera praktikoa ematen zitzaion. Horrela, memento hartan Errege-erregina *Katolikoe*k martxan zuten gerra hegoaldean musulmanen kontra, Granada hartzeko eta hara bidaliak izaten ziren. Kontuan izanik, gainera, bandoen gatazketan parte hartzen zutenak armatutako taldeak zirela, gerran profesionalak nolabait esateko, irteera "normala" da. Aldi berean, pertsona hauen agresibitatea kanalizatzeko modua zen, kanpora zihoan (erresuma barruan egon beharrean istiluak sortzen) eta helburu politikoak betetzen zituen (erresuman sortzen zuten arazoa eliminatuz eta konkistatu nahi zen lurraldea lortuz). Joaten zirenei, bestalde, barkamena edota aberastasunak eta ondasunak lortzeko modua ematen zieten trukean egindako zerbitzuek. Ohikoa izan zen jarrera hau koroaren aldetik "birkonkistaren" garaian (baina XVI. mendearen bukaeran ere galeretara bidaltzen zituzten oso zaila baitzen "besoak" lortzea horren lan gogorra egiteko).

Zigorretan, bestea, auzokidetasuna eta ofizio publikoetan ezin parte hartzea da, ikusi dugu definizioetan auzokide izateak zer esan nahi zuen eta, ondorioz, azpimarra dezagun haren galerak zeukan garrantzia, besterik gabe.

Barkatua izateko aukera ere ematen zitzaien, botereak aukera eman nahi zielako integraziora ahal zen neurrian. Hori zen Errege-erregina *Katolikoe*n politika nagusia, ahal zela bakea ezarri, haserretu gabe (zigortzen zenean oso gogor egiten zen arren), aldeko fidelak lortzeko, barkamena lortzen zuenak betiko zorra baitzuen barkamena emandakoarekin, bereziki bere pribilegioak berreskuratzen bazituen saritzat. Horrela, auzokidetasuna itzuliko zitzaien barkamena eskatu eta zin egiten zutenei, jakina, zigor guztiak bete eta ordaindu ondoren, inolako zigorrik gabe gera ez zedin bere jarrera.

Laburbilduz, testua ulertzeko konparatu egin behar da hiribilduaren fundazio-gutunarekin, 1300ean[398] Diego Lopez Harokoak emandakoa. Testu horretan Logroñoko forua eman zitzaion Bilbon egin zen hiribilduari; gainera, gutun hauetan ohi zenez, ohitura txarrak kentzen zizkion hiribildu berriari eta bere mugak finkatzen ziren; horrez gain merkataritzarako eskubideak ezartzen dira; elizaren errentak erdibanatzen ziren Santa Maria Begoñakoa eta Santiago Bilbokoaren artean (zeinen hamarrenen zatiarekin geratzen zen jauna, jaun moduan). Baina ez da ezer esaten ofizioen aukeraketaz, ohikoa izaten zena garai hartako hiri-gutunetan (Monreal, 1974), beraz, zuzenean ez zuen eraginik gure testuarekin.

1483ko abuztuan Isabel I.ak konfirmatu egin zituen hiribilduaren foruak[399], eta agindu zien bere lehen semea zen Joani eta beste nobleei bete zitzatela, baina ez zuen handitu pribilegioen izaera. Urte bereko irailean Isabel erreginak Bizkaira egindako bidaian hiribilduetako eta Lurralde Irekiko foruak zin egin zituen Bilbon, besteak beste[400]; zina Tenderia kaleko atariaren aurrean zen plazan egin zuen erreginak, bere idazkaria zen Alfontso Avilakoa eta hiribilduko errege-eskribaua zen Pero Ortiz Leurakoa, eta kontzejuko alkatearen, fidelen, errexidoreen, zaldunen, ezkutarien eta *omes buenos* direlakoen aurrean, zeintzuek eskatu zioten zina beren eta *labradores* nekazarien izenean. Zin egin zuen gurutzearen gainean, eta lekukoak izan ziren bere gorteko jauna zen Alfontso Aragoikoa, Villahermosa dukea, eta zaldun hauek: Gutierre Cardenaskoa, Leongo komendadore nagusia, Gonzalo Chacón komendadorea, erreginaren kontseilukoak eta kontadoreak zirenak, eta Joan Alonso Muxikakoa, Gonzalo Gomez Butroekoa, Tristan Legizamon, Martin Saez Aranakoa eta Pero Otsoa Aranakoa, eta Bilboko beste ezkutari eta gizon on ugari. Handik egun batzuetara beste dokumentu bat egin zuen baieztatzeko aurrez printzesa zela egindako pribilegioen onespena (1473an)[401].

Bada, testuaren jatorria, dudarik gabe, Bilbon aurretik zeuden bandoen kontrako lege eta arautegiak dira (goian aipatu ditugunak), baina badirudi beraz,

398. Valladoliden 1300eko ekainaren 15ean. Dokumentu honen kopia ugari daude, originalaz gain. Horrez gain, Balpardak, Tomás González-ek, Guiard-ek, Iturrizak, Labairuk (bi aldiz, bere *Historia General del Señorío de Vizcaya*n eta 1900ean urteurrenagatik egindako *Cuadernoa*n duen artikuluan) eta Concepción Hidalgo de Cisneros Amestoy eta besteek Fuentes Documentales Medievales sailean 9. zenbakiaz duten Colección documental del Archivo General del Señorío de Vizcaya izenekoan ere ageri da, 1. dokumentua, Fernando IV.a erregeak 1301ean emandako onespen eta merkataritza-pribilegioak gehitzen ditu. Guk erabilitako kopia bilduma berdinean dagoen Fuentes Documentales Medievales 90. zk., 1. dokumentua, 1.-3. or.

399. Santo Domingo de la Calzadan, 1483ko abuztuaren 24an, guk darabilgun kopia Enriquez *et al.* (1999b) liburuan datorrena da, 155. dokumentua, Pribilegioak kopiatuta dauden liburutik ateratarakoa, eta 1562an egindakoa da.

400. Bilbon, 1483ko irailaren 5ean, Eusko Ikaskuntzaren Fuentes Medievales Documentales del Páis Vasco 95, 157. dokumentua, 1498ko kopia batetik jasoa; baditu beste kopiak eta Guiard-ek ere jasota du.

401. Bilbon, 1483ko irailaren 15ean, pribilegioen liburuko kopia 1562an egina, Fuentes Medievales Documentales del País Vasco 95, 158. dokumentua.

testu honen jatorria, 1476an Gasteizen egin zen erreforman bilatu behar dela, testuak berak dioen moduan (Díaz de Durana, 1982, 1984 eta 1985), testu horrekin konparatzea egokia izan liteke[402].

Azkenik, egoera honetara iristeko, eta testu hauek bultzatu zuten egoera ulertzeko (jaunen bortxakeriaz ari bagara), beharbada, Markina hiribilduaren fundazioan esaten denarekin konparatu behar da. Hiri-gutun horretan ikusten da, alde batetik, inguruko (Markinako) aitoren semeek eskatutako gutuna dela, eta zenbait baldintza ere eskatzen zizkiotela Bizkaiko jaun fundatzaileari (On Tellori). Pribilegioaren truke, petxero eta manupeko edo mendeko basailu izango zirela (jaunari zerga ordainduko ziotela eta gerran eta lagunduko ziotela babes instutzionalaren truke). Horrez gain, emandako lurraldea babesteko konpromisoa hartzen zuten eta eskatutako errentak eta baldintzak betetzekoa (elizaren zergetatik parte bat ematea jaunari, urteroko kantitate finko bat izango zena, pribilegioa eman aurreko urteko errentan oinarritzen zena, behin ordainketa finkatuta edo enkabezamentua egin eta gero, hurrengo urteetan gehiago ematen bazuen hiribildukoentzat izango zen; bestalde, ezin ziren hiribildura bizitzera joan jaunaren mendeko petxeroak, batez ere nekazariak, berak mendekorik eta errentarik gal ez zezan, baina kanpokoei etortzea baimentzen zitzaien). Jaunak eskaintzen zien hiribildua egiteko baimena, izena eman zion: *Villaviciosa de Marquina*; gainera, Bilboko forua ematen zien lurralde bateko barrutia ematen zien (mendiak zehaztuz nondik nora izango ziren) eta 12 urtez barkatzen zizkien zergak hiribildua egin ahal izateko, ondoren bere mendeko eta petxero bihurtzen ziren (ez du esaten *pedido*rik, hots, urteroko kantitatea, jaunari ordaintzen zitzaiona zerga edo petxa moduan hiribildu osoaren izenean, edo auzokide bakoitzak ordaindu behar zuen petxarik edo monasterioaren errentarekin konformatzen zen). Eliza gisa bera, jaunarena zen monasterio bat eman zien (Elorriorekin egin zen moduan garai antzekoan), eliza eraiki beharrean hiribilduan, hori da Santa Maria Xemeingan deitzen duena (Xemein).

Hiribildua sortu nahi izateko arrazoia izan zen harana gipuzkoarrei irekita eta babes gabe egotea. Handik sartzen ziren hondamendiak egitera, Behe Erdi Aroko krisiari dagokion moduan bortxakeria eta lapurretak handiak ziren, mugako arazoak sortuz jaurerri eta probintziaren artean (Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugan gertatu zen moduan), eta jaunek beren errentak gutxitzean egindako erasoen testuinguru orokorrean. Beraiek diote gutunean bertan, beraz, XIV. mendean ohiko eta nagusi den arrazoia dela Euskal Herrian, ez hainbeste merkataritza bultzatzea, baizik eta populazioa babestea bortxakeria-garaian[403].

402. Luze joko lukeenez lan xume honetan, kontuan izan bitez horretarako emandako erreferentziak.

403. Hona hemen zatirik esanguratsuena: «Sepan quantos este previllegio vieren, como yo, don Tello, […] porque los fijodalgo de la meinadd de Marquina me mostraron e dijeron por escrito que cada acesce que los de la tierra de Guipuzcoa querian entrar a robar e a furtar a tierra de Vizcaya que non havia ortro lugar por do entrar sino por el campo que dicen de Aspilza, que es en el valle de Marquina, por la qual dicha etrada havian entrado por muchas veces en los tiempos pasados fasta

Testuaren garrantzia bandoen gerraren amaierako prozesua ulertzeko eta hiribilduak ezagutzeko handia da, beste lekuetan ere izan zenarekin konparatzeko ere balio baitu, nahiz eta praktikan ez zen guztiz bete espezialistek dioten moduan. Hala ere, oso testu luzea da iruzkin oso zehatza egin ahal izateko eta zatika aztertzea litzateke egokiena, seguru asko.

BIBLIOGRAFIA

Basas Fernández, M. (1975): "La Institucionalización de los bandos en la sociedad bilbaína y vizcína al comienzo de la Edad Moderna", in *La sociedad vasca rural y urbana en el marco de la crisis de los siglos XIV y XV: II Simposio que tuvo lugar en la Biblioteca Provincial de Vizcaya,los días 23, 24 y 25 de marzo de 1973*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 115-160.

Bois, G. (2001): *La Gran Depresión medieval, siglos XIV-XV: el precedente de una crisis sistémica*, Biblioteca Nueva, Madril.

Dacosta, A. F. (1999): "«De donde sucedieron unos en otros». La historia y el parentesco vistos por los linajes vizcaínos bajomedievales", *Vasconia*, **28,** 57-70.

————, (1999): "Patronos y linajes en el Señorío de Bizkaia. Materiales para una cartografía del poder en la Baja Edad Media", *Vasconia*, **29,** 21-46.

————, (2003): *Los Linajes de Bizkaia en la Baja Edad Media: poder, parentesco y conflicto*, EHU, Bilbo.

Díaz de Durana Ortiz de Urbina, J. R. (1982): "La Lucha de bandos en Vitoria y sus repercusiones en el Concejo, (1352-1476)", in *Vitoria en la Edad Media (1º Congreso de Estudios Históricos 1981 Gasteiz)*, Gazteizko Udala, Gasteiz, 477-500.

————, (1984): *Vitoria a fines de la Edad Media, (1428-1476)*, Azterlanak 2, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

————, (1985): "La reforma municipal de los Reyes Católicos y la consolidación de las oligarquías urbanas: el capitulado vitoriano de 1476 y su extensión por el nordeste de la Corona de Castilla", in *La Formación de Álava. Comunic*aciones: *Congreso de Estudios Históricos (2ª. 1982. Vitoria-Gasteiz)*, Gasteiz, 213-236.

————, (1994): *Álava en Baja Edad Media a través de sus textos*, Fuentes Medievales Documentales 54, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

aqui los de la tierra de guipuzcoa, e havian fecho muchos robos e furtos e fuerzas e muchos males e daños en los mis basallos e en la mi tierra de Vizcaya; ansi que por esta razon havia havido mui gran mal […] e hiermamiento e destruimiento en la dicha mi tierra, e que si yo tobiese por vien, […] feciesen e pobalsen una villa en el dicho Campo de Aspilza […] que bedarian que non entrase por el dicho lugar fijosdalgo nin otros homes ningunos de tierra de Guipuzcoa a robar […]» (García de Cortazar *et al.*, 1979: 107-108).

————————, (arg.) (1998a): *La lucha de bandos en el País Vasco: de los parientes mayores a la hidalguía universal. Guipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV a XVI)*, EHU, Bilbo.

————————, (arg.) (1998b): "Historia y presente del tratamiento historiográfico sobre la lucha de bandos en el País Vasco: balance y perspectivas al inicio de una nueva investigación", *La lucha de bandos en el País Vasco: de los parientes mayores a la hidalguía universal. Guipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV a XVI)*, EHU, Bilbo, 21-46.

————————, (1999a): "Violencia, disentimiento y conflicto en la sociedad vasca durante la Baja Edad Media, la lucha de bandos: estado de la cuestión de un problema historiográfico", in *Violencia y conflictividad en la sociedad de la España bajomedieval*, Universidad de Zaragoza, Zaragoza, 27-58.

————————, (1999b): "Luchas sociales y luchas de bandos en el País Vasco durante la Baja Edad Media", *Historiar*, **3,** 154-170.

————————, (2001): "Linajes y bandos en el País Vasco durante los siglos XIV y XV", in *Semana de Estudios Medievales (La Rioja) (11ª. 2000. Nájera). La familia en la Edad Media : XI Semana de Estudios Medievales, Nájera, 31 de julio al 4 de agosto de 2000*, Instituto de Estudios Riojanos, Logroño, 253-284.

————————, (2002): "Las Luchas de Bandos en el País Vasco durante la Baja Edad Media", in J. R. Díaz de Durana Ortiz de Urbina eta I. Reguera (arg.), *Lope García de Salazar: banderizo y cronista: actas de las II Jornadas de Estudios Históricos "Noble Villa de Portugalete" (2000)*, Portugaleteko Udala, Portugalete, 13-28.

————————, (2004a): *La otra nobleza, escuderos e hidalgos sin nombre y sin historia: historia e hidalguía universal en el País Vasco al final de la Edad Media (1250-1525)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

————————, (2004b): "La crisis de la sociedad feudal: Lucha de bandos y conflictos sociales en el País Vasco (siglos XIV-XV)" in P. Barruso eta J. A. Lema Pueyo (koord.), *Historia del País vasco. Edad Media (siglos V-XV)*, Hiria, Donostia, 405-441.

————————, (2004c): "La crisis de la sociedad feudal. Las Luchas de Bandos", in J. Agirreazkuenaga (zuz.), *Historia de Euskal Herria: Historia General de los Vascos: 2: De la Romanización a la conquista de Navarra (siglo I-XVI),* Lur, Bilbo, 335-365.

————————, (2004d): "La hidalguía universal en el País Vasco. Tópicos sobre sus orígenes y causas de su desigual generalización" *Cuadernos deAlzate*, **41,** 49-64.

Enríquez Fernández, J.; Enríquez Fernández, J. C. eta Sesmero Cutanda, E. (1990): "Política real y control municipal en Vizcaya durante el reinado de los Reyes Católicos: (1476-1516)", *Cuadernos de sección. Historia-Geografía*, **15,** 27-39.

Enríquez Fernández, J.; Hidalgo de Cisneros Amestoy, C. eta Martínez Lahidalga, A. (1999a): *Colección documental del Archivo Histórico de Bilbao: (1300-1473)*, Fuentes Medievales Documentales del Páis Vasco 90, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 46 eta 68. dokumentuak.

————, Hidalgo de Cisneros Amestoy, C. eta Martínez Lahidalga, A. (1999b): *Colección documental del Archivo Histórico de Bilbao: (1473-1500)*, Fuentes Medievales Documentales del País Vasco 95, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 102, 153, 157, 158, 160 eta 163. dokumentuak.

Estornes Lasa, B. (zuz.). (1968-): *Enciclopédia General Ilustrada del País Vasco*, Auñamendi, Donostia <http://www.euskomedia.org:8080/euskomedia_es/index.jsp>

Fernandez de Larrea Rojas, J. A. (2004a): "Crisis y recuperación del mundo agrario en el Páis Vasco", in P. Barruso eta J. A. Lema Pueyo (koord.), *Historia del País vasco. Edad Media (siglos V-XV)*, Hiria, Donostia, 377-403.

————, (2004b): "La población y sus actividades económicas durante la Baja Edad Media", in J. Agirreazkuenaga (zuz.), *Historia de Euskal Herria: Historia General de los Vascos: 2: De la Romanización a la conquista de Navarra (siglo I-XVI),* Lur, Bilbo, 335-365.

García Fernández, E. (1998): "Les Ordonnances électorales au Pays basque: systèmes de contrôle du pouvoir municipal aux XIVe et XVe siècles" in *Actes du 120e Congrés National des Sociétés Historiques et Scientifiques, Aix-en-Provence, 1995, La ville au Moyen Âge, II*, Editions du CTHS, Paris, 159-175.

————, (2004a): "Herejía y disidencia religiosa en el Norte de la Península Ibérica en el siglo XV: Alonso de Mella y los herejes de Durango", *Heresis*, **41,** 75-94.

————, (2004b): *Gobernar la ciudad en la Edad Media: Oligarquías y elites urbanas en el Páis Vasco*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

García de Cortázar, J. A. (1966): *Vizcaya en el siglo XV: aspectos económicos y sociales*, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo.

————, (2000): "Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en los siglos XIII a XV: de los valles a las provincias", *Nazioarteko Eusko Ikaskuntzen Aldizkaria (RIEV)*, **45-1,** 197-234.

García de Cortazar, J. A.; Arizaga, B.; Martínez Ochoa, R. Mª eta Ríos, Mª L. (1979): *Introducción a la historia medieval de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en sus textos*, Txertoa, Donostia.

García de Cortázar, J. A. *et al.* (1984): *Bizcaya en la Edad Media*, Haranburu, Donostia [4 liburuki].

García de Salazar, L.: *Las bienandanzas e fortunas: códice del siglo XV,* Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo [Argit.: Angel Rodríguez Herrero].

Goihenetxe, M. (1999): *Historia General del País Vasco*, Ttarttalo, Donostia.

Guiard Larrauri, T. (1971): *Historia de la noble villa de Bilbao*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo,1. liburukia, 139-151.

Hidalgo de Cisneros Amestoy, C.; Lagarcha Rubio, E.; Lorente Ruigómez, A. eta Martínez Lahidalga, A. (1986): *Colección Documental del Archivo General del Señorío de Vizcaya*, Fuentes Medievales Documentales del País Vasco 8, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 37. dokumentua.

————, (1987): *Colección Documental del Archivo Municipal de Portugalete*, Fuentes Medievales Documentales del País Vasco 12, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 7 eta 8. dokumentuak.

Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa (1998), Donostia Klaudio Harluxet Fundazioa.

Labairu Goikoetxea, E. J. (1968): *Historia General del Señorío de Vizcaya*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, III. liburukia, 343 eta hurrengoak.

Lur Entziklopedia Tematikoa: Euskal Herriaren Historia (1998), Lur, Donostia.

Monreal Cía, G. (1973): "El Señorío de Vizcaya. Origen. Naturaleza jurídica. Estructura institucional", *Anuario de Historia del Derecho Español*, **43,** 113-206.

————, (1974): *Las instituciones públicas de Vizcaya*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

Pérez, J. (1997): *Isabel y Fernando, los Reyes Católicos*, Nerea, Madril.

Porres Marijuan, R. (1998): "Oligarquías urbanas, municipio y corona en el País Vasco en el siglo XVI", in J. Martínez Millán (zuz.), *Felipe II (1527-1598). Europa y la Monarquía Católica*, *tomo II: Economía, Hacienda y Sociedad*, Parteluz, Madril [2. liburukiaren koordinatzaileak: J. Bravo Lozano eta S. Madrazo], 625-644.

Real Academia Española (1992): *Diccionario de la Lengua Española*, Espasa, Madril.

Sarasa Sánchez, E. (1991): *Las Claves de las crisis en la Baja Edad Media*, Planeta, Bartzelona.

Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

Eta tiro baltzari. Abertzaletasuna eta jauntxokeria Bermeon
Mikel Aizpuru
1990ean argitaratua
ISBN: 84-86967-22-8

Historia: Zientzia ala literatura? Historiari buruzko gogoeta sorta
Pruden Garzia eta Iban Zaldua
1995ean argitaratua
ISBN: 84-86967-66-X

Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan
Karmele Artetxe (arg.)
2001ean argitaratua
ISBN: 84-8438-016-5

Ikerketa berriak Euskal Herriko historian
Jurgi Kintana eta Karmele Artetxe (arg.)
2002an argitaratua
ISBN: 84-8438-027-0

Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgintzan. Hasierako urteak 1973-1984
Mikel Aizpuru Murua
2003an argitaratua
ISBN: 84-8438-041-6

Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikuluak

Hezkuntza Gasteizen XIX. mendean
Agirre, Jaione, *Uztaro* **24**, 29-47.

Aditzaren aspektuaz edo gaztelaniazko orainaldi historikoaren baliagarritasuna euskaraz
Agirre, Jaione, *Uztaro* **41**, 15-26.

Abertzaletasuna Araban: Legutianoko jelkideak XX. mendearen lehen herenean
Aizpuru, Mikel, *Uztaro* **39**, 53-61.

Aro Berriko Euskal Herriko itsas ekonomiaren historiaren egoera
Alberdi Lonbide, Xabier, *Uztaro* **52**, 9-32.

Frantziako iraultza: modernitate eta tradizionalismoaren artean
Aldekoa, Iñigo, *Uztaro* **0**, 21-35.

Eliza, euskal abertzaletasuna eta Ameriketarako erbesteratzea. Ikuspegi orokor bat. (1898-1940)
Alvarez, Oskar, *Uztaro* **13**, 69-86.

Esklabo iraultzak erromatar errepublikaren krisialdian: gizarte gatazken eredu bat
Alvarez Pérez-Sostoa, Denis, *Uztaro* **36**, 25-39.

Kontrabandisten aurkako neurriak XVIII. mendeko Euskal Herrian: "leku sakratuen" desagerpena
Angulo, Alberto, *Uztaro* **21**, 45-67.

Arrantza-merkatuan Gasteizko merkatariek izandako partaidetza eta inbertsioak (XVII. mendearen hasieran)
Angulo, Alberto, *Uztaro* **28**, 37-58.

Makiak Euskal Herrian
Apaolaza, Urko, *Uztaro* **37**, 105-118.

Euskal Herriko inprentaren historia
Arana, Jose Antonio, *Uztaro* **12**, 37-53.

Basoa Euskal Herriko historian zehar
Aragón, Alvaro, *Uztaro* **29**, 28-38.

Enirio-Aralar mendietako abereen eta basoen ustiapena aro berrian zehar
Aragón, Alvaro, *Uztaro* **38**, 19-32.

Bengoetxeako Anbrosio. 1552-1625
Aranburu, Pello Joxe, *Uztaro* **20**, 17-69.

Demokrazia Heletan Frantziako iraultza aintzin
Arbelbide, Xipri, *Uztaro* **2**, 103-117.

Europa bakarra, Europa anitzak
Arregi, Joseba, *Uztaro* **15**, 55-66.

Goi paleolitoaren hasierako faseak
Arrizabalaga, Alvaro, *Uztaro* **1**, 53-75.

Frantziako kexu-koadernoen azterketa bat
Chueca, Josu, *Uztaro* **2**, 119-128.

Faxismoa Nafarroan 1936.az geroztik
Chueca, Josu, *Uztaro* 6, 77-87.

Faxismoa frantzian: 1918-1930.
Garzia, Pruden, *Uztaro* **5**, 31-45.

Meatzaritza nekazari-herri batean. 1844-1982
Gorrotxategi, Aitziber, *Uztaro* **45**, 3-27.

Europako langile-mugimenduaren protohistoria: Ingalaterrako eta Frantziako langile-elkarteak Erregimen Zaharraren bukaeran eta Aro Garaikidearen hasieran
Gracia, Juan, *Uztaro* **7**, 55-75.

Pobrezia eta gizarte laguntza XVIII. mendean Bizkaian
Gracia, Juan, *Uztaro* **14**, 3-20.

Bigarren Aintzina
Hernández, Amelia, *Uztaro* **15**, 37-53.

Erlijio eta politika Hego Europna Ikerketarako sei (adi)bide
Itzaina, Xabier, *Uztaro* **49**, 23-42.

Zuzenbide penalaren bilakaera historiko-doktrinala: Hamurabiren kodetik Hurgo Grtius-en teoriara
Jimeno, Roldan, *Uztaro* **51**, 25-43.

Nazionalismoaren historia eta ideologia
Kintana Goiriena, Jurgi, *Uztaro* **25**, 3-26.

Lehen gerra karlista bertsoen argitan. Foruak eta erlijioa hiz neurtuetan (1823-1840)
Kintana Goiriena, Jurgi, *Uztaro* **30**, 61-84.

Euskal federalismo foruzalea Seiurteko Demokratikoan (1868-1873)
Kintana, Jurgi; Alfaro, Iñaki, *Uztaro* **40**, 37-62.

'Irurac Bat' Konferentzien hezkuntza- eta kultura-proiektuak Artikulu osoa
Kintana, Jurgi, *Uztaro* **55**, 31-46.

Bizkaitar eta gipuzkoar nekazariak 1718ko matxinadan
Lamikiz, Xabier, *Uztaro* **33**, 21-41.

Erdi Aroko gizartea gaisotasunaren aurrean: erantzunak eta jarrerak
Lema, José Angel, *Uztaro* **18**, 17-39.

Aintzinako Erregimeneko herri baten giza ekonomi azterketa: Villaverde de Trucios, 1753 urtean
López, Ernesto, *Uztaro* **10**, 33-59.

1993: ELA, LAB eta CCOO sindikatuen ekintza bateratua
Lopez Abasolo, Patxi, *Uztaro* **46**, 11-39.

Duela 25 urte: subertsiorako unibertsitatea
López, Emilio, *Uztaro* **23**, 45-63.

Nazionalismoa eta bere teoria
Mees, Ludger, *Uztaro* **11**, 15-27.

Langileak ba al dauka aberririk? Euzko Langileen Alkartasuna sindikatuaren sorrera eta garapena
Mees, Ludger, *Uztaro* **11**, 29-36.

Paleolito ondorena Metal-arora arte Euskal Herrian
Mujika, Joxean, *Uztaro* **4**, 33-84.

Metal aroak Euskal Herrian. Eneolito, Brontze eta Burdin Aroa
Olaetxea, Carlos, *Uztaro* **1**, 77-103.

1610. urtea. Nafarroako sorginkeriaren mitifikazio maltzurrari buruz
Paul Arzak, Juaninas, *Uztaro* **43**, 17-51.

Hamarrenak Euskal Herrian: Calahorrako eliz barrutia XI-XIII. mendeetan
Riaño, Eugenio, *Uztaro* **8**, 35-52.

Euskal Herriko bilakaera geomorfologikoa
Ugarte, Felix M., *Uztaro* **4**, 25-31.

Euskal nazionalismo motak –nazioaren ikuskeraren arabera–
Zabalo, Julen, *Uztaro* **26**, 27-46.

Nafarroako sorginkeria berriro eztabaidagai
Zabala, Mikel, *Uztaro* **39**, 39-52.

Bilboko Erregimendua XVI. eta XVII. mendeen bitartean: bazterketa eta erresistentzia aurrez aurre
Zabala Montoya, Mikel, *Uztaro* **47**, 41-54.

Goi Aro Berriko Bizkaiko Jaurerriko Gobernuari buruzko hurbilketa
Zabala Montoya, Mikel, *Uztaro* **53**, 9-29.

Ekonomi historiaren historia: sarrera bat
Zaldua, Iban, *Uztaro* **6**, 59-75.